



Jose Insausti

Beti bertsoa buruan





Dozenaka bertso-sail eta eunka bertso aurkituko ditu liburu ontan irakurleak, Jose Insaustik etxeko ixiltasunean paperera ixuriak, sarritan prosazko adierazpen bat aurretik dutela.

Era ortan, gai-aukera aundia eskeintzen du: bere gora-beerak, etxekoenak, jaioterria, lagunak, Aitzgorri-mendia, erri-kiroletako joko eta apustuak, Euskal-Eria, txapelketak, Arantzazu, iritziak...

Bertso jartzen orain berrogei ta amar bat urte asi zan; eta oraindik ere jarraitzen dio. Bitarte ortan gure arteko gertakizunik geienak, Insaustirentzat bertso-gai biurtu dira. Ala izanik, aren bertso-bilduma Segurako erriaren eta Euskal Erri osoaren bizitzaren ispillu da biurtzen zaigu.



SENDOA

Jose Insausti

Beti bertsoa buruan

Auspoa Liburutegi

276



AUSPOA • SENDOA

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52

Fax 943 49 35 48

www.sendoa.com

editorial@sendoa.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Jose Insausti

Beti bertsoa buruan

Auspoa Liburutegia
(2002)

© Joxe Insausti

© SENDOA ARGITALDARIA

ISBN: 84-95378-54-X

Legezko Gordailua: NA-1030/2002

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Serinte

Itzaurrea

Liburu onek Jose Insausti bertsolariak paperean jarritako bertsoak eskeintzen dizkigu. *Bertsoa beti buruan* izan duanaren frutu eta emaitzak, alegia. Ez, ordea, guziak, orain bildu aal izan dituanak baizik. Beste bertso asko eta asko galdu egin zaizkio, gaur pena badu ere.

Baiña bertsoa ez-ezik, prosazko orrialde asko ere aurkituko ditu irakurleak. Geienetan, urrengo bertso-sailla zer dan argitu bearrez artu du lan ori, guk ezagutzen ez genduan bere beste alderdi bat erakutsiz: prosalari ona ere badala, alegia.

Bertsolari bezela korritu duan bidea, zer *curriculum* egin duan alegia, prosazko atal oietako leenengoan erakusten digu argi eta garbi. Ala, nere itzaurretso au ez dakit, bada, alperrikako lana ez ote dedan izango. Baiña oitura ez galtzarren lerro batzuk idatziko ditut, eta Insaustiren aitopen oietako batzuetara irakurlearen arreta eramanez asiko naiz.

Aurrena, bertso-zaletasuna nundik sortu zitzaion adierazten duan ortara:

“Oso ume nintzala apizioa sortu zitzaidan. Gure ama, bertso asko zekizkiana zan buruz; eta abotsa ere, nik aldrebesa bezela, aparta zuan. Aren aotik irtetzen zan bertsoak, ikasteko gogoia ematen zuan. Xenpelarrenak zekizkian geienak.

Baiña baziran, eta badira, Zapiraiñek jarritakoak, Brabanteko Jenobebarenak, eun da irurogei ta geiago. Baiña danak ikasi nituan...

Eta auek bezelaxe beste asko ere. Amabi urteetarako lareundik gora jakingo nituan, eta gaur bi dozenaz ez dakit gogoratu nintzaken.

Dana dala, onelaxe sortu zan bertso-gogoia nere barruan”.

Beste bertsolari batzuek ere ori bera aitortu izan dute: etxeko norbaitek bertso zaarrak kantatu oi zituala, edo kanta-paperak kaletik ekarri, eta gero berak buruz ikasi, eta ortik txertatutako do-aia dutela. Bertsoak bertsolaria sortzen du, beraz, eta bertsolariak bertsoa, arrautzak oilloa eta oilloak arraultza bezelaxe.

Txeetasun batean ez nator bat Insaustirekin: darabilen euskeragatik ia-ia barkazio eske asten dan ortan, alegia:

“Euskera ere naiko nabarmena izango du liburu onek. Emen Goierrikoa, alegia. Zerbait aldatzea pentsatu det. Baiña bertsoak ere euskera ontantxe dauzkat egiñak, edo olamoduz...”.

Goierriko izkeragatik lotsatu, alajaiña? Ederki eman ere! Ñon agertzeko lotsik ez duana da Gipuzkoako lurralde eder ortan egiten eta entzuten dan euskera. Obe litzake gaur gu danon ezpainen eta idazkietan dabillena, Insaustirena bezin jator, garbi, eder, bizi eta dotorea balitz. Berak diona izango genduke orduan: “gaur beste txori batek joko zion txistu”.

Bertsolaritzaren barruan Insaustik emandako pausorik geienak berak aitortzen dizkigu: erriko bertsolariak; Lazkao-Txiki-ekin egindako saioak; Burgosen, soldaduska-denboran, berriz, Zaldibiko Pedro Iraola, Berrobiko Txomin Garmendia, Mutrikuko Jon Azpillaga eta Azpeitiko Imanol Lazkanorekin; andik etorri eta bertsolari-txapelketak; urteetara, *Pernando Amezketa-rra* sariketa eta abar eta abar.

Nik bera, oso oker ez banago, orain berrogei urte ezagutu nuan, 1962-ko Agorraren 30-ean, Beasainen, bertsolari-txapelketarako an jokatu zan *eliminatoria* edo aurre-kanporaketan. Norgeiagoka artan, ain zuzen, Lazkao-Txiki gertatu zan txapel-dun; eta Jose Insausti, bigarren.

Geroztik sarritan ikusi degu alkar, baiña geien-geienetan bertso-usaia zuten festa eta ospakizunetan. Aren etxean ere, Aizkoetan, bein baiño geiagotan izana naiz; eta beti ondo artua.

Baiña alkar ezagutu genduan une berean lagun egin giñala aitortzeko ez daukat batere lotsik, nere aldetik beintzat. Eta berak gauza bera esango duala ez det dudarik egiten. Ala, nunbait ere topo egin genduan batean, nigatik onela esan zion alboan zeukanari:

–Au neretzako gaztetako lagun bat bezela dek.

Eta gezurrik etzion, beti lagun izan geralako, eta gaztetakoa, ezagutu eta adiskidetu giñanean ala giñalako. Orain, berriz, bera aiton biurtua; eta ni ez, baiña beste bide bat artu nualako.

Jose jaio eta bizi dan Aizkoeta baserri ori paraje zoragarrian dago: gain batean, Segurako erria bere oiñetan; urrena bertako

Madura eta Zeraingo erria; baita Gabiria ere; baserri txuriak nuni; atzean Aitzgorri aundia... Iparraldera, Irimo, Izazpi, Kizkitza, Murumendi eta Usurbe mendiak... Egoaldera, Txindoki, Atxurbi, Atxu, Santa Barbara... Eta, Oria ibaiaren sakonaren barrera, Otsabio, Arrospe eta Uzturre. Orregatik, onela esan izan diot:

–Emen jaio eta poeta edo artista ez dana, duda egingo nuke burutik oso sano dagoan.

Jose Insausti onek jendeaurrean kantatzeko oztopo aundia izan du beti: eztarriak ez diola lagundu. “Au zer kalbario dan ondo probatu nuan” esaten du berak. Berarentzat gurutz-bidea izan dala ez dago ukatzerik. Baiña denbora berean bere alderdi ona ere izan du oker orrek, guretzat beintzat. Errietako plazak betetzeko moduko abotsa izan balu, batetik bestera or ibiliko zan ixildu gabe kantari; baiña bertso oiek aizeak eramango zituan. Bide ori itxita ikustean, berriz, bertsoak paperean jartzeari ekin zion; eta auek ortxe gelditzen dira gerorako ere.

Oar batzuk egin bear ditugu, ordea: bata, leen esan degunez, bertso-sail batzuk gorde baditu ere, beste batzuk ez dituala orain aurkitu, idatzi zituan orria galduta-edo, naiz-eta oietako zenbait oraindik ere denborarekin agertu ditezken.

Bestea, sail auek bi motatan banatu ditezkeela. Batean, barruak aginduta moldatu dituan bertsoak; eta bestera, norbaitek eskatuta jarriak. Bertsolariari, izan ere, jendeak alakotzat artzen duan ezkerotik, milla konpromiso sortzen zaizkio andik eta emendik, bere doai ori erriaren zerbitzurako erabil dezan.

Irakurleari egin bearreko beste oar bat, eta berak oso gogotan artu bear duana, zera da: bertso auek ez dirala danak garai beretsuan jarriak. Badira emen 1956-an ogei bat urterekin papere-ratutakoak, eta badira labetik atera berri-berriak: aiton egin zai-gun Jose onek bere billobatxoei eskeiñiak, alegia. Berrogei ta sei urteren buruan emandako frutuak ditugu, beraz.

Au oso kontuan artu-ezean, ez ditu irakurleak bertso guziak ondo ulertuko. Batzuetan, izan ere, bizirik baleude bezela artzen dira, gaur egun beste mundura joanak diran zenbait lagun.

Leen esan degunez, etxean amari entzundako bertso zaarrak izan ziran gure Jose au bertsolari egin zutenak. Berak aitortzen du ori; baiña bada beste zerbaite gauza ori bera salatzen duana: Insaustiren bertsoak oso klasikoak dirala, bertsolari zaar aien

kutsua berekin dutenak, berezko iturri baten ixurkiñak.

Goierriko euskera dutela leen ere esan degu. Bear zan bezela, noski. Ori bera ere berezkoatasunaren frutua degu. Baiña au ere irakurleak ondo gogoan euki bear lukena da, Beterrikoak batez ere, esate edo aozkatze-modu batzuk onartu ditzan.

Beste batean onela esaten digu Jose Insaustik bere bertso-liburu oni leku ematearren-edo:

“Askok galdetu izan didate, ain bertsolari gutxi edo batere izan ez dan Goierripunta ontan nola asi nintzan ni bertsoan”.

Bertsolaritza, izan ere, Beterrian bakarrik sortzen zan lorea zala uste zan garai batean. Sagardo eta sagardotegi-lurretakoa, alegia. Gauzak ederki aldatu dira geroztik, eta aldi ontan onerako. Gaur bertsolariak Euskal Erriko zoko guzietan sortzen dira. Baiña Insaustik diona, ez da oso kontu zaarra. Goierrin eta abarretan, Beterria ez beste lurraldeetan alegia, bertsolari gutxi zan. Insaustik berak bertso batean diona: “Alde au ez da len ere izan bertsolarien seaska”. Liburu ontan, berriz, milla bertso baiño geiago eskeintzen ditugu, eta danak goierritar batenak.

Ala, Insaustik ainbat bertso jarri duten bertsolariak oso gutxi izango dira Goierrin. Aren parekoa Inozentzio Olea izango da, Insaustiren Aizkoeta-berri etxetik aurre-aurrean, Zeraingo lurretan bada ere, ikusten dan Mendarte baserrian jaioa.

Bertsolari baten bertso-emitza aztertu ezkeru, eta areago bertso asko utzi duana baldin bada, zera ikusten da: bere lurraldearen lekuko edo testigu izan dala. Insausti onek ere Segura bere jaioterriaren berri ederki ematen digu ainbat bertso-sailletan, eta bai ingurumari eder orrena ere, ia-ia ango kronika egiñez. Orrelako bertsolari bat duten erriak, zeruak emandako opari bat bezela estimatu bear luteke.

Esan bearrekoak ustez beintzat esanda, nik emen bukatzen det; baiña ez Insaustiri eskari bat egin gabe: sukaldeko epeltasunean edo atariko itzalpean exeri eta jarrai dezala idazten, bai bertsoz eta bai prosaz, Euskal Erri osoaren eta Segura bere jaioterriaren mesederako.

A. Z.

Oarra

Milla bat bertso ta gertakari
liburuan dituzute,
Insaustirentzat zer atsegiña
gustatzen bazaizkizute!
Zuentzat, berriz, zeozer gaizki
billatutzen badezute,
nere asmoa ez da ori ta
barkatuko didazute,
biotz da animaz Segurakoak
ala eskatzen dizute.

Beste oar bat jartzea ere
komeni da liburuan:
bertso askoren itzaurre lana
geiena noiz egin nuan:
milla bederatziregun eta
laroe ta amar inguruan;
aldakuntza asko gertatu dira
amabi urten barruan,
beraz lan batzuk irakurtzean
danok au izan buruan.

Nere orain arteko bertso-mundua

Liburu edo antzeko zerbait nik ere egingo nuala garai batean esan balidate, arkitekto izatea baiño zaillago irudituko zitzaidan, nere eskolarik eza eta gañerako okerrak ezagututa.

Ala ere, bertso eta ateraldi batzuk edo gertaerak jarriaz zerbait egiteko gai nintzala esan zidan nere berri ondo xamardakian batek, eta ortaraxe noa zuzen-zuzenean.

Txarrak edo eskaxak ere bearrezkoak dirala pentsatu izan det beti, neroni onena izatea naiago izan arren. Bestela, onak nabarmentzen oso zailla izango litzake; eta batipat begiz edo belarriz entzuten danez erabaki bear danean.

Len ere itxillu latzak sortu erazi oi ditu onek; eta bertso, soiñu-jotze edo dantzari-txapelketa eta abarretan txarra eta ona azkar berezi arren, gertukoak diranean kontuak. Baiña nereak edo nerea neurtzen errexa izango da, beetik gora asi ezkeror.

Euskera ere naiko nabarmena izango du liburu onek. Emen Goierrikoa, alegia. Zerbait aldatzea pentsatu det. Baiña bertsoak ere euskera ontantxe dauzkat egiñak, edo olamoduz; eta batean aldatzen asten banaiz, beste mutiko ari gertatua seguru dago nerekin ere; usterik gutxiena eta premirik geiena dagoan lekuan, emengo utsa sartu.

Gaur ika itzegitea naiko modan dago, eta neri etzait gaizki dagoanik iruditzen. Baiña pertsona bati oitzen bazera “zu” esaten, naiko zail egingo zaizu oitura aldatzen, oso errexa badirudi ere; eta izketako era edo itz erabiltzearekin ere berdintsu gertatuko da.

Len aitatu dedan mutikoarena ere onelaxe gertatuko zan. Mutiko onen etxean naiko tresmalesak omen ziran itz-kontuan. Erderazkoak ere goi alde ortara begiratuaz botatzen zituztenak. Oiturak, txarrak beintzat, artzen errezago izaten da; eta izketan,

berriz, aitonari ere “i”, eta aita ta amari ere berdin. An ez omen zan “zu” eta “beori” eta olako itzik entzuten.

“Beori” itz au aitona-amonakin eta gurasoakin itz egiteko ere ibiltzen duten lekuak badira. Emen, gure aldean. ez det iñun barrentatu. Baiña apaiz eta eliz-gizonei bai; danei. Mutiko onen errian ere ala izango zan. Dotriña juxtu xamar omen zekian, eta amak erregaloren batekin bikarioarengana bialdu bear, komunio edo jaunartze nagusia egiteko. Baita joan ere, illabetean “beori” eta “beori” jardun da gero. Ondo ikasita, alegia.

Baiña bikarioak ba omen zekian etxe artan zenbat “beori” ibiltzen zuten; eta, bestetik, esan bearrik etzegoan lekuan ere “beori” erasten omen zion mutikoak. Ala galdetu omen zion bikarioak:

–Zeñek esan dik orrenbeste “beori” esateko?

Eta erantzuna:

–Etxeko danak, iri ola itz egiteko. Gaizki al zegok ala? Amabost egunean ikasi ezinda ibili nauk eta.

Eta gero ika lasai itz egingo zuten. Orixe gertatzen da, edo neri beintzat ala gertatzen zait.

Norbaitek esango du alde aundirik ez dagoala batetik bestera, eta entenditu edo ulertu ezkerro berdin dala. Alaxe da. Baiña guk “o” letra geiago ibiltzen degu beetarrak baiño, auek “u” ibiltzen duten lekuan; eta guk “e”, aiek “i” ibiltzen dutenean. Emen “gogoan” esaten da, eta an “goguan”. Berdin beste auek ere: emen “semea” beti entzungo dezu, eta an “semia”. Olaxe itz-pilla dago, Nik neronek ere, orain berrogei urtetik, asko nastu ditut biak; eta euskera bizi bada laister berdinduko da. Au da gaur artu-eman geiago dagoalako erri batekoak bestekoakin.

Izan ere, gaurko aurrerapenak ortarakoxe ere ez du gutxi balio. Alderdi txarrak ere edukiko ditu. Len, bost kilometro apartekoa ere urtean bein ikusten zan itz egiteko moduan. Gaur, berriz, berrogei ta amar kilometrokoak ere nun-nai izketatzen dira. Au alderdi ona da, nere iritzian.

Beste gauza bat da bertsoetan pota ez egitearren danak nastea. Xalbador zanak, ala ere, pota egitea obe zala esaten zuan, itz bat bi eratara ibiltzea baiño. Izan ere, pekatu aundia da, bai, ondo pentsatu ezkerro. Baiña geienak eroriko giñan sare ortan; eta ni amaika aldiz eroriko naiz goiko eta beeko nasketan, neri

ere nere tontoan zerbait erantsi zaizkidalako biak azken urte auetan.

Baiña aurrera, lenagoko errementariaren bi langille aiek bezela. Nagusia gaixotu zanean, altzairu-puskaren bat berotu eta asi omen dira zintzela egiten. Baiña ainbeste maillukada eman ondoren, igitaia baiño biurriagoa omen zegoan aien zintzel-gaia; eta ala esan omen zion batek besteari:

–Au igitaia egiteko primerakoa gelditu dek, eta olaxe segi bearko diagu: txapala irtetzen badu, atxurra; biribil antzekoa, porrak egiteko; eta abar.

Nere ontan ere uste det danetik irtengo duala, nai duanak nai duana artu aukera izateko.

Azkenik, zergatik liburu au egiteko asmoa artu dedan ere esan bearra daukat. Nere bizitzan zear bertsotarako apizio aundia izan det, eta daukat. Abildade gutxi daukanak zerbait bear, dana falta izan gabe. Ni ere orietako bat naiz, geroago itz egingo badegu ere ontaz zabalago.

Baiña aseran auxe esan nai nuke: bertso jartzea ez det sekula gogoko lana izan. Ondo edo gaizki, datorren eran kantatu eta askoz lasaiago gelditzen naiz.

Ala ere, baditut bertso-sail batzuk nere bizitzan zear egiñak edo papelean jarriak. Amaika galdu ere bai arreta aundirik ipiñi gabe, “len ere olamoduzko bertsoa geiegi zegok” pentsatuta.

Gaur damu det, ordea, eskuetan ez edukia, batzuk beintzat. Ez onak ziralako, baizik bakoitzak bere gertaera adierazten zutelako eta ainbeste gai-klasetakoak ziralako. Ondo etortzen dira, neri beintzat bai, noiz eta nola gertatu zan au edo ori jakiteko.

Beste gaiñontzean, bertso zaar ederra pranko badago, nai dituanak ikasi; eta gaur ere bertso-jartzaille mamitsuak badaude. Nereak ere ez dira danak txarrak izango, au beste batzuek esan bearrekoa bada ere. Baiña bakoitzak beren iritziak izaten ditu, eta nik auxe daukat: nereen parean, laurdenak beintzat ez dirala oso txarrak izango.

Lenagoko amari semearekin gertatua gaiñean artu bearko det bestela, nereak danak onak dirala esaten badet; eta ez dago ori iñorentzat mundu ontan.

Bi ama joan ziran –geiago ere joango ziran noski– beren seme-alabaxoei rekreo edo atsedeen-denboran ogi-tarteko edo

goxoren bat eramatera. Orain olaxe legun antzean azten ditugu umeak; eta jarraitu dezala, gaiñera, al bada, gaizki noiz ibilia izango dute ta. Baiña ama bat presaka xamar omen zegoan, eta ala esan zion besteari:

–Zuk eramango zenioke, ba, au gure mutikoari?

Eta besteak:

–Bai; pozik gaiñera.

Ala, artu omen zuan goxo ori; eta, bi pauso ematerako, kon-turatu omen zan etzuala ezagutzen ama aren mutikoa seguru-seguru. Eta jira ta galdetu dio:

–Ez dakit billatuko dedan seiña edo ezaugarri gabe.

Eta beste amaren erantzuna:

–Billatu? Ez dago seiña bearrik. Ango politenari emaiozu, eta uraxe da nere semea.

Beste amak, alegiñak egin arren billa, berea bezin politik ez omen zuan ikusi, eta bereari eman zion bestearen goxoa ere.

Onelakoxe irudipenak sortzen dira askoren buruan. Nik ez daukat ori esaterik. Ni baiño obeak izan dira, badaude eta izaten jarraitu dezatela. Ainbeste pruebetan pasatu naiz eta oneraiño iritxi naiz arengatik edo onengatik, eta goazen aurrera.

Askok galdetu izan didate, ain bertsolari gutxi edo batere izan ez dan Goierri-punta ontan nola asi nintzan ni bertsoan. Oso ume nintzala apizioa sortu zitzaidan. Gure ama, bertso asko zekizkiana zan buruz; eta abotsa ere, nik aldrebasa bezela, aparta zuan. Aren aotik irtetzen zan bertsoak, ikasteko gogoa ematen zuan. Xenpelarrenak zekizkian geienak.

Baiña baziran, eta badira, Zapiraiñek jarritakoak, Brabanteko Jenobebarenak, eun da irurogei ta geiago. Baiña danak ikasi nituan. Eta, nik orduan bezela gertakizun au sinistu ezkeru, negarra aixa ateratzen duten bertsoak dira auek. Ala ere, amaika aldiz bat uts egin gabe kantatzen nituan. Ainbesteraño buruan itsatsita jarri zitzaizkidan.

Eta auek bezelaxe beste asko ere. Amabi urteetarako lareun-dik gora jakingo nituan, eta gaur bi dozenaz ez dakit gogoratu nintzaken.

Dana dala, onelaxe sortu zan bertso-gogoa nere barruan. Baiña bertso gutxi entzuten zan emen ezer ikasteko. Berririk

esan nai nuke. Basarri eta Uztapide San Juanetan, eta inguruko errietan ere urtean bein. Orduan jan egiten nuan nik bertsoa, entzun baiña geiago. Saio guztietan ikasten nituan iru-lau bertso, igual-igual zailla da baiña.

Berealaxe, lagunartean kantatzeko griña sortu zitzaidan. Ala ere, nere kasa ez bazan, oso bertso gutxi kantatu nuan amasei urte bitarte.

Garai ontan, txarkuteri bat bazan emen Seguran, gaur ere jarraitzen du oraindik, eta ni ortxe lanean asi nintzan. Bitartean, baserri-giro utsean izan nintzan, eta geroztik ere baserri-girotik ez det iñoiz erabat irten, etxean mutilletan zaarrena nintzalarik, etxeko martxa, baserrikoa alegia, neronek artu nuan da.

Baserri-giroa bertsoetarako ona da, edo ona zan esan bear-ko. Gaur gutxi gelditzen dira, emen beintzat, ortik bakarrik jaten dutenak. Baiña edozein fabrikatan aiña makina dago gaur baserrian ere; eta, ondo pentsatu ezker, danak bear, edo geiago askotan.

Ni baserrian amaika urtetik amaseira arte jardun nintzan, amaika urtera arte eskolan ibili nintzan da; eta beste bost oietan etxean. Jaietan bakarrik joaten giñan kalera goizean, mezetara beti. Baiña arratsaldean gutxitan. Emen etzegoan iñun bertso-girorik, eta nik beti uraxe buruan.

Orregatik, gustora asi nintzan txarkuterian lanean, 1952-garren urtean. Iru illabete falta nituan amazazpi urte egiteko. Abuztuan asi nintzan, da astean eun da ogei ta amabi pezeta irabazten genituan, edo ala ordaintzen ziguten. Norbaitek esango du:

–Baiña orduan makiña bat gauza egongo zan diru orrekin.

Ez. Orduan ere gutxi zan. Or jarriko det ejenplo bat: nik an nenbillela, bizikleta bat erosi nuan Beasaingo saltoki batean: Oiarbide. Bizikleta polita zan, baiña milla ta zortzireun pezta ordaindu nuan, iru illabete eta geiagoko jornalarekin. Gaur ere zerbait egiten da denbora ortako irabaziarekin.

Tabernan ere, ni esaten ari naizen urte oietan, otordu aundiegia egin gabe, kafea eta kopa eta puru bazan, ogei pezta etziran aparte. Pasa igual. Nik amazazpi peztatik beera otordu gutxi egin ditut tabernan, emen Euskal Errian beintzat. Onekin esan nai nuke zerbaitengatik 1952 alde ortan, eta geroxeago ere, bazala lekua jatetxeetan. Nai zuan tokian exeri joaten zana.

Baiña guk, txarkuterian genbiltzan batzuek beintzat, egiten genduan, eta bertso gabeko postrerik etzan izaten.

Aurrenetik, izu ta bildur aundiak sortzen ziran. Izan ere, emen bertsolaritza mozkor edo gizagaixoaren lana juzgatzen zan, eta badu bere arrazoia. Nik ez det ezagutu mozkorrik, bertso edo kantu zerbait lardaskatzen ez duanik. Orduan orra erabakia: bertsolari danak ez dira mozkorrak, edo gaur iñor ez; baiña bai mozkor guztiak bertso-gilda edo jarioa ezpaiñetan dutenak. Eta emen, Goierrin, geiago oraindio. Ain bertso-giro gutxi zalarik, erabat aldrebestzat joko zan bertsolaria. Pailazo iñuzente edo nik ez dakit zer esan.

Gogoan det: ni mutil koxkorra nintzala, aitona baten etxera bi segari etorri ziran sasoi ederrekoak, segak ere aundiak, eta belardian ekin zioten segari; eta, jakiña, aitonak bazterreko ertza asterako, an izaten ziran, berriro sare berriaren billa. *Sarea* guk belar-maillari esaten diogu. Aitonak belarra naiko narratx edo xeblebre ebakitzen zuten tankera eman zien, eta ala esan zuan:

—Onela segan aritzea baiño, obe dek bertsotan aritzea ere.

Onek esaten du bertsolariak eta bertsoak zenbat balorazio izango zuan, segan ain narratx ari ziran aiekin konparatzeko.

Baiña gure etxean etzuten beingoan jakin ere egingo ni bertsotan ari nintzanik. Aita oso gutxi ibiltzen zan tabernan, eta bestela ere etxekoa azkena enteratzen da olamoduzko kontuakin. Onekin esan nai nuke neri sekula etzidatela esan tabernan bertsotan ez egiteko, eta alde ortatik libertade osoa izan nuala, ezer asko izatera iritxi ez banaiz ere.

Erretiro txarra ere seguro du, berriz, ofizio edo afizio onek. Baiña ori norberak jaso bear, eta gustoko lanak ez du nekatzen.

Ontan, jaiero beintzat bertsotan egiten nuan nere lagunakin, bat edo beste poliki moldatzen ziran eta.

Bereala, kaletar bat ere asi zan bertsotan. Nere kintakoa edo nere edadekoa bera: Jesus Mari Imaz. Onek aita zuan bertso jarzen poliki moldatzen zana, eta beronek etorri polita.

Burruka gogorak egiten genituan. Iru-lau ordukoak ere bai. Guk alkarrri esan gabeko itz asko ez da izango. Baiña berriz ere batere gorroto gabe alkartzen giñan. Onek txarrena zuan —nik ere piska bat badet gaitz ori—, bein motorra berotu ezker ezin ixildu, gau guztian jardunda ere.

Izan ere, guk orduan, rimatzen eta neurrian sartzen burua ez genduan asko nekatuko; ta eskribitze lanean ez puntu ta ez koma aritzea bezela izango zan, geienean beintzat.

Baiña orduan bertso-gose aundia zegoan Seguran, edo nobedade giñan gu beintzat. Izan ere, bertsotan pixka bat egiten zuten bi bazeuden emen. Baiña noiztik noiza jardungo ziran?

Bat, Kosme Ariztimuño. Onekin dexente aldiz kantatu nuan tabernan. Au errez asten zan bertsolaria zan, eta bertso zaarrak ere asko zekizkian. Gizon atsegiña lagunarterako. Amaika broma pasatuko zuan, eta pasatu erazi ere bai. Gaur illa da eta pakean atsedeen dezala.

Bestea, Teodoro Arrondo. Au ere oso bertsolari zuzena; rima onekoa. Asten zanean, etzan asten gau guzirako, gu bezela. Sei bat bertso bota ta ixildu. Asi ere nekez antzean. Izan ere, urtean bi-irutan jardun ezkerro bakarrik, bai ote dago bertsotea baiño gauza zaillagorik? Baiña bazekian bertsoaren berri. Onekin ere saio batzuk egin nituan. Gaur illa da eta pakean atsedeen dezala.

Beraz, onelaxe bertsotan apur bat askatu nintzan emezortzi-ogei urtetan, eta asi nintzan Goiburu eta Lazkao-Txikirekin ere iñoiz saio koxkor batzuk egiten. Baiña soldadu joan artean, gutxitan.

Bi bertsolari auek ondo moldatzen ziran ordurako ere, eta Lazkao-Txiki oso ona zan. Aparta ere bai. Amaika puntu zail usteko andik eta emendik jartzen zioten, baiña gutxiena uste zan lekutik bertso ona aixa egiten zuan. Ala ere, oraindik urteak pasatu ziran bere balioa jendeak ezagutu arte. Baiña bertsotan batere entenditzen zutenak, edo genduanak, bagendekigun aurreneko maillako bertsolaria zala Joxe Miel.

1957-an, martxoaren 20-an, joan giñan soldadu Burgosa, aruntzako tokatu nintzan da. Goizeko amarrak aldera irten Donostitik eta illuntzerako Burgosa. Bareak eta karakolak segituko zioten gure trenari, eraman zuan abiadarengatik; eta ondo muturra bustita iritxiko giñan geienak. Nik neronena esatea naikoa izango det kaso ontan. Baiña zenbat botilla ardo ustu ote ziran merkantzi zaar artan?

Bertsotan ere egin genituan saio batzuk batekin eta bestearekin; baiña geiena Zaldibiko Pedro Iraolarekin, au ere, ni beze-

laxe, Burgosko Artillerira zijoan soldadu eta. Oso, poliki egiten zuan onek bertsotan, gero etzion jarraitu baiña.

Izan ere, Iraolatarrak danak bertsolariak dira. Patxi izango da onena. Baiña Rufino ta Joxe Mari eta leen esan dedan Pedro, eta geiago ere badira; eta or bertsotan egiteko kapaz ez danik ez da izango. Aita ere alaxe zuten, eta oni esaten zaio egizko bertsolari-seaska. Urte askoan gorde dezatela osasun onarekin. Patxi ikusteko zai egoten naiz ni orain ere saio bat egiteko leengo oitura zaarrean.

Soldaduzkako joanera asi naiz, ta zerbait geiago ere bazuan nere soldaduskak. Antxe, Burgosen, ezagutu nituan gero iru bertsolari aundi izango ziran gizonak.

Aurrena, Txomin Garmendia. Au ni baiño urte bat zaaragoa da. Soldaduzkako izkuntzan, nere *beteranoa*. Baiña onek ere antxe serbitu zuan, eta ni joan da laister bukatu zuan. Orduan amasei illabeteko soldaduska edo onela zegoan, itxasorako tokatu ezean, eta emen bi urte. Beraz, Garmendiarekin ere bein egin nuan bertsotan antxe, nik ez nuan ezer asko egingo baiña. Burgosen orduan euskeraz egitea ere etzan gutxi.

Bigarrena, Azpillaga. Au nere kinta da, biak azaroan jaiোক গাইণা, eta txuleta koxkor bana jateko a zer pare! “Gu baiño txarragoak badituk, Jon. Gu asi giñanean fuerte xamar, paro eta kontu auek ugaldtu ituan”. Onelaxe, bada, Azpillagarekin ere egin nuan bertsotan antxe. Baiña oso gutxi ikusi genduan alkar. Kuartelak diferenteak eta abar. Baiña orduan ere mutil eder bikaiña zan, eta urrutitik ikusteko modukoa.

Irugarrena, Imanol Lazkano. Au gure *rekluta*, soldaduskako izketan; ni baiño urte bat gazteago. Onekin ere egin nuan bertsotan bein edo bitan. Batean, beintzat, *Casa Vasca*-edo izeneko tabernan. Lazkanok ordurako bertsotan asko egiten zuan. Besteak ere bai. Baiña oni igertzen zitzaion. Asko kantatuta egongo zan Lizasoren inguruan Landeta alde ortan.

Ala, bukatu zan gure soldaduska, eta bertsotan geroago emango det ango berri.

Ontan, Segura aldean edo inguruko errietan, leenagoko mar-txa berdintsua asi nuan, bertso-munduan beintzat, lagunakin eta Jesus Mari Imazekin saio gogorak joaz. Eta Goibururekin eta Lazkao-Txikirekin ere geroz ta geiago, apariren batzuetara-eta

deitzen zidaten iñoiz ta. Baiña plazan kantatzeko bildurrez, eta aukera aundirik gabe.

Ontan, Ordizian asi ziran bertsolari gazteen edo gure moduko bertsolariantzat txapelketak jartzen. Jakiña, naiko onak ere irtetzen ziran, aiek ere artean goiko mail ortara iritxi gabe zeudelako.

Batean, orain Legazpin bizi dan Bidaniko Belokik irabazi zuan. Bi edo iru anai bertsolariak dira auek ere. Beste batean Txomin Garmendiak ere bai, eta bertsoan ondo egin zuan gaiñera. Besteetatik errez nabarmendu zan, nere ustez, egun artan, artean gaztea zan baiña.

Ni entzule izaten nintzan, gero ere geienean ala izan naiz ta. Beti irtetzeko asmoakin Jesus Mari ta biok; baiña naikoa busti gabe nunbait, eguerdian izaten zan-da, eta beti utzi.

Baiña 1960-an irten genduan. Geure kasa ez giñan joango, baiña Segurako semea dan Patxi Albizu apaizak egin zigun bul-tzada, eta eskerrak. An jarri giñan tranpal edo oltzadura gaiñean. Ogei bagaiñan: Lazkao-Txiki, Lexoti eta abar. Egin genduan al zana ipiñitako puntu eta gaijai buruz, et atze xamar geldituko nintzan. Aurreneko bostetan ez beintzat, eta ez nintzan asko arritu.

Urrengo txapelketa neretzat, edo nik irten nuana, Beasaiñen izan zan, 1962-ko agorrean. Txapelketa auek txapelketa nagusi-rako eliminatoriak ziran. Gipuzkoa bost edo sei zatitan banatu zuten, gero onenak talde auetatik aukera zitezen; eta joan giñan Jesus Mari ta biok Beasain ortara ere, beste lagun-talde aundi batekin batera. Sail aundia giñan; amabost bat bai gutxienez, eta aal zana egin genduan.

Arratsalderako lau gelditu giñan: Lazkao-Txiki; Jose Antonio Aranzadi, Ezkiokoa; Jesus Eskisabel, Legorretakoa –au *Jainko* izenez ezagutzen zan–; eta ni, Insausti, Segurakoa. Arratsaldeko saioan Lazkao-Txiki azkar nabarmendu zan askoz obea zala; eta egun edo txapelketa au izan zan ondo merezi zuan lekura eramango zuana Joxe Miel.

Andik laister, Mitxelena ta beste zenbait bertsolari oni gaiña artuaz, merezimendu osoz Eibarren irabazi zuan; eta amaika bertso bikain badu geroztik botea. Aurreneko maillakoakin ere, bolada batean, bera onena ere ortxe-ortxe izango zan, au neurtuko duan metrorik ez da iñoiz agertuko baiña.

Onela, bada, txapelketa ontan Lazkao-Txiki nagusi. Neri eman zidaten bigarrena, eta pozik nintzan. Aranzadi irugarren.

Andik bi urtera, 1964-an, Loiola Irratian kantatzeko aukera Joxe Mari Iriondok eman zidan. Emen ere txapelketa edo norgeiagoka zan. Zortzi bertsolari-edo bi taldetan banatu eta talde bakoitzak jaiero-jaiero edo larunbatez zintan artuaz jaiari botatzeko, aldiko bik egiten genduan. Gu giñan Lopategi, Ibarbia, Manterola eta ni gure taldetik; eta, bestetik, Mugartegi eta beste iru emendik ere.

Txapelketa ontan, jai asko irauten bazuan ere, entzuleak erabakia, zein ohea zan alegia, beren iritzia kartaz bialtzen zuten. Sekulako karta-pillak irixten omen ziran, bakoitzak bat baiño geiago bialtzeko eskubiderik naiz ez eduki. Baiña jende askok entzuten zituan, ikusten danez. Izan ere, jai-eguerdian botatzen zituzten; eta, bestetik, gaur aiña bertso entzun gabe zegoan jendea orduan. Txapelketa aukeratu izan ziran urteetan, bertsozale asko pozik egoten zan, edadetu jendea batipat.

Txapelketatik edo gure saio aietatik pixka bat aldendu naiz. Baiña onelaxe izan zan esaten ari naizen urte ortakoa. Bere taldetik Mugartegi gertatu zan irabazle; eta guretik neri eman zidaten. Botorik geienak nunbait. Eta, ala, zein txapelkun jokatu genduan, eta bizkaitarra gertatu zan irabazle.

Gero, jai-eguerdi batean, Azpeitiko ez daukat gogoan zein zine zan, jaialdi bikain baten bidez berriz neurtu giñan. Mugartegi ere bai. Baiña onek etzuan jokutzen lenengo saria, leendik irabazia zeukan da. Beste zazpirok bigarren sariaren billa gogor egin genduan. Neri ematea erabaki zuten, eta pozik etxeratu nintzan.

Baiña ordurako ere Lopategik bertsoan asko egiten zuan, bai doiñu aldetik eta bai bestela ere. Txapelketan, ordea, milla gora-beera gertatzen da. Gaietan eta puntuetan ere badago alde ederra, eta gaiñera gaiñerakoak.

1963 edo 1964 San Tomas inguruko jai-eguerdi batean ere, irabazi nuan aurreneko saria Donostiko Trinitate plazan. Bi *bajo cero* otza egiten zuan. Bordari zana zan gaiak jartzen, eta bai puntu zaillak ere. Bertsolariak dexente ziran.

1964-ko urte ontan, berriz ere txapelketa nagusirako aukera egin bearra zegoan; eta, bi urte lenago bezelaxe, Beasaiñen joka-

tu zan. Lauak joan giñan kantura Seguratik. Urte ontan, Lazkao-Txikik, lenengo maillan zegoalako, etzeukan parte artzerik. Baiña talde aundia bildu giñan. Segurako lauak giñan Jesus Mari, Zeferino Agirre –bertsolari alaia da asten danean–, nere anaia Iñaxio eta ni.

Nere anai au arratsaldeko saiorako artua izan zan gaiñera. Bazuan naiko bertsolari-gaia. Baiña oso gutxi ibili da, edo kantatu du, lagunartetik kanpora. Nere aldean abots ederra du, zaila ere ez da ta.

Ala, bada, Beasain ortan arratsaldeko saiora bost pasa giñuzten: Aranzadi, Ezkiokoa; Joxe Mari Aranburu, Zaldibikoa; Eusebio Igarzabal, Gabirikoa –au oso gaztea zan artean, baiña bertsolari aundia–; nere anaia eta ni, Jose Insausti. Eta saio luze baten ondoren neri eman zidaten txapela. Beraz, pozik izateko moduan nintzan.

Andik laister, kanporaketari jarraituaz. Eibarren talde bakoitzeko bi aurrenekoak kantatu genduan, *Amaia* antzokian. Izugarrizko jendetza bildu zan. Bertsolariak ere dexente, bederatzi edo amar kanporaketan pasatuak, eta beste iru edo lau aurreko txapelketan aurren xamar egiñak. Ni oso oker ez banago, Mitxelena, Lazkao-Txiki eta Garmendia beintzat bai.

Saio ontatik iru auek eta beste bost pasatu giñan Gipuzkoako finala jokatzeko; eta ni ere tarteko nintzan, Santa Luzi egun batean. Igandez zan urte ontan, eta jokatu genduan Tolosako *Leidor* antzokian; eta emen etxerako txartela artu nuan, 1964-ko txapelketa ontatik alegia, danak ez dago aurrera joaterikan da.

Baiña bi itz esan bear ditut, leen makiña batek esandakoak, txapelketari buruz alegia: zer estuasunak eta zer gauzak izaten diran or. Aseran badet esana nere Goierriko euskera eta abar. Baiña oraindik-orain, Mujikaren *euskal perlak* edo bertsoak entzuten nengoala, guk Eibarren egindako saioa eman zuan Euskal Irratiak, eta sekulako txaskoa eraman nuan nere bertso batekin. Ez nuan sekula sinistuko ainbesteko Beterri aldeko euskera iñoiz erabilita nengoanik. Baiña puntua ere alaxe jarri eta azkar erantzun nik, motel ez nuke erantzun ere egingo ta. Entzun nuan ez, Irigoienek puntu auxe jarri zidan:

Neskarik politenak
Eibarko kalia...

Eta nik;

Goizean ikusi ditut
nolakoak dian.
Edertasuna dute
ain gradu aundian,
zerbait egin biar det
gaur arratsaldian.

Bada onekin auxe esan nai nuan: “arratsaldian” nik sekula ez nuala bestetan esango; beti “arratsaldean”. Baiña rimatzeko eta al dana egin naiak edozeiñi golpe botatzen diola, eta estua-sun gogorrak dirala txapelketan opizio sorgin ontan pasatzen diranak.

Ala ere, noan berriro txapelketarekin. 1964-65 ontan, Zumarragako *Galeperra* alkartean ere izan zan norgeiagoka, eta batean Altzorbek irabazi zuan. Beste batean, Brinkolako Agirrek. Neri bigarrena eman zidaten.

Baita Zumarragako Antiguan ere, Santa Isabel jaietan. Emen ere bigarren egin nuan, Agirre Brinkolakoak irabazi zualarik.

Bittor Agirre au brinkolatarra da. Brinkola, Legazpitik gertuan dagoan barrio bat da; eta Agirreri buruz auxe esango nuke: gizon jatorragoa billatzen ez dala lan erreza, neretzako beintzat. Amaika bertso-saio egiña naiz berarekin; eta, esanak esan, danak broman artu eta beti bertsotarako pronto. Abots edo boza ere bikaiña du. Oso gogoko laguna da neretzat, eta urte askoan izan dedilla. Biok ere len dauzkagu dezente, naiz Agirrek nik baiño bat gutxiago eduki.

1965-ean, berriro *Loiola* Irratira ere joan nintzan. Iru-lau urtetan aurrena eta bigarren egindakoak giñan. Baiña orduan ni baiño gogorxeagoak egokitu ziran, eta atze xamarrean gelditu nintzan. Baiña Azpillagarekin saio gogorra egin nuan, edo egin genduan, Iparragirrereren doiñu eta guzi, teman; eta oso gustora gelditu nintzan. Lenagoko mutil itxusi arek esan zuana bezela:

–Dantzara neska politengana joaten nauk ni beti, kalabaza emanda ere, zenbait baldarrek baietz esatea aiña meritu badik ederrak ezetz esateak eta.

Ni ere pozik gelditu nintzan. Eta izugarrizko botoak, jendearen iritziak alegia, bildu omen ziran: arentzat 1016, eta neretzat

1005 edo orrela. Eskerrik beroenak orduan eta lenago ere ainbeste lan neregatik edo bertsoagatik artu zutenai. Txapelketa au Azpillagak irabazi zuan, ni oso oker ez banago.

1965 urte ontan, beste sariketa koxkorren batzuk an-emen baziran soziedade eta abar, baiña garrantzi aundikorik ez. Gaiña, lan geiago ere banituan nik urte ontan, edo bagenituan: ezkontza alegia, maiatzaren 16-an; ta urte-pilla joan da asko akordatu gabe. Baiña beste leku batean aurreraxeago esango det zerbait geiago gai ontaz.

Ala, irixten da 1966-garren urtea, neri amaika poz eta naigabe emango zidana, eta ezaguera dedan artean aztuko etzaidana.

Urte ontan ere asi ziran, lenago bi urtetan bezelaxe, bertsolari-txapelketak; eta gure aldeari zegokiona, Ordizian jarri zuten, beste bietan Beasaiñen bezela, uztaillaren 26 edo 27-an, erri ontako urteko festak ere egun auetan izaten dira ta.

Beste gauza bat ona egin zuten txapelketa ontan, guretzako beintzat: eguerdiko saioan asi eta bukatu, luze xamarra irten bazuan ere. Beste lasaitasun batekin joaten da bazkaltzera, lanak bukatuta, eguerdian.

Bertsolariak, Beasaiña joaten ziran batzuk etziran azaldu. Baiña talde dexentea giñan. Nere anaia Iñaxio bai, an zan; eta Jesus Mari ere uste det baietz. Zaldibitik bertatik lau, tartean Patxi Iraola zutelarik. Onekin pare xamar nintzala ni ere esan zuten juradukoak, eta kartzelako gaian probatu bear genituala gure indarrak. Alaxe egin genduan, eta neri txapela ematea erabaki zuten, eta bioi Ernanira joateko txartela.

Alaxe joan giñan. Egun au udaberri aldean zan, 1967-ko apirillean, oso oker ez banago, Ernanin. Izan ere, txapelketa onen azkena urte artako garagarrillean jokatu zan Donostian. Euria bikain egiten zuan Ernanin, eta *Aitor* antzokian jokatu genduan bost alderdietako ordezkariak. Beraz, amar-edo izango giñan.

Naiko gustora jardun nintzan, kartzelako gaia bitarte beintzat. Emen ez nuan gai bat ondoegi ulertu. Baiña aurrena esan dezadan saio au ere eguerdian asi eta bukatzen zala. Naiko luze bazijoan ere, Gorrotxategi eta biok puntu berdiñak genduzkala, eta berriz probatu bearra zegoala esan ziguten epai-maikoak. Alaxe jokatu genduan, eta oxintxuarrak eraman zuan txapela, eta ni bigarren. Baiña bederatzi puntukoarentzat zegoan saria ere irabazi nuan, naiko ona ordurako, eta pozik etxeratu nintzan.

Gorrotxategi gaztea zan artean, baiña bertsoan ondo egiten zuan. Geroztik ere bertsolari aurreneko maillako bat da, eta izan dedilla urte askoan, bere abots bikaiñarekin eta arrazoiarekin.

Txapelketari jarraituaz, 64-an bezelaxe, Tolosan, *Leidor* antzokian, azken aurreko saioa jokatu genduan Ernanin aukeratuako bost edo sei bertsolarik eta aurre xamar aurreko txapelketan geldituak.

Ni erabat zintzurra itxita edo abotsik ezin adierazita joan nintzan. Len ere nere etsairik gogorrena abotsa izan da. Batetik, belarri onekoa ez naiz. Onekin ez det esan nai gorra naizenik. Baiña abotsa ezin eraman bear dan neurrian geienetan. Gaur ogei urte banitu, zerbait egingo nuke. Baiña amaika sufritu det abots kontu onekin. Baju artu eta ezin ots onik atera. Urrena, izugarri altu, eta ontan ezin iraun. Au zer kalbario dan ondo probatu nuan.

Len ez det esan, baiña 1966-ko azaroan Bilbaon zintzurretik ebakuntza bat egin zidaten, Ernaniko txapelketa baiño lentxeago. Izan ere, gaizki ibiltzen nintzan askotan, ez abotsarekin bakarrik, baizik *angina* edo *amigdala* edo auekin gaixotzean, sekulako sukarrak jartzen zitzaizkidalako. Amaika indizio eta baserriko erremedio artu nuan. Ala ere, gutxiegi nunbait. Baiña ebakuntza au egin zidaten, da oso pozik nengoan.

Baiña Tolosako txapelketarako or gelditu nintzan ezin itzik adierazita. Negar eta danak egin nituan, eta sendagille ospetsu otsekoak ere geiago ez kantatzea obe nuala esan zidaten.

Erabat naigabetuta gelditu nintzan. Etorri aldetik naiko ondo edo beste askoren moduan ibiltzen nintzan, ain gutxi kantatzen zuan bat izateko; eta abotsarena zerbait konpondu izan banu, edo iraun balit, lan gustokoagorik ez da neretzako izan. Beti bertsoa buruan.

Beraz, 1966 au esan det atzeraxeago amaika naigabe emandako urtea izan zala neretzat. Batetik, urte ontako abuztuaren 20-an Aste Nagusiko sapatua tokatu zan, eta gure lenengo landaratxoa. Mutiko ederra, ez gurea zalako. Baiña jaio eta ordu gutxira il zan. Pena aundiak pasa genituan. Bertsoak ere ipiñi nituan, eta aurreraxeagoan emango det orren berri obeto.

Bertsolaritzari ere betiko agur egin nion nere ustez, Tolosako eziña eta sendagilleen aginduz, eta gaizki pasatu nuan. Ogei

ta amaika urte nituan bakarrik artean, baiña ez nuan uste sekula geiago kantatzerik, amaika poz eta naigabe emandako egintzari ala agur esatean.

Amabi urtean ez nuan kantatu. Jende aurrean ez beintzat. Triste bizi nintzan, baiña danera jartzen da.

Nere abotsa azkar nekatzeak edo sarri eziñean egoteak beste eragin bat ere izan du. Nik ogei ta iru urte eskax nituala asita, fundizio batean lana egin det, eta ango otsak eta otz-beroak eta autsak ere batere mesederik ez, nere ustez. Orrela, ots aundia dagoan lekuan, alkarri adierazteko ere deadar aundia bear izaten da; eta edariak ere askotan otzak edo otzegiak. Norbaitek esango du:

—Ez al zegoan beste lantokirik?

Bai. Gaur ez dagoan lantoki aukera zegoan orduan; eta ni ere, ez da erronka jotzeagatik, baiña besteak aguantatzen zuten lekuan ibiltzeko aiña indar eta abildade banuan orduan. Baiña gertatu zan ni baserrian gelditzeko asmoak nituala. Andik urte batzuetara asi nintzan fabrikan, eta orduan irabazi aldetik diferentzi aundia zegoan fundizio edo fabrika ontatik besteetara. Gaiñera, sasoian ez da konturatzen ainbeste gau eta egun erreleboan ibiltzea zer dan; eta nere kasoan, bestetik, laister uzteko asmoz asi nintzan, baserri utsean jarraitzeko. Baiña baserriko etekiñak fabrikakoen parean baju gelditzen asiak ziran ordurako, eta bost edo sei beiko baserriak, gurea bezela, gaizki.

Ontan, beti uzteko edo fabrikaz aldatzeko asmoz nenbillela, bertarako jarri nintzan zerbait. Batetik, lagunak ere egiten dira; eta, bestetik, maixu kargua eman zidaten ogei ta amabi urterekin, ez eskolarik dedalako, amaika urterarte zenbat ikasten dan edozeiñek daki ta, baizik-eta beti ari dan lanari zerbaiten tanke-ta ematen zaio ta orrentxegatik.

Baiña onek ere izena ohea du. Ni ez nintzan atzetik ibili. Eman egin zidaten, eta urte-mordoa egin nuan. Baiña gauza azaletik ematen duan bezelakoa ez du beti mamia izaten. Ala ere, konforme orrenbestean. Emen al dana egin bearra dago.

Leen esan det amabi urte inguru edo geiago egin nituala bertsorik kantatu gabe, eta amazapi ere ortxe nunbait, naiz auetatik amabi oso edo erdi ixilik eta beste bostak zerbait kantatuaz pasa, ala komeniko zan nunbait eta.

Baiña au ere esan dezadan, *komeni* eta kontu auek orain auntzaren gauerdiko eztula bezela dira ta. Len ere etzuten danak sinisten, ordea, sasoiari beintzat.

Gogoan det: gure errian, lau-bost ume naiko txikiak zeuzkan baserritar bat il zan nere ume denboran, geroztik ere loteriak baiño geiago izan dira orrelako suerteak eta. Baiña esan dedan gizon onen illeta ondoren, negarra eta ixtillua bazan, ez da gutxiagotarako ere eta. Baiña asko elizan ibiltzen zan neska zaar batek auxe esan zuan:

—Zer egingo da, bada, orrelaxe komeniko zan da?

Laister zuan erantzuna gizon batengandik, esanaz:

—Nola komeniko zan, bada, au iltzea? Gutxienez, ala gertatu dala esan zazu.

Bai. Negargarritzko eran gelditzen ziran aitona-amona zaararak eta ume txikiak, eta bizitzari jarraitu egin bear. Orduan etze goan asegurorik, ez-ta bere gutxian ere gaurko laguntzarik, eta al dana egin bear.

Orain goazen nere bertsotan berriro zerbait astea nola izan zan kontatzera. Onelaxe da: Seguran ni ixilik nengoan, baiña bertsolaritza bizi zan. Izan ere, alboko errian, Idiazabalen, *Zepai Sariak* edo *Zepai* bertsolaria zanaren omenez urtero-urtero, dexente urtetan, bertso-sariketak jarri zituzten, eta onek beti ere bertso-giroa sortzen du. Soziedade eta *Ampo* lantokiko jangelan-eta, gazteak ere aukera izan zuten kantuan asteko.

Seguran ere irten zuten oietako batzuetan bertsolari gazteak. Besteren bat ere igual izango zan, eta barka dezaidala bere izena emen jartzen ez badet, eta bi beintzat auek: Pedro Etxezarreta eta Estanis Agirre. Oso bertso-joskera polita du onek ere, Estanisek alegia.

Uztapidek esan zidana: urtean lau aldiz bera baiño gutxiago dan batekin jardunda etzala ikasten. Ni neroni nago naiko pekatu ortan eginda, eta ez daukat iñori zer esanik. Baiña onelaxe dira gure kontuak. Batzuek saiatu eta ikasi egiten dute. Au gezurra danik ez du iñork esango. Bertsotan bastante goien dabiltzanak ere, bertsoa bildu ezinda bat baiño geiago ezagutu ditugu, naiz sei-zazpi urte kantuan eramanean. Baiña etsi ez, eta irten azkenean. Ez dira Sebastian Lizasoren neurrikoak, baiña bai dexente kantatzen dutenak. Iraun dezatela.

Pedro Etxezarreta, berriz, bertsotan aritzen zala zerbait banekian, eta 1979-an kontzejal-edo alkarrekin batera jarri giñan. Ez neukan puesto ortarako gogo aundirik, baiña norbait bear eta baiezkoa eman genduan. Etziran lau urte motzak joan, alde batetik. Ontaz ere badauzkat bertsoak jarrita, eta atzeraxe-agoan azalduko dira.

Esan det lau urte luzeak izan zirala, bai, eta ala da. Beti bazan billera edo junta, eta geienetan parranda pixka bat egiten genduan. Gure moduan, murko belarra igitaiez ebakitzeko baiño obeak ziranak geiago ere baziran, alkate Gillermo Areizagandik asita. Onek ere bertsotan poliki egiten zuan, eta abots bikaiña.

Ala, Etxezarreta ta biok or asi giñan bertsotan, bateko San Isidro zala, besteko ez dakit zer, eta au azkar jarri zan. Oso buru onekoa da, izan ere. Ez dakit ohea nork izango duan. Artxibo ikaragarria da onena. Nik ez det berdiñik ikusi. Onelaxe, sarri-sarri kantatzen asi giñan. Baiña nik lenagoko erreztasunik eta gogorik ez det bigarrenko txanda ontan, nere ustez. Lengo gutxira ere ezin iritxi.

Ala ere, azaiña gogorra egin genduan 1985-garren urtean. *Pernando Amezketarra* leiaketa bertsotan antolatatu zuan Euskal Irratiak, eta kondizio bat auxe izan zan: iru laguneko taldea bear zuan erri bakoitzetik edo ingurutik, eta bertsolariak lenengo maillakoak ez. Izugarri apuntatu zan jendea. Izan ere, sariak, aurrenekoa beintzat tentagarria zan: lareun milla pezta.

Ala, esan nion Etxezarretari, eta baita Goibururi ere. Au bertsolari ona izanez gaiñera, Zaldibi alde ortan oso ondo prestatuta arkitu genduan.

Gero, gure *Txoritegi* alkartean gogor entrenatu giñan, eta bost saiotan irabazle atera giñan. Ara zer balio duan saiatzeak.

Badaukat bertso-mordoska bat txapelketa oni buruz jarria ere. Izan ere, merezi zuan orrelako saria irabazi ezker. Urte ontan, bertso-txapelketa bazan berriz ere, nagusirako kanporaketak alegia, eta apuntatu nintzan. Lenengo saioa Oñatin, eta naiko abots txarra eramane nuan, askotan bezela. Au illuntzetik zan, eta bigarrena Andoañen eguerdiz. Emen naiko ondo aritu nintzan, eta sekulan baiño jende geiago zan uste ortakoa. Baiña lau puntu xixtriñengatik ez nintzan pasa aurreragoko taldera. Ez dago esaterik, baiña nere txapelketak orrela bearko dute seguru asko.

Nere bertsolaritzaren berri zerbait eman det, txapelketak batez ere. Ni gutxi, oso gutxi ibili naiz bertsotan erriz erri. Bate-tik, dei asko ez det izan; eta, bestetik, fabrikan eguna jai artzeko zailtasun gogorra beti, jendea juxtu xamar ibiltzen giñan da. Ala ere, amaika aldiz zerbait emanda, erreleboa aldatu eta joan izan nintzan. Baiña aspertu egiten dira lagunak ere, eta geiegi egin zidaten. Erdaldunak gaiñera geienak, orduan beintzat, inguruan. Gaur ere asko dabil erdalduna lantoki ortan.

Eta ez da beti besteren bearrean dabillena bere onean ibil-tzen. Ni ez beintzat. Neronek esatea ez dago ondo, baiña ez naiz eskean ibili-zalea, zorrak egiten errezak dira eta. Beraz, onelaxe izan da nere orain arteko bertso-mundua, eta orain noan papele-an jarritako bertsoak azaltzen astera.

Baiña oar bat bertso-sail geienai egingo diet; nere izketaldi-txoa aurretik. Batzuei etzaie gustatuko, eta auek bertso utsak ira-kurri ditzatela. Baiña sarri entzuna naiz sail batzuei buruz:

–Au nola ote zan? Arrazoi geiago gabe illun dago.

Eta abar. Orregatik jarri ditut argibide batzuk. Jakiña, batzuetan luzetxo igual irtengo du, eta beste batzuetan moztxo. Lengo egun batean entzun nuanaren modukoa da au ere.

Bat beti edo sarri ibiltzen zana zan nunbait eliza aldean, eta bestea joaten etzana. Elizkoiak sarri esaten zuan segurantzi osoz zerua badagoala eta zein ederra dan eta abar. Baiña, ni nintzan batean, elizkoia or asi zan marmarrean ordu beteko meza izan zala, eta ez dakit zer, tabernan buillan. Eta joaten etzanak ola erantzun zion:

–Mingaiñez deken aiña fede eduki ezkeru, zer dek, bada, ordu beteko meza, milloika urtetako edo eternidadeko zoriona irixteko segurantzia daukan batentzat? Emen amar urte triste pasatzeko, zortzi edo amar ordu egiten dizkiagu egunero lanean.

Eta alaxe da, gustatu ezkeru ez dago luzerik eta. Beraz, orre-laxe egingo degu.

Gure baserri berria

Oraingo bertso-sailla, amarreko aundian, gure baserri berriari buruz moldatu edo jarri nuan. Aspaldikoak dira. Guk etxe berria 1955-ean egin genduan, lengo baserria txikia eta zaarra gendukalako. Zaarra izateak bazituan bere arrazoiak, eta berritu zitekean.

Baiña txikia zan, edo txikia da, oraindik ere badago eta. Ni bizi naizen artean, beintzat, alaxe ikusi nai nuke, gero ez det izango ikusterik eta.

Emen, Goierrin, baserri txiki asko da, lurrez ere bai, baiña etxe-neurriz okerrago. Asko dira aurrena bizitza bat eta gero bi edo iru jarritakoak. Baita lau ere. Gurea zan kaso au. 1700 urte aldean, aurrena batetik bi egin, eta gero bitatik lau; eta beste bi bizitzetan, askotan bezela, apellidu edo deitura berdiñekoak omen ziran emen ere, eta gaur ere bik ala jarraitzen degu. Jakiña, deitura, emakumea etxerako gelditzen bada, ondorengoak aitarena eramaten dutenez, galdu egiten da, eta milla gora-beragatik aldatzen da. Baiña baserri onek ala zala garbi ezagun du.

Beraz, ala pentsatu genduan etxe edo baserria egitea, aita eta ama ere naiko indartsu edo osasuntsu zeuden artean-da; eta gu ere, ogei ta bi urtetik zazpi urtera artean, zazpi senide: iru arreba eta lau anai, eta danak zerbait egiten genduanak.

Izan ere, aberatsak bezela planoak eman da giltza eta etxea biurtzeko, diru asko bear zan; eta gaurko aldean merke zan. Baiña pixka-pixka bat jornalak goraka asiak ziran ordurako; eta, gañera, gauzak gutxi balio duanean, betiko beartsuaren argaltasuna: orduan eta gutxiago eduki, eta beti naiko lana.

Baiña bazeukaten, bai, gure gurasoak dirua dexente garai artako. Dana etzan osatu, baiña amaika izerdirekin egindako ezkurak izango ziran. Ala ere, pozik gelditu ziran egindako lanarekin; baserri berriarekin, alegia.

Orduko prezioak, zerbait esateko, auetxek dira. Emengo edo emen lana egin zuten argin eta igeltseroak, 8'50 pezeta orduko kobratu zuten.

Langille bat, ona gaiñera, ogei ta bost urtekoa eta indartsua ibilli genduan: Juan Ormazabal, Santa Engrazi baserrikoa, seguratarra; eta onek, bost pezeta orduko. Zaku porlanak ogei ta sei pezeta balio zuan.

Auek dira 1955-eko prezioak. Baiña guk, etxeakoak, lan asko egin genduan: batzuek arria atera, besteak masa egin, dana pronto jarri inguruan, eta abar. Ni arri ateratzen jardun nintzan geiena, eta amaika neke bazuan.

Gure alde ontan arrobi edo kantera tajuzkorik ez da, eta *lapitz-arria* deitzen diogu guk emen dan arriari. Kare-arria ere bada, baiña dana lan asko egin bearrekoa. Aurrena lur asko kendu bear arria azaltzeko; eta lapitz-arrian tiroak ere, dinamitak alegia, azkar zirriztuak billatzen ditu; eta ainbeste kosta barrenoz zuloa egiten, eta kale. Baiña arri asko atera genduan, eta osatu giñan arri eta ladrillu eta abar.

Ladrilluak askoz merkeago irtetzen zuan, baiña ezin osatuta zebiltzan garai artan, batetik. Bestetik, emen lur-bidea zan, gaur kamiño ederra badago baiña; eta giroa ere azkar galtzen da lur-bidean. Kamionak, berriz, orduan zeuden mendiko bakarrak, izugarri kobratzen zuten.

Izugarri, bai. Ormaiztegitik gure baserrira amar edo amabi kilometro egongo dira; eta kilometro bat lur-bidean edo kamiño-rik etzegoan lekuan, iru milla pezeta kendu zidan. Etzegoala merkeago ibiltzerik esan.

Baiña merkexego ibiltzen zana billatu nuan, eta pozik. Atera kontuak: 8'50 pezeta ofizialak eta langilleak bost ordaintzen ziran garaian, iru milla pezeta amar-amabi kilometroan kobratzea. Txirritarena:

beste munduan ikusten badet
eman beaizkat graziak.

Onelaxe, bada, egin genduan gure baserri au, eta esker milla lagundu zigutenai; eta gaiñerakoak, aprobetxategiak alegia, zenbat eta urrutiago, obe.

1
Milla bederatziregun eta
berrogei ta amabosta,
bertso batzuek jartzeko daukat
aspaldin barrena oska.
Lan orretantxe saia nai nuke
mingaiñera badatoz-ta,
aundia baida guk urte ontan
izan degun lan mordoska:
etxe berri bat asi ta egin
naiz nekea pranko kostat.

2
Apirillaren ogei ta zortzi
egun seiñalagarria,
baserri ontan guk ipiña
lendabiziko arria.
Lenagokoa nola gendukan
naiko zar da elbarria,
bosteun urtetik gora dauzka ta
gaitzaren mende jarria,
erretiro on bat merezi dezu,
Aizkoeta maitagarria.

3
Zure babesa amaika seme-
-alabak badu izana,
itzik egingo baldin bazendu
egongo da zer esana.
Zenbait alditan bizia zera
naigabeak erasana,
iru-lau aldiz suak pasata
kixkalduz zuraje dana,
baiña sekula etzera izan
orma ta guzti etzana.

4
Nere bizitzan aurrera ere
ikusi nai zaitut zutik,
al dan guztian ondo zainduaz
itokiñetik ta sutik.
Naiz-ta berrian bizi nai izan
nola ez zaindu gertutik?
Almen apurrok artu baintun
zure seaska santutik,
al bada, esker on bat emanda
joan nai nuke mundutik.

5
Zarrari agur eginda beraz
pasa nadian berrira,
urte batzuek badaramazkit
egintza oni begira.
Lendabiziko arria atera
gogor sartuz lur azpira,
atxur da pala arbel zarrari
albora emanaz jira;
arrobi txarren etekin onak
gutxitan izaten dira

6
Alaxen ere zeozer bildu
jardunda ordu askoan,
izardi faltik naiz-ta ez izan
bizkarrean da kolkoan.
Alare pozik lapitz-arrian
bein sartzean arrastoan,
gero barrenoz zulatu eta
tiroak egindakoan,
polbora-usaian miña seguro
buruan eta lepoan.

7

Tiroak ere arri-klase ontan
 berriz gutxitan luzitu,
 zirriztutikan aldegin eta
 nai ainbat ez erdibitu.
 Gero maillu ta palankarekin
 mobitu eta zatitu,
 eta idiakin etxera eraman,
 argiñak orman zutitu,
 tolostatzean gurdi arriak
 umil izkututzen ditu.

8

Etxe txikian naikoa estu
 biziak urte askotan,
 aundi xamarra asi genduan
 ondo bukatu asmotan.
 Deseo ori betea degu
 Aizkoeta-berri ontan,
 luzeerako neurriak ditu
 ogei eta lau metrotan,
 ta zabalean amar da amabi,
 zalantzik ez daukat ortan.

9

Erdiz aurrera bizileku ta
 atzea ukuillu ta sapai,
 bien erdian orma egiña
 teillaturaiño ere bai,
 su gaiztoren bat izaten bada
 berak dezan antxe ebai.
 Baiña ez genduke al baldin bada
 olakorik ikusi nai,
 eta laguntza eskatzen diot
 biotzez Santa Barbarai.

10

Arrixko aundia du baserriak
 garo, lasto eta belar,
 baiña ogibide auxe daukanak
 guztiak eduki bear.
 Sua artzea gerta ezkeru
 sartuta sapaian zear,
 giza-indarrak geientsuetan
 gelditu oi dira melar,
 desgrazi txar au tarteko dala
 sortu da amaika negar.

11

Baserri etxe bat gera ez dedin
 su-desgraziz maillatua,
 aurrerapen bat naiko zuzena
 gaur badago billatua:
 ormigoi edo masak in egin
 barrua ta teillatua.
 Baiña ortarako eduki bear
 diru asko pillatua,
 ta baserrian beti gaiñean
 pobrezaren olatua.

12

Bere galestin teillaturako
 zerbait probatu liteke,
 lur-biden partez kamiño baten
 jabe baldin bagiñeke.
 Ori ez duanak inguratutzen
 ordea ainbeste neke,
 mendietako kamioi-zaleak
 egonik dirutzan eske,
 euriarekin ezin baidute
 ta nola ibilli merke?

a13

Mendin etxe bat zutitutzeak
alakoxe lanak ditu,
nik orren garbi ez nun jakingo
neuk probatu ez banitu.
Bideagatik giron esku
bearko lanean aritu,
orregatikan egur, arri ta
bertakoz bear balitu,
ez degu penik bide ortatik
bein giñalako abitu.

14

Alaxen ere guk izan degu
etxe ontan naiko lana,
zintzo jardun da uko egin gabe
nekean famili dana.
Beste batzuek ere badute
naiko laguntza emana,
nik guztiari millaka esker
eta besarkada bana;
anaitasun au gorde zaiguzu,
gure Jaungoiko lastana.

* * *

Baserri berri au egindakoan, osaba, izeba eta abar bazkari
bat egin genduan etxe ontan, eta bertso batzuk jarri nituan,
batik-bat gure gurasoai kantatzeko, eta kantatu nituan. Aietatik
iru, auetxek dira:

1


Milla beatzireun berrogei eta
amabostgarren urtean,
Aizkoeta-berri, egin zaitugu
amaika illabetean,
besteak beste, guraso eta
familikoen artean;
zorrak ordaintzen lana badaukat
bizi naizen bitartean.

3

Amaika izerdi bota dezute
Aizkoetako kaxkoan,
negu ta uda, gau eta egun,
etxe bat egin asmoan;
gaiñera zazpi ordeko sortu
eta jarri arrastean,
eskerrik asko, guraso maitek,
gozatu urte askoan

2

Len txikiakin asperturikan
egin zaitugu aundia,
oetalau metro luzean eta
zabalen orren erdia;
dirutan berriz xautua degu
gurasoen izerdia,
ala ere pozik ikusten dute
etxe berrin alderdia.



Aizkoeta-berri gure baserria,
1955 urtean eraiki edo zutitua.

(1956)

Bertso Berriak Segurako erriari jarriak

Bertso-sail au Segurako erriari eskeñitakoakin osatuko degu. Aspaldikoak dira, 1956 urte inguruan jarri nituan eta.

Or aitatzen ditudan larogei baserriak erdira edo gutxiagora jetxita daude.

Errotak ere, berriz, bost bazeuden lana egiten zutenak, eta auetxek ziran: Madalena-errotak, Lexaka, Urnagusi, Armaola eta Arrabiola. Gaur Armaola bakarrik jardungo da, Joxe Zubizarreta eta bere familiak zaintzen dutena. Baiña au ere erdi geldi.

Izan ere, emengo gari ereiteak ogei urte eta geiagoan amaituta daude. Artoa ere, kamion aundia kargatu gabe, Seguran izaten diran danak eramango lituzke, aletuta jarri ezkerok. Au ez da izaten ez dalako. Artoa gaur ere izaten da, batzuetan obexeagoa eta besteetan txarxeagoa. Len ere amaika urte-klase izaten ziran. Baiña gaur oso gutxi ereiten degu, eta asko ezin izan. Auxe baserri eta errotai buruz.

Orain noan Segurari buruz zerbait esatera, ni baiño trebeagoak ontarako geiago egongo dira baiña. Segura izen aundiko erria da alderdi askorengatik. Batzuk onak eta beste batzuk txarrak edo erdipurdikoak, noski.

Esaten dute, eta au egia da, Segura garai batean Oria ibaia-
ren inguruan zala; eta garai artakoa omen da San Andres eliza,
ondo zainduaz gaur ere ermo eta jator dagoana.

Askok dira orduko erriak etzuala *Segura* izena izango esaten dutenak. Nik neronek ere alaxe esango nuke. Baiña len ere esan det ni baiño bizkorragorik egongo dala au erabakitzeke. Baiña *Segura* itza gaur Segurarentzat, eta orain lareun urte izango zanarentzat, naiko parean dator. Onekin esan nai nuke kale-kaskoa ondo itxia izango zuala. Iru arku-ate, edo *portal* izenez guk

ezagutzen ditugunak, gaur ere zutik daude oraindik; eta nik pentsatu izan det beste iru edo lau ere izango zituala garai batean, len esandako arku-ate edo *portal* auetatik naiko sarrera aldrebe-sa izango zualako. Baiña bearbada alaxe izango zan: irurekin bakarrik.

Garai artan zaldi edo abere gaiñean ibiliko ziran aberatsak, eta gure modukoak, oiñez; eta oiñutsik ere bai amaika, igandee-tako mezetarako oiñetakoak gordetzearren.

Au ez det esaten nik pentsatuta. Ez-ta orain milla urtera joanda ere. 1830 inguruan, gure auzo ontara ezkontzaz beste erri txiki batetik etorri omen zan mutil bat. Gure aitona esaten zuan, aurrekoai entzunda arek ere, jakiña, elizara zijoanetik aparte ia beti oiñutsik ibiltzen zala; eta ala esaten omen zioten:

–Motell, motell! Orrela ibiltzekero, txalak alperrik jaiotzen dituk narruarekin.

Izan ere, orduko oiñetakoak danak narruzkoak izango ziran. Baiña arek bere anka-narrua ere txal edo beienaren parekoa edukiko zuan; eta jazten eta erazten lanik ez, eta orrelaxe kontuak.

Len aitatu ditut aberatsak. Aiek izango zituzten zaldi edo abereak, eta bearbada iru arku edo ate oietatik pasako ziran barrura eta kanpora.

Onek ere badu bere arrazoia: zenbat-eta ate eta leio gutxia-go, lapur edo gaizkilleak sartzeko arrisko gutxiago izaten da; eta Segura seguro egoteko alaxe izango zan. Au eta geiago jakingo zuten barruan bizi ziran batzuek, eta gau eta egun zaintzaille edo goardia eduki ere bai. Baiña amaika gora-beera gertatuko zan orduan ere, ate tzar oiek olako trankaz itxita edukitzeko; eta etsaiak orduan ere barruan da kanpoan eta leku guztietan.

Segura ontan, beintzat, aberats eta lege-gizon eta olako saila biziko zan. Gaur ere nunai arkitzen dituzte seiñaleak artxibotan. Emen dauden etxe aukerak daude esanez. Oien arriak eta lekuak eta dotoreziak garbi ezagun dute zer jende-klase biziko zan or.

Aseran esan det Seguraren izena gauza askorengatik dala ezaguna; eta aberats auen ekintzak ere amaika modutakoak izaten omen ziran. Baiña ontaz beste leku batean esango det zerbait.

Izen aundia eman izan dion beste bat eliza da. Ama Mariari eskeiñitakoa bera. Ni iritxi naizen erri geienetan, ateak zabalik

badaude beintzat, badet oitura barrutik jira bat egiteko. Geienak naiko bikain eta txukun arkitu izan ditut. Eliza ederrak, erri txiki askoak izan arren. Baiña Segurakoak badu alakoxe aparteko klase bat. Aundiz, berriz, oso aundia da. Nik ez dakizkit bere neurriak, baiña oso aundia da. Sei poste edo eusgarri ditu. Baita bear ere, au egin zan garaian egongo ziran aurrerapenak kontuan izanik, ainbesteko utsunaren edo *hueco*-ren teillatu eta aren azpiko sapaia dotore bikaiñari eusteko. Sei poste edo eusgarri auengana eta alboetako ormetara dauzka arriz jira edo arkuak egiñak; eta, amaika gizaldi pasatuarren, sano daude, eta egon ditezela. Aldara ere ikusgarria du. Aundia ere baita. Kanpakiak ere ez dira badaezpadakoak, naiz argiak eta naiz illunak eta naiz bitartekoak jotzen dituztenak.

Beste eliza bat ere badu, komentu edo moja-etxea alboan duala. Sorkunde edo kontzeptzionistak dira moja auek. Komentu onen eliza ere bada erri askotako elizaren pare eta geiago, bai ederrez eta bai neurritz, zaindu ere ondo egiten dute ta.

Beste bost ermita edo baseliza baditu. Bat, Santa Engrazi, beeko barriotan, ondo zainduta. Bi egintzatan egiten da onera bixita, nere denboran beintzat: ostiral santu goizean kalbarioak edo gurutz-bideak asera ortxe izaten dute, Santa Engraziko ermita ortan alegia; eta santaren egunean, apirillaren 16-an, edo ondorengo igandean, aziak bedeinkatzera, arto eta babarrun eta nai dana. Ermita au ere oso aspaldikoa izan bear du. Garai batean eliza orixe izango zan beeko barriarena, bere illerri edo kanposantu ta guzi, esaten dutenez.

Beste ermita edo baseliza, eta danetan audiena au, San Andres da. Len ere esan det lenagoko Segura edo onen orde zkan erriaren eliza bera zala, nik entzun izan dedanez. Emen San Andresetan, azaroaren 30-ean, izaten da eguna. Baiña astean bada egun au, geienean ala egokitu da eta, urrengo igandean izaten da meza.

Bestea, San Sebastian. Emen ere ondorengo igandean ospatzen da, astez bada.

Beste bat Gurutze Santuari eskeiña dago, erriaren edo kalearen barrenean. Oni ere bere jaia eskeintzen zaio: maiatzaren 3-an. Egun ori aste bada, igandera aldatzen da.

Eta bostgarren, Santa Barbara. Au Segurako kaletik lau bat kilometrora edo orrela dago mendian, eta Segurako mendirik

altuena bera da. Emen Azentzio edo Jesusen Igoera-egunean ospatzen zan jaia ia orain arte. Baiña gaur aste jarria dago egun au, eta urrengo igandean ospatzen da.

Beste iru ermita ere ba omen ziran len, eta au ziur badakigu: San Migel, San Bizente eta San Juan. Azkeneko au oso aspaldi izkutatua izango da, nere ustez. Ala pentsatzeko arrazoa badet beintzat, eta auxe da: batere etxe jakiñik gabe beti aparte ibiltzen zan belardi bat bazegoan, eta badago gaur ere, gure etxetik gertu edo irureun bat metrora; eta *San Juan zelaia* bere izena.

Badakizute eta ez badakizute, berriz, onela da: emen, Goierrin, belardiari *zelaia* esaten zaiola. Seguratar batek beti ala eza-gutuko du belardia, *zelai* izenez alegia. Baiña beste erri batzuetan ere onelaxe beren izen-motak baditu: *belaze* eta abar. Beraz, *San Juan zelaia* deitzen zitzaion belardi au Segurako Zurbano zanarena zan. Auek oso aberatsak omen ziran; eta len esan dedan etxe orietako bat ortxe dago Segurako kalean, bere jardin eta guzi. Ermita egondako belardi au amasei milla metro izango da. Orain iruk ibiltzen degu, eta azkeneko eun urte auetan ere bai. Batek erdia, beste sailla biren artean, eta lau milla metro inguru da gurea. Gure aitak erosi zuan 1940-an, eta milla pezta juxtu esaten zuan ordaindu zuala.

Ermitatik erosketara eta abar zabaldu naiz, baiña orain esatera noana orregatik izango da. Ni gazterik asi nintzan galdez *San Juan zelaia* izena zergaitik ote zuan belardi onek, eta beti ere erantzun garbirik ez nuan jasotzen, erantzun bat auxe izaten zalako: lora-klase bat bada belardian irtetzen duana San Juanak aldean, barruz orixka eta ertzak txuriak dituana. Lora-klase au asko irtetzea ez da seiñale ederra, belar aundia edo ugaria egoteko. Baiña belardi ontan legor-urtean asko irten oi du, lur mee xamarra dagoan lekuetan. Ala ere, belar-leku ona da geiena baiña. Eta belar oni emen *San Juan lora* deitzen zaio, eta orregatik ote zan *San Juan zelai* izena pentsatzen genduan, naiz ermitaren susmoak beti eduki. Ontan, Segurako semea dan Patxi Albizu apaizak Balladoliden edo or billatu zituan agiriak, berak esan zidanez; eta egiztatu zan ermita zala.

Egoitza edo edadeko eta elbarrientzat etxea ere bikaiña du Segurak, eta alboko lau erri auek ere onekintxe osatzen dira, beartzen diranean: Idiazabal, Mutiloa, Zegama eta Zerain. Beraz, bost erri auetako jendea, eta leku geiagotakoa ere, bada-

go egoitza ontan, makiña bat kostatako obra bikaiñak ere egin ziran-da etxe ontan. Ala ere, leku tristea zala esan zidan aitona batek bein batean, eta arrazoa ere bazuan gauza batzuetan: zaar edo ezindutako utsak alaitasun gutxi zutela beren izketaldietan, eta lagun sasoikoakin edo gazteakin pozik itz egiten zuala, berde kontu pixka bat nastuta ere askotan izaten zala eta. Nik nereki-ko auxe pentsatu nuan: orrenbeste egin bear gendukela jende orrekin, pazientzi pixka bat artuaz izketaldi batzuk alegia. Baiña zelebrea gera eta ala jarraituko degu beti, bakardadeak eta gaitzak guregana etorriko ez diralakoa. Baiña “gaur ni eta biar zu” dira mundu triste ontako baldintzak, eta ala jarraituko dute.

Beste leku bat edo lur-sail bat badu Segurak, jende asko arri-zen duana, ain lur-sail txikiko erria izateko. Bi kilometro eta geiago luze, eta zabalean ere bosteun metro toki askotan dituan ordeka edo zelai bikaiña, Oria ibaia barrenetik duala. *Madura* izenez ezagutzen da Seguran, eta leku ikusgarria da, ain aldapa gutxiko eta berdiña dalako. Amaika soro bikain bazan lenago, gaur geiena belar dago baiña.

Madura izena ez dakit nundik norakoa izango duan. Nik iñoiz pentsatu izan det, Oria ibaia barrenean daukalako, *mendean ura* edo olako zerbaitetik jarritako izena izango ote duan ere. Baiña garbi esateko ez det uste iñork jakingo duanik. Baiña *Madurak* eta *mendean urak* tankera pixka bat badute. Bestela, *Segura* bezelaxe, naiko erdera itza iruditzen zait neri *Madura*.

Baiña erdera gutxi egiten dan erria da Segura, oso premiz-koa ez bada, zerbaiten bearra izango du gure euskera gaixoak eta. Emen, 1979 urtearen azken alderarte, guardiazipillak egoten ziran. Oraindik ere, aiek bizitako etxea ortxe dago, gaur erriarena da baiña. Oiek beti erdaldun puruak ezagutu ditut nik. Baiña oien semeak, bat baiño geiago badira emen euskera ondo ikasiak, gero galdu egingo zuten baiña, badakizute oiek zer euskaldun-zale ziran da. Baiña emen mutil koskorak beste erremediorik ez eta ikasi egiten zuten, danok euskeraz egiten gendualako.

Gaur ere, emen dauden erdaldunen umeak, askok egiten dute euskeraz, eta poza ematen du. Umetan gauzak errez ikasten dira, eta txikitan ikasia nekez aztu oi da.

Beraz, orrelaxe gauzak; eta Segura erri ezaguna zergaitik ote da geiago? Ara beste bi gauza ere, erri oni izena ematen edo

ugaltzen beti aritu diranak, bat berria da bestearekin konparatzeko baiña. Bat, ostegun eta ostiral santuetako ibildeun edo prozesioarena da. Aurrerago itz egiten det auengatik. Baiña gertaera bat, esango det, oso arrigarria egin zitzaidana, egun auri buruz.

Soldaduskan, denbora dexentean edo egin nuan denboraren erdian, gastadore egon nintzan. Au entenditzeko edo au zer lan dan jakiteko, soldadu izana edo orren berri dakiana bear du. Bestela, lenagoko ama ura bezela geldituko da. Ezeak eta igarrak gastatzen zituan seme bat omen zeukan soldadu, eta or abixatu dio: “Ama, gastadore ipiñi naute”.

Eta pentsatu, len dirua bialtzen aspertutako amak zer esango zuan *gastadore* itza aditzean.

Baiña gastadore da, edo zan, ni ibili edo egon nintzanean, auxe: desfile edo ibili asko egin bear izaten ditu soldaduak, eta soldadu-sail aundiaren edo taldearen aurrean sei eta kabo egiten zuana joaten giñan. Gure kordoi eta traste, amaika pauso eta ibili-aldi egin genduan Burgosko kale zaar aietan.

Gaiñontzean, astearen egun batean koronelaren txakur bezela egoten giñan. Koronela gradu edo galoi aundiko gizona militar bizitzan; eta gu, patiora edo paseatzera irtetzean-da, atzera-xeagotik joaten giñan, eta agintzen ziguna azkar egin ere bai. Zer erremedio! Ofizinan bazegoan, ate ondoan exerita; eta papelen bat ematen bazigun, beste ofizinara eramán, eta orrelaxe.

Etzan ganadu ederra gizon ura, eta amaika gauza esango nituzke. Baiña ez da nere asmoa ori leku ontan. Auxe esatearren zan guzia: gure kuartel edo koronel eta jende ori zegoan ofizina oietan, bein joan zan *general de brigada* bat. Au koronela baiño aundiagoa da, eta bazan *presenten armas* eta *firmes* eta trastea ugari. Oiek olakoxe zeremoniak dituzte. Baiña ordu pare bat egin zituan koronel orren ofizinan, eta ni egokitu *txakur* egun ortan, amaika orrelako suerte badet eta. Naiko estu nengoan, baiña antxe egon bear. Irten zuanean, ura sustoa! Or dator neregana. Eta nik ezer esaterako edo saludatzerako, ea *norte* aldekoa al nintzan galdetu zidan. Baietz esan nion; Gipuzkoako erri txiki batekoa nintzala. Ea zein erri zan; eta Segura zala. Eta or ez dit, bada, esaten, amabi urte zeuzkala, bere gurasoakin ostiral santu egunean Seguran izanda zegoala ibildeun edo prozesioa ikusten? Garai artan bere familia Irunen bizi zala.

Frantzisko Bergaretxe Maritorea zan jeneral au: Irunen jaio eta azia. Gaur ere bere familikoak bizi omen dira, jakin nuanez. Euskeraz etzuan jakingo. Batere bazekian, nik erderaz aiña jakingo zuan; baiña neri, beintzat, etzidan egin. Baiña galdetu zidan oraindik jarraitzen al genduan ibildeun orrekin, eta baietz.

Ala, agurtu ninduan eta ez dakit aspaldiko berririk. Baiña illa izango da. Bestela, eun urte ez ditu aparte izango. Kontu au zala ogei ta amabi urte badira, eta arek ordurako irurogeitik gora zeuzkan. Beraz, ura Seguran 1910 aldera izango zan, eta orduan Irun urruti zan Seguratik. Orduko ibiltzeko moduari begiratuta esaten det au. Izketaldi ontan luzeegi egingo nuan bearbada, baiña orixe esan nai nuan: Segura izena ezagutzeko bide bat ostiral santua ere izan dala.

Beste ezagutzeko era bat, berriz, auxe izan zan. Orain ia ez gaitu ezerk arritzen. Baiña munduaren ixtorirako ogei ta amalau urte ezer ez badira ere, Segurako edo Seguran piztu edo asi zan txori batek izan zuan emen, Goierri aldean, eta urrutixeago ere, ots galanta. Segurako Irratiaz ari naiz. 1956-ko udaberrian asi zan, edo asteko modua, lana pranko artuta, egin zuan don Zesareo Elgarresta apaizak. Bergarako semea zan bera; baiña berrogei urte egingo zituan Seguran, eta ementze il zan. Pakean atsenden dezala.

Len esan det ogei ta amalau urte utsa dala munduaren ixtorirako. Baiña arritzeakoak gertatu dira geroztik.

Irrati au asi zanean, makiña bat etxetan erosi zan aurreneko radioa. Jendeak alkarri esan. Irrati onen lana errosario eta soiñu eta zenbait berri; eta, len esan dedan bezela, Segura izen edo erri onen egintzak ezagutzeko beste aukera bat auxe izan zan.

Beraz, onenbestez bukatzen det nere ezjakintasunean Segura gure erri maiteari egin diodan azalpena. Nere asmoa ez da izan arronkak kontatzea, nere iritziz beintzat, ikusiak eta entzunik jartzea baizik. Sekula ez det pentsatu Segura eguzkia danik besteen ondoan. Erri guziak dituzte beren alderdiak, onak eta txarrak. Baiña nik uste det berez ez dala erri kaskarrik. Gu gera emen izena kendu eta eman ibiltzen geranak. Eta gaiñerakoa ordu irakurleak bertsoan.

1
Segurari nago gaur
kantatu asmotan,
ta len ere gogo
izan det askotan.
Baiña ezin arkitu
itzik mingain ontan,
esateko erri oni
zenbat nai diotan.

2
Nere erri maitea
zu zaitut, Segura,
emen izan zan nere
munduratze ura.
Jaunak bialdu nindun
leku sosegura,
ta emendik eraman
nazala zerura.

3
Segura, zaude beti
era apalean,
baserrian bezela
berdintsu kalean.
Olaxe segi zazu
iñundik alean,
pozik bizi gaitezen
zure magalean.

4
Gaintxo batean dezu
zure kale-sailla,
gordetzeko duala
ertzetan murailla.
Arku eta jauregiz
dezun eder mailla,
len zer ziñan ez dago
antz ematen zailla.

5
Eliz bikaiña dezu
orma eta kanpai,
gaiñean dituala
lau arrizko tantai.
Eta barruan dauzkan
gauz eder galantai
zeozer esateko
neroni ez naiz gai.

6
Mojatxon komentua
beste alderdian,
eliz bikain askoa
duala erdian.
Au ere zutitua
dago aspaldian,
mojak erregutzeko
maitasun aundian.

7
Egoitza ere badezu
aundi eta zabal,
izateko zar eta
elbarrien magal,
auzo-erriak ere
serbitzeko leial:
Zegama, Mutiloa,
Zerain, Idiazabal.

8
Bost ermitatxok ere
oi zaituzte jantzi,
beeko barriean
dala Santa Engrazi.
Antxe bedeinkatzen da
makiña bat azi,
eta ostiral santuz
kalbariok asi.

9

Kale ertzean Gurutza
ain leku eztian,
goi aldean San Andres
ta San Sebastian,
Mendin Santa Barbara
pagoen azpian,
zainduaz turmoia ta
sua dan guztian.

10

Baserriak badira
larogetaraiño,
batzuk oso aundiak
ez dirade baiño,
jasoko nituzkenak
ez dakit noraiño,
egin dutenagatik
orain arteraiño.

11

Or jaio ta bizi da
ainbat jende prestu,
batzuetan lasai ta
besteetan estu;
ta euskeraz bakarrik
itz eta abestu,
orregatik digute
gaur arte babestu.

12

Baserri jator auek
izateko jana,
bost errotak egiten
dute zintzo lana.
Naiz errotaria jo
ondo bizi dana,
emen danok daukagu
arantzatxo bana.

13

Beste gauza eder bat
badauka Segurak,
danok arritzen gaitu
dadukan Madurak.
Itxasoa berdintzen
duan eran urak,
onek lurretan dauzka
aren egiturak.

14

Zabala ta luzea
olako zelaia,
barrenetik duala
Oria ibaia.
Madura izenez zuten
noizbaiten bataia,
metroetan neurtuta
milloi bat bada ia.

15

Nere erriko berri
orra esan zerbait,
jakin dezaten bizi
diradenak nunbait.
Baiña azaldu gabe
asko gelditu zait,
ondo banaiz geiago
esango det noizbait.



Argazki ontan emezortzi edo emeretzi urte nituan.
Atzo zala esan diteke, eta ara zer aldakuntza....

(1956)
Ogei urte

Oraingo bertso aukerak ere aspaldi jarri nituan. Etxe edo orain bizi geran baserri au, berria, 1955-ean egin genduan, eta orretaz ere badauzkat bertsoak jarrita. Baiña oraingo auen arrazoia edo jartzeko gogoia eman zidaten etxea egiten emen zebiltzan argin eta arotz eta oiek.

Izan ere, nik urte artan betetzen nituan ogei urte, eta bete nituan. Sarri esaten zuten ogei urte zala munduko sasoirik onena, eta beti ogei urte kontua. Ez da edade txarra. Baiña ogei ta bost eta ogei ta amar ere onak dira, bat osasunez ondo bada-go.

Baiña, dana dala, orduan ikusten nituan bezela gauzak ortxe jarri nituan, astia nuanean, azaroaren 8-an asita. Orduantxe egiten baiditut nere urteak.

Orain pena bakarra daukat: urte askotxo joan egin dirala eta gutxi geldituko dirala bizitzeko. Onela esan oi degu beintzat. Baiña bein berrogei bete ezkeru, urteak gelditu egiten dira soñean kargagarri; ez pasa. Eta zenbat eta gorago, orduan eta astunago oien zama, eta iñun ezin utzi.

Lenagoko mutikoak sekretario xaarrari esan ziona. Sekretario xaarra juntu-juntu bi makulurekin, eta koxka bat jo du eta lurrera.

Mutikoak etzuan asmo txarrez egingo, baiña parrea azalean. Eta besteak gogor xamar egin, eta azkenean gaiñera latza bota ere, zaarrak alegia:

–Aizak; mutikoak eta gazteak ere iltzen dituk, e?

Eta erantzuna:

–Bai. Gazteak, batzuk iltzen dira. Baiña zaarrak, danak.

Eta ori dator, Baiña al degun arte, edo osasuna eta geure buruaren jabe geran arte, jarraitu dezagula; eta, al balitz, min aundi gabeko azkena izan dedilla.

1
Milla beatzireun da
berroe ta amabosten,
ogeigarren urteak
ni nauena josten.
Sasoia nola ez dan
perian erosten,
pasatuak diote
duala ainbat sosten,
eta ilda dagola
or ez dana pozten.

2
Beraz, guztiz ederrak
dira ogei urte,
len izan zituztenak
aitortu digute.
Nik oraindik ez nekin
esan ez balute,
nunbait ikusten zail da
ainbeste birtute,
baiña ondo banaiz laister
aldegingo dute.

3
Beraz, eskerrik asko
zuri, azaroa,
nigana dezulako
garai oparoa.
Naiz urteari eman
ia zartzaroa,
len amar illabete
zaude igaroa,
ondo etorriko zaizu
berrin anparoa.

4
Berroe ta amairu egun,
zatar edo polit,
bakarrik dauzkatela
urte ontan badakit.
Baña berrian pilla
aundia datorkit,
pentsamentu orixe
buruan dabilkit,
ondo pasatzen Jaunak
lagundutzen badit.

5
Urte batean bete,
bestean pasatu,
orrelaxe bearoko da
bizitza osatu.
Ala dana esaten
zertako lotsatu?
Osiñik ezin bada
ere larrosatu,
dezakegun apurra
nola ez gozatu?

6
Pobrearen bentajak
ez dira geiegi,
baña degunarekin
zintzo bear segi.
Lana ugari eta
pesta nekezegi,
mundu aldrebes onek
ditu bi aurpegi:
batzuek ain txiro ta
bestek dotoregi.

7

Mundu onetan alde
galantak badira,
ikusitzen diranak
jarrita begira.
Batzuk gogor lanean
argitik argira,
bestek aien kontura
aunditik aundira,
ez itxuran pareko
kristauak balira.

8

Ez ibilliagatik
Jainkoaren legez,
bestek egiñarekin
bizi dira errez,
aixa asko jorratuz
guk egiñak nekez;
ez gerade igoko
orien mesedez,
sasoia gastatu ta
azkenen ezer ez.

9

Ari zuzena dago
aspaldi etenda,
gizona're da nunbait
diruaren prenda.
Bati ondo joatean
etxe edo denda,
azkar jartzen da pobren
maillatik irtenda,
eta aberatsaren
berdiña izaten da.

10


Ibilli arren berriz
bat zuzen eta fin,
zenbaitek ordun ere
aixa artzen du min.
Danaren gustorikan
ezin leike egin,
asitzen bada ere
fintasun geiegin;
beraz, ondo bizitzen
ez dago atsegin.

11

Baserrian galanki
oi gerade saia,
erreminta auekin
bakan dago jaia:
eskobara ta sarde,
atxur eta laia,
berdin aizkora, sega
edo igitaia,
gauerako utziaz
pestako garaia.

12

Ogei urte ta bizi
bearren olaxe,
naiz-ta bidez aldatu
liteken oraintxe.
Baña nere biotzak
bizi nai ementxe,
famili, adiskide,
ganadu ta etxe,
au maitatzen detanez
saiatuz bertantxe.



Segurako erria; atzean, Zerain.

(1956)

Otsailleko eguraldi bildurgarriari

(Doiñua: "Iparragirre abilla dala...")

Oraingo bertso aukerak ez dira atzo goizekoak. Nik, beintzat, baneukan gaur aiñako sasoiak: ogei urtetik ogei ta bira. Ala ere, otzak garbitu ez giñuzenean, pozik otsail artan. Negu ona joan zan bitartean. Baiña gero, zer zan ura? Egunez gatza bezelako elur kaxkarra; eta gauean, garbi-garbi, illabete osoan. Nik orain ez daukat gogoan zenbat gradutako otza izango zan. Baiña derrigor aundiak izango ziran.

Arbia gaur baiña geiago ereiten zan orduan, eta danak usteldu zituan, au neguko frutua edo neguan ondo irauten duana izan arren. Sagar-arbolak ere, igartu ez; baiña guk urtea genduan ura, eta etzuten alerik eman. Ostu itxurazkorik ere ez. Sagar-urtea esan det, eta bai: guk urte artan genduan, eta garbi utzi nai nuke, askori arrigarri egiten zaie eta. Gaur, botika eta abar, urtero berdintsu sagarra izaten dutenak badaude. Baiña orduan emen, Goierrin, eta nik etxekoa esango det aurrena, guk berrogei ta amar gurdi izaten genituan, edo ortik gora, *pares* tokatzen zan urtean: 52-an, 54-an eta orrela. Baiña beste urteetan lau gurdi ere etziran izaten. Beste leku batzuetan, berriz, guretik urruti gabe, *nones*-ko urtean izaten zuten: 51-n, 53-an eta abar.

Ala esaten zuan Aizkoeta-barreneko Jose Joakiñek: amaika prueba egin zuala guretik eramane da mentuak txertatuaz; baiña an berriz ere lengoan jarraitzen zutela. Ikusten danez, diru geiagoe giten zuan guk izaten genduan urtean, nunbait beste urtean askoz geiago izango zan da. Au, sagar gezarekin, sagardotarakoarekin alegia; eta gaziarekin ere berdin.

Beraz, negu txar ontan, gureak ere merkeko aldera asi ziran ematen, eta ura propiña, urte artan eman etzutelako.

Orain, berriz, eta aspalditxotik, ez da emen sagar-aldi itxurazkorik izaten. Arbolak berak ere noiznai igartu eta noiznai

antzu. Gaur dana botika eta nik ez dakit zer bota bearrean dagoan. Arrak edo emeak izurratu dute au, batere itzotz eta elur bearrik gabe. Baiña 1956-ko ura onelaxe gertatu zan.

Guri piñutan ere kalte aundiak egin zizkigun mendian, eta beste geiagori ere bai.

Beraz, onekin bukatzen det bertso auen aurreko itzalditxoak.

1
Milla beatzireun berrogei eta
amaseiko otsailla,
egia esan bear badegu
pasa degu otzak illa.
Eman du naiko lana,
gaizki pasatzen dana,
ainbesteko egun-sailla;
motxa izan arren ill au izan da
igarotzen naiko zailla.

2
Ala bear ta gaiñera aurten
bisiestoa genduan,
badakizute egun bat geio
onek nola izaten duan.
Ogei ta beatziak
joan dira gaziak
elurrak ezin kenduan;
berrogei ere pasako zitun
izan balitz abenduan.

3
Eguneroko elur kaskarra
ta gaueroko izotza,
dar-dar jartzen zun ipar-aizea,
gau ta egun beti otza.
Len bagenbiltzan justu,
onek geiago ustu
eta tristetu biotza;
olako batzuk badira, laister
baserrian eriotza.

4
Euskadin nundik azaldu dira
olako egoaldiak?
Uste det aurten berdin zirala
Siberia eta biak.
Egun guztiak illun,
eguzki gabe iñun,
ta gauak garbi-garbiak;
igartu ditu piñuak eta
usteldu ditu arbiak.

5
Arbi bikaiñak genduzkan aurten
da poza zan negurako,
ainbeste otzek galdu ez balitu
auk ere sekulako.
Olako loteriak
dirade eroriak,
bai, gure ikuillurako;
aurten ez degu etekin asko
baseritik eskurako.


6
Lenago ere naiko justuak
baserriko etekiñak,
ori dala-ta bat baiño geio
badirade aldegiñak.
Utzi gaitu orraztuak,
pentsutako gastuak
derriorrak eragiñak;
ori saldutzen dutenarentzat
pozak eta atsegiñak.

7
Esaera zarra; “danarentzako
iñoiz peri txarrik ezta”,
aurtengok ere pentsu-zalenzat
ekarri du naiko pesta.
bai pentsu ta bai lasto
gastatu bear asko,
bestentzat ainbeste pezta;
auxe bai dala negargarria
pentsatzen jarri zaitez ta.

8
Mendira joan da baso-saillari
begira egon naiz gaur,
piñu aundiak eta txikiak
biurtu ditu su-egur.
Ainbat giro alako
etzan gutxigotako,
beti izotz eta elur;
berriak jartzen lana jarri du
lengok egiñik agur.

9
Sagarrak ere guri ematen
ziguten bi urtetik bein,
eta urtea aurtan genduan,
baiña onek ere aldegin.
Naiz-ta egon txotxean,
ainbesteko otzean
auek ere artuta min;
urrena doble izango al da
pixka bat konpondu dedin.

10
Orra ba galdu otsail ontan
arbi, piñu ta sagarrak,
naiz sagarrari urrengorako
sano gelditu adarrak.
Beraz, itxaropena
artu ta naiko pena
oraindik baserritarrak,
gugan irauten baldin badute
pazientziaren indarrak.



Burgosen soldaduska egiten nengoala,
ango katedral famatua atzean dala,
1957 urtean.

(1957)

Soldaduskatik egindako karta

Soldaduska ere etorri zan. Amaika aldiz entzundako kontua bertatik ikusteko era. Izan ere, soldaduska derrigortu zanean Euskal Errirako —mende au baiño dexente lenago—, jendea erruz joan omen zan Amerikara-eta igesi; eta geroztik ere amaika bai.

Baiña soldaduskara joan-eta egiten zutenak, Afrika, Bartzelona, Burgos edo Donosti edo tokatzen zan lekuan aldatuta, garai batean bizitza guztirako ixtoria ekartzen zuten; eta bai gogoan eduki ere. Bestela sekula ikusiko etzituzten parajeak ikusi ere bai.

Ni oso gutxi edo batere irten gabe nengoan Segura ingurutik: Iruñara bitan San Fermiñetan, eta gaiñerakoan batere ez. Eta, alde batera, zerbait ikusteko gogoia ere bai. Izan ere, zeñek pentsatzen zuan orduan kotxe eta guzti bizitzera iritxiko giñala? Gaur kilometroak aixa egiten dira; amaika baztar ikusi ere bai.

Beraz, len ere zerbait badet esana nere soldaduskako berri, bertso-bizitza azaltzerakoan, eta Burgosko Artillerira tokatu nintzan. Ez dakit bildurra geiago eraman nualako-edo, emen bertsoetan aitzaki batzuk kontatzen ditut. Baiña oso ondo ibilli nintzan. Jakiña, an esandakoa egin bearra zegoan, eta zuzen. Beste aldera ere, ogei urteko mutillari pixka bat utzi ezkerro katetik, zeñek bildu arrastora? Baiña gu euskaldun asko giñan, eta giro ona ibiltzen genduan. Dirua dexente bear zan. Izan ere, aparria tabernan egiten oitu giñan, eta egunak eguna gertuan du

Baiña gu joan giñanetik, aurreneko sei illabetetatik aurrera, ia bost pezta garestitu zan geuk egiten genduan aparri koxkorra. Aurrenean, nik bertso auk jarri nituanean, joan da iru illabetera jarriak dira-ta, amairu-amalau pezetan zana amazapi-eme-zortzira igo zuten. Ala ere poliki moldatu giñan, gure kuartela leku lasaia zan da. Baiña etxera ere pozik aldegin nuan bukatu zanean. Eta bertso auk gorde egin nituan, orduan gauza grabe zegoan-da; eta orain emen jartzen ditut, nai dituanak ikasi.

1
Milla beatzireun da
berroe ta amazazpin,
soldaduskako berri
eman nai det itz bin.
Beti gabiltz militar
aginduen azpin,
minberatutzen dute
amaika biotz fin.

2
Martxoaren ogeian
Burgosa ekarri,
geroztik emen gabiltz
estu eta larri.
Naiz-ta ez egon emen
ain gose-egarri,
amari ezin esan:
"Beste zerbait jarri".

3
Gosaria izaten da,
bai, naiko eskasa:
urakin meetuta
esnearen grasa.
Orrekin euskaldunik
ezin leike pasa,
nai badu osasuna,
nai badu arnasa.

4
Amaikak alde ortan
zeozer jan bear,
instruzio-lanean
Gamonal-en zear.
Saltzalleak egiten
dutenean dear,
al dunak ezin utzi
jatekotan biar.

5
Jan da instruziora
alkarri segika,
an azkar asten giñan
ezker-eskubika.
Bazkalondoan berriz
zintzo teorika,
galdetzean erantzun
bear berorika.

6
Baña gu nola ezer
adierazten asi,
oraindik ez baidegu
erderaz ikasi?
Nai badigute ere
ortatik erantsi,
mentu au ezin zaigu
iñola itsatsi.

7
Ala ere soldadu,
joan dan astean,
ortxe egin gaituzte
beltzak ainbestean.
Reklutatzea utzi
degu erbestean,
banderaren musuak
ermo babestean.

8
Banderaren musuak
badu naiko kalte,
juramentu bezela
ori baidaukate:
Españin alde gerran
artutzeko parte,
azken odol-tantoa
ixuri bitarte.

9

Bi illabete ta erdian
ontaraiño iritxi,
ta baietz esan bear
naiz gaizki iritzi.
Esan ziguten: “Beste
gauzai atek itxi”,
mosketoia izateko
aurreneko pitxi.

10

Erropak josten ere
gaude ikasiak,
amaituko dirade
jostun-eskasiak.
Ala ere botoiak
urritzen asiak,
baiña ibilli bear
txukun erantsiak.

11

Errebistakin gaude
leporaiño jota,
ondo garbitu bear
polaiña ta bota.
Alperrik astea da
jauntxo auen kontra,
ama bezin bigunik
emen ez dago ta.

12

Oiñetako garbiak
beti nai dituzte,
oiekintxe geiena
estutzen gaituzte.
Saiatzen ez geranik
etzazute uste,
naiz txistua ibilli
batzuetan lustre.

13

Umil-umil ibilli
bear azaletik,
bestela ezin irten
guk kuarletek.
Eta egin ezean
jira bat kaletik,
ez dago jaterikan
borroen txuletik.

14

Bi durotik irura
bera oi da kosta,
azkar egiten zaio
patrikari koska.
Karteroa etortzean
jirodunen oska,
ez dadukana laister
asten da dioska.

15

Etixerako ere bai
zenbait alamuzko,
ez diralako eltzen
bi papel diruzko,
esanaz ez dirala
guraso tajuzko,
ederki aspertuta
arrantxo ta txusko.

16

Burutik ez dagonak
zelebre antxean,
jakin bear du zenbat
utzi zun etxean.
Izketan jardun gabe
era traketsean,
zeiñek partituzten du
eduki ezean?

17

Iru duro daukagu
illean jornala,
egin ezkerro beintzat
bizitza formala.
Kristal bat austeoa da
pekatu mortala,
ez pentsatu brigada
aaztuko dala.

18

Kristala ordaintzea
gero gure kargu,
eta ibilli bear
dirutikan txangu.
Alare alderdi bat
ona badaukagu:
jantzi-oiñetakoak
debalde dauzkagu.

19

Ematen bazaio're
amaika aitamen,
parrandarik ez dago
egiterik emen.
Naiz ortarako euki
makiña bat kemen,
oilloen erretira
daukagu nabarmen.

20

Paretari saltatu
bearko bestela,
baiña arriskaten da
gatzeko pastela;
laister kendutzen dute
illean epela,
lenengo egunean
danori bezela.

21

Egun xelegre ura
gogora datorkit:
gazta berrin antzeko
ainbat buru polit.
Elbiak berak ere
egingo zun irrist,
ta urrengoan pena
geio emango dit.

22

Ala ere ez gera
ibiltzen ain triste,
illuntzerako alai
bertso eta txiste.
Ardoa ere edaten
degu batez beste,
ura ikazkiñaren
mandoak ainbeste.

23

Nunbait indar gutxi du
ardo gorri onek,
askotan ala pentsa
izan det neronek.
Iru-lau bat botella
edozein gizonak,
ta zazpi're irentsi
oi ditu Anttonek.

24

Ala ere egunak
luzeak dijoaz,
naiz goizean esnatu
kornetiña joaz.
Beteranoak dabiltz
gutzizko Pazkoaz,
milla aldiz esanez:
“Gu laister bagoaz!”.

25

Lenbailen joatea
guk ere nai degu,
artara lenbiziko
taldean gaude gu.
Eta gaizkirik ezin
esan dezakegu,
emengo martxa ongi
ikasi diegu.

26

Alpertu egin gera
berak bezelaxe,
eta gezurra gogor
ugaldu da oraintxe.
Lapurreta txikiak
ere zenbait klase,
naiz emen dagonakin
iñor gutxi ase.

27

Kristau kontuan ere
ez gabiltza lodik,
Elizagatik ez du
iñork galtzen lorik.
Geroko utzita gabiltz
bide-klase orik,
illuntzetan ez dago
errosariorik.

28

Meza kanpo librean,
altara kuartela,
ta zutik egon bear
oilloak bezela.
Eskerrak soiñua erdin
jotzen digutela,
dana ebanjelio
litzake bestela.

29

Baiña bada Burgosen
katedral bikaiña,
torre aundi ta txikiz
altxatua gaiña.
Barruan *Papamoscas*
kanpai-jole apaiña,
makiñatxo bat elbi
jango zuan baiña.

30

Kanpoa berriz ez da
guren tankerako:
mendia gutxi eta
lur gorria pranko.
Jendea beltz xamarra
ta geienak plako,
taloa ta esnea
falta dutelako.

31

Neska gazte politik
ala ere badira,
mesede egiteko
konforme balira.
Espoloiean egon
oi gera begira,
baiña soldaduakin
fiakaitzak dira.

32

Engaiñatzeko berriz
guk falta erdera,
naiz kiñuz ere esan
nai degun berbera,
nolabait itzegiñaz
joateko berdera;
ala ere alargun
gelditutzen gera.

Orrelaxe gabilta
 Burgosen soldadu,
 ogei ta bat urtekin
 naikoa onradu.
 Askok diote: “Gaztek
 zaildu egin bear du”;
 laister bukatuko al da
 Jainkoak nai badu.

Soldaduskan bandera juratu genduanean, an emateko naiko bazkari ona eman ziguten; eta euskaldunak, jakiña, bertsoan asi giñan. Bai kantatu ere makiña bat. Ontan, bi bertso eskatu zidan batek, banderaren musu orri nere iritzia emanaz. Olamoduz eskribitu zituan arek, eta neri eman zizkidan: politak zirala eta gordetzeko, “Urte askoan umore ori!” esanda. Ura ordurako ultzera edo gaixo zebillen, eta gazterik il zan. Pakean atsedeen dezala!

Banderari musua
 ez det grazikoa,
 orregatik nuan gaur
 lendabizikoa.
 Obe jarri balute
 emezortzikoa,
 irripartsua eta
 bular azikoa;
 oroipena izango nun
 bizi guzikoa.

Iñoiz emanda nago
 politagoari,
 nola morenari ta
 ala rubiari.
 Ta goxotasun artan
 nintzanean ari,
 etzitzaidan oroitzen
 askorikan neri
 musu ematerik trapu
 ori-gorriari.

Gure baserri zarrari

Oraingo bertso auek gure baserri zarrari buruz moldatu nituan. Len, berriari buruz itzegitean ere, zerbait esan det txikia eta abar. Bai; ala da. Borda koxkor batzuk eginda zeuzkaten aldamenean; baiña gaizki. Belar eta garoak, zuatz edo meta egin arren, baserriak leku asko bear zuan, gaur askok bezela bei bat edo bi edukitzeko ez; baiña orduan idi, asto eta txerri, eta bei-sailla ere bai. Baiña al dan moduan pasa bear.

Gure baserri ontan ere alaxe zan bizitza. Batetik laura pasa eta danak gaizki. Baiña nagusiak maiztarrak ori egitea ontzat ematen omen zuten. Izan ere, maiaren atzean aulkian exerita gauzak pentsatzen dituanak bere kontra ez du ezer asmatuko; eta nagusiak ere errenta baten partez bi jarri edo lau, baserria naiz puskatu, eta ondo artara. Errenta ordaintzerakoan, Santomasetan, kapoi pare baten partez bi edo lau, eta porrusalda maiztarrantzat, eta kaixo, motell!

Itz auek esateko arrazoia aitona zanak esan zidanak eman dit. Nere aitonaren aitonak erosi zuan gure parte 1859-an, 12.500 errealean; 3.125 pezetan. Baiña aurrena lau bizitzetako egur danak saldu omen zituan nagusiak, eta gero etxea salgai jarri, geiago izurratzeko oraindik len xentimorik gabe zeudenak, edo antzera.

Au egia da. Diru-kopuru osoa atera zuten beintzat lau bizitzetakoak kanpoan, eta diru au apaiz baten eskutik artu zuten. Baiña lau urte barru urretan eta zillarretan ordaintzekotan. Eta alaxe egin omen zuten. Berriz ere nunbait billatu, eta al zana.

Beraz, nagusi-izena artu, baiña maiztar segi bear. Zer erre-medio, ia berrogei lagun omen zeuden garai artan lau bizitzaren artean eta! Beraz, zerbaitek ondo ere funtzionatzen zuan, erdi gose edo beartsu bizi arren. Eta ontan bukatuko det au. Gaiñerakoa or du bertsoetan irakurleak.

1
Gure sorleku maitagarria
zu, Aizkoeta-goena,
zure soiña da bosteun urte ta
geion zutik dagoena,
egia bada armarri orren
idazkiak dioena;
alare ortxe izan nintzan ni
bizitzako ondoena.

2
Zergatikan dan adirazteko
ere badet arrazoa:
or igaro nun ume-denbora,
or artu nuan sasoa.
Naiz berrira jun ogei urtekin
zu utziz erdi eroia,
baiña bizitzan etzait aztuko
nere gela eta oia.

3
Guk aldegin da berealaxe
zitzaizun puska erori,
ta pena latza sartu zitzaigun
or bizitako danori.
Argatik berriz jasota zaude
len bezin sano ta lori,
eta olaxe egon zaitea,
kabi bedeinkatu ori.

4
Lau bizitzako baserria zu
ta laurak txiki xamarrak,
nola zeraten garai bateko
baserri baten adarrak.
Nere aurrekoak emanda dauzkat
au aitortzeko indarrak,
bestela ere adierazten du
garbi zure arku zarrak.

5
Bi alderditan arkuak eta
bide zabalez barrena,
eta ertzetan arri apaiñak
begiratzuz alkarrena.
Ormarritxo bat berriz esanez
milla ta lareungarrena,
ea zedorri zeran Seguran
baserririkan zarrena.

6
Zuraje edo egur onetan
ez dezu ainbeste bali,
nola iru-lau aldiz zaituan
suak geiena kiskali.
Azkeneko aldiz orain eun urte
erdia erre ta itzali,
da orduan ere pobreen gisa
al zan moduan estali.

7
Urte askoan zure nagusi
izan ziran aberatsak,
eta maiztarrak igaro bear
egun beltz eta sakatsak,
udan izardi latzak bota ta
neguan nastuz lokatzak,
lore mardula gutxitan baidu
beartsuaren baratzak.

8
Tantai bikaiñak kendu ta gero
saltzeko ziñuzten jarri,
ta erosteko nere aitonan
aitona ibilli zan larri.
Eta aren gisa beste irurak,
entzuna naizenez sarri:
berrogei t'amar milla erreal
nundikan nora ekarri?

9

Berrogeitamar milla erreal
lau bizitzak salneurria,
urre ta zillar bear zun dana,
nagonez irakurria.
Amar bat lagun etxe bakoitzen
baiña patrika urria,
eskerrak apaiz batek zeukana
itxurazko iturria.

10

Apaiz jaun ori, aurreko zarrak
neri zidatenez esan,
Gabiriako partean dagon
Aztirin bizi omen zan.
Izen-deiturik ez dakit baiña
dirutan makala etzan,
aiek etziran irabaziak
izango nekazaritzan.

11

Amaika olako ikusitzen da
mundu xeibre onetan:
batzuek dana eskuan eta
besteak dana zorretan.
Baiña olaxe etxean jabe
egin ziran Aizkoetan,
da gero lanak ura ordaintzen
ondorengo lau urtetan.

12


Rafael Moreno jaunai emanik
apaizan urre-zillarrak,
ari ordaintzen sufritu bear
gero eze ta igarrak.
Len xentimorik etzeukatenak
gutzizko lantegi txarrak,
etxea erosi zutela uste ta
lenago bezin maiztarrak.

13

Baiña ordaindu omen zioten
nunbaitean billatuta,
ain urte gutxin zailla izanik
dana etxen pillatuta.
Naiz gaur utsa izan seireun eta
ogei ta bost duro punta,
orduan latzak sufritu bear
aiek ezin juntatuta.

14

Gaur ere kezkek izanagatik
pobreza ta langabezin,
lenago ere ikusitzen da
bazala amaika ezin.
Olaxe ziran milla zortzireun
berrogei ta emeretzin,
alare etxea erosi eta
antxe iraun etsi-etsin.



Onelaxe zan Aizkoetagoena baserria gure ume denboran, 1948an. Azpiko aldeko borda ori. Lcorpe Zarra izenez ezagutzen zana, bota egin genduan 1955ean. Aizkoetaberri baserria egiteko arri bear gendualako. Andik urte batzuetara, leio baten azpian dagoan arri aundi ori oñazkar edo trumoi-aldi batean bere lekutik atera egin zuan. Izan ere, gatz edo salitreak ertzak oso janda zegoan; eta gero, andik laixter, kantoi dana erori zitzaion tellaturaiño. Baiña berriro ere zutitu genduan, eta gaur olaxe dago, naiz lendik zerbait antzaldatuta egon, eta iraun dezala.

(1959)

Segurari 1959-ko udaberrian jarriak

Oraingo bertso auk ez nituan atzo goizean jarri. Gaur aiña-ko sasoia baneukan: ogei ta iru urte. Eta pentsatu, orain esaten badet alakoxe goiz-giro ederra zala maiatzeko jai-goiz artan, eta orretzek bultzatu ninduan Segura nere edo gure erriari bertso batzuk jartzera, eta goiz artako giroa ikusi eta pentsamentura etorri zitzaizkidanak, etxe azpitik erri oni begira jarrita, len ere baditut Segurari buruz jarritako bertsoak baiña.

Maiatza il ederra da, eta gaur baiño ere ederragoa zan orduan, inguruari begiratuta, jai-goiz artako oskarbi puruan, egunsenti garaian. Gariak ere orduantxe burututa zeuden. Burua irtenda esan nai nuke. Garia apirillean ere bai, baiña maiatzean dana burutzen zan. Esaera ere bada: “txikia banaiz, aundia banaiz, maiatzean burutuko naiz” esan omen zuan garriak. Gaur ez da emen ereiten garirik. Baiña orduan asko ereiten zan. Base-rritar danok esan nai nuke. Gero, garai ortan, lora ere ugari izaten da, maiatzean alegia; eta orduan gaur baiño geiago, ainbeste sagasti ere bazan, belardi bikaiñak ere bai, eta dana loratuta.

Zugaitzak ere, berriz, ugari ziran: aritz, urki, pago, gaztain, intxaur, lizar, makal, altzak eta esan gabe uzten ditudan beste zenbait ere bai. Baiña piñurik ez, edo gutxi. Txoria ere ugari zan. Gure etxe aldean, beintzat, ura orkesta, kuku, birigarro, xoxo, pinpin eta abar! Txepetxa ere antxe ikusi nuan sasi-puntatik sasi-puntara egatze eta ziburuan egiñaz, jai-goiz zoragarri artan.

Segurako eliza eta Seguraren ingurunea olakoxe gauzaz osatzen det, bearbada kanpotarrak ulertuko ez dutena; eta nik ere ez, emengoa ez banintz. Madura, len esan dedanez, Segurak duan ordeka bikaiña da. Au Oria ibaiaren ertzean eta Zerain alderditik dago, kilometro pare bat luzean; eta zabalean ere aundia da, olako sail paregabea. Santa Barbara, berriz, Unamendiaren bizkar batean dagoan ermita.

Gaiñerakoa or dago bertsoetan, amarreko aundian.

1
Lan ontarako afizioa
sortu zanetik neretzat,
noiznai bertsoak kantatu-naia
daukat, Segura, zuretzat.
Olako erri maitagarria
nola zeraden guretzat,
nik beintzat beti artu oi zaitut
egi-egizko loretzat,
itz bakarrean adierazita:
besteak baiño obetzat.

2
Baiña besteak, Jainkoagatik,
auxe barka deidatela,
ongi baidakit danen eguzki
iñola ezin leikela.
Alare sarri kantuz jartzen nau
ixilik egon neikela;
ama onena beti gurea
ikusten degun bezela,
pentsatuzten det izango dala,
ezin liteke bestela.

3
Segura azpian dagon Madura
ez da gizonen obrea,
amaika aldiz pozak txorätzen
begiratzen det orrea.
Eta urrena Santa Barbara
dagon mendi-tontorrea,
aldi berean ikusitzen det
erriko kanpantorra,
pentsatuzten det: “Au zoriona,
naiz diruz egon pobrea!”

4
Kanpantorre onek batzuen ustez
badauka zerbaiten falta:
ez dadukala erdi-erdian
torre zorrotz bat galanta.
Alare badu jatortasuna,
ez da bakarrikan planta;
eta lau tantai arrizko antxe
dauzka alderdi banata,
bertara joanda arritzeoak,
aundi bikaiñak dira-ta.

5
Katedral baten antza du barruz,
dana ederra da or ia:
lendabiziko aurre danean
altara ori gorria,
badirudiña urrearekin
estalitako orria,
egaztitxo bat goien azalduz
Espiritun jatorria,
Jesus joatean apostoluak
argitzera etorria.

6
Baserri txuri politak ere
tontorrean da lauean,
txuritasunez argi egiñaz
egunean da gauean.
Nere barrena arkitutzean
zeozeren barrauean,
auei guztiai begiratuta
nola poztutzen nauean,
adierazteko itzik ez dago
oraindik iñon auean.

7

Esaten dute paradiso bat
bazala mundun aseran,
da nik, Segura, pentsatuzten det
ura bera ote zeran.

Oria ibaia erdin dezula
itxas-adar baten eran,
igari eta arrantzako prest,
gañen txori pinttok egan,
au ikusita bat oroitzen da
azkar Adan eta Eban.

8

Mendi txiki bi badaduzkagu
ez diranak oso malkar,
orregatikan bizi dirade
ikusten dutela alkar.
Badakit Aitzgorriren ondoan
gelditzen dirala kaxkar,
baña andikan etortzen diran
makiña bat aize zakar,
emengo ordekan baretasunak
errenditzen ditu azkar.

9

Santa Barbara, mendi polita,
zuri begira or dago,
baita bi-iru iturritxo're
zein baiño zein garbiago.
Belardi ederrak ere badaude,
batzuk segatuta nago;
gaiñera aritz, ametz, gaztaiña,
urki, gorosti ta pago,
geienak berez sortutakoak,
ezin eskatu geiago.

10


Txoriak ere ugari dabiltz
Seguran da inguruan,
batibat udaberri garaiko
egun oskarbi puruan.
Kuku, xoxo ta birigarroak
tantaian etxe buruan,
beste askon arten txepetxa berriz
sasin *ttak-ttak* ziburuan,
zer poz ematen duten ezin det
adierazi liburuan.

11

Euskerak ere oraindik dauzka
gurean kimu ederrak,
bera ez dakiten bakarrak nola
diraden txapel okerrak.
Baiña oien aurrak ikasten dute
ez badirade alperrak,
lan ontan danok berdiñak gera
eskubiak ta ezkerak,
euskera ere biziko baida
egiteari eskerrak.

12

Buka dezadan kanpotarren bat
jarri baiño len erretxin,
nik berriz ikusitzen dedana
esan gabe utzi ezin.
Beste askotxo ere badaude
edertasunaren esin,
baiña Segura arkitutzen da
olako era berezin,
milla bederatziregun eta
berrogei ta emeretzin.



Segurako parrokiaren altara nagusia.

Nere munduratzea

Amaika bider esan zidan amak milagroez atera giñala bizirik biok ere esan ziola medikuak, ni jaio ta andik denbora piska batera. Etsi zuala mediku orrek gauza onik etzuala egingo.

Izan ere, garai artan amaika gizon alargun bazan, edo bigarren aldian ezkondata, andrea partoan ilda, oraingo aurrerapenik etzegalako.

Ala ere, orain ere zoritxarrez gertatzen dira orrelakoak. Guri ere gertatu zitzaigun. Aurreneko semea –lenago ere esan det eta geroago bertsoetan ematen det beraren berri–, jaiotza zaila izan eta andik il zan gizarajoa, mundu au ikusi gabe.

Beraz, ama ta ni ere naiko lanarekin geldituak munduan; eta gure ama, bular askokoa izan arren, berak zionez, beste iru alaba eta iru semerekin, zazpi senide bagera gu-ta, baiña nerean, botika eta abar, bular gabe edo oso gutxirekin gelditu omen zan; eta, naiz orduan norabait aurrak bularra edatera eramatea modan egon, eta bearra ere izango zan, ni ez omen ninduten iñora eraman, eta azkar asi omen nintzan esnea edo ur-esnea artzen, bearra bezelakorik ez da eta. Gero esne purua ere bai, amaika edan omen nuan; orain ere beste kopa edo anka-mee oiek baiño obe.

Orduan ere onelaxe egingo zuten al zutena aurra azteko, naiz esaera badan, eta alaxe da izan ere, esnari ura botatzea bi gauza onekin bat txarra egitea dala. Bai; ura ere ona da bakarrik, eta esnea ere bai. Baiña alkarri nastu ezkerero, alkar galdu.

Baiña aurtxo txikiari alaxe komeni, eta ni azi ninduten beintzat mutiko mardul askoa. Alaxe, pozik igaro nuan nere ume-denbora, or bertsoetan diodan bezela, iñoiz gogoratu bazitzaidan ere, bataiatu gabe il banintz, betiko linboan edo illunpean bear-ko nuala. Orduan linboagatik ori esaten zuten: bukatzen etzan illunpea zala, jatorrizko pekatuaren mantxagatik. Illunpea izango da, bai. Au ez dakit nork asmatu zuan. Baiña guk alaxe ikasi eta sinisten genduan orduan; eta bakoitzak juzka dezala bere kontzientziak agintzen dion eran.

Eskolara lau urtetik bostera tartean asi nintzan Seguran, gaur Egoitza dagoan lekuan. Orduan ere bazegoan zaar edo elbarri batzuentzat lekua, eta egoten ziran. Baiña gaurko aldean gutxi. Moja batzuek eskola ematen zuten, eta besteak aiek zaindu, edadeko eta elbarriak alegia.

Jenobeba izena zuan bat ere bazegoan umeai erakusten, ordurako larogei urte etzituan aparte izango baiña. Amaika orazio erakusten zigun. Au ez det uste Segurako alaba zanik, baiña emen bere denbora geiena pasatua bai.

Ni, egia esan, etxetik ere dexente ikasita joan nintzan orazioak eta oiek. Gure amonaren inguruan bearko ikasi. Gero, umeak gogoia artzen badu, azkar ikasten ditu gauzak; eta, gaiñera, guk gendukan infernu-bildurrarekin, azkarrago.

Eskola ere ikasi genduan piska bat, eta emen erakusten zigutenetako bat, Jenobebaz gaiñera, Sor Karmenita zan. Au Gipuzkoako Gaintzako alaba da, eta gaur ere ementxe jarraitzen du. Amaika lan egin du bere denboran, len ume, gaixo eta elbarri, eta gaur ere edadeko jende orrekin. Bera ere irurogei ta amabost urtetik gora egongo da, larogei ez baditu ere. Baiña aparteko argitasuna zuan onek umearentzat. Eulia eztiarengana bezela joaten giñan gu berarengana. Eta orain, iñoiz bertsoetara joaten bagera Egoitza ortara, orduantxe bezela musuka alkar agurtzen degu. Nik esaten diot, zeru bat besterik ez bada, onezkero ondo irabazia edukiko duala. Baita milla balira ere. Bestela, amaikak kanpoan gelditu bearko degula. Sekulako parre-algara egiten du, eta urte askoan egin dezala. Il ere egin bear ez luken orietakoa da gure Sor Karmenita.

Onelaxe, iritxi nintzan zazpi urtera, eta maixu-eskolara joan bear mutikoak. Neskak urte geiagoan libre zeukaten, naiz zer-bait ordaindu bearra eduki. Guri maixu-eskola oso gogorra egin zitzaigun. Erdelduna maixua, eta guk tutik ez erderaz, nik beintzat. Oraindik ere ez det asko ikasi, eta pentsatu zazpi urterekin zenbat jakingo nuan. Baiña joan egin bear, eta ala asi giñan. Ango berri urrengo bertsoetan emango det. Bertso auek, berriz, berrogei ta amar urte nituala jarriak dira; eta, urrengo, maixu-eskolako kontuakin datozenak ere bai.

1
Milla beatzireun ogei ta amabost,
azarok zortzi zitula,
esan zidaten munduko egunak
bakarka asi nitula.
Sinistu beraz berrogeitamar
Joxek aurtan baditula,
kargamentu au ezin liteke
iñola ere diximula.

2
Jaiotza txarra nola izan zan
amak esan zidan sarri,
biok il gabe nola gelditu
giñan ibillita larri.
Gaur bezelaxe orduan ere,
naizta izan negargarri,
bizi danari irixten zaio
amaika olako arri.

3
Orregatikan ni omen nintzan
bular gutxikin azia,
egunetako aurtxo nintzala
esnea edaten asia.
Alare izan det mardultasuna
niganatzeko grazia,
beatzi arroa pasatzeraiño
gaur nago irabazia.

4
Arrokerian ez det esaten,
sarritan artzen det pena,
astunarentzat urriago da
bizitzeko itxaropena.
Naiz eta jakin lerdanak ere
guztiak iltzen diena,
gizenak degu alde askotara
arriskorikan geiena.

5
Alaitasunez bete-bete
pasa nun txiki-denbora,
oroitu gabe zer izango zan
joan banintzan linbora.
Bataio gabe iltzen zanak len
ori zun betiko lora,
iritxi gabe guraso eta
aiton-amonen ondora.

6
Olakoa zan garai artan guk
ikasi gendun dotriña,
bazirudien pertsona zala
kastigatzeko egiña.
Purgatorio, infernu, linbo,
sufrimentua ta miña,
ta eriotza oien aurretik
oraintxen dagon berdiña.

7
Oiek aitatzuz amona zanak,
bere magalen artuta,
orazio asko utzi zizkidan
ondo buruan sartuta.
Aztu gaberik zegoan ura
egonagatik zartuta,
esanaz oien faltan zegola
mundua oso txartuta.

8
Eskola-egunak iritxi ziran
lau urtetikan bostera,
garai ura ere eldu zitzaigun
jolas-egunak moztera.
Baserritarrak kalen ez gendun
etxe inguruko poz bera,
moja txintxoak naiz inguratu
aur bildurtiak poztera.

9

Orduko aurrak Seguran danok
moja-eskolan ibillita,
danak ziraden ederrak baiña
bat bazan txintxo polita.
Beragana azkar joaten giñan gu
nola kolkarena txita,
ez dakit nola eskerrak eman
nik orain, Sor Karmenita.

10

Ala ere askoz naiago gendun
bizi etxe inguruan,
naiz ta itxula ta bei zaitzeak
jarri naiko apuruan.
Baiña jolasa beti egoten da
mutikoaren buruan:
tiragomakin, kabi billa edo
etxeordeko ziburuan.

11

Eskola artan lenengo letrak
jardun ziran erakusten,
liburu aiek *katona* eta
olako izenak zituzten.
Dotrin-liburu txiki bat ere
gaur ez dedana ikusten,
zazpi urterako an zeuden itzak
erakutsi zizkiguten.

12

Lenengo Jauna artu bitarte
mutikok eskola ortan,
zazpi urtekin izaten zan au
Segurako erri ontan.
Naiz-ta neskatxak libre eduki
bertan urte geiagotan,
guk maixutara joan bearra
eskolan jarraitzekotan.

13

Era ontantxe igaro nuan
zazpi urte bitartea,
ez radio, ez telebisio,
baiña bai txori-kantea.
Aitona-amona eta guraso
senideekin batea,
jolastutzeko berriz auzoan
guk naiko lagunartea.

14

Bertso zaar ta ipuia pranko
illuntze aldera etxean,
arto zuritzen ari bagiñan,
umore jator antzean.
Askok pentsatzen badute ere
bizi giñala atzean,
nik ura zeru juzgatutzen det
gaurkoaz konparatzean.

Maixu-eskolako berri

Beraz, oraingo bertsoetan maixu-eskolako berri emango det, eta auxe da: bost urte eskax egin nituan nik eskola ontan, baiña iru maixu pasatu ziran, eta laugarren bat ere iñoiz etorri zan. Au alboko Zerain errian sekretario zegoana zan.

Baiña beste irurak plazaz egon ziran edo erakusten jardun zuten. Nik ezer gutxi ikasi nuala esan bear, eta geiago ere alamoduz gelditu ziran.

Orduan, izan ere, zazpi urtekoak, bederatzi eta amabi zeuzkatenak ere gela batean ikasten genduan, eta danai parean pareko erakusketak egiten etzan giro. Entenditu eragiten ere naiko lan.

Eskerrak orduan eskola etzala aintzakotzat artzen gure moduko jende artean, etxetik asita; eta zerbait geiago nai zutenak kanpora joaten ziran.

Baiña oiek gutxi ziran, eta guk ez genduan ortarako kapaz giñanik pentsatu ere egiten, karrera bat egiteko, alegia, akaso, probatu bagendu, zerbait egingo genduan baiña.

Beraz, olaxe gelditu giñan. Beste arek esan zuan bezela, mundu asko ikusi al zuan galdetzean:

–Bai, bai. Aurrean jarritako danak. Baiña Ataun ere ba omen da, eta ura ikustera ez naiz iritxi.

Ala ere, neretzako lain lan eta jan-edan zuri edo beltz sortu det edo izan da orain arte, eta nik ere eskolan lau regla edo oiek ikasi nituan.

Baiña *partir* edo *dividir*-etik ez nintzan asko aurreratu, eta orrekin pasa det orain artekoa.

Eta gaiñerakoa ortxe du sail ontan irakurleak, gai ortaz bertso auek jarri nituan eta.

1
Berriro ere itzegin nai det
gure motiko-denboran,
nolako egunak izan genitun
maixuetako eskolan.
Mojatan lasai jardunagatik
gure euskeraren loran,
maixu erdelduna tokatu zan da
izan genduan naiko lan.

2
Napar erdeldun bizi bat gendun
izena zuana Xixto,
gaur nere gisa burugain soilla
eta aldamenak pintto.
Gu erderatik bezela zegon
ura euskeratik kitto,
martxa ederra karrera egin da
aukeratzeko ministro.

3
Baiña bazitun maixu aretxek
zintzo saiatzen zan otsak,
biurri xamarrari kenduaz
beatz-puntetako otzak.
Guri etzigun ezer egiten,
ain giñan bildurtti motzak,
ala ere beti egoten giñan
etxera joateko pozak.

4
Gu asi eta urte betera
Seguratik zun aldegin,
ta beatzetan jotzen zitunak
artuko zuten atsegin.
Gaiñerakoak ere ez gendun
berriz negarrikan egin,
naiz-ta geratu ikastezkero
berriro norbaiten premin.

5
Onen ondoren etorri zana
genduan Gotzon Egaña,
eta euskera ederrarekin
dantzatzen zuan mingaña.
Urte aietan askok erdera
maiteago zuten baña,
ala pentsatzen zuanarekin
etzan lantegi bikaña.

6
Olako zerbait zalako edo
egin zun denbora gutxi,
eta euskeraz al zuneraiño
beti zigun erakutsi.
Baiña liburu erderazkoak
ezin baztarrera utzi,
aiek besterik etzegon eta
bearko berairi eutsi.

7
Irugarrengo maixua gendun
berriz Emiliano Cillán,
Segura ontara etortzerako
urte asko zeuzkan pillan.
Alare gogor jardun oi zuan
erritan da ixkamillan,
denbora asko etzuan galtzen
lasai exerita sillan.

8
Au're erdelduna genduan oso
ta itxura're bazuan,
aurpegi txorrotx, bigoteduna,
baiña sasoia auzuan.
Gaizto xamarrak jarri oi zuten
bateonbat iltzeko suan,
gizarajoak abantatzea
naikoa egiten zuan.

9

Erloju zar bat bazan eskolan
ezker aldeko kantoian,
zenbait mutiko iritxi oi zan
egonagatikan goian;
kokatu're bai ordubete bat
aurreratzeko sasoian,
gero batzutan aguro xamar
izaten giñan frontoian.

10

Konturatzean ibiltzen zuan
ezpain erainka bizkorra,
bigoteetan bazirudien
txara-ertzeko listorra.
Arentzat aiña kalte naiz izan
guretzat ango oporra,
gauza orrekin ez da oroitzen
askorik mutil koxkorra.

11

Ba omen zuan maixu ona ta
zorrotza izan zan garaia,
len ezagutu zun batek zidan
izen onakin bataia.
Baiña zartzeak onduagatik
ardoa eta gaztaia,
gizonarentzat ekarri oi du
bajeza ta il-kanpaia.

12

Bost urte eskax egin nitun da
pasa ziran iru maixu,
alare eskolan ez nuan artu
gaur zenbaitek aiña pixu.
Orregatikan bizi guztian
nago jakinduriz itxu,
liburu onek esango dizu
lenago ez badakizu.



Argazki au, zortzi edo bederatzi urte nituala eskolan ateratakoa da.
Orregatik nago guk emen *mantala* esanda ezagutzen genduan
jantziarekin, eta atzean Espãniako mapa dala.

Gaiñontzeko ikasketak

Oraingo bertso-aldiak ere ikasketa gaia du, eta amaika urte bitarte derrigor egin bearrekoa garai artan: dotriña ikastea. Bi jaunartze egiten ziran Seguran orduan: bat zazpi urterekin, eta bestea amar edo amaika urterekin.

Aurrenekoa errez antzean pasatzen zan; baiña bigarrena esamiña gogorretan. Bestela, urtebete edo bi ere igual atzeratu bigarrengo jaunartze ori, eta *kalabazero* izena irabazi, eta gogor saiatzen zan jendea.

Gero, mutil koskorrak alkarri parre egiteko ere aproposkoak izaten dira; ta etxean ere, berriz, bestearen modua ibiltzea nai eta saiatuaren paltan etzan iñor geldituko. Eta negar-aldi galantak egin da nolabait pasatuak ere ez gutxi.

Ikasi nuan beintzat dotriña dana; jaunartze aundia egin ere bai; eta andik laister eskola utzi nuan nik, eta beste batzuek ere bai.

Izan ere, bestela piska bat denbora geiagoan jarraituko genduanak arrazoi bat izan genduan: ez genduala ezer ikasten an, eta alaxe zan gaiñera.

Sor Milagrosekin asi giñan gau-eskolan. Moja au bizkaitarra zan, eta maixtra-karrera egiña moja sartzerako. Amaikak ikasi zuten onekin, batipat neskak. Baiña guri ere poliki erakusten zigun, zerbait ordaindu bear zan baiña.

Ola genbiltzala, maixua enteratu zan, gure Emiliano. Berak ere gau-eskola ematen zuan; da, arekin asi ez giñalako, arek ere dirua nai ta, txitak kolka uzten duten bezela, baztatu edo kasorik egiten etzigula jarri zan.

Nik etxean esan nuan, eta egun gutxi barru alde egitea erabaki nuan.

Ni, ez neronek esaten dedalako, baiña naiko begi onetik ikusten ninduan maixu arek; eta, banijoala esan nionean, etxera alegia, etzitzaion ondo iruditu. Nere arrazoia esandakoan, an ala

baztartuta zer pintatzen genduan, beste eskolako lanak egiteko an esan zidan, bultzadaren bat eginda aldegitia ere merezi zuan ark baiña.

Olaxe geundela, gelditzeko esan zidan; eta len bezela, aurretik bezela alegia, jarraituko genduala; eta zergaitik izan zan kastigu ura ere bai. Baiña nik alde egin nuan, etxean ere ala gelditu giñan eta.

Ala, baserri-lanean gogor asi nintzan, gau-eskolara negu artan eta beste urrengo batean ere joan nintzan baiña. Beste negu batean edo bitan Manuel Huerta Iriarterekin ere ibilli giñan. Au seguratarra da eta onekin poliki ikasten genduan. Euskeraz itz ere egiten zigun, eta alde aundia dago or.

Len ez det esan, baiña Sor Milagros ori erdelduna zan, zerbait-zerbait edo itzen batzuk naiz euskeraz ulertu.

Beraz, olaxe bukatu zan nere karrera; eta gero lana eta ber-soak ikasi eta kantatu, aukera zanean.

1
Lan geiago're egin nituan
mutikoa nintzan arte,
dotriña aundia ikasi nuan
amar urtera bitarte.
Garai aietan dana etzekiña
utzi oi zuten aparte,
kalabazero izenarekin
azkar artzen zuan parte.

2
Jaunartze aundia egiten genduan
amar-amaika urtekin,
Segura ontan gu izan giñan
alakoxe birtutekin.
Baiña orduan etzan kontatzen
etxeoakin bestekin,
amaika aldiz gastu geiago
gaur egiten da batekin.

3
Beste edozein egunen modun
jan-edan oi zan etxean,
naiz ordurako jendea asi
jantzita apain antzean.
Gaur oitura aiek gelditu dira
inguru ontan atzean,
eztai batean ainbeste jende
juntatuaz jaunartzean.

4
Gaizki dagonik ez derizkiot
eta, al bada, jarraitu;
mundu triste au nolabait ere
ola bear da alaitu.
Noiz eta nola ez dakigula
danok bear degu amaitu,
oraindaiñoko danak bezela
gu ere tristetuko gaitu.

5
Dotriña ondo ikasi nuan
mutiko-urte aietan,
itzik erratu gabe nekian
dana edozein garaietan.
Kulpitotikan galdetzen zuten
garizumako jaietan,
orrelakoxe oiturak ziran
ordun erri txikietan.

6
Bizitzarako ola ziguten
dotriña buruan sartu,
baiña eskolan diodan eran
ez nintzan asko beartu.
Orregatikan estudiok
ez det sari asko artu,
ta onezkero buru zar onek
ola bearko du zeartu.

7
Beste ikasketa bat ere egin nun
nintzala mutil koxkorra,
bertso zaarrak ikastea nun
nik gustoko artojourra.
Lareundik gora jakingo nitun
ez banaiz ere bizkorra,
geienak aztu bazaizkit ere
len banekin sail gogorra.

8
Nola Otaño, ala Xenpelar,
ta berdin Zapiraiñenak,
baita Bilintxen maitasunez kok,
izan leizken apaiñenak.
Era berean Txirritarenak
ta beste edozeiñenak,
amar urtekin banekizkian
entzun nituan geienak.

9
Ainbeste bertso guri ama zanak
pozikan oi zigun kanta,
negar ere iñoiz eginda nago
bertso batzuk zirala-ta,
Ai, Jenobeba Brabantekonak
zuten min-giro aparta,
alare danak ikasi nitun
naiz izan pilla galanta.

10
Ez radio ta ez telebisio
gu nola giñaden azi,
bertso ta ipui alaitu bear
makiña bat une gazi.
Ala ere bazan gaur ez daukagun
ainbat umore ta grazi,
ikusi gabe ezin liteke
iñola adierazi.



Belar ebakitzen aritu ondoren,
paseatzen zebillen batek neri ateratako argazkia,
gure txakur Txiki atzean dala.

Gaztetako lanak

Amar edo amabi urte nik nituan garaian, bazan baserrian lana egin bearra, gero ere ortik aukera ohea izan da baiña. Anai arteko gerra ondoren artan, ain gutxi irabazteko eta ain beartsu bizitzeko, lana ikaragarri egin zan emen. Nik nere iritzia emango det, eta auxe da: mundua mundu danetik larrosa-arterik etzala izango, batipat beartsuarentzat, bateko gerrak zirala, besteko gaitzak zirala, besteko gosea zala. Eta au ez da lagun ederra.

Batek neri kontra egin zidan, alegia gosea ohea zala, jana eduki eta ezin jana baiño. Bai, noizbait asetzeko modua eduki ezkeru. Baiña goseak iltzekero, berdintsuak izango dira biak.

Beraz, nik uste det, eta jendeari eta nere aurrekoai entzunda, mundua asi ezkeru emen lanik geiena egindako garaia, baserrian beintzat, 1920 aldetik 1960 aldera izango zala, eta gerra ondoko urte aiek nagusi. Emengo belar, gari, garo, orbel biltzea, sagar biltzea... Eta auek, bildu ez-ezik, kamiñora eramatea ere zer zan? Idiak triparaiñoako lokatzetan sartuta, izan ere bide bat itxurazkorik iñun etzan da. Gurdi-gurpil zorrotz aiek dana ebaki eta lokatza seguro. Gaztaiñak ere biltzen ziran, intzetan dana bustita garo artean.

Gero, soro-lanak, berriz: laiatu artoa ereiteko; onen ondoren garia, eta gero arbiak. Ximaur ateratzen ere, alamoduzko lekue-tan gorde edo eduki ere egiten zan etxe geienetan, da zer lanak! Onelaxe gau ta egun, artarakoxe bakarrik jaio bagiña bezela. Neri, amalau-amasei urterekin, segak ematen zizkidan nekaturik aundienak. Izan ere, mendian, belar txiki aietan, amabi orduan igual jardun bear. Baiña gero gustora jarduten nintzala jarri nintzan, emezortzi bat urte nituanean. Ala ere, orduan ere segea sega, eta atxurra atxur.

Beraz, orduantxe jarri nituan bertso auek, lan gogorren auek baserrian zerbait bukatu ziranean, aurrerapenak bultz eginda.

1
Baserrian jaio ta
antxe bertan azi,
baiña pasatua naiz
naiko egun gazi.
Izardi gabe ez det
ogia irabazi,
eta guztia nai det
bertsoz adirazi.

2
Arten ume nintzala
lanean asia,
naiz-ta jolaserako
eduki antsia.
Karga astunari're
eskuk erantsia,
ofizio traketsak
ondo ikasia.

3
Lana izan nuan nik
eskolaren ordain,
zakar askok ere bai
ez daudenak orain,
azaltzen zituztenak
ainbat besoko zain;
erdia ere bazan
ni nekatzeko lain.

4
Atxurrean da laian
nekea galanki,
eta iritaiakin
gariak ebaki.
Gero eskuakin jo
kostata edarki,
arten zenbat lan zeukan
Jaungoikoak daki.

5
Lastok jasotzen ere
lantegi gaiztoa,
aldian bein sartuaz
galtzuan miztoa.
Ganbara-zirriztuan
ain leku ittoa,
autsez beztuta ura
pailazo-tipoa!

6
Makinai eraginda
oi gendun garbitu,
iru lagunen lanak
zintzo bear ditu.
Aukatatik garia
alaxe argitu,
galanki nekatuta
oi nintzan arkitu.

7
Ainbat auka eta auts
ta eguzki bero,
seguro gari-lanak
iritxi ezkeru.
Indarra gutxi eta
nekea bezero,
eskerrak trilladorak
sortu ziran gero.

8
Orduan ebakitzen
asi giñan segaz,
baiña artean lan au
etzan jantzi sedaz.
Sega eskobarekin
karga geio beraz,
gari nastuan asi
oi nintzan erderaz.

9

Gari erdi etzanak
lana zun ematen,
ura etzan maillara
zuzen eramaten,
da an jaulkitzen zana
lurrak zuan jaten;
gero erne oi ziran
arbiakin baten.

10

Gari ondoren egin
oi gendun arbia,
eta lurrak prestatzen
ura lan-aldia!
Idi eta gizonak
danak izerdia,
Benidorra joan gabe
bezteko alderdia.

11

Beste lan bat gogorra
belar ebakitzen,
egunsentia baiño
len giñan jeikitzen.
Motikoari azkar
indarrak txikitzen,
jolasgurerek ez nun
illuntzan eukitzen.

12


Baiña sasoian jardun
izan nintzan pozik,
egia esateko
nik ez daukat lotsik.
Santa Barbara mendin,
gaiñera oiñ utsik,
ordun etzan sentitzen
anketako otzik.

13

Asko ebaki bear
belar eta garo,
gazte-denbora ola
nuan nik igaro.
Naiz-eta batzuetan
nekatu zearo,
atsedeteko banun
gaur aiña anparo.

14

Orra orduko lanak
bertsoetan esan,
gaurko gazteak ere
ezagutu dezan.
Goizean goiz jaiki ta
beranduan etzan,
orduko ibillera
ola izaten zan.



Nere lagun-taldea, gure ezkontza-egunean, 1965-V-16-an, Olaberriko Arrieta jatetxe-inguruan. Lagun bat falta da: Pedro Migel Imaz. Dantza-zalea zan eta bearbada dantzan izango zan. Gaur illa da. (G. B.)

Aitona baten esanak

Oraingo bertso-sail onek ez du aurkezpen askoren bearrik, ni neroni ere ia orduan aitona zegoan paretsura irixten ari naiz eta. Amaika bai iritxiak, eta danak iritxiko dira, gazterik edo zartu baiño len il ezean; eta ori ere ez degu nai.

Baiña sekulako itzaldia egin zidan aitona onek bein, Donostiko mataderi edo ganadu iltzeko tokian eta tabernan. Ura ere txekorren batekin joan zan, ni ere bai, eta izango dira ogei ta sei bat urte. Aurrena, gaztetako kontuak; eta, gero, orduan arkitzen zan neurrikoak esan zizkidan. Izan ere, betaurreko, makulu eta, berak zionez, ortzak ere bai. Eta ala esan zidan:

–Beeko ori ere beti lurrera begira zegok, eta jarriko nitek berria, iñun salgai balego, oraindik andre gazte xamarra zeukat eta.

Olaxe gure kontuak. Eta azkenean esan zidan bertso bat edo beste botatzeko. Ala, lur jasotzera joateko baiño gogo geiago neukan ortarako, ondo bazkalduta geunden biok ere ta; eta ustez gusto eman nion, berak esan zituanai pixka bat elduaz. A zer txaloak jendeak!

Ala, etxera etorri eta bertso auek jarri nituan, aren kontuak esanaz. Beraz, emen dauden amalau bertsoak, zortziko txikian.

1
Bertso batzuek jarri
nai nituzke orain,
irixten banaiz beintzat
orretarako lain.
Aiton batek lan auxe
utzi dit nere gain,
gaur zer daukan esanda
neke danen ordain.

2
Urteak joan eta
ajeak ugaldtu,
garai batean zuan
umorea galdu,
buru-zuritu eta
indarrez argaldu;
zaartutzeak ezer
onikan bai al du?

3
“Gauzak gogoratzeko
memori kaxkarra,
naiz-ta izan nerekin
galanta kaskarra.
Mingaiña ere ez det
len bezin azkarra,
pazientzi gutxi ta
jenio zakarra.

4
Beatzak okertuta,
begiak illundu,
azala zimurtu ta
kolorez lizundu.
Bigunak gogortu ta
gogorak bigundu,
arbolak zartu dala
garbi ezagun du.

5
Balantza ugaldtu ta
pausajea moztu,
nekez berotu eta
azkarregi oztu.
Negarra zabaldu ta
parrea zorroztu,
sarri naigabetu ta
gutxigitan poztu.

6
Sendagilleak ere
ordena garratza;
uzteko tabakoa,
alkola ta gatza,
ura edateko ta
jateko legatza;
ez da gerran asiko
azpiko beatza.

7
Berdurea nai aiña
ez gatz ta ez koipe,
ez gera geldituko
urdailletik torpe.
Aizeak barrendikan
makiña bat kolpe,
ez det askorik falta
nazkatzeko tope.

8
Begietan kristalak,
auan ortz-ordeak,
lanagatik iraungo
al die moldeak!
Igestu ez dezaten
ezpaiñez gordeak,
baiña makilla ere
bear du goardeak.

9
Itxuran ibiltzeko
dira traste geitxo,
pentsatze utsarekin
bat jartzen da gaixo.
Alare zaindu bear
danak txintxo-txintxo,
sasoia pasatua
daukat aspalditxo.


10
Gaiñera albotikan
andreak demanda,
menderatu nauela
dago antz emanda.
Amar urte gaztego
nola dan Pernanda,
askotan egoten naiz
ezin eramanda.

11
Inguruan egonik
beti egun da gau,
emakumearekin
bearko asarrau.
Orrelaxe jarri da
neretzat mundu au,
ala ere geiena
beorrek maite nau.

12
Denbora pasatzeak
olaxe nau utzi,
erretiroa ere
daukat naiko gutxi.
Izketalditan berriz
gazteak nagusi,
naigabe auei danai
orain nola eutsi?

13
Bat naiz ez konturatu
dagon arten lorán,
urteak joan eta
zer etorriko dan,
baiña iritxitzean
zartzaro-denboran,
diodan bezelaxe
badago naiko lan.

14
Bearrezko indarrak
diranez alpertu,
euri goxo guztiak
neretzat atertu;
ta laister eriotzak
naiko du agertu,
naiz oraindikan ez ni
munduan aspertu”.



Emen senideak gera, Aizkoeta-goena baserrian jaiok, 1983-an; zaarrentxoak azi ere bai. Eskubitik; Joan; Maria; Jesus Mari; Maria Dolores; ni, Joxe; Maria Pilar eta Iñaxio. Edadeta, berriz, 2002 urtearen asieran, zaarrenak 67 urte; gazteenak, 53. Milloiak balira, modoxka polita. Baiña dirua zertarako da bizitzeko ainbeste eduki czkero? Osasuna da emen balio duena eta gu oraindik poliki gabiltz eta ea urte batzuetan irauten degun onelaxe.

(1963)

Bertso berriak

1963-ko eguraldiari jarriak

Bertso-aldi au ere aspalditxo egiña da, 1963-ko urtearen azken aldera. Gaia izan zan urte ontan egin zuan eguraldi-kla-sea. Egia esan bear badet, oso bustia edo illuna izan zan Agorra-ren 29-a arte, San Migelak arte alegia, bertsoetan esaten dedan bezela.

Illuna esatearekin oso lainñotsua esan nai nuke. Euria ere dexente; eta, jakiña, legortzeko eguzkia gutxiegitan azaltzen bada, euri gutxi eginda ere lurra eze edo busti errezago irauten du.

Urte ontan orixe zan. Bero bat aundia egiten bazuan egun batean, beste iru-lau egunean lainño edo euri txikia edo lanbroa egiten zuan.

Artean garia dexente ereiten zan, Goierri aldean beintzat ia danak, emendik urte gutxira erabat utzi bazitzaion ere ereiteari. Esaten ari naizen urte ontan, asko kosta zitzaion gariari eltzea; edo, obeto esateko, alea, gari-alea alegia, gogortu eta kentzeko moduan jartzea. Gari asko gorri edo erdoi-kolorean jarri zan; baiña nola-ala etxeratu ziran. Ordurako trilladora edo gari jokatze-ko makinak ugalduek ziran, eta ala pasada eman zitzaien. Baiña lasto beltza, eta beiak jateko gogo aundirik etzuten lastoa pranko sartu zan ganbara zarretan.

Emen lentxeago esaten det trilladorak ordurako ugalduek zirala. Izan ere, len gariak iritaiarekin ebaki, bi esku barruan artzeko moduko sortatxoak egin, gari-lasto berarekin lotu eta metak egiten ziran aurrena geienetan. Sortatxo auek *azau* edo *bala* zuten izena emen, Goierrian. Baiña *meta* eta *azau* eta auek, nun dan, alako izenak dituzte.

Alea kentzeari *gari jotzea* esaten zitzaion, eta au eskuz egi-ten zan. Aurrena, garia metatik artu; eta, buru aldea agirian zute-la eguzkiak igartzeko edo geiago legortzeko, gurutzatuta zabal-

tzen ziran soroan bertan edo etxe inguruan. Ganbaran edo alamoduzko leku batean jartzen ziran metro erdi altura inguruan arriak, arri-losa edo pizarra-klasekoak geienetan. Gari-jotzailleak eltzen genion azauari erdiko lotura ingurutik, eta arriaren kontra aletu arte antxe jo eta jo.

Au ere esan bear det: garia oso igarra bazegoan, aurrena kolpe txikixeagoa eman bear izaten zitzaion. Bestela, buru osoa lastotik puskatu eta alerik irten gabe edo aletu gabe gelditzen zan; eta gero buru aiek iraur edo soka batekin alkartutako bi makillakin jo bear izaten ziran, bat eskuan eta bestearekin garia jaulkitzen zala. Baiña bertsoak jarri nituan urte ontan, etziran bereala aletuko; ezta burua puskatu ere gariari. Baiña, len esan dedan eran, trilladoran pasa ziran, eta pakea.

Baiña arbi ereiteak eman zuan lana pranko. Aurrena esan dezadan garia izandako lekuan arbia ereiten zala. Garai artan asko balio zuan negurako arbiak, orain ere nere ustez ez da txarra eta. Baiña orduan etzegoan belar-zulorik eta negurako oraingo modurik; eta pentsu edo zerbait ekartzeko ere alako bideak eta moduak ziran. Baiña kosta zan urte ontan arbiak egitea. Amaika aldiz legorte galantarekin jardun bagiñan ere, urte ontan beti euria edo lardaxka bazan, eta garaian egin bearrekoa da auxe ere, ezer bada.

Konparatzeko, artoa izaten da. Au goiztxo bada ere, martxotan, apirillean, maiatzean, garagarrillean edo ekainean ereinda ere, lau illabete dira auek. Baiña arbia abuztuan edo agorraren aurren aldera ez bada ereiten, ez da asko izango. Ostoa ere naiko juxtu.

Badira edo baziran, azia goizean bota edo arratsaldean bota ere alde aundia zuala esaten zutenak. Ni ere, nere tontoan, goizean botatzea obe ote dan egoten naiz, lurrari azala pixka bat legortzeko illuntzerako. Baiña urte ontan erdi lokatzen erein ziran, eta etziran bereala indartu.

Belarrak ere, etxe aldekoak ondu edo igartzen gaizki, eta mendikoetan okerrago. Mendiko belarrak zenbaiti arrigarri egingo zaio. Zer mendi-belar galdetuko du, eta badu arrazoirik asko ere.

Baiña emen, Seguran eta inguruko erri geiagotan ere, belar eta garo asko ekartzen genduan naiko urrutitik; eta Euskal Errian leku geiagotan ere bazan orrela ibillitakorik.

Gaur piñu edo baso daude sail aiek geienak, alderdi ontan beintzat, eta ala obe gañera, nere ustetan, gaur traktore eta beste aurrerapen batzuk egon arren.

Urtean belar-aldi bakarra ematen zuten. Izan ere, mendi altu xamarrean aurreneko itxurazko belarra irtetzerako, Santiago edo geroago izaten zan; eta, bein abuztuaren azkena ezkerro, eguzkia ere beeraka asten da, eta mendian ez du belarrak asko irabazten, otza ere lentxeago izaten da orietan da.

Baiña esaten ari naizen urte ontan, urri-illean eguzkia geiago zan, uzta edo abuztuan baiño; eta igartzen gaizki ibilli bagiñan, menditik belarrak etxeratzea oso zaila izan zan, orduan idi-pare zaildua pranko egon arren Euskal Errian, eta itzaiak zer esanik ez.

Baiña orduko gurdi-kurpil zorrotz aiek bi edo iru zentimetroko zabalera zuten, eta lur bustian kutxilloa bezela sartzen ziran, eta gero zeñiek tiratu ordu bat edo biko bidean?

Ala, eziña ikusirik, zuatz edo metak egin ziran mendian. Baiña gero ere mendian edo urruti aiek, eta batean aizeak banatu edo bota zitualako, belarrak busti eta batere gabe edo alatsu geldituak etziran gutxi. Baiña etzegoan besterik egiterik, eta al zana orduan ere.

Baiña aitonak edo orduko gizon edadekoak, beti ere nola-ala al zan azkarrena etxeratu arte etziran ixildu, eta arrazoia ere bazuten.

Eta nik ere, esne-saltzaillearen doiñuan, bertso auetxek jarri nituan urtearen bukaeran, nai dituanak irakurri.

1
Milla beatzireun da
iruroi ta irun
zer gertatu zaigun
esango det, badago
ez dakiñik iñun.
Aurten eguraldiak
zer lan eman digun,
laiñoak edukirik
eguzkia illun;
eta astean bitan
euria asten zigun.

2
Asi bakarrikan ez,
baita ere egin,
egon gabe premin;
bazirudin geundela
neguaren erdin.
Laiñoak izan ziran
ilbeltzeko berdin,
gero Santiok arte
gariak txit gordin;
nai ordurako etziran
etxeratu gurdin.

3

Naiko ezeak ere
baziran jasota
makiña bat sorta;
ibiltzean etzuten
ala asko bota.
Ta pakea egin zan
trilladoran jota,
aletuko etziranak
arriaren kontra,
gaur aurrerapen au're
sartua dago ta.

4

Eskuz bear zituzten
makiña bat kolpe,
nekatuaz tope,
kentzeko galburuan
zegan aiña koipe.
Erderaz asi arte
Antton eta Pepe,
etzegon aletzerik
jardunikan torpe,
ikusiak ziranez
ainbeste laiñope.

5

Arbi-lur maneatzan
ere giro falta,
euria zala-ta;
gero arbi erneak
ura gaixo-planta,
ain kolore orixkan
ziran atera-ta,
ximaurtzen egin arren
lan-aldi galanta,
lur bustia aguro
estututzen da ta.

6

Belar ontzeko ere
eguzkirik eza
ta euri erreza;
lana ugaldutzeko
modu ezereza.
Zabaldu eta bildu
estu eta presa,
ainbeste gaillendurik
beroan ezetza;
gero autsa pranko ta
kolorea beltza.

7

Zegona eramaten
ere neke aundik
jarri zitun eurik;
alako arrastoa
egiten zun gurdik,
ta bapo nekatuta
itzaiak ta idik;
bajuarentzat beti
olako alderdik.
Igaz egin balitu
euri auen erdik!...

8

Laiñoa ta euria
zegoan segiran
bertan eta jiran;
nork ez pentsa belarrak
ia usteltzen diran?
Izan ere ainbat neke
zuten erretiran,
da beti egon gabe
bide oben miran,
belar beltz aiek mendin
zuatz egin ziran.

9

Noizbait jarri ziraden
zuatz edo metan
mendiko maldetan;
artean lana pranko
zegon belarretan.
Eta aitonak marmar,
gañera benetan:
“Aizentzat dituk oiek
usoaren bueltan,
lau meta mendin baiño
bat obe dek bertan”.

10

Aitona etzegoan
burutik nastuta
edo eskaxtuta,
urrutiko zuatzak
gauz onik eztu ta.
Ikusten ez dan ura
askotan aztuta,
aizeak uzten badu
erdi orraztuta,
urtego euriteak
oso narrastuta.

11

Olaxe gerta ziran
ainbeste aberi
ta kaltezko peri,
illaran egin gabe
iru egun ateri.
Baiña San Migeletan
laiño zar aieri
eguzkia zitzaien
nagusi ageri,
ta poza eman zigun
amaika jenderi.

12

Udazkenean bazan
egualdi ederrik,
au badaki errik,
konpondu ez badu're
leengo okerrik.
Guztia beintzat ez da
gertatu alperrik,
gelditu giñanontzat
egin gabe lerrik;
nik ere jarri ditut
nere bertso berrik.



Argazki au 1956-an Urbia mendian atera genduan Arantzazura giñoazela eta emengo amar lagun kinta batekoak gera. Soñu jolea ere bai.

Urrengo urtean soldadu joan bear gendualako, danok juntatu giñan.

Besteak ere segurarrak dira. Aurrean eskubian pikotxean neri bizkarretik elduta dagoana Jesus Mari bertsolaria da, eta berarentzat itzaurrea eta bertsoak 341 eta 342 orrialdeetan arkituko ditu irakurleak.

(1967)

Otsail on eta txarrak

1
Milla beatzireun da
iruroi ta zazpi,
bertso batzuk jartzea
deritzat egoki,
aurtengo Otsaillak
mereziak noski,
nola etzaigun juan
uste bezin gaizki,
izotz ta elur gabe,
aize ta eguzki.

2
Beti degu bildurra
Otsail onena,
naiz-ta izan urteko
illikan motxena;
ondotxo badakigu
ez dala zuzena,
baiña aurtengo onek
kendu txar izena,
egin baidu oraindik
egin dun onena.

3
Naiz onalditxoren bat
iñoiz egin xamur,
egiterako gure
Otsaillak agur,
baiña uste onek ere
kolpez jo zigun lur,
aurten amaika urte
biurtu zan gezur,
il osoa joan baizan
izotz eta elur.

4
Aiek kalte aundiak,
aitortzeko egiz,
leno bageunden ere
irabazi urriz,
baserria osatzeko
laister tresna berriz,
arbiak usteldu ta
piñuak kiskaliz;
ez dedilla alakorik
oneratu berriz.

5
Orduko Otsail gaiztoak
nor etzun zapuztu?
Baserritar da artzaiak
ezin degu aztu:
pentsu eta lastotan
gure poltsak ustu;
larogei urtekoak
eman zuten kontu
orren txarrik etzala
emen ezagutu.

6
Baiña noizbait len ere
il au ez apala,
eukitzeko ain sona
txarra ta petrala;
artzaiak pentsa beintzat
kontra zituala,
jendeak lenagotik
aitortzen zuala
urte guztia bezin
bildurgarri zala.

7

Ola pentsatu zuten
gutzizko artzai-saillak
bate faltik etzula
egiten otsaillak;
ardi ta arkume asko
nola zitun illak,
luzarorako utziaz
bizibide zaillak,
kentzea merezi du
orrelako illak.

8

Geiago pasa gabe
il onen samiñik,
kenduta utzi zuten
batzar bat egiñik;
etxen zegon aitonak,
gauza au jakiñik,
irriparre goxoak
zituan eskeñik:
“Oraintxe etzeukagu
lasai bizi eziñik”.

9

Aitonan gisan danak
artuko zuten poz,
neguko garai beltza
ipiñirikan motz;
baiña geroztik ere
sarri egin du otz,
ta egingo ere bai
elur edo izotz,
auntengoan antzeko
onak ez badatoz.

(1969)

Arabe ta judutarren gerra (Doiñua: Balentin Berriotxoaren bertsoena)

1
Milla beatzireun irurogei ta
beatzi urteko garaia,
urte auetan toki guztitan
ez dago leku alaia;
aruntz begira sortzen zait neri
bertso batzuk jarri naia,
gogoraturik an bizi diran
ainbat arreba ta anaia.

2
Auxe da gaia illuna baiña
auxe da gauza egia:
berriz Ejipto ta Israelen
suaren piztu-aldia;
oietzaz zerbait adierazteko
asmoz ez nago nagia,
Jaun Zerukoak emango al dit
premixko dedan argia.

3
Urruti daude baiña ango kontuk
aixa datoz agirira,
jartzen bagera periodiko ta?
telebistari begira:
berriro ere nola dijoazen
lengo gerra-lantegira,
da gauza txarrak urruti ere
egiak izaten dira.

4
Israelek Ejiptori aitzaki,
Ejiptok berriz Israeli,
ta bitartean millaka eriotz
da surik ezin itzali;
ainbeste diru tresnatan bota,
ainbeste baztar kiskali,
naiz jendearen erdia mundun
goseak iltzen ibili.

5
Alkar iltzeko tresnaz beteak,
gogor berak eta goiak,
da ortan bota mundun jateko
premixko diran milloiak;
aurrerapenak eduki arren
bereziziko sasoiak,
azken arnasak eman zituan
pakeak ta arrazoiak.

6
Zertako ainbat aurrerapen da
orrenbeste jakinduri?
Ta bitartean dana puskatu
ta ainbeste odol ixuri;
gaizki dabilta an bizi diran
millaka beltz eta zuri,
Jesukristoren jaioterria
dala gezurra diruri.

7

Aztua nunbait garai aietan
entzundakoa Jesusi,
ta gorrotoa indar aundian
da alkar ezin ikusi;
onean ezin bada txarrean
danak jarri nai nagusi,
beste munduko etorkizunak
bildurtutzen ditu gutxi.

8

Bide gaiztoa darabiltela
nola ez konturatu azkar?
Zai daude alkarri erakusteko
edozein azio kaxkar;
ondo pentsatu: mundu onetan
dira lau-bost egun bakar;
ta ok orrela igaro bear:
noiz baiño noiz ilko alkar.

9

Arrigarri da, ogeigarrengo
gizaldira iritxita,
pake santuak edukitzea
ate guztiak itxita;
baztar danetan alkar iltzeko
tresnaz ainbeste jantzita,
ta beste asko goseak iltzen
jan gabe ezin bizi-ta.

10

Buka dezadan Israel eta
Egiptoarren kontua,
ez baida atsegin denbora askoan
olako negar-lantua;
eskatzen diot Jaungoikoari,
bukatutzean kantua,
komeni bada eman deigula
lenbailen pake santua.

(1974)
Endañeta
arri-jasotzailleari buruz

Bertso auek 1974-an jarri nituan. Izan ere, urte ortako gara-garrillaren edo ekainaren 2-an, marka ikaragarri bat egin zuan Endañetak, zortzi bat urte ontan beste amaika aldiz bezela. Bera izan zan amasei arroa edo berreun kilotik gora nabarmen pasatzen asi zan indartsua. Gogoan det berreun da ogei ta bost kiloa-kin joku bat nola egin zuan, bentaja aundia kontrarioari emanda, geienak edo danak ala jokatu zituan eta. Gizon edadeko batek baiño geiagok aitaren egin zuan Azpeitiko plazan. Izan ere, orduan parte oneko pixuak etziruditen emezortzi arroako arriak.

Esku bakarrarekin amar arroako kubikoa ere bai. Geroxeago, amabi arroakoarekin ere egin zuan, kubikoarekin eta esku bakarrez, kontrarioa pixu berdiñeko zilindroarekin zala. Alde ederra dago arritik arrira, naiz pixu berdiña izan. Eta etzan edozein bestea ere. Baiña irabazi egin zion Endañetak.

Onelaxe, pixkaka-pixkaka, berreun da berrogei ta amar kiloko edo ogei arroarekin ere egin zuan jokua, len esan dedan bezela, bentaja emanda, jakiña. Pareo edo altzada berdiñak egin zituzten kontrarioak eta biak. Baiña jende dana arrituta gelditu zan, edo giñan, berreun da berrogei ta amar kiloko arria zortzi aldiz bi txandatan jasota gizon batek bizkarrera.

Arritzeko zan, ainbeste indartsu ainbeste urtean arri jasotzen jardun eta, berreun kilotik berreun da berrogei ta amar kilora igotzea. Baiña, asi bazan, asi zan goraka; eta gaur au baiño aundiagoa esku bakarrez Perurenak jasotzen du. Biekin irureun da geiago kilo, eta zerbait gora egingo du, itxurak diranez.

Or dauzka gertuan Saralegi, Gibitegi eta Goikoetxea; eta beste bat, arrigarrietan arrigarria, Goenatxo bigarrena. Berreun da ogei ta amar kiloko kubikoa altxatu du joan dan larunbatean.

Beraz, badago indarra eta sasoia oraindik Euskal Errian, eta izan dedilla. Len ere izango zan, baiña berreun kilokoan; eta

ortik beera zegoan listoia. Baiña Endañeta pasa zan eta baditu jarraitzailleak. Orretxegatik, nik meritu aundia ematen diot Endañetari; eta, alaxe, ara aspalditxo jarritako bertso batzuk emen:

1
Arri-jasotzalle bat
aitatu asmotan,
bertso batzuen bidez
nator gaurko ontan.
Bera da dabillena
amaika aotan,
duda gabe onena
dalako lan ortan,
arri aundiarekin
jokatutzekotan.

2
Joxe Manuel Agirre
Endañetakoa,
Itziarren jaio ta
an azitakoa,
lengo marka guziak
apurtutakoa;
atzo ere egin du
azio bapoa:
zortzi alditan jaso
ogei arroakoa.

3
Milla beatzireun da
iruroi ta amalau,
Garagarrillan biak
kantuan jartzen nau.
Oinbesteko arria
azkar bizkarrerau,
nunbait entrenatuta
zegovon egun da gau,
ala ta guztiz ere
nola liteke au?

4
Kilotan berreun da
berrogei ta amar,
baiña Endañetak errez
bizkarrera damar.
Prestatu ta eltzean
gerriko ta txamar,
sorbalda erakusten
dio errez xamar,
zeiñek ez du egingo
arrituta marmar?

5
Berreun kilo naikoa
dira aurrez aurre,
lengo indartsu aiek
esan zuten au're,
eta ez al zebiltzan
arrazoitik urre?
Ortako gai diranak
zenbat daude gaur e,
agindu arren milla
zillar eta urre?

6
Asi ziñadenean
berreundikan gora,
zeiñek etzuan esan:
“Nora dijo, nora?
Gure Joxe Manuel
laister etengo da”.
Baiña gogorra izan
Itziarko lora,
itz baterako irin
garbiaren ora.

7

Esku bakarrez ere
indar aundikoa,
zure kemena ez da
erdipurdikoa.
Arin asko ibiltzen
dezu kubikoa,
nola amarrekoa
ala amabikoa,
ta zuk guztientzako
indarra naikoa.

8


Eun da berrota amar
kilotan neurria,
sei aldeak berdiñak
dituan arria,
esku-zulorik gabe,
ain arkaitz larria,
ogeitaka alditan
lepoan jarria,
esku batez ez al da
lan arrigarria?

9

Aspaldin zutik zeuden
makiña bat marka,
azken urteotan zuk
utziak zearka,
osoa izanik buru,
beso eta anka;
egiñak or gelditzen
dira deadarka,
nai duna austen asi
banaka-banaka.

10

Ogei ta amaika urtera
zerade iritxi,
onenean zaudela
zeiñek ez iritzi?
Geroz arri aundigok
dituzula pitxi,
baiña neke oieri
obe atek itxi,
ta gazteak ikusiz
trankil-trankil bizi.



Aste Santuko erromatar soldadu-taldea. Nik ere ogeitaka urteak egin nituan. Lazkao-Txikik kantatu ere egin zidan ostiral santu gau batean: “Ezpatarekin al abil, Joxe, Kristo menderatzearren?”. Iru argazki jartzen ditut, ia 80 urteren tartea dutenak. Onako ontan, erdian, kapitanaren atzekoa gure aitona da, Jose Inazio Insausti. Orduan, 1897-an, 30 urte izango zituan.

(1976)

Segurako ostegun eta ostiral santu egunetako ibildeun edo prozesioak

Seguran urteko egun edo jai aundienak dira auek, eta oso aspalditik datozenak, jakiña, berrikuntza batzuk aldian bein emanaz.

Adibidez, soldadu erromatarrak, jantziak beintzat, aspalditik zeuden Seguran. Au nere lagun eta kinto dan Laureano Telleriak ondo jakingo du. Izan ere, ainbeste lan egiten du ibildeun orren inguruan onek, eta beste iru-lau bat lagunek ere bai. Baiña izen geiago jarri ezkerero, norbait aitatu gabe uzteko edo gutxien merezi duana ipintzeko arrixkua dago, eta barka dezaidatela.

Baiña soldadu erromatarren jantzi berriak nere aitona sasoi-sasoian zegoala ekarriak omen dira, 1895 aldera-edo, eta lengo xarrak baztatu. Lardizabal deitura zuan aberats batek ekarri edo egin arazi omen zituan Parisen bere kontura, eta erriko bederatziz gizon aundienak prestatu ibiltzeko. Auetatik aundienaren neurrikoak eskatu, Mantxotegi baserriko Joan Mari Telleria zana omen zan gizon ori, eta esan izan da pertsonaren neurria al zan erantzun omen ziotela Paristik Lardizabal jaun orri.

Beraz, luzera aundiko gizonak ere ondo sartzen dira jantzi oien barruan. Baiña zabalean nik ere ondo edo geiegi betetzen nituan, eun da amalau kiloan nenbillen garaian, azken aldera.

Orain ez naiz ibiltzen. Baiña ogei ta zazpi urtetan jantzi nintzan. Aita ere bai beste orrenbestean; eta aitona ere aseratik ibilli omen zan. Baiña urte gutxiago, guk baiño, egin omen zituan.

Gu baiño geiago ibilliak ere badira eta badabiltz. Baita aita eta semea Santa Engrazitik, eta etxe geiagotatik ere bai. Garai batean, auek, Santa Engrazikoak, Joxe, kapitan amaika aldiz jantziko zan; eta aparteko gorputza zuan, propio egindakoa bezela. Onen semeak ere geienak, gu bezelaxe, pasa dira or. Oie-

tako bat, Benantzio, gurekin ere urte dexentean ibilli zan kapitan. Or gizon aundia bear du, eta au ala zan eta ondo egiten zuan. Bestela, jantzi oiek jan egiten dute. Gaur illa da eta pakean atsedeen dezala.

Gero Joxe Agirre ibilli zan kapitan urte askoan. Au ere gaur illa da eta pakean atsedeen dezala.

Orain Joxe Agirre onen illoba dabil, Ion Agirre, ia bi metro luzeko mutil bikaiña, eta urte askoan jarrai dezala.

Onelaxe dira emengo ostegun eta ostiral santuetako gorabeerak; eta gaiñerakoak 1976 urtean moldatu nituan bertso aue-tan daude.

1
Ostegun eta ostiral santu
Segura ontan zer diran
esan bear det, asi baiño len
osasuna erretiran.
Ainbeste aldiz ibillia naiz
gure kale auen jiran,
eta aita ta aitona-ta ere
olaxe ibiltzen ziran.


2
Izan ere emen ederrak dira
prozesio edo ibildeunak,
ta pozik lan au artutzen degu
bertan pentsatzen degunak.
Lan-klase asko naiz-ta ez izan
errezak eta legunak,
guk ortarako ditugu ostegun
ta ostiral santu egunak.

3
Segurar batek gazterikan du
ibildeun ori ikasten,
bi urterako da aingerutxo
jantzita ibiltzen asten.
Nazarenotan berriz urrena
pixka bat danean azten,
ta beste sail bat monagillo edo
apaiz-lagun zaigu jazten.


4
Gero San Migel aingeru ere
gaztetxo bat badabile,
ta beste sail bat apostolu edo
Jesukriston jarraitzaille.
Onen urrena santu ibiltzen
berriz sekulako saille,
berrogei urten askok segi du
naiz izan lantegi zaille.

5
Aldi berean beste beatzi
erromatar gudaritzan,
oitaka urtez ni're or nabil
nere aurrekoen gisan,
aldi batzutan kale jiran da
beste batzutan elizan;
al dedan arte jarraituko det,
ortan ez zalantzik izan.

6
Bi gizon prestuk gudariori
jotzen digute danborra,
pauso berdiña eramateko
degu gauza derriorra.
Ibildeunaren aseran berriz
txistulari-sail jatorra,
Seguran beti izan da eta
gaur ere dago bizkorra.



Bigarren erromatar soldadu-taldea. Eskubitik ezkerrera bigarren dagoana gure aita da, Frantzisko Insausti. Onak 30 urte bear zituan orduan, 1925 edo 1926-koa dalako argazki au.



Irugarren erromatar soldadu-taldea, 1972-an. Atzean, eskubitik ezkerreara irugarrena, ni naiz. Jose Insausti, 36 urterekin. Aurrean, kapitanaren ezkerretik, gure anaia Juan. Onek ere urte-pilla galanta egin du ortan.

7

Beste bi ere ostiral santuz
ez dira portatzen amuts,
Golgota mendi artan bezela
gurutzetik jeixten Jesus.
Orduko izenez agintzen die
prailleak egin gabe uts.
bati Arimateako Jose,
besteari Nikodemus.

8

Ibildeun ontan baita ere sartzen
dirade abeslariak,
orain Seguran dauden bezela,
onak eta ugariak.
Bai eta ere erriko apaiz
ta praille sermolariak,
kandel banakin erritar asko
ta gure agintariak.

9

Ta ibildeun au atera dedin
dana nai bezin borobil,
bearrezkoak izaten dira
iru-lau bat gizon abil.
Jaunari eskerrak beti izan dira,
orregatikan ez da il,
baizik sekula baiño obeto
ta indartsuago dabil.

10

Berreun bat lagun saiatzen gera
ibildeun ontan gutxiñez,
bakoitza bere egin bearretan
borondaterik aundiñez,
ikusi eta ikasi gendun
ura al dana egiñez;
orain artean ola izan da,
gerokorikan jakiñ ez.

11

Ta ari naizen eginkizun au
gelditu gabe etenda,
esan bear ditut elizkizunak
eta santuen zerrenda;
imajin auei santuak deitzen
gu bein oitu giñaden da,
baiña badaude etsaiak ere
beren latigo ta prenda.

12

Ostegun santuz meza ta sermoi
elizkizuna bostetan,
sermoien gaia guk badakigu
entzunikan ainbestetan.
Ala ere batzuk gogor eginda
uzten gaituzte kezketan,
baten Jesusen azken apariz,
Judasen tratoz bestetan.

13

Meza ondoren lenengo lana,
asterako ibildeuna,
apaiz jaun batek palio azpian
lekuz aldatzen du Jauna.
Ta leku au da *Soledadea*
guk deitutzen dioguna,
argi ta lorez apaindurikan,
ederra eta txukuna.

14

Leku ontako sagraioko
giltza, kate eta guzi,
apaizak dio alkateari
lepotik zintzilik utzi.
Ibildeunean an ibiltzen du
nai duten danak ikusi,
oitaka orduan bera izaten da
giltzatxo orren nagusi.

15

Beste oitura bat ere badago,
esatea da komeni:
beti goardia egiten zaio
Soledadeko Jaun oni,
emakumeai egunez eta
gauetz ainbeste gizoni;
oitura au're ez galtzeakin
arriturikan nago ni.

16

Ibildeuna're azalduko det
ibilli oi dan tajuan:
txistulari ta nazarenoak
oi dira aurrena juan;
ta santuetan Jesus txikia
eta bigarren San Juan,
irugarrena otoitz egiñez
Jesus Baratza Santuan.

17

Laugarrena da etsaiarena,
ondoren berriz Pilatos,
ta gudariak, sandali, ezpata,
sable ta kaskoko motots.
Len ala ere jantzi oik zuten
gaurko aldean doble ots,
nola Parisen egiñak diran
Segurarako apropos.

18

Gudari oien urrena berriz
da Simon Zirenekoa,
apostoluak gero ta Jesus,
gurutzan dagonekoa.
Ondoren berriz Piedadea
ta Ama Doloretakoa,
ta santuetan bi egunetan
au degu azkenekoa.

19

Abeslariak dabiltz ondoren
zabaltzen Jesusen itza,
oso egoki egiten dute
beren abesti-eskeintza.
Gero apaizak eta dutenak
erriko agintzaritza,
ola amaitzen da osteguneko
ibildeunaren bizitza.

20

Ostiral santu asi oi degu
gurutz-bide eta guzi,
Santa Engraziko ermitan ekin
eta konbentuan utzi.
Goizean garaiz izanagatik
ez da joaten jende gutxi,
egun ortako otoitz ta kantak
eskeiñtzera Jesusi.

21

Arratsaldean txistu ta danbor
irtera udaletxetik,
nazarenoak aurretik eta
apostoluak atzetik.
Gero gudarik eta San Migel
ta aingeruak ertzetik,
baita apaiz ta agintariak
bestean bide beretik.

22

Oso ederra da talde onek
eleizan duan sarrera,
gero gudari ta danbor-jolek
jarraituz Soledadera.
An ezkerrean eta agurra
Jesus dagon aldarera,
eta binaka txandatuz egon
eldu arte aldaera.

23

Gero asten da elizkizuna
meza santua emanaz,
meza-denboran Soledadean
dagon Jauna eramanez.
Prailleak gero sermoi gogorra
izugarrizko kemenez,
esanaz nola Jesus il zuten
pekatarien baimenez.

24

Jesus altaran gurutze baten
nola egoten dan antxe,
adierazten du pekatariak
jarri degula olaxe.
Gero gurutzetikan jeixtea
asten da berealaxe,
orain bi milla urte Golgotan
egin zuten bezelaxe.

25

Sermolariak deitutzen die
Jose ta Nikodemusi,
aiek orduan azaltzen dira
eskillara eta guzi.
Gero sermoitik agindu ala
mingarrik kendu Jesusi,
nola koroia, *Inri* ta iltzeak,
erriari erakutsi.

26

Aingerutxoak altaran daude
Jesus jeixteko unean,
txikiak dira ta laguntzaille
bat dutela aldamenean.
Ta mingarriak jartzen dirade
arek dun azpil gainean,
eramateko bere eskutan
gero ibildeun danean.

27

San Migel ere ezpata altxarik
an arkitzen da alboan,
eta Jesukristoren gorputza
iru gizonen lepoan,
elizan arkitzen diran danai
erakusteko asmoan;
ori egitean ipintzen dute
kristalezko zerraldoan.

28

Garai auetan korutik ere
dator ain kantu illuna,
iñoiz musika-banda izan da
soiñu bera jo diguna.
Era orretan degu elizan
ostiral santu eguna,
eta ondoren ateratzen da
prozesio edo ibildeuna.

29

Ostegunetik ostiralera
ibildeunan aldakuntza:
nazarenoak Jesusen ordez
ibiltzen dute gurutza;
gero aingeruak eta San Migel,
onek dantzazko laguntza,
eta bestea Jesukristoren
zerraldo edo il-kutxa.

30

Ostegun eta ostiral santun
berri orra erakutsi,
naiz danak ondo adierazteko
nik izan adimen gutxi.
Orregatikan gauza askotxo
ditut esan gabe utzi,
al dezutenak kupira gabe
etorri eta ikusi.



1976 urtean, Idiazabalen, San Blas jaietan, Goierriko sokatira-norgeiagoka irabazi ondoren, Segurako bi taldeak aurren eta bigarren gelditu giñan. Gu, iru anai, irabazleen taldean tokatu giñan. Ortxe gaude, atzeko illaran ezkerretik, bigarrena Juan: gero, ni, Joxe; eta ondoren, Iñaxio. Aurrena dagoana, gure anai Juanen ondoan, Bonifazio Lardizabal da, taldeko zaarrena: 41 urte zeuzkan. Baiña nik ere ordurako banituan 40.

Sokatira

Oraingo bertso auek gure sokatira-garaiari buruz jarri nituan. Segura ontan, eta beste erri geiagotan ere bai, festa-egunen batean, batik-bat San Juanetan, gabean, geiengan sokatiran egin bearra edo sokatirarako griña izaten zan. Nunbaitetik soka inguratzen zan, eta ezkonduak ezkongaien aurka, edo baserritarak kaletarrai, beti bezan zerbait.

Soka nunbaitetik ekarri esan det. Bai; eta ala da. Baiña denda edo saltokia zeukan Ximon Mujikak Seguran, eta berak ere afizio aundia zuan, eta geiengan arek ateratzen zuan. Nik ezagutzerako urtetan dexente eldua zan, baiña ura etzan egongo Seguran geiena nekatuta eta gaizkiena janda ere. Eta San Juanetan, beste lagunak batzuekin, or ekartzen zuan soka plazara, eta antxe ibiltzen giñan. Ximon au ere gozatzen zan. Gaur illa da eta pakean atsedean dezala.

Baiña ez genduan edo etzan sokatira formalik ateratzen. Geiengan, alde batera asten zanean, beste aldera jendea sartu eta abar, gau erdirako pixka bat muturra bustita ere egongo giñan da.

Eta Ximon onen soka ere ala puskatu zan. Izugarrizko jendetzak artu kalean, eta pareta-kantoi baten kontra moztu erditik. Oso pena izan zuan, eta arrazoiarekin; eta etzuan geiago sokarik atera, dendan saltzen bazeuzkan baiña.

Andik urte-mordoxka batera, 1975-ean, Gabirian —erri au Seguratik ez dago oso aparte—, sokatira-txapelketa jarri zuten. Ni ordurako berrogeigarren urtean ninjoan. Segurako talde bat prestatu zan, baiña ez bear bezela artean, soka *sisala* markakoa bikaiña erosi ta ekarri arren, eta Gabiriko taldearen aurka egokitu zan. Baiña bi tiraldiak galdu egin zituzten segurarrak. Txapela ere Gabirikoak irabazi zuten, norgeiagoka ontakoa alegia. Oso talde ona zan Gabirikoa.

Norbaitek joaterik ez edo jende geiago bear zala-edo, emezortzi bat laguneko taldea egin zan, eta ni ere sartu nintzan. Iru anai ibilli giñan gu, eta bi anaikoak etxe geiagotatik ere baziran, eta bai prestatu ere.

Andik laister Gabiriko taldeari jokatu genion Ormaiztegiko frontoian. Uraxe baiño joku fiñagorik etzan jokatuko munduan, berdiñak bai baiña. Lau tiralditara, eta iru eta bat irabazi genduan segurarrak.

Naiko ondo ikasi genduan sokatiran. Jakiña, pixu aundi xamarra, neregandik asita. Zazpireun da ogei kiloan ibiltzen giñan, zortzi laguneko taldea. Bi eun kilotik gorakoak giñan, eta beste batzuk irurogei ta amabost kilokoak ere bear, or etzegoan, San Juan gaean bezela, edozein pixutakoak jartzerik eta. Pixuak ere alde piska bat igual edukitzen dute batetik bestera, eta alegiña juxtu sartzeko kilotan, naiz aurren artan zortzik tiratu bear.

Gero, bi talde ere egin giñan. Amabost bat lagun joaten giñan, eta aldaketa batzuk egin eta zazpireun da ogei kiloan jartzen zan taldea.

Pixuak, nere ustez, berdintsu entrenatuta ikaragarri esan nai du sokatiran, eta nik bein ere uste ez nuana ere ikusi genduan. Gu jarri giñan zazpi lagun seireun da ogei ta amar kilotan, eta bestetik zortzi, pixu berdiñekoak, alegia, zortzien artean seireun da ogei ta amar kilotan, eta guk beti irabazten genduan. Neri arrigarri egiten zitzaidan alde batera, bi beso eta bi anka geiago pixu berdiñean izanik. Baiña sekulan ez genduan galdu guk era ontara. Norbaitek esango du:

–Alakoak izango ziran!

Baiña nik auxe esango diot ikusiari buruz: talde ura edo artakoak jarri zazpireun da ogei kiloan, eta gu ere estuago ibiltzen giñan.

Baiña bi urte auetan emen, Goierrin, buru xamar izan giñan sokatiran. Ez det erronkaz esaten, neroni igual izango nintzan txarrena eta.

Baiña galdu ere egin genduan amaika aldiz. Paliza galantak artu ere bai, Agurain edo Salbatieran da Donostian eta leku askotan.

Ogei talde igual danak alkarren aurka, eta azkenerako lertu. Jakiña, aurrenetik talde bigunxeagoak tokatu ezkerro, aurrerago egiten genduan. Baiña iru minutuan eta berdintsuakin lertu egiten da, eta gero urrengo tiraldian gaizki.

Garai ontan Motriko zan danon gaiñetik ibiltzen zana. Urnieta ere ondo. Bizkaian ere baziran talde politak.

Alaxe, bada, lau probintzietan jokatzera iritxi giñan: Bizkaian, Araban, Nafarroan eta Gipuzkoan. Kopa-sail dexentea ekarri ere bai. Dirurik ez, gastatu egiten genduan eta. Izan ere, uskeri bat edo antzekoak ziran sokatirako sariak, eta patrikan eraman bear.

Len esan det bi talde izan giñala Seguran, eta ala da. 1976-an, Idiazabalen, Goierriko norgeiagokan, aurrena eta bigarren egin genduan bi taldeak, eta ederki muturra bustita etorri giñan geienak, neregandik asita.

Andik pixka batera traktorearen aurka ere jokatu genduan Zegaman. Ogei ta bost lagun batetik, eta gizon bat bere traktorearekin bestetik, eta emen ere garaille atera giñan.

Orrelaxe ziran kontuak eta onako bertso auk moldatu nituan.

1
Milla beatzireun irurogei ta
amabostgarrengo udan,
sokatirako egintza ortan
gu asi giñan Seguran,
eta bi urte pasa giñuzen
egon gabe duda-mudan;
saia nai nuke orduko kontuk
ea aitortzen ditudan.

2
Aspalditxoko oitura zarra
bazan Segura onetan,
sokatirako griña gogorra
gauean San Juanetan.
Erriko festak nola izaten
diraden egun auetan,
gure indarrak probatzen ziran
urterikan geienetan.

3
Batzuek egon ezinda eta
beste batzuk sua pizten,
orrelaxe zan gauerdialdera
sokatirea irixten.
Baiña alde bat asitakoan
eziñean da irrixten,
zenbait ikuslek gauz ori ondo
zegonik etzun sinisten.

4
Ta eziñeko taldeko sokai
onek elduko zion *rau!*,
gero talde baten amar igual
eta bestean amalau.
Erabakirik artu ezinda
pasatu zan amaika gau,
nere zarrean oroitze utsak
oraindik parrez jartzen nau.

5
Baiña Seguran gauza formalak
ere indar artu zuten,
milla beatzireun irurogei ta
amabostgarrenge urten,
entrenatuaz gau eta egun
tiratzen eta irauten,
giro ona bazan kanpoan eta
euria bazan arkupen.

6
Bai arrastuan sartu're bapo
naiz-ta len izan zabarrak,
zaildu ziraden gerri maxkalak,
ankak eta atzaparrak.
Sisal sokari atera eraziz
sekulako zirriparrak,
bi orduko tirek aultzen zituan
aserako irriparrak.

7
Amaika aldiz jardun giñaden
eten gabe bi orduan,
alkarri esanda zaildu bearra
zegola gogor orduan.
Jan ere gauza fin xamarra ta
ura edan otorduan,
orregatikan makiña bati
lana ematen giounduan.

8
Beste batzuek ere bai baiña
indartsugo zan Motriko
talde artantxe nola zegoan
ainbat gorputz egokiko.
Alaxen ere beti ez giñan
gertatzen oso mutiko,
Aguraingo tira-aldi bat
buruan dute eukiko.

9
Iru minutu ta geiagoan
iñork ezin erasanda,
azkenen nola gelditu giñan
ezin sinistu esanda.
Oin bat naikoa egitea ta
bi taldek erdi etzanda,
azkenen aiek eraman zuten
suerte pixka bat izanda.

10
Deadarra ta txistua ere
izaten da alakoan,
asko sufritzen baidu zenbaitek
egonagatik kanpoan.
Eta txistu bat iruditu ta
juezana zalakoan,
batek sokari utzi gurera
ekarri gendulakoan.

11
Era ontantxe izan ziraden
sokatirako komerik,
pasatuz neke-aldi galantak,
bromak eta erromerik.
Gaur gauza aiek naiz iruditu
sekulako erokerik,
debalde lanen ikasitzeko
ez da egintza oberik.

12
Pasa giñuzen Bizkai, Araba,
Naparro ta Gipuzkua,
eta danean billatu gendun
naiko jende tajuzkua.
Eta norbaitek badauka gaizki
portatu giñan juzkua,
seguratarrak eskeintzen degu
barkaziozko eskua.

Oarra

Orain datozen bost bertso-sail edo jarri-aldi auek badute, besteak bezelaxe, beren argibide edo gertatuaren berria. Ala ere, uste det itz bi ez dirala sobre izango, irakurleak jakin dezan beste fameli artekoei ez eta auei nola egin nizkien bertsoak; eta auxe da: naiz batzuen oso bereiztekoa izan, nere-nereak ziralakoko. Besteena, berriz, gure etxean jaio, ainbeste urtean bizi eta il ziralakoko.

Eta aurretik esan bear nuala uste det bertso illun edo triste samarrak dirala, bost pertsonaren eriotzak agertzen ditudalako.

Aitona eta amonaren kasoan, larogei urtetik gora zituzten; eta, bein adin ori arrapatu ezkerok, naiz bakoitzak bere etxean utsune aundia uzten duan, beste arek ere etzuan esango esan zuana Seguran:

–Olako baserritakoa il omen dek –esan omen zioten.

Eta berak, pixka bat pentsatzen egon eta onela esan zuan:

–Baiña i: etxe artan zein zegoan iltzeko modukoa?

Eriotzak, ordea, noiznai ateak jotzen, eta etxe artan ere sasoikoa illa izango zan.

Au ere esan bear det: ez naiz, al dala, negar eragiteko bertsoak jarri-zalea, emen datozen batzuk negar egiñaz jarri banituan ere, batik-bat gure aurrenko semetxoa eta gurasoak il ziranean. Baiña denborak geienak aztu eragiten ditu, eta ala bear ere.

Iñola al bada, al dan alaiena eta egokiena pasa bear dira, nere ustez, munduko urte apurrak, eta ala pasa ditzagun. Jaungoikoak ere alaxe naiko du, nere iritziz. Pentsatu, bada: asko maite degun bat triste ikusita, aretxek ainbeste sufritzen degu askotan.

Ontarako, jakiña, benetan maite bear da, eta Jaungoikoak ala maiteko gaitu.

Baiña ez noa gai ontan geiegi sartzera. Ikusten diranak ikusita eta gertatzen diranak gertatuta, nere burua gaua argi gabe bezela gelditzen da. Oso illun, alegia. Eta auxe pentsatzen det batzuetan: zorionekoak dana juxtu dagoala, alde ortatik begirata, pentsatzen dutenak. Baiña zentzuna edo burua pentsatzeko da, naiz gai ontan nastuta bat gelditu, ortan asi ezkerro.

Baiña oso iñoiz ez dezagun utzi. Pentsatzen duanaren barruan zerbait bizi da, eta alkar maite dezagun, au danerako ona da ta.

(1950)

Nere aitona Joxe Inazio Insausti zanari buruz gaztetan jarriak

Oraingo bertso aukeratuak nere aitona zanari jarriak dira; aita aldeko aitonari, ama aldekoa ni jaiotzerako illa zana da. Aitona au, ni bezela, Aizkoeta baserri ontan jaio, azi eta bizitakoa zan. Gizon aundia; gorako aundia esan nai nuke: 1'85 bat sasoian izango zan, esaten zutenenez, nik naiko zaartua ezagutu banuan ere.

Zerbait bertsoetan aritzen omen zan, eztaietan eta ola. Au nik ura il da gero jakin nuan. Izan ere, ez nion sekula bertso bat entzun, alde batera arrigarri bada ere. Baiña, bestetik, nik ama-bost urte betetzerako il zan, larogei ta iru urterekin.

Naiko miña edo sufrimentua edukitzen zuan, batik-bat azkeneko bi urteetan. Elorri-arantza batek zauritu zuan kopeta-ertzean, eta andik. Geiago etzizaion sendatu urratu ura, eta min ikaragarriak pasatzen zituan. Orduko sendagilleak minbizia zala esaten zuten, eta amaika indizio jarri zioten, artean gauza berri xamarra bazan ere au. Baiña etzuan artu nai izaten indiziorik. Nunbait etzioten mesede aundirik egiten. Erdelduna zan sendagillea, orduan zegoana. Baiña adierazten zion bere gorrotoa indizioentzat.

Bertsotarako, batetik edade aundia, eta besteko miña, ez dira lagun ederrak izango, eta lenago kantatu bear, al bada. Baiña aien bertsoak bi puntukoak eta ola izango ziran; eta aiek, seguro asko, alamoduz rimatuta. Amaika parre eragiten zuten aitona ezagutu nituan nik. Bi puntuko bertsoa, eta ura rima diferentekoa. Baiña bai grazia egin ere jendeari, luze duda-mudakoakin baiño geiago. Izan ere, bertsolaria, grazia egiteko, oso ona edo oso txarra bearko da.

Bein, gogoan det, bertsolari edadeko bat ari zan, batean lau puntukoa eta besteak bostekoa boteaz; eta entzule asko, adarra

jotzearren, txalo, naiz lenengo maillako bertsolariak ere an egon ixilik. Baiña entenditzen zuan batek ala esan zion, asarretuta, bere lagun bati:

–Onen bertso danak baiña, Lasarteren bi puntuko bertso bat naiago diat.

Eta besteak:

–Bi puntukoa? Baita puntu ta erdikoa ere.

Izan ere, Lasarte bertsolari zuzena eta danak gustatzen dirana da, eta jendea konturatzen da.

Aitonaren kontuakin asi ta zerbait luzatu det. Baiña oraindik ere badet, ba, zerbait esateko. Nere aitona au Araban morroi egonda zegoan, ez dakit zenbat denbora baiña, eta erderaz dexente zekian, ordukua izateko, ez Unamunorekin eztabaidatzeko moduan baiña.

Ala ere, bein egin omen zuan anka-sartze ederra sendagillearekin. Au erdelduna, len esan dedan bezela. Elizakoak eta danak artuta, gaizki egon omen zan gure aitona au irurogei ta bost urterekin, urdailletik edo ultzerarekin; eta, ondo xamar jarri zanean, sendagilleak ebakuntza edo operazioa derrior egin bearra zeukala eta gogor artu omen zuan.

Garai artan ia geienak il egiten omen ziran operazioan; eta gureak ere, oso elizkoia eta erreztatzailea zan, baiña iltzeko, Errenteriko bikarioaren moduan, gogo gutxi; izan ere, ortik lenagoko arena: eskumin xixtrin batzuk ere iñork ez ditu bialtzen eta.

Beraz, ontara geran ezkerro, esan dezadan Errenteriko bikarioarena. Bikario famatua omen zan. Sermolari aparta. Eta erioztako orduan laguntzen ere oso famatua egin omen zan. Ala esaten omen zion gaixoari:

–Pozik egon bear zenduke, eta poztu.

Egunero santu edo santaren baten eguna izaten da, ta:

–Gaur akordatu da, ba, San Agustin zurekin.

Eta urrengoari:

–Gaur akordatu da, ba, Santa Katalina zurekin.

Eta orrela. Baiña bat, bigarren karlista gerran ibillitakoa, trantze ori pasatu eta bizirik irten, eta ez omen zegoan bikarioarekin gustora, otz xamarra nunbait ura ere ta. Ontan, larogei ta amar urtera iritxi da bikarioa. Oso gaizki zegoala zabaldu omen

zan otsa San Pedro egun batean, eta or joan zan gerran ibillitako bixitaria, eta esan dio:

–Lasai, gizona, lasai! San Pedro oroitu da zurekin.

Eta erantzuna:

–Bai. Alaxe da. Baiña ain ondo bizitzen da Errenterin, eta au uzteak ematen dit pena.

Gure aitonari ere bai arrazoi guztiarekin; eta sendagilleak onela esan omen zion:

–*Tiene que operarse. Si no, tendrá que sufrir muchísimo.*

Eta aitonak erantzuna:

–*Operar, no, no. Operar, matar hombre y ondamendi de familia.*

Berak arrazoaia. Eta gero, adarra jo ezker, onela esaten zuan:

–Erdera txarra egin nioan, nerbioso jarrita.

Baiña asmatu. Ia ogei urte geiago jo, eta sendagillea bera baiño lenago il. Pakean atsedeen dezatela biak.

1
Milla beatzireun berrogei t'amar,
urri-illak ogei ditu,
egun ontantxe aitona gabe
negarrez nintzan gelditu.
Gai oni buruz bertso batzuek
gaur moldatuko banitu,
bere billoban bertsoen otsa
zerutik dezan aditu.

2
Larogei ta iru urte zituan
mundu ontaratu zala,
iruditzen da aspertutzeko
aiña urte badirala.
Baiña uste det il-asmorikan
oraindikan etzeukala,
naiz-ta sinistu beste mundu bat
onen ondoren badala.

3
Beste askoren gisa egiña
makiñatxo bat lan zakar,
lengo oiturara eskola gabe
lanean asita azkar.
Gorrotorikan etzendun maite,
ezin ziñan bizi bakar,
gauzik bearrena jotzen zenduan
maite izatea alkar.

4
Azken bi urteak igaro zitun
naiko tristeak eziñez,
kopeta-ertzean zun zauriak
aldegin gabeko miñez,
ta onek zerbait utzitakoan
orazioak egiñez.
Aren fedea zenbat aundi zan
nik ezin esan mingaiñez.

5
Azpillaldeko soroak dauka
goenen sasizko esia,
ura txukuntzen sasi txar bat zan
zuri ondo erantsia.
Naiz medikuak sarritan esan
zauri orri minbizia,
nik auxe dakit: erida artatik
zala guztia asia.

6
Lenago ere miñaren berri
ondo asko ikasita,
nola urdailleko ala ultzera
izan zendun itsatsita.
Ura burruka zendun ordea
errejimenen asita,
baiña oraingoak ekarri dizu
eriotza erantsita.

7
Indiziokin oitu gabea
len olakorik etzan da,
aiek jartzeak uzten ziñuzen
leenaz gain erasanda.
Esaten zendun: “Ez baneukake
eziñak oian etzanda,
ez nituzke, ez, geio artuko,
ondo nagola esanda”.

8
Onak zirala naiz-eta esan
askotan sendagilleak,
ari etzitzazkan iruditutzen
ainbesteko ongilleak,
esanaz: “Auek gabe iltzen ziran
len beartsu langilleak;
mesede usten ea diraden
min geioren egilleak”.

9
Batzutan antsiz, bestetan lotan,
miña barru ta azalen,
pentsatuz: “Egun gutxi daduzkat
nik Aizkoeta egalen”.
Eta urrillak illundu zuan
irugarren ostiralen,
azken arnasa eman zenduan
oi zuri baten magalen.

10
Nere aitonaren munduko egunak
olaxe bukatu ziran,
eta igandez ziran illetak,
ta lur azpira segiran.
Anima zerun izango dezu
aingeruk ditula jiran,
nola munduko zure egunak
ain zuzenak izan diran.

(1953)

Nere amona Justa Gerriko zanari, 1953-garren urtean

Aitonari bezelaxe, amonari ere bertso batzuk jarri nizkion; aita aldeko amonari. Ama aldekoa ere ondo ezagutu nuan, baiña ez nion jarri bertsorik. Ez dira atzo goizekoak, ni emezortzi urte betetzeko nengoan ura il zanean da.

Zeraindik, 1894-an ezkondu omen zan gure baserri ontara. Emakume aundia zan, eta lodia ere bai. Berari sekula ez nion entzun, baiña bi anea gariko zakua bizkarrera jasotzen zuan garaia ba omen zuan. Larogei ta amabi kilo inguru dira gutxi gora-bera. Izan ere, erronka txikienik eta iñorengatik gaizki esatea oso gorrotokoak zituan.

Bertsoa gustatzen zitzaion, eta amaika kantatu nion. Izan ere, bere besoetakoa ninduan; eta ez nik esaten dedalako, baiña aparteko maitasun bat bazidan neri. Sari koxkorren bat sarri ematen zidan; eta, zelebrekeriren bat esandakoan, oso pozik gelditzen zan.

Egia esan, il zanean, pena aundia artu nuan. Badira larogei ta iru urte pillat bat, baiña emen iñor eta ezer ez da gelditzen. Danak bukatzen dira, pertsonak bezela, piztiak eta arbolak eta belarrak eta sortzen dan dana. Orrelaxe dijoa au danarekin: etorri eta joan, gazteak aste ta jai, eta zarrak noiznai.

Gure amona ere, oso ondo zebillela joan zan. Gogoan det: maiatzaren 14-an zan, Azintzio eguna. Emen, Seguran, bada ermita bat, Santa Barbara. Geroago emango det beraren berri obeto. Mendiari ere alaxe esaten zaio gaur: Santa Barbara, alegia. Baiña berez Unai-mendia omen da. Ermita ontan mezatan izan nintzan ni Azintzio egun ortan. Orain igandera aldatuta dago, baiña orduan jai izaten zan, eta egun berean zelebratzen genduan.

Guk orain piñu dauzkagu, urruti xamar daudelako. Baiña orduan belardi genduzkan bi sail, bat bere etxola ta guzti. Eta ni,

etortzean, ango berriak-eta kontatzen ari nintzala, tentsio-atake bat egin zitzaion. Berriz bere onera etorri zan, eta juxtu-juxtu elizakoak-eta artu zituan ezaguerarekin. Baiña bigarrengoak eraman zuan, lau egun itz gabe egonda.

Pakean atsedean dezala. Auxe opa diot biotzetik, besterik ez dago mundutarrok egiterik, len esan dedan bezela, jaiotzen danaren zorra da au eta.

1
Milla beatzireun berroi t'amairu,
maiatz-illak emeretzi,
nere amona ta amapontekon
eriotza zan iritxi.
Larogei ta iru urte bazitun
naiz-ta osasuntsu bizi;
tentsio-atake batek ordea
du betirako irentsi.

2
Lengo ostegunez Azintzio zan,
da meza Santa Barbaran,
ni ere an nintzan ura entzuten
ia urteroko eran.
Etorri eta kontatu nion
guztia nola izan dan,
orduntxe itzegin genduan biok
mundun azkeneko txandan.

3
An baditugu bi belardi ta
baitare baten etxola,
beti bezela galdetu zidan
dana ondo al zegola.
"Bai, amona, bai. Belarra dago
ia lora dariola;
Santiotako pentsatutzen det
ertz ona egingo zaiola.

4
Santio ondoan egiten degu
mendi ortako belarreta,
garien lanak aien aurretik
egin bearrak daude ta".
Alaxe esaten ari giñala
gure mendiko izketa,
egin zitzaion atake ura
etzan izan berriketa.

5
Azintzio egunez egin zitzaion,
ordu batak ingurura,
atake txar bat naiko larria,
naiz laister pasatu ura.
Baiña urrengoa gogorragoa
zan andikan bi ordura,
bost egunean mutu egonda
joan zan beste mundura.

6
Azken agurrik ere egin gabe
ixildu ziñan, amona,
ez izan balitz egintza ori
zure eskuan zegona.
Agur egiñaz emango zendun
besarkada bat sakona,
deseatuaz biotzetikan
pakea ta zoriona.

7

Zeraingo Bengoetxe baserrin
jaio ziñan egun baten,
eta aitarik gabe gelditu
txikia ziñala arten.

Gero ugatz-aita ta gora-berak
izan arren zuen tarten,
aitzekirikan txikienikan
iñoiz etzendun esaten.

8

Norbaitengatik gaizki esaka
gu iñoiz asitakoan,
zeozer esan gabe etzendum
iraungo une askoan.


Etxean bazan moztuko zendun
guztizko errespetoan,
esanez: “Lenengo begiratu
bakoitzak bere kolkoan”.

9

Etzendun maite parre txoroa,
etzendun maite negarra,
ezta ere lagun urkoarentzat
egin izan dan marmarra.
Naiz gure gisa zu ere izan
dirutan pobre samarra,
zuk izan dezu zorrikan gabe
igarotzeko indarra.

10

Justa Gerriko, ezkondu ziñan
aldameneko errira,
orain berroi ta emezortzi urte
Aizkoeta baserrira.
Eta ementxe zure munduko
egunak bukatu dira,
orain Jainkoak artu zaitzala
santuen bizitokira.



Ostegun edo Ostiral Santuko egun bat Seguran. Aurrena Nazarenoak ikusten dira; gero, San Juan. Ibildeunaren aurre aldea da au.

(1966)

Gure aurreneko semetxo zanari

Oraingo bertso-sail au eta ondorengo beste biak naiko pena eta naigabez jarri nituan, edo pena gogorra artu genduan, gertatu zitzaigunean. Inor ez da munduan izango beti pozik bizitakorik. Baiña gauza batzuek, edo gertakizun batzuek, alakoxe seillu berezia uzten dute, naiz denborak zerbait aztu erazi, beti negarez ez dago bizitzerik eta.

Nik bat artu nuan, gure aurreneko semetxoa jaio eta bi edo iru ordura il zanean; bigarrena, gure ama *falta de riego* eta *artrosis* eta gaitz oiek danak jo ta elbarri utzi zutenean; eta irugarrena, illea galtzen asi eta joan zitzaidanean. Baiña aurrena gure semetxoarekin gertatua esan dezadan, bertsoak ere auek jarri nituan aurrena eta.

Ezer asko esan bearrik ere ez daukat, bertsoetan esaten det geiena eta. Baiña gogorra izan zan, batik-bat andreak eta nik pasa genduan penaren zama. Alakoxe pozak eta itxaropenak genduzkan, beste guztiak izango eta izaten dituzten bezelaxe. Baiña ezer egiterik ez. Pasa egin bear gure aurreneko mutikotxo a ilda ikusita.

Baiña geiago etorri ziran gero, eta pozik orrenbestean. Emen dijoaz zortziko txikian orduan jarritako amabi bertsoak. Makiña bat urte joan dira geroztik, eta amaika gora-bera izan da.

Or bertsoetan sendagilleaz mintzatzen naiz. Ez dakit ondo ala gaizki egiten dedan, errezena aitzakia besteri ematea izaten da eta. Baiña pena bat gelditu zitzaigun, edo bi: bat, amak aurdunaldian rejimena egin bear ote zuan bein baiño geiagotan berari galdetu eta beti ezezkoa esan zigun; eta, aurra jaio ta bereala il zanean, berak kargu artu zigun ea amak errejimena zergatik etzuan egin. Ori entzuteak eman zidan su eta amorratio!

Bestea, berriz, abuztuaren 20-a zan, eta Donostiko Aste Nagusiko sapatua egokitu zan urte ontan, 1966-an; eta norbaitek

aruntza joateko naiko presa ote zeukan ere tankera artu genduan. Izan ere, eguerdiko amaikak aldera klinikan sartu edo ingresatu zan, eta esan ziguten bost edo sei orduan etzegoala ezer eta itxogin bearra genduala.

Ala geundela, ordu bat pasatu baiño len joan gelara eta kirofano edo traste ortara eraman zuten. Urrena, andik ordubete edo asko geiago gabe, gure aurtxo oso gaizki zegoala, eta ama ere naiko lanakin. Eta ala gelditu giñan, zergaitik itxoin etzan jakin gabe, pena galantarekin.

1
Milla beatzireun da
iruroi ta seien,
garbi adierazteko
abuztun ogeien,
zer gerta zaigun nago
bertsoz esan nai
nola barrenak ala
adierazten dien.

2
Ondorengoak naian
guk asmo zintzoa,
alaxe izan degu
lenengo aurtxo.
Baiña pozaren partez
negar-erasoa:
jaio ta bi ordura
il zaigu gaixoa.

3
Aurrez aukeratua
Beasaingo klinika,
etxe ortan ondo ere
jaio da amaika.
Ezbearra ordea
beti zintzilika,
gu ez ibilli arren
berari segika.

4
Sendagilleak aurtxo
aundian aitzaki,
jaiotzen ibillia
dala naiko gaizki.
Garaia joan da gero
au du erabaki,
azkenen guretzako
tristura galanki.

5
Aitzaki eman bear,
etzekian zeñi,
gu bere agindutara
baigiñan eskeñi.
Errejimen pittin bat
etzion ipiñi,
baiña ez da egotekoa
begira edozeñi.

6
Edozein zalakoan
gaur arte ez nengoan,
naiz ala iruditu
garbi oraingoan.
Guretzat gertatu da
au're lenengoan,
suerte obea izango
al da urrengoan!

7

Sendagille jaun onek,
jarrita begira,
lasai asko esan dit
neri aurpegira:
sartutzeko guraso
batzun lantegira,
“gazteak zerate ta
etorriko dira”.

8

Iltzen danak bizita
bakarrik bi orduan,
nork daki galdu ala
irabazten duan?
Baiña guk eduki nai
geronen onduan,
genduanetik pozik
emango gionduan.

9

Batzuek abortatzen
asirik ain trebe,
alare igual egin
aurtxo bizin jabe.
Mundu ontan kontuak
olaxe dirade,
fiñena gelditzen da
sarri ezer gabe.

10

“Ori ez dek ezer” batek
egin zidan dear;
badakit aundigo asko
dala mundun zear.
Baiña etxera etortzean
egiten da negar,
eta al dan moduan
pasa egin bear.

11

Aurrean ikusirik
mutikotxo illa,
gure begietara
ura negar-pilla!
Bat gelditutzen da zer
esan ez dakilla,
pentsatuz: “Zein joan da
zure eriotz billa?”.

12

Mutikotxo, joan zera
gu utzita negun,
ama ta aita ez gera
geldituak legun;
eta egin zaiguzu
zerutikan lagun,
ea emengo partez or
gozatutzen degun.



Gure gurasoak, Frantzisko Insausti eta Ramona Urbizu, 1961 urtean.
Aitak 65 urte zituan, beraz; eta amak, 55. Amaika lan eginda zeuden
ordurako; baiña oraindik ere makiña bat egingo zuten, lanak lana sortzen
du-eta baserrian.

(1975)

Gure aita zanari

Bertso auek, aita zana il da andik urte batzuetara jarri nituan. Izan ere, ixilik edo alamoduz nengoan bertso-munduan garai artan, eta izugarrizko golpea eman zidan aita galtzeak.

Ondo pentsatu ezkeror, irurogei ta emeretzi urte ere bada zer-bait. Baiña ez nuan uste ain gizon zintzoa izandako ura ain azkar galduko zanik. Sekula etzuan zigarro edo puru bat erreko. Edan ere neurrian, nik baiño obean. Erretiroa, zuzena beti.

Lana bai; lana ikaragarri egiña izango zan. Mendi-terreno urrutietatik garo eta belar. Gaur sinistu ere egiterik ez dagoan ibillerak. Guk badegu, gaur pago eta piñu dago, baiña amasei bat milla metroko saila Idiazabalko partean, Atxu mendian, Napatlatza izeneko saila, eta andik belarra eta garoa dana ekartzen zan. Bi ordu gaur ere gizonak bear ditu, orduan bezelaxe, aruntza joaten oiñez. Beraz, lau ordu joan-etorrian; eta idiak doble denbora bear izaten zuten. Orain pista edo kamiño dago, eta ikustera ere naiko bakan joaten naiz ni, gustatzen zait baiña. Olaxe beste sail batzuetatik ere. Baiña orduko gizonak gaurko atletak bezela zeuden.

Baiña ez da mendira joatea bakarrik oiñez; lan egiteko erre-mintak, egun guzirako janak eta abar. Eta, auek artzen diranean, amar bat kilo badira. Bi orduko bidean eramanda, uzterako astuntzen dira. Gero an beste amalau bat orduan lana egin, eta ontzaren oiua entzunez gauean etxera. Gure aitak eta beste askok, zenbat orrelako egin ote zuten? Nere denboran ere ez gutxi.

Gizon gogorra zan gure aita, ez gurea zalako baiña. Metro bat eta irurogei ta amabost zentimetro zuan gorako edo luzera, eta larogei ta bost kilo inguruan. Ondo zailduta egoten zan.

Bertsotan etzuan etorri aundirik, baiña zarrak bazekizkian; Xenpelarren mutil zarrenak eta 1896-an soldaduskan norbaitek jarriak. Bi sail auek osorik, baiña beste bakar batzuk ere baze-

kizkian; eta iñun bertso-papelak saltzen ikusi ezker, ekartzen zizkidan. Mendaro Txirristaka zan orduan ibiltzen zana.

Beraz, orrenbestez, gaiñerako kontuak bertsoetan, amarreko txikian, ortxe dauzkazu, irakurle, eta berak pakean atsedean deza-la, ondo irabazita joan zan mundu ontatik eta.

1

Milla beatzireun da
iroi ta amabosten,
martxon ogei ta bostak
ez nau asko pozten,
jardun dalako gure
familia mozten;
umoretik utzi dit
milla eragozpen,
aita iltzeak nor ez du
naigabetan josten?

2

Gaixo antzen jarria
sei bat illabete,
mundu ontako denbora
nunbait zaio bete.
Naiz lenago gaixorik
ez izandu bate,
azkenean gaitz askok
zirika diote,
mundu au izanik ain
eskas ta arlote.

3

Iroi ta emeretzi urte
zan bere adiña,
baiña gaixoa zer zan
bate etzekiña.
Orain danak batera
ematera miña,
Tolosako klinikan
iru aste egiña,
an bukatu da arentzat
munduko etekiña.

4

Naiz eduki amaika
sonda ta suero,
ta iru-lau mediku
joanaz egunero,
gu ere antxe zaitzen
egun da gauero,
lan guztien ordaiña
eriotza gero,
danak alperrik nunbait
ordua ezker.

5

Burua motelduta,
ixilik mingaiña,
leno iztun polita
izandu zan baiña.
Osasunari gaitzak
artu zion gaiña,
baiña il zan bezpera
zuan gau bikaiña,
ordun itz egin zidan
edozeiñek aiña.

6

Itz egin zidan ondo
zegan modutsuan,
gaixo zegoan baten
tankerik etzuan.
Onera zijola ta
poz ematen zuan,
baiña gaitza zedukan
alakoxe suan,
eta etsi bearra
ordua bazuan.

7

Ordua irixtean
danontzat dagona
berdin bereizten ditu
txarra eta ona.
Naiz izan mundu ontan
pakean zegona,
oraintxen zedukana
bizirik gozona,
makiña bat lan zakar
egin zun gizona.

8

Egunero lanean
estu eta presa,
baserria ere zendun
naiko aldrebesa.
Mendin garo ta belar
ogibide beltza,
asteko atsedena
igandeko meza,
beti geroko utziaz
bizitza erreza.

9

Orrelaxe ogia
zendun irabazi,
gaiñera lau seme ta
iru alaba azi,
ortarako igaroz
ainbat egun gazi;
ta Jesusi nai diot
au adierazi:
ea alkartzen gaitun
biar edo etzi.

10

Etxeak ere bazun
pipi ta eltxarra,
bosteun urte zituna
izan bear zarra.
Lekua ere gutxi
bada naiko txarra,
gauz danak esku-puntan
ibilli bearra,
oroitze utsak sortzen dit
begitan negarra.

11

Etxea gero egin zan
luze ta zabala,
berroi ta emeretzi urte
aitak zeduzkala.
Ondoren milla bider
esan zigun ala:
zarren bi gizon aiña
berrin bat bazala;
nik uste det arrazoi
osoa zeukala.

12

Bai, pasa dituanai
ainbat egun makur,
pixka bat erreztuta
iruditu xamur.
Beti lana gaiñezka,
atsedena labur
zuan osasun danak
egin arte agur;
amaika errezago
bizitzen da gaur.



Ramona Urbizu, Jose Insaustiren ama, gaztetan.

(1980)

Gure ama zanari

Oraingo amalau bertso auek ama zana eta bere biritza gogoratuaz jarri nituan.

Gure ama, Ramona Urbizu, Zegamakoa zan, Opaintegi baserrikoa; eta liburu guziko itzaurrerik zailena bada neretzat. Berak ainbeste neretzako balio zuan, eta ori adierazteko itzik ezin arkitu.

Ama guziak izango dira ikaragarriak; baiña zein zan gurea? Gau eta egun lanean, eta ez aspertu eta ez nekatu egiten etzan bat. Etzan aundia, baiña aren indarrak aundiak ziran. Sekula egunik zabaldu ote zion oian, azkeneko bi urte aiek arte? Nik ezetz esango nuke.

Arek egiten etzuan lan-klaserik etzan. Bestela, galdetu eza-gutu zutenai, oraindik amaika bizi dira eta.

Burua edo memoria ere ikaragarria zuan. Amaika ixtori eta bertso ere erakutsi zidan. Arto zuritzen edo aletzen, edo gaztai-ñak aletu edo apartatu onak txarretatik, eta olako lanen bat ez bazan, etzuan astirik izaten gaixoak, edo etzuan artzen. Lanera-ko jaioa zan mundu ontara, izan ere.

Zazpi urterako ume zai auzoko etxe batera irten omen zan. Urrena, beste bederatzi urte Ormaiztegiko Arizmendi baserrian neskame. Gero, Zegaman bertan beste etxe batean beste batzuk.

Eta gurean ere, etxeoandre baiña lana galanki. Arek, ordea, gustora egiten zuan, eta ixildu nadin, ura zein zan nik ezin deza-ket adierazi eta.

Baiña senarra il zitzaionean, ala bear bazan, ez bazan, iñun ziran gaitz danak batera eldu zioten. Ura ala ikusita, amaika negar egin nuan nik izkutura joanda, azken bi urteetan beintzat. Ezin zan ibilli batere, eta eskuak ere oso gogortu. Mingaiña ere mututu, eta erabat ezereztu zan. Dana bestek egin bear gaixoari, amaika botika eta traste artu zuan baiña.

Aren gaitzak euskeraz ez dakit nola diran; baiña *artrosis* eta *falta de riego* eta nik ez dakit zer etzuan izango.

Eriotzak beste ezerk etzion kendu; eta, il zanean, ala baiño obeto zegoala pentsatu genduan danok, eriotza gauza beltza bada ere. Eta pakean atsedeen dezala gaixoak, azken urteetako partez.

1
Milla beatzireun da
larogeiko urten,
martxoak emezortzi
asteartez aurten,
amaren eriotza
egon naiz ikusten;
saia nai nuke bertsoz
nor zan erakusten.

2
Irurogei ta amalau
urte bete berrik,
denbora asko etzuan
igaro alperrik.
Danean eman zigun
ejenplo ederrik,
abe ona izan zuan
Aizkoeta baserrik.

3
Berroi ta beatzi urte
Aizkoetan ziñuzen,
langille oberikan
ez nun ezagutzen.
Goizean goiz asi ta
berandu illuntzen,
geu aiñako aurrekoak
guk izan giñuzen.

4
Ainbeste lan eginda
bizitako ama,
beti pozik artuaz
nekearen zama;
ta auxe aitortzera
biotzak narama:
naiko gorantza ezin
dedala nik asma.

5
Senarran eriotzak
oso zun tristetu,
etzan geio pozakin
ura adiskidetu.
Naiz-ta arpegi ona
gugana agertu,
gaixoai utzi zion
naiko sufrimentu.

6
Zituan naigabeak
izanikan ainbat,
bere osasun onak
laister egin zun *zart*.
Iritzi onetantxe
zalantzik ez daukat:
gaitzak sortu zitzaizkan,
ta dozen erdi bat.

7
Buru, beso ta anakak
ondaturik oso,
zorionetik illun,
gaitzetik ondroso.
Bizi bear zun garaian
atsedenez goxo,
azken bi urteak beintzat
pasa zitun gaixo.

8
Ilda ainbeste pena,
bizirikan zala,
neri ematen zidan
ikusita ala.
Jakín arren izaki
argalak gerala,
ez nuan uste orren
eskaxak giñala.

9
Buru argi ta sasoia
beti ikusi nion,
eunka bertso zar ere
ikasi nizkion.
Baiña eman zionak
kenduko zizkion,
mundu ontan eginda
makiña bati on.

10
Naiz atsedena utzi
zartzen zanerako,
bizi dana pasata
mundun lanerako,
orain beste bat bear
gaixok danerako;
mundu au ez da egiña
zorionerako.

11
Lau seme eta iru
alaba azita,
lan gogorraren berri
ondo ikasita.
Baiña gaur gaixo txarra
zeukan itsatsita,
il arteraiño euki
zuna erantsita.

12
Azken urtea beintzat
pasa zuan grabe,
ura zan gelditzea
gaitzaren mirabe.
Jan ere ezin zuan
iñork eman gabe,
mingaiña ere etzuan
ittxo baten jabe.

13
Len kantuan e zuan
aparteko abotsa,
ez nik dedan bezela
zirri-zarra otsa.
Memori apartakin
zeruzko biotza,
naiz azkarregi eldu
danen eriotza.

14
Aita San Josek zizun
bezperatik deitu,
nere ustez ondoan
edukiko zaitu.
Nerea ere laister
bear du amaitu,
eta berriro biok
alkartuko gaitu.



Bertso kantari, Izaskunen.
“Buru gaiñeko illea, joaten asi zan.”

Bertso Berriak nere buru soillari jarriak

Iru naigabe edo pena aundientxoenak jarri ditut. Orain laugarrena dijoa, eta au da: aita eta aitona ere buru soillak ziran, eta banuan bildurra ni ere ala geldituko ote nintzan. Baiña amaren aldetik ille onarekin ikusten nituan naiko edadekoak, eta artean gaiñera ille asko neukan nik, gaztetxo nintzala. Baiña ortxe, ogei urte nituala, asi zan erortzen nere illea, eta zeñek eutsi?

Gero soldaduska etorri zan; eta an, moztu zidatenean, alde batera poza artu nuan, danak ona zala esaten zuten eta, moztea alegia. Baiña, legortean arbolapeko belarraren moduan, indar gutxi artu zuan. An, Burgosen, asi nintzan sendagille eta traste. Amaika diru eta botika gastatu nuan. Bai amaika pena pasa ere.

–Ori zer dek, ba? –esan zuan batek.

Eta bestea:

–Azpikoa bear dik ona.

Bai; ala da. Baiña biak txarrak izateko arriskua, bat izurratu ezkerro, azpikoa oso abilla ez det izan da, edo ez daukat batzuen parean. Baiña konforme orrenbestean.

Bein, botika erosten ari nintzala, gure kapitan izandako Patrizio Torres Ayllón sartu zan. Au ordurako gure *Parque de Artillería*-tik *Regimiento de Artillería*-ra pasatua zegoan. Baiña azkar ezagutu ninduan. Berak ogei ta amazazpi urte zeuzkan orduan. Baiña, nik oraingo moduan, zuri zeukan buru gaiña, eta ala esan zidan: xentimorik ez gastatzeko; bera Norte-Amerika eta abarretatik botikak ekarriaz ibilli zala, eta begiratzeko nola zeukan; naturalezaz ala danak or ez daukala zer egiñik; beste gaitzen bat izan ezkerro, bai. Eta ala gertatu zan. Baiña naturaleza bakarrik ez da. Nere iru anaiak urtetan aurrera dijoaz. Baiña oraindik ere nik ogei ta sei urtetan baiño geiago daukate.

Nik pena galantak pasa nituan, eta bederatzi puntuko amabi bertso auek jarri nituan, pixka bat lasaitu nintzanean.

1
Ni ere naigabeak
askotan izana,
eta bat utzi nai det
bertsoz esana.
Sasoian egon nintzan
penak erasana,
naiz zenbaitek utsa jo
gerta zitzaidana.
Alare nigana
etorri zan dana,
poz asko etzana,
ta antza emana
betiko joango zala
ain ona zana.

2
Artean ogei urte
nitula bizitzan,
buru gaiñeko illea
joaten asi zan.
Ni erremediotan
laister asi nintzan,
naiz guztia gelditu
utsaren peskisan,
galtzen joan baitzan
asitako gisan,
kaltezko egintzan,
naiz nik ezetz esan;
lan guztiak alperrik
ziraden izan.

3
Batzuk moztuta zala
galanki ermotzen,
ondo zekiten gisan
zuten aitortzen,
Andik laister soldadu
nengola Burgosen,
utzi zidaten *cero*
izeneko motzen.
Indartzeko pozen,
penik ez biotzen
baiña lengo gosen
denbora igarotzen;
illea irten zan baiña
leku laiotzen.

4
Bateko *Azufre Veri*,
besteko ez dakit zer,
botikaz egin nintzan
ni asper-asper.
Gaiñera egin nuan
naiko gastu alper,
obe utzi banitu
asi eta laister.
Ainbat diru eder
egin gabe ezer,
edo dana oker
pasatuaz senper;
ala ere premiz danak
nai du zeozer.

5

Bein erosten ai nintzan
ustez botika ona,
ta antxe sartu zan bat
kalbo zegona,
neronen baterian
kapitan egona,
eta galdetu zidan:
“Zer abil, gizona?”.
Nik esan niona
zan egi sakona,
ta arek ziona
ere etzan broma:
“Ez al dakik eusterik
orri ez dagona?”.

6

Eta kontatu zidan
garbi bereala:
aspaldin palta zula
ille-itzala;
naturalezaz banun
alako azala,
orri eutsiko zion
botikaik etzala.
Berez zan bezala,
ni ere al nintzala;
bai, alaxe zala,
ta esan zidan ala:
gaitz txarragoak mundun
bazebiltzala.

7

“Gaitz txarragok badaude,
nik badakit ori,
naiz sarritan kontuan
nekez erori;
baiña danean naiak
zorionez lodi,
len ere kezak eman
oi dio askori.
Berdin ai dan oni
eta geiagori;
seguro nago ni,
bizitzeko ongi
illetan ere obe
len alako bi”.

8

Juan bai eta irten ez
galera garbia,
bereala ilbete
nun illargia.
Amaika pena eman
zidan pikardia,
batere kulpa gabe
tellatu argia.
Naiz egin guardia
igesi erbia,
ura arrabia,
ongille nagia,
kalbo pasa bearra
mundu-aldia.

9

Onela gelditzeak
gazterikan kalbo
barberoarentzako
tarea ondo.
Orraztutzen lanik ez,
mozteko bi albo,
ez kontzientziakin
kobratuko balo.
Duan ere auskalo,
edo daduka lo,
ta esnatzen bado
joko diot txalo,
ea moztutzen didan
bein erregalo.

10

“Gizonak kalbotu ta
astoak urdindu”,
esaerak amaika
itz eragin du,
baiña mirari ori
kalboak ezin du.
Naiz garbiak izaten
batzuk alegindu,
besteak zikindu,
ta edozein mindu,
naiz illez arindu,
aldrebes agindu;
gero illedunak ere
ezin berdindu.

11

Esaera zarrakin
naiz dantza mingaiña,
batzuen ondorena
ez da liraiña.
Batek naiz-ta eduki
illetza apaiña,
gizonez izan leike
jatorrena aiña.
Egizko mingaiña,
ori da bikaiña;
bear dan tamaiña
iñor ez engaiña,
nolanai euki arren
bekoki-gaiña.

12

Orra bertso berriak
gertatuan mamiz,
koroiaz aspertuta
amaika aldiz.
Praille ta apaizak ere
orain gabe dabiltz,
ibilliko zutenak
ona izan balitz.
Ni derrior berriz,
negun txapel premiz,
baiña diot egiz
gaur patxara aundiz:
olaxe eun urtean
biziko banintz!...

Bertso berriak txapelari jarriak

1
Zuretzat ere bertso batzuek
pronto daduzkat, txapela,
nola askotan jantzi zaitudan
etzaitut lagun txepela.
Buru zuriak bearra baidu
zure babes da epela,
ni onezkero otz edo beroz
ondata nintzan bestela.

2
Ogeitamar bat urtetarako
ni txapelakin asia,
argatik nago beraren berri
aspaldian ikasia;
ta txapelari buruz au daukat
adirazteko antsia:
txapelik gabe dagon burua
ez ote dagon jantzia.

3
Buru soillantzat txapela degu
izugarri langillea,
baten itzala, besten babesa,
du eginkizun pillea,
ta eze-ezagunai sinistu erazi
azpin daukala illea.
Bedeinkatua izan dedilla
jantzi onen egillea!

4
Gure aurrekoak txapelarentzat
maitasun fiña bazuten,
baserritar bat buru utsean
sekula etzan ikusten.
Beste ezeri ez dakit zioten
orren zintzo erantzuten,
elizarako ta lotarako
bakarrik erazten zuten.

1
Batzuk buruan ondo sartuta,
besteak txabal gaiñean,
azkeneko au aizeak bota
oi zuan nai adiñean.
Erderazko itzak sortuzten ziran
ordun azkar mingaiñean,
gu berriz oker antxen ibiltzen
gazterik oitu giñean.

6
Indiano batek esaldi auxe
bein utzi zidan botea:
“Bearrak dira emen txapela
ta Brasillen bigotea”.
Oriek etzituena zala
eskaxa ta arlotea,
baiña udaran itzalen obe
buru utsean egotea.

7

Beste oitura askoren gisa
txapela ere degu utzi,
naiz ni bezela dagonak bear
illargia erakutsi.

Ala ere orren azpikoari
nai nioke sano eutsi,
baiña au ere zartu ezker
ez da eskaxtutzen gutxi.

8

Zaartutzeak bururatzen du
illuna edo lañoa,
naiz-ta ibilli txapel aundia,
naiz ta ibilli txanoa.
Urteen karga bakarrik utzi
mardula eta sanoa,
au beti olaxe izango da
eta ixiltzera noa.



Gaztetako argazki bat.
Orduan ia beti txapelarekin ibiltzen nintzan, bertsoan beintzat.
Orain, berriz, oso otz ez badago, gaztaia erakutsiz,
nere adiñeko asko ere berdin xamar jarri dira ta.



Don Zesareo Elgarresta apaiz jauna,
Bergarako Ondartza baserriko semea,
Segurako errian 40 urtetik gora apaiz egiña,
eta Segura Irratiaren sortzailea.

(1972)

Segurako irratia- ren itxi eta zabaltzea

Bertso-sail au 1972-an jarri nuan, eta gaia *Segura* Irratia, irakurleak ikusiko duan moduan. Irrati au 1956-ko apirillean asi zan, eta izugarritzko nobedade edo nik ez dakit zer esan izan zan. Arrezkero pentsatu izan det sukalde-giro goxo ura ordutixe asi ote zan galtzen ere. Norbaitek esango du:

–Zer giro zan, bada, len?

Egia esanda, gaurko askorentzat ezer ez. Baiña orduan amai-ka ixtori, familiko aurrekoak nungoak ziran eta soldaduskako eta abarrekin, sekulako izketaldi ederrak egiten ziran. Gaur, berriz, radio, telebista, periodiko, futbol, rebista ta abarrekin ez da itzik sukaldean. Giro artakorik ez beintzat, eta onek lengo girora sartu gabe jarraituko du.

Ala ere, Segurako Irratiak poz aundiak sartu zituan etxeeta-
ra, eta ordutik onuntzako aldaketak sinisteak ere lanak ditu.

Irrati au don Zesareo apaizaren lana izan zan. Apaiz au Ber-
garako semea genduan, baiña Seguran berrogei urte paseak egin
zituan. Il ere ementxe egin zan, naiz bere errian illobiratu. Pake-
an atsedeen dezala.

Leen esan det “ordutik onerako aldaketak”, eta ala da. Irrati
onen aseran ogei radio etziran egongo Segurako erri guztian, eta
beste errietan ere berdintsu. Urte xixtrin batzuk pasa dira –mun-
duaren ixtorirako segundo bat ere ez–, eta gaurko telebisio eta
bideo, trastez bete dira sukalde eta leku guztiak ain urte gutxian.

Au ere egia da: emen aurreneko radio geienak, Goierrikoak
alegia, asko beintzat, Irrati au zala bide erosi ziran. Gauza ika-
ragarria zan nunbait ura, bateko il-berria zala, besteko zorionak,
edo illuntzeroko errosarioa, eta beste zenbait berri ere bai.

Baiña zortzi urte lanean zeramazkitela, 1964-an, itxi edo
ixildu erazi zioten don Zesareori irradi au. Izugarritzko pena izan
zuan, eta askok izan genduan. Baiña berrero, andik zortzi urtera,

jarri zuan martxan, 1972-an; eta gaur ere oso indartsu eta egoki jarraitzen du, orduko tankera aundiarekin, eta jarraitu dezala.

Beraz, bertso auek amarreko aundian orrelaxe jarri nituan bigarren asi-aldian, eta ortxe ditu nai dituanak irakurri.

1
Milla bederatzireun eta
irurogei ta amabi,
Segura Irrati maitagarriaz
itz egin nai nuke garbi.
Zortzi urtean poztu ta gero
ainbeste euskaldun kabi,
derrigorrean mututu zuten
sortuaz ainbat arrabi,
gai oni buruz jarri asmoan
nator bertso bat edo bi.

2
Zortzi urtean lanen jardun da
beste zortzian ixillik,
orko errezo, soiñu ta berrik,
danak egon dira illik.
naiz-ta ez uste iñoiz jartzerik
orrelako maratillik,
aitortu bear aspaldi ontan
triste gerala ibillik,
eta amaika aiton-amonak
negar-malkoak zintzillik.

3
Baiña berriro asi zerade,
gure Irrati maitea,
eta geiago mututu gabe
al bada jardun zaitea.
Naiz batzuentzat gustoko izan
geiago ez ekitea,
don Zesareok nai lukena da
danari on egitea;
iñor zalantzan baldin badago
komeni da jakitea.

4
Bere asera beti izaten da
eguerdiko anjelusa,
gero soiñu ta berrik ematen
ez da langille amutsa.
Bakarren batzuk pentsatu arren
ote dan gauza erreusa,
mutu-aldiko denbora ez da
izan naigabetan utsa;
gaur pozik gera iriki danen
olako zorion-kutxa.

5
Zerbait berria nai izaten du
etxe zuloan dagonak,
batipat ezin ibili diran
aitonak eta amonak.
Naiz danetatik aditu bear:
alaiak eta sakonak,
batzutan norbait il dala eta
besten berriz zorionak,
baiña auek gabe bere zaleak
triste gerade egonak.

6
Eta illuntzak biurtutzen du
antziñako usuario,
errezatutzen zintzo asitzen
danean don Zesario.
Bera dalako esaten da gaur
amaika errosario,
ildako eta bizien alde
or jarduten da serio,
nola Irratin ala etxetan
jendek erantzuten dio.

7

Auek guziak alaxe dira
eta nago esan naian:
mirari baten pare izan zala
bera asi zan garaian.
Zenbat radio erosi ote zan
gure Goierri alaian
—au ondo asko ezagutu nun,
zertako jardun ezbaian?—,
milla bederatzireun eta
berrogei ta amaseian?

8

Urte ontako udaberrian,
kukua etorri ta laister,
errezo soiñu ta berriz jantzi
amaika sukalde bazter.
Askok zioten: “Iritxi zaigu
orrenbeste une eder;
gu bezelako batzuentzako
oberik ez dago ezer”.
Orra zer pozak iritxi ziran
don Zesariori esker.

9

Bai, Irratia, zu zera ainbat
pozgarriren aingerua,
baiña norbaitek ezin ikusi
zorientsu ingurua.
Berealaxe zan esku beltza
nola txitatan mirua,
bai mututu're naiz martxan utzi
mardul zutenak dirua,
baiña alare etzan makurtu
don Zesarion burua.

10


Baiña galanki tristetu ziñan
kabia ezereztean,
ama on batek oi dun bezela
seme batek igestean;
eta ateak jo ziñutzen zuk
errian da erbestean,
zortzi urte barru jarri ere bai
lenago zan ainbestean,
gaur esker beron faltik ez dezu
batean eta bestean.

11

Alare iñork ezin dizugu
naiko goralmen agertu,
zortzi urtean bazera ere
galdua billatzen lertu,
ta Seguraren izena ez dezu
gutxi azi ta edertu.
Baiña derrior bizi bearra
emen ekaitzetik gertu,
lenago ere gizon osorik
ez da munduan eskertu.

12

Bergaran sortutakoa zera
tamaiña ontako lora,
baiña Seguran daramakizu
bizitzan erdi denbora.
Oraindik ere sasoiko zaude
naiz joan urtetan gora,
beraz jarraitu al dezun arte
eliza ta emisora,
ta zure izena eunka urtean
Seguran aitaturko da.



San Juan egunean, meza nagusiaren aurreko prozesioa, 1955 urte inguruan. Santuaren irudia bizkarrean artuta, aurrean eskubikoa ni naiz. Baneukan gaur aiñako sasoi. Garai artan txamarra luzeak eramaten ziran nunbait...

San Joanetarako **(Segurako Irratikoak eskatuta)**

Segura ontako San Joan jaiak
oi dituzten etekiñak,
entzule maite, egin itzazu
ikusteko alegiñak.
Bezperatikan asten dirade
alaitasun-zipriztiñak:
jirako kanpai, arbola jartze,
ttuntun eta danboliñak,
illunabarren San Joan suak
errez sasi ta sorgiñak.
Urrengo goizen elorriakin
zenbait gurutze egiñak,
egoki asko jazten dituzte
etxeko ate-ixkiñak,
ondoren meza nagusi eta
San Joanen imajiñak
ibildeunean zapaltzen ditu
larrosa ta krabeliñak;
ta ondorengo festak dirade
itzez kontatu eziñak,
naiz-ta lanean pasatzen ditun
Segura Irrati fiñak,
entzule jendek ere izan ditzan
San Joan jai atsegiñak



1976 inguruko Gabonetan, gure iru seme-alabak. Eskubitik, zaarrena, Jose Inazio. Ezkerretik, Mari Jose. Erdian, Ion. Onak iru urte edo orrela zeuzkan orduan.

(1975)
Gabon-kantak

1
Berri ona zabaltzen
gabiltz ethez etxe,
zeruko aingeruak
esan bezelaxe.
Belengo Portaleko
estalpe artantxe,
Jesus Aurtxo txikia
jaio da oraintxe.

2
Birjiñak jarri digu
Jesus gure arten,
da San Jose ari da
laguntza ematen.
Oraindik seaskarik
nola ez daukaten,
Aurtxo jarri dute
aska txiki baten.

3
San Jose, arotza zu
zaude aldamenen,
beraz seaskatxo bat
egizu lenbailen,
artzaiak agurtzera
etorri baiño len,
jakiñean baidaude
zein jaio dan emen.

4
Estalpean badago
lasto eta garo,
astoa ta idia
bertantxe jan da lo;
biak dute arnasa
goxo ta oparo,
eta Jesus txikia
bero-bero dago.

5
Artzaiak sartu dira
estalpe barrura,
Jesus, Maria ta Jose
dauden ingurura;
arkume eta kantu
ta danak lillura,
eta izar berri bat
zerun agertu da.

6
Erregeen ittulan
izarra da jarri,
aretxek eman die
gertatuan berri
Kasparri ta Meltxorri
eta Baltasarri;
gaiñera sari asko
dituzte ekarri.

7

Intzentsua ta mirra,
urra ere bai,
ta muxu eman gabe
ez dute joan nai;
guk ere eskerrik asko
emengo sariai,
eta konpota janez
gaua pasa alai.

Laukote zelebrea

Urrengo beste bertso auk berrogei urte izango dituzte, gu-txienez.. Gazte denboran moldatuak ditut, beraz. Gizon xelebretatek, tabernan-edo lasai asko geundela, kontatu zidan ixtoria azaltzen dute.

Baserritar batek artzai bati larreak saldu omen zizkion; baiña belar-saillik ederrena ez; eta besteak zer egiten zuan? Debalde jan al zuana.

Batean, artzaia norabait kanpora joan omen zan. Morroia, berriz, mozkor-plantak egiñez, egitan ere kargatzen omen zan, baiña antxe erdi lotan.

Txakurra, berriz, propio urrutira, beste leku batera, bialdu zuan, ardiak pakean uzteko besterenak ziran edo erosi gabe zeuden belarrak jaten.

Alakoren batean etorri da baserritarra, eta artzaia ere bai. Ardiak belar-sailllean ikusita, asarretu eta eraso dio aurrenekoak bigarrenari, eta onek morroiari, eta morroiak txakurrari erderaz ta txistuka.

Eta txakurra ere asi omen zan *ttau* eta *ttau*, ixiltzeko asmorik gabe.

Ura eskandaloa! Txakurrarena ez dakigu; baiña besteak emen bertsoan jarri ditugun tankerako itzak erabilli omen zizuten.

Artzai au, ikusten danez, negu batzuetan len inguru ontako beste artzai asko bezela, Bizkai aldera joaten zan ardiakin, eta morroiak Bilbaoko kale famatu bat ere ezagutzen omen zuan.

Olaxe, nik iruna bertsoa saioa egin edo moldatu nion baikoitzari, umore onez nengoan batean, neri kontatu zidanari entzunda bezela.

Baserritarrak:

Artzaia, bizi zera
naiko zoriontsu,
da ni aldi berean
erreta naukazu.
Izan ere zabilta
gizabidez antzu:
bi belardi erosi ta
lau jaten dituzu.

Artzaiak:

Gizabidez ni ez baiña
zu zaude eroia,
txarrerako sartuta
mingaiñen erdoia.
Ardik ez pasatzeko
bera eta goia,
beste lanikan gabe
or daukat morroia.

Morroiak:

Bestei kulpa ematea
beti olakotan,
nausia, badaukazu
aspalditxo ontan.
Nik zuzen zaintzen ditut
arbi-soron kontran,
txakurra dago emen
egun guzin lotan.

Txakurrak:

Txakurra bajatzeko
badaukazu kara,
eta mobitzen bananiz
azkar makilkara.
Nausiak eta biok
albotik algara,
jakin, baserritarra,
ori orrela da.

Baserritarrak:

Zuk morroia txartzat jo,
morroiak txakurra,
baiña emen neretzako
zu zera lapurra.
Argatik morroia're
daukazu makurra,
lanean alperra ta
mozkortzen xamurra.

Artzaiak:

Zer morroi-klase dauden
badaukizu orain,
ardorik eman gabe
zeñek lana erain?
Baiña ez du izaten
mozkortutzeko lain,
da naiko konpiantza
badet beraren gain.

Morroiak:

Morroia noiz ikusi
dezu mozkortuta,
belardian etzanda
edo kuxkurtuta?
Lasai gelditu zera
ori aitortuta,
zedorri zaude mozkor
edo tontotuta.

Txakurrak:

Nausiak inbusterin
oi digu itzegin,
lanikan egin gabe
bera bizi dedin.
Morroia gau ta egun
berriz ardo-premin,
ni bakarrik nabille
iruko ontan fin.

Baserritarrak:

Txakur fiña zerala
garbi ageri da,
baiña nausi-morroiak
paltso utsak dira.
Ta geio ez etorri
nere barrutira,
begiaren bixtatik
joan urrutira.

Artzaiak:


Negun jan bearreko
belar txarra pranko
moztu izan dizkizut
ordainduta bapo,
gobernatu gabeko
orrenbeste kanpo;
gutxienez merezi
det eskerrik asko.

Morroiak:

Emengoa bukatzen
bada aurtengoan,
Bizkai aldera joan
bear urrengoan.
Alderdi ura daukat
nik beti gogoan:
San Frantzisko alde artan
zer berria dagoan.

Txakurrak:

Zuen modukoa iñun
nola ametitu?
Emen ezin liteke
geiago segitu.
Ta onek San Frantziskon
nai du dibertitu,
txakurrak emen ere
billatutzen ditu.



Argazki au 1978-koa da, gure alaba Mari Joseren jaunartze egunekoa. Segurako elizako atondoan or gaude, gu, senar-emazteak, eta gure seme-alabak.

Bertso Berriak

besteei on egiteari buruz jarriak

Oraingo sail au neronek izan ditudan egintza batzuei buruz egiña da. Franco il eta andik puska batera, asi ziran auteskundeak eta agintari-saillak azaltzen, bat andik eta bestea emendik. Pixkaka-pixkaka errietakoak aukeratzea ere etorri zan, berrogei urte eta geiagoan egin etzan lana, naiz lenago ere errietan eta beste lekuetan ortxe egon edo jardun erriaren agintariak.

Nik ere izan nuan aspalditxo jartzeko aukera. Baiña ez nintzan animatu, eta ez daukat penik. Len ere kamiño egite, pista eta ermandade eta alako leku eta zeregiñetan naiko aurretik ibillita nengoan, eta banekian zer etorkizun dagoan ortik: ondo egin da esker gutxi. Zenbaitentzako dana gaizki egoten da bestek egindakoa; baiña berak ezer egin ez, eta ola ez dago erratu bildurrik.

Baiña norbaitek ibilli bear du, eta batzuek besteak baiño geiago balio dute ortarako. Baiña argi: debaldeko lanak errenta gutxi du etxerako. Ordainduta dabillena sermoiren bat entzuteko ere jor-nalean dabil. Baiña bestea, danean gizagaixo kategorian, zenbaiti on egiteak ez du balio eta. Baiña jendea falta zala, eta gure erri Segura ontan gerra ondoko aurreneko auteskundeak ziran auek, 1979-koak. “Ortik pakea obe diat” pentsatuta lasai nenbillen; baiña or etorri zitzaidan ordurako lau edo bost urte alkate zemartzen Gillermo Areizaga zana, eta onek enpeiñu aundiak egin zizkidan jartzeko eta jartzeko, ni ona nintzala ortarako eta. Nik ezetz; eskola ere oso gutxi neukala; gutxi baiño ere gutxiago eduki ere ta. Ala, erdi broman enbido batzuk bota zizkidan:

–Zer nai dek, bada, ik: dana bestek egitekotan utzi eta lasai bizi? Eta kamiñoa konpondu edo ura etxera jarri edo egin bear danean bakarrik azaldu Udaletxera eta bapo?

Egia esan, ordurako Udaletxera askotan joanda nengoan ni, eta Gillermo onengana ain zuzen; eta urak gure barrio ontara jartzeko erregutzera ere ez gutxitan. Ala, urtebete zan gure

barriora eta goi xamar gelditzen diran baserrietara ura ekarri edo jarri zala, 1978-an, Gillermo au zala bitarteko; eta etzan lan erreza izan: diru asko bear eta markesik ez gure barrioan. Baiña, azkenean, urak etxean balio duana konparatu ezkerro, debalde jarri genduan: ogeiren bat milla duro edo zerbait gutxiago izango zan, seguru asko, bakoitzak jarri genduana. Gaiñerakoa beste laguntza batzuetatik osatu zan, baiña billatu egin bear dira oiek.

Gillermo aparta zan ortarako eta edozertarako ere. Gizon atsegiña. Berritu ederra artu zuan Segurak, bera alkate egon zan denboran. Beste batek ere zerbait egingo zuan bearbada urte aietan; edo ez, naiz urte auetan, Estatutoa dala bide, Euskal Errirako diru-laguntzak asko ugaldtu. Len ere emendik eramana, jakiña; eta orain ere makiña bat eramango dute.

Baiña Seguran gauza asko egin zan orduan: igerilekua, pelotaleku estalia eta abar luze bat. Makiña bat milloiren lanak bai.

Neronek ere, ainbeste orduz gaiñera, nere ondar-alea edo erderaz *granito de arena* esaten duten puskatxoa ekarri nuan. Zaarren Egoitzan ere berrikuntza aundiak egin ziran, eta gu or ibilli giñan urte oietan. Etxe oietako obra-aseran ogei milloi bada, azkenerako ogei ta lauera aixa joango da, eta edozein etxetakoak ere gora egiten dute. Ontan ere badet eskarmenturik asko.

Ala, Egoitzako berrikuntza auk ordaintzeko, inguruko fabrika edo enpresetara ere diru-laguntza eskatu zan, eta eman ere bai geienak zerbait. Baiña ez dakit zer gertatu zan: gure taldeko batek eta nik lana egiten genduan *Jose María Aristrain* enpresak etzuala zentimorik eman esan zuan gure alkate Gillermok. Au entzutean, su artuta jarri nintzan, eta esan nuan:

—Ez da eskatu bear bezela, edo bestela ez dakit zer esan!

Ala, joan nintzan eta esan nion Juan Jose Aroztegi direktore jaunari gertatuaren berri; baita ere ainbeste izardi bota genduala ere lantoki ortan. Nik esan gabe ere, gure Juan Joxe jaunak ondo asko bazekian nere eta nere moduan lana egiten genduenen berri; eta karta bat egiteko esan zidan Jose Maria Aristrain nagusi jaunari, gure bearrak azalduaz eta abar.

Ala. Egoitza ontan parte daukagun Idiazabal, Mutiloa, Zerain, Zegama eta Segurakoak an lana egiten genduanen ize-nak-eta jarriaz, egin nion karta ori. Ura baiño egokiagoak bi artuta egongo zan ura; baiña nerea ere artu zuan; bai erantzun

ere. Andik berealaxe gure Juan Joxe jauna etorri zitzaidan, eta esan zidan milloi bat ea zer iruditzen zitzaidan. “Ondo!” esan nion, eta ala ekarri nituan milla milla peztako pakete txiki batean gure Zaarren Egoitza ontara, eta eman nion orduan Superiora zan edo agintea zeukanari. Sor Jerusalem edo orrela zan.

Bazkari bikaiña ere jarri zigun. Leen ere banuan aditzera, denbora gutxian sua piztuta eduki arren, bazkari aundia jartzen zala, eta bai jarri ere. Juan Joxe direktorea, alkate Gillermo eta ni irurok egin genduan, Superiorak serbituta. Bapo jarri giñan,. Bazkalondoan aita Roberto Linken frantziskotarra joan zitzaigun, garai artan Seguran zegoan eta. Ala, izketaldi bikaiña egin eta etxera. Bestelakoa pranko ere egin genduan, edo pasatu egin gabe. Baiña onak gogoratu eta aurrera. Goxoak ere baziran, ordea, naiz geroen patrikatik ordainduak izan geienetan, danak etzuten ala pentsatuko baiña. Izan ere, sekula iñori faborerik izurratzen bestetan egin ez dionak, nola sinistuko du jendea badabilela utsaren truke lanean? Baiña au danok dakiguna da: makiña bat badabil eta ibilli da lagun urkoari on egiten. Bearra ere mundu ontan, eta gu ere asmo ortan ibilli giñan, eta ez daukat penarik.

Pedro Etxezarreta bertsolariak ere lau urte ziñegotzi-lan ontan egin zituan aruntz eta onuntz, nik eta besteak bezelaxe; eta nere bigarren bertsotan astea au zala bide izan zan. Nik eztarriko eziñarekin amabi bat urte edo geiago baneramazkien, bertso-rik kantatu gabe, bildurraren bildurrez sendagillearen aginduak beteaz. Baiña, kalera joan ezkerro, edo erriko billera orietara, gero Soziedadean bukatzen genduan, eta an bertsotan egin bear.

Gillermo alkatea ere poliki moldatzen zan, zortziko aundian beintzat. Buru argikoa zan eta aldian bein guk biña eta arek bat tartean botaz, festa ederra jartzen genduan. Gaur illa da; 1991-ko Abenduaren 5-ean il zan, berrogei ta bederatzi urterekin, min bizi gaitz bildurgarri orrek menderatuta. Pakean atsedean dezala.

Beraz, onelaxe bukatu ziran, lau urte pasatzean, nere zinegotzi-lanak. Aurrera jarraitzeko ere aukera bazegoan; baiña ezetz esan nien. Ni, fabrika eta baserri, danean aritzen nintzan lanean. Fabrikan, gaiñera, iru errelebo edo txandan; eta, gaeuz lana eginda, igual edozein abixo; eta pixua da, besteak beste, danera ezin iritxita ibilli bearra. Gaiñerako kontuak edo gertatuak emen dijoaz bertsotan, bederatzi puntuko doiñuan:

1

Ibiltzeak besteri
egiten fabore,
mundu onetan ez du
milla balore.
Artzen ari danak bai
edozein kolore,
ziñegotzi probatu
nuan au dotore.
Naiz izan adore,
amaika umore
biurtu dolore,
aaztea obe;
gai ontantxe astera
noa kantore.

2

Milla beatzireun da
iroi ta emeretzi,
ziñegotzi ninduan
errik berezi.
Naiz luzaro ibilli
lan oni igesi,
etzioten kaso egin
ainbeste ezetzi.
Gaur, biar da etzi
agintzen ez etsi,
azkenean ezi,
eginda lau esi,
naiz olako kargurik
nik ez merezi.

3

Amaika urterarte
bakarrik eskolan,
geroztik ordu gutxi
neretzat loran.
Ta sartu nintzanean
aginte-kaiolan,
pentsa nun: "Ezjakiñak
ote daude modan?".
Egindako proban
orduko denboran,
entzun zer diodan
gertatuan ondran:
lau urtean debalde
bazan naiko lan.

4

Bi-iru ordukoa
illetik illera,
pleno izenarekin
bazan billera.
Sarriago ere bai
ortikan illera,
eta aruntz-onuntza
zenbait ibillera.
Seguro galera
poltsa zimelera,
joatean kalera
parranda gaiñera;
andrea poztutzeko
au abelera!

5

Ezer irabazi ez,
beti zerbait utzi,
bide ortatik dago
probetxu gutxi.
Ala ere zenbaitek
ezpainenak igurtzi,
pentsatuaz: “Zebiltzak
jornal eta guzi”.
Ainbeste bisutsi
sari ezin eutsi,
inbiria nausi
ta naigabez autsi;
amaika orrelako
gendun ikusi.

6

Ondo egiñagatik
gutxitan eskerra,
naiz izan eskubia
edo ezkerria.
Olxare sortutzen da
pake orde zerran,
jarduten danak berriz
uste gabe erra,
ta ori zelebra;
nai dunak okerra,
norbera liderra,
danean ederra,
maxiatzen zein dago
mundun alperra.

7

Ziñegotzi bakarrik
au ez da oi gerta,
badirade olako
zenbait lanketa:
elkate buru edo
pesta antolaketa,
besteai on egiten
izardiz beteta.
Albotik izketa,
zenbait berriketa,
utzia zerrata
duana arreta;
ori da debaldeko
lanan errenta.

8

Beste lan geiago're
olaxe dirade,
bai bide berritze ta
bai ermandade.
Aurretik dabillanak
lana bai debalde,
ortik aurrera ezer
gutxi bere alde.
Beti lanan mende,
eta zenbait jende
konpianzan berde,
eman bearrak gorde;
desgraziz olakoak
ere badaude.

9

Emateko garaian
aitzakia xamur,
eta atzo esana
ez bete gaur.
Pertsonarik fiñena
juzgaturik lapur,
oietatik alkarte
onak dauka balur.
Kontzientziz zakur,
arrazoiez labur,
gizonetik apur,
danera jota lur,
zuzentasun danari
eginda agur.

10

Gutxi daude olakoak,
ala ere geiegi;
iñokin fia gabe
oi dute segi.
Soziedadeko gauzak
utzi errezegei,
ta beren alde zeñi
kenduko bi begi.
Aztu zenbait egi
irudituz ongi,
edozein arpegi
azaltzeko argi;
prakak jazteko ere
dira umegi.

11

Gauzak olaxe dira,
bai, munduan zear,
eta amaika aldiz
sufritu bear,
batzuek daudelako
gizabidez melar;
pentsatze utsarekin
egin leike negar.
Ordaintze ta abar,
danetara zabar,
maitasunez dardar,
gorrotoak indar;
baratza dana bete
barrabas belar.

12

Amabi bertso orra
papelen ezarri,
eta gezurrik ez det
batere jarri.
Ikasteko lekuan
ibilli naiz sarri,
ez niolako martxai
garaian igarri,
geroz zenbait arri,
uztera elbarri,
osasun galgarri
lan orrek ekarri;
ala ere laguntzea
da txalagarri.

Bertso Berriak

Aitzgorri mendiari jarriak

Bertso auek Aitzgorri mendiari buruz moldatu nituan. Izan ere, gure etxetik bista-bistan dago; eta, jaio nintzan ezkerre, bera ikusten ari naiz. Bertara ere gaztetan dexente joan izan nintzan. Orain ere ez da lokatza aundirik egongo, dana edo geiena arria da eta, bere izenak esaten duan bezela: *aitz gorri*. Gero, gure ama Zegamakoa zan, len ere esan det, eta ango istoriak askotan kontatzen zizkigun. Auetako bat: Aitzgorri onek, bere ermitarekin, badu gaiñean gurutze beltz bat; eta esaten zuten gure aurrekoak antxe azaldu zala Zegamara begira. Beste alderdian Araba dago, eta aiek aruntza begira jartzen zutela, baiña berriz ere bera jiratzen zala Zegama aldera. Gaur ez du au iñork sinistuko. Izan ere, gurutzea kristau guztion ezaugarri bat da; ez dauka iñor bereizterik eta ez da jiratuko. Kontu onekin ixildu nadin, baiña ez da nik asmatua, eta nai duanak nai duana pentsa dezala.

Beste bat, Aketegiko Damea. Au ere amaika istori duana. Trumoi-eguraldia zanean, iñoiz beintzat, Aitzgorritik Aralarra joaten zala, eta emendik Murumendi edo Burumendira; Aralarra pasa ezkerre, udara legorra seguro izaten zala; beste bietan bazan, urte euritsuagoa edo ohea. Neroni ere aitona batek aspaldi bera ikusita zegoala eta ortxe utzi ninduan naiko ixilik. Eta zer esan? Gaur ere ortxe dabiltz *ovni* eta *extraterrestre* eta otsak.

Aitzgorriko gurutzea urtero ekartzen dute Zegamara San Bartolometan. Au dute beren Zaindari eta pesta egunak ospatzen dituzten santu aundia. Garai batean legorte aundietan ere ekartzen zuten, euria egiteko eskatzeko, Zegamako San Martin eleizara.

Beste bat, Aitzgorriko leku famatua, San Adriango koba. Bera izango da Goierriko biderik zarrena. Zenbat erromes Arantzazura pasa ote da ortik? Zenbat artzai eta ardi eta beor Urbi aldera, mendi au ere emendik aurrera joanda dago eta? Eta beste zenbat milla klasetako jendea, millaka urte auetan?

1
Aitzgorri, zuri daukat
gaur kantatu naia,
badedala uste det
itxurako gaia.
Ondo ezagutzeko
izan det garaia,
etxetik bistan zaitut
ain mendi tantaia,
batzutan illuna ta
bestetan alaia.

2
Jaio nintzan ezker
etxetikan bistan,
itsatsirikan zauzkat
memoriko listan.
Goizen egunsentiko
eguzki gorrixan,
da elurte luzeko
kolore txurixkan,
eta odei-denboran
trumoi ta tximistan.

3
Gaiña etzaizu beti
ikusitzen baiño,
nola or kokatzen dan
orrenbeste laiño,
txuriak edo beltzak
erdi alderaiño,
eta bestetan dana
beetik goraiño;
ala ezagutu zaitut
orain arteraiño.

4
Trumoi-denboran oso
oi zerade beztu,
ta zure aurpegia
erabat trakestu.
Bildurgarrizko otsak
gaiñera abestu,
arkaitzeko ekaitza
ortarako prestu,
naiz poztu legortean
gandenean estu.

5
Milla ta bosteun metroz
gandikan gaillurra,
ta arritsua zera,
urri dezu lurra.
Baiña urte erdian
izanik elurra,
uretan etzera zu,
ez, oso lukurra,
Oria ibai aundiak
ortxe du muturra.

6
Barren ezea dezu
naiz-ta gaiña gorri,
eta zugaitzak berez
oi dira etorri:
aritz, pago ta ametz,
gorosti ta elorri.
Ezin geio eskatu
mendi maite orri,
paradisoan pare
jotzen det Aitzgorri.

7

Zure magalen dezu
paketsu Zegama,
baita ere Aketegin
sona aundiko Dama.
Esaten zuten zala
sorgin danen ama,
gaiñera bazun asko
ibiltzen zan fama,
ordun etzan izango
orain ainbat arma.

8

Makiña bat istori
neri ama zanak,
Zegamakoa zan da
bazitun esanak.
Poz askorekin entzun
oi nizkion danak,
naiz batzuk orain izan
aizek eramanak,
baiña esaten ari naiz
gogon ditudanak.

9

Gurutze beltz bat dezu
gaiñeko dizdira,
aurren dezun Zegama
maiteai begira.
Orregatikan ere
esaerak badira;
ematen bazitzaion
Arabara jira,
bera biurtzen zala
lengo alderdira

10

Nik entzuna jartzen det
nai dunak siñetsi,
ola jakin dezaten
biar edo etzi.
Ta eltzen omen zion
amaika promesi,
legorte aunditan ere
etzuten oi etsi,
baizik lepon artu ta
Zegamara jetxi.

11

Bestela ere urtero,
San Bartolometan,
gurutz au jeixten dute
ain asmo onetan.
Ta jarri San Martiñen
eliza orretan,
beren urte-jaietan
izateko bertan,
agurtu eta musu
emanaz oiñetan.

12

Beste Aitzgorrin zati bat
San Adriango koba,
santu ta ermitakin
aspaldiko obra.
Koba millaka urtetan
ortxe egongo da,
izango zan amaikan
estali ta borda,
baiña garbi dakina
mundu ontan nor da?

13

Zenbat pasa ote dira
kobatik barrena?
Bera da Goierriko
biderik zarrena,
emen bizi izandako
ta kanpotarrena,
Arantzazuko erromes
eta artzaiena;
Urbi bidean dagon
atari ederrena.

15

Aitzgorri, maite zaitut
ta ez duda-mudan,
udaberri, udazken,
negun eta udan.
Eta begiratu zer
eskatzen dizudan:
zure doaiak nola
ain maite ditudan,
ea urte askoan
ikusten zaitudan.

14

Olaxe bizi ziran
leengo denboran,
naiz auek pasatu ta
orain egon modan.
Aurrerapenak daude
gaur alako loran,
baiña munduan zear
badago naiko lan,
ta zeïnek daki emen
azkarrena nor dan?

Arantzazura erromes

Oraingo bertso auek, aurrekoetan aitatu ditudan Aitzgorri eta bide orri pixka bat jarraituaz obeto ezagutuko dituzu, emengo berri ez dakizuna bazera.

Emen, Goierrin, sei-zazpi bat errititik beintzat, udazkenean Arantzazura joatea batere gauza zana, oiñez edo autobus, derriorra bezela izango zan.

Esan nai nuke jendea erruz joaten zala, eta nere denbora baiño lenago askoz geiago. Orduan danak oiñez edo abere baten gaiñean. Gaur ere asko joaten da, baiña kotxe ederretan. Garaian garaiko kontuak.

Norbaitek esango du:

–Ainbeste fede al zegoan?

Eta nik erantzungo nioke:

–Danetatik orduan ere. Gaur naiko libre dauden gauza batzuk pekatu ikaragarriak ziran len. Gaur ere bearbada ala izango dira, baiña lengoa: garaian garaiko kontuak.

Arantzazu ortara mendiz larunbatez irtenda joaten giñan, ni ere askotan joanda nago eta, lengo bertsoetan aitatu dedan San Adriango koba ortatik pasatuaz. Eta pasatu gabe ere bai. Beste bideren batzuk badaude, ni beti ortik pasa naiz baiña.

Eta koba ortatik batzuk Aitzgorriko gurutzera, eta andik Urbiko artzai-zelai bikaiñera. Gurutzera gabe ere askoz bide lauagoa, berdiñagoa, naiz ontan ere aldapa latza egon. Urbira, alderdi ontatik, eta Araba aldetik, eta Arantzazu aldetik ere, badaude bideak. Baiña gu emen Goierrikoak olaxe joaten giñan, soiñu-jole, neska ta mutil, eta andra ta gizon, eguneko jana eta edana artuta.

Baiña azkeneko onekin kontuz. Or leenago jarri det len pekatu ikaragarriak ziranak eta abar. Eta ibilli ontan eroriak

izango dira bi-edo. Bertsoetan ere esaten det. Izan ere, Urbi gaineko umorea eta sasoi ederra soiñean, eta eziñean egiteko baiño lan ohea da ori ere erdi lapurretan, da olaxe kontuak. Beraz, danak fede utsak etzituan len ere eramango, edo bidean aldatzen zan beintzat jendea.

Arantzazuko ibillaldia edo Urbiko umorea eta abar, aitatzen det seigarrengo kontua, eta ara bati gertatua beintzat, berak esaten zuanez. Bidean ere poliki joango ziran, konfesatzeko garaia urbil zeukatela eta.

Baita konfesatu ere larunbat illuntze ortan. Baiña apal ondolan berriz ere erori, eta urrengo goizean berriro konfesatzera joan bear, alegia praille zarrarengana joan omen zan. Baiña onek sermoia mutillari, ain denbora gutxian erori zalako. Neskarenik ez dakit. Eta mutillak:

Okasio bat izan nuan eta ezin utzi.

Eta prailleak:

–Nik berrogei urte baditut emen, eta sekula ez det izan; eta zuk gau batean.

Eta penitentzi aundi xamarra eman omen zion.

Eta azkenik, gaur peregrinazioan asko joaten bada ere, erri auetatik len bezela taldeka soiñu ta guzi joate ori urritu da, penagarria bada ere.

Peregrinazio orri buruz bertso auek jarri nituan, esne saltzaillearen doiñuan:

1
Goierrin oitura bat
nola zan lenago
esan bearren nago,
nere buru zar ontan
argirik badago.
Uda azken garaian,
gaur baiño geiago,
Arantzazura joanaz
bi egun igaro,
penagarri da baiña
ia galdun dago.

2
Larunbatez irten da
zapalduz Aitzgorri
geienetan gorri,
baita bixita egin
nai aiña tontorri,
ikusiaz amaika
pago ta elorri;
gero Jauna artuta
igandez etorri,
pena uztea galtzen
oitura eder orri.

3

Naiz peregrinazion
asko joan oraindik
mendiaren gaindik,
taldeka joatea
urritu da lendik.
Ordun larunbatero
kobaren barrendik
eunka pasatzen giñan
txiki eta aundik,
oiu latzak egiñaz
andik eta emendik.

4

San Adriango koba
igaro ta bela
an gendun otela,
askatu ta jateko
gosari pardela.
Uraxe bai lekua
goxo ta epela,
pago eta lizarrak
itzal ziradela;
uste det paradisoz
konpara zeikela.

5

Baita ere inguruan
ardi eta beor,
egin gabe opor,
larrea mozten baidu
udazkenak gogor.
Baiña gureztat etzan
izaten ain legor,
zatotikan edanaz
bapo emen da or;
gu bezin zoriontsu
bai ote zan iñor?

6

Gosaldu ta berriro
aurrera segira,
mendirra begira;
batzuek Aitzgorriko
gurutzetik jira.
Bestek beragotikan
malkar alderdira,
bazkaltzerako danok
bilduaz Urbira;
orduko ibillerak
orrelaxe dira.

7

Bazkal ondorena zan
pozaren egala,
esaten zail dala,
indartzen zituana
sendo ta argala.
Talde geienetan bat
soiñu jotzen zala,
txistea ta bertsoa
ezin entzun ala,
zeru biurtutzen zan
Urbiko magala.

8

Etzan alperrik galtzen
soiñuaren otsik,
naiz ez izan otzik,
gazte jendea dantzan
asitzen zan pozik.
Elduk ere bai, bazan
gustoko larrosik.
Nola galdu Urbiko
une aproposik?
Egunero etzegon
alako paotxik.

9

Gazte jendeak burun
makiña bat amets,
naiz joan erromes,
Arantzazuko Amari
egiñikan promes.
Ain alai ikusita
Pello eta Lurdes,
aztoratzen ziraden
Joxepa ta Andres,
gero arkaitz artera
egin naian iges.

10

Eguzkian sarreran
aurrera indartsu,
naiko irripartsu,
neskatxari esanaz:
“Eskua ekatzu”.
Bereala ikusten
gendun Arantzazu,
eta alkarri esan:
“Goazen barrura, zu”,
naiz aruntzako ez euki
juergako aiña su.

11

Alare iñoiz joanak
gerade bertara
gu *Benedicta*-ra,
illuntzeko eleizkizun
jator aietara.
Ondoren zabalduaz
bost ostatutara,
talde bakoitza joanaz
nai zuan artara,
gero apaldu eta
guztiok lotara.

12

Jai-goizean logurek
garaian baztatu,
baita elizan sartu;
gero konfesatu ta
Jaunakin alkartu.
Ondoren gosari ta
bazkariz indartu,
eta lengo bidea
etxerako artu;
ta agur, Arantzazu,
naiz sarri oartu!

(1978)

Bertso Berriak
aizkora-txapelketa bati jarriak.
Arria II txapeldun

Aizkora-txapelketa 1978-ko Ekainaren 4-an Azpeitiko plazan antolatu zuten. Nere lagun Segurako Pedro Etxezarretak eta Astigarretako Mateo Lizarazuk lana pranko artuko zuten; baiña ikusgarria irten zan, nola egurrak ala antolakuntza.

Bost kana erdiko, bost irurogei ontzako, eta beste bost oin biko, garai batean irurogei ta bost minutuko lana bazan. Au aizkolari onarentzat ere. Orduan kana erdikoa iru minutuan egoten zan, gutxi gora-beera kalkulatuta. Irurogei ontzakoa, lau minutu; eta oin bikoa, sei minutu, au bezelako lan aundi xamarrera joan ezker. Egur batera edo bitara joan ezker, gauzak aldatu egiten dira.

Bestela, begiratu laixterka ere, eun metro izan edo milla izan. Eun metroko marka amar bider batuta ez dute egiten. Lan bakoitzak bere denbora bear du, onenak ari badira ere egiten, eta aizkoran ere bai.

Aizkoran, berriz, egurretan alde ikaragarria dago, eta aizkorretan ere bai. Baiña au ere esan bear da: txapelketa ontan aizkora-klase berriak edo australianoak erabili zituzten. Baiña, nere ustez, aizkora auekin oraindik asi berriak ziran emengo aizkolarriak, eta ondorenean ainbesteko etekiñik etzieten kendu.

Baiña marka aundia egin zuten, batipat Arria bigarrenak eta Mindegiak. Egurrak ere oso onak ziran, eta oso ondo jarrita; eta ikusgarrizko aizkora-jaia irten zan, eta geienok pozik etxeratu giñala uste det, eta gaiñerakoa or du irakurleak bertsoetan.

1

Milla beatzireun irurogei ta
 emezortziko Ekaiña,
 il onen laua igandez gendun,
 beroa ere bikaiña.

Aizkora-txapelketa Azpeitin
 gogorra eta apaiña,
 beraren berri eman nai nuke
 erreza ez daukat baiña,
 ni bertsoetan ez naizelako
 oriek aizkoran aiña.

2

Lau aizkolari dauden onenak
 bildu dira alkarrena:

Arria anaiak, Mindegia ta
 Mendizabal bigarrena,
 amabost enbor ebaki asmoz
 zitekeen azkarrena,
 iñork ez baidu emen izan nai
 motxena ta kaxkarrena;
 ikusi asmoz jendez bete zan
 zezen-plazaren barrena.

3

Ikusleetan dexentez ere
 giñan bi millatik gora,
 antolakuntza ere aparta,
 obe bat zeiniek gogora?
 Egur lerdanak eta garbiak
 erabiltzeko aizkora,
 ez ekarriak laixterka juanda
 txara ertzeko basora;
 egokigoak inguratzea
 berriz ere kostako da.

4

Baiña pagoen barrua zegon
 naiko sano eta tinko,
 ta lana ere amabost enbor,
 bada naikoa aldiko;
 eta batzuek aundik gaiñera,
 izanikan bost oin biko,
 bost kana erdiko geiagoakin
 beste bost irurogeiko;
 garai batean iñork etzitan
 ordubeten ebakiko.

5

Ala ere lengo aizkolariak
 aundizat dauzkat gogoan,
 nola emen ordun Australiako
 aizkorarik etzegoan.
 Baiña auek ere ez dute mozten
 geldi eukita ondoan,
 eta Arriak ibilli ditu
 ain abiada sendoan,
 berrogei ta bost minutuan da
 oe ta beatzi segundoan.

6

Arria bigarrena gendun au,
 Jose Inazio Orbezo.
 ogei ta amabi urte dituna,
 gizon egokia oso.
 Ia bi metro gorakoa ta
 indarra berriz eroso,
 naiz eun kiloko pixua eduki
 zaildua dago ondotxo,
 sasoia eta abildadea
 biak daduzka ondroso.

7

Ala ere aseran Ezkurrakoak
lan gogorra eman dio:
lenengo biak ta seigarrena
aurretik bota dizkio.
Geroago're gertu-gertuan,
bazan naiko kontrario;
baiña oraingoan gure Arriak
kemena zeukan serio;
Mindegia austeko zerbait bear da,
kontuak ez du balio.

8

Ai zan denboran Arriak zeuzkan
jo-aldi ikaragarrik,
enborrik enbor zerbait egonak
ez dio ekarri gauz txarrik;
ta Mindegiak gaur etzedukan
atsedenaren bearrik,
argatik naiko alde txikia
izan dute lenengo bik:
minutu bat ta emeretzi
segundukoa bakarrik.

9

Azken enborran atera dio
denbora ortatik erdia,
beraz bitarten iñork etzekin
zeiñentzako zan erbia.
Berriro ere argi ibilli
tarten bada Mindegia,
baiña Arriak txapelketari
atera dio mamia,
naiz azkenean ondo beteta
bukatu ekiñaldia.

10

Beraz zorionak eta txapelai
eutsi, Arria, kaskarren;
da, Mindegia, zuri ere bai
naiz-ta gelditu bigarren.
Irugarrena Mendizabal zan,
beste Arria laugarren;
ez ikaratu, zuentzat ere
txalo jo degu indarren,
pozik gaiñera, aizkora sasoi
onetan ikustearren.



Beor Petra eta bere zaldi moxala, 1983-X-22-an.
Gaiñean, atze aldetik asita, nere bi illoba: Unai eta Patxi; gure seme Ion;
eta beste bi illoba, Igor eta Aritz.

Bertso Berriak gure beor Petrari jarriak

Oraingo bertso aukeratuak beor bati buruz jarri nituan. Gure etxean sekula beorrik izan zanik ez nien bein ere entzun gure aurrekoai.

Baiña idiak kendu eta ganadu gutxiarekin jarri giñanean, pentsatu nuan gure baserriko lan apurrak egiteko beiak uztarrian lotuta baiño errezago izango zala.

Ala, bati eta besteari galdetuaz, 1980-ko garagarrillaren 6-an erosi eta ekarri genduan Berastegitik beor bikaiña. Zazpireun kilo izango zan gertu; eta, ala, lanean asi giñan. Ondo ezita zegoan.

Baiña gurean lan gutxi; eta, gurdian jartzen genduanean, biziagia ere bazan.

Len ere badet entzuna abere auen kontua: beorra eta zaldia makal xamarrak obe; eta astoa, al dan biziena, aukeratu bez bez makal xamarrak dira eta.

Gure onek indarra ikaragarri zuan. Baiña pixka bat nekatu artean, aren aurrean ere etzuan errenak eta elbarriak asko balio. Gu, eta koñadoak-eta, naiko sasoikoak giñan artean, baiña etzan giro arekin.

Baiña mantxoa zan izatez: eta, ala, pentsatu nuan lanerako traktorea ekarri eta oni, gure beor Petrari alegia, izen auxe jarri nion eta, moxal batzuk egin araztea, bere antzekoak baziran bikaiñak egingo zizalako eta.

Ala, guk *ametzaria* esaten diogu, zaldia ere bai baiña. emen, Goierri alde ontan. Badakit beste izenen batekin ere ezagutzen dala.

Baiña, dana dala, asi nintzan zaldiarengana eramaten. Egun-sail batean eramaten eta igel itxura nabarmena zuan eguna

tokatu zan. Ala, zaldi ori igotzen asteen, ostikoka txikituko ez bazuan laister erretiratu zuan nagusiak. Berriz ere prueba, baiña etzan zaldirik arrimatu ere egiten.

Ametzariaren nagusia beorren berri ondo zekiana zan, eta anketan soka jarri eta estali zuan. Baiña antzu. Lan ori bien borondatez egin bearrekoa da nunbait.

Urrengo urtean beste zaldi batengana, eta an ere berdin. Baiña egun batean or jarri da mantxo, eta bai moxal bikaiña artu eta egin ere.

Baiña berriz ere ezin zalditu. Zalditu genduan erdi derriorrean. Antzu irten omen zan, ordea, nik salduta neukan ordurako baiña.

Albaiteroak esan zidaten bakar batzuek oso igel-aldi motza izaten dutela: ordutakoa; eta au ere neri egokitu.

Ala, bertso-mordoxka jarri nuan, saldu nuanean; eta auek dira, zortziko txikian.

1
Milla beatzireun da
larogeiko erdin,
beor on bat erosi
nuan Berastegin.
Berari nai dizkiot
bertso batzuk egin,
Euskal Erri guzian
ezagutu dedin.

2
Kolore gorrikoa,
aundi ta bikaiña;
muturrean izar bat
bazuan apaiña.
Indarra ere ia
traktoreak aiña,
biziduna izanik,
nekatzen zan baiña.

3
Lanean izan arren
naiko indartsua,
etzitzaidan atsegin
abere antzua,
eta moxal bat nai nun
bere igualtsua;
baiña ametzaiakin
etzan ain mantxua.

4
Nunbait denbora gutxin
egoten zan igel,
gero ametzaiakin
asarre ta goibel.
Zazpireun kilo bazan,
etzegoan ximel,
ala ere ankaz bero,
azi gogoz txepel.

5

Ametzaia ikustean,
gaiñera abiadan,
gure Petran indarrak
danak ostikaran.
Ikututzen bazion
mutur edo ijaran,
Pintto izkutatuta
uzten zun ikaran.

6

Naiz anak amarratu
sokakin askotan,
burnizkoa bear zun
ura estaltzekotan.
Goxogorik ez balitz
maitasun lan ortan,
aborto gabe pasa
leike mundu ontan.

7

Bestela ostikada bat
etzuan sekula,
baiña ametzaientzat bai
grña txarra zula.
Ala ere egin zigun
moxal bat mardula,
biren gaiak uste det
berak bazitula.

8

Oso luzea zan da
atze onak zitun,
eta aundia ere
egin zan segitun.
Saltzekon erostunak
ia ezin kabitun,
eun milla pezta juxtu
laister artu nitun.

9

Altsasun saldu nuan
orrenbeste dirun,
milla beatzireun da
larogei ta irun.
Sei illabete adiña
eta amar egun,
gezurra esan bearrik
ez dadukat iñun.

10

Naiz asko iruditu
amaika gizoni,
ez da oso txoroa
Iruñako Goñi.
Zerbait ikusi zion
zaldi moxal oni,
ametzaitako zula
seguro nago ni.

11

Olaxe portatu zan
gure beor Petra,
berak ere izan zun
itxurazko benta;
eun eta ogei ta
bost milla pezeta,
danak ez dute uzten
ainbeste errenta.

12

Biak ustez utziak
gizonen eskuan,
bat Napparroan eta
bestea Gipuzkuan.
Neroni gera nintzan
tankera estuan,
negarra ere oso
urruti ez nuan.

13

Saldu ta kamionen
utzi ordukoxe,
Petra buru erainka
esan nairik zeoze.
Ura ala ikusita
tristetu zan Joxe,
bazkaltzekon ez neukan
iñoiz aiña gose.

14

Beti ezin eduki,
saldu bear noizbait,
baiña amaika bider
gogoratutzen zait.
Ikusiko banitu
orain ere nonbait,
ez nieke utziko
eman gabe zerbait.

15

Orra bertsoan esan
pasatu bezela,
biotzikan ez nuan
izango bestela.
Umirez kantatzeko
gerta ditezela,
ta aiek zoriontsu
iraun dezatela.

(1980)

Bertso Berriak nere bertsolaritzari buruz 1980-ean jarriak

Oraingo bertso aukerak nere bertsolaritzari buruz egin nituan orain zenbait urte. Kanpoan ixilik edo alatsu nengoan, Etxezarretarekin pixka bat tabernan-eta naiz jarduten nintzan. Alde batetik, kantatu nai; eta, bestetik, bildurra, nere abots eta zintzur. Ala, nere goraberak ordurarte eta orduan zeuden bezela jarri nituan.

Beraz, len ere badet naikoa nere bertsolaritzari buruz esana, eta garai ontara artekoa ementxe dago bertso batzuetan jarria, nai duanak irakurri.

1

Milla beatzireun larogeiarekin
gaur azaroan zortzia,
berrogei ta bost urte bete ta
ni seigarrenai josia.
Eta ni ere guztien gisa
zartzen ai naizen ontzia,
mundu au ez da bestean gisan
Jesukristok erositia.

2

Segurako Aizkoetan jaio ta
bera det gaur ere kabi,
ume-umetatik bertsotarako
nitun milla zirikaldu.
Bide erdian gelditua naiz,
ori ikusi det garbi;
gai oni buruz jarri nai ditut
orain bertso bat edo bi.

3

Alde au ez da len ere izan
bertsolarien seaska,
ala ere nik probatutzea
pentsatu nuan baezpa.
Naiz ogeitamar urterako utzi
argi aundirikan ez-ta,
beti eziñean ibilli gabe
penaz kokoteai azka.

4

Lenbizi etorria bear da
egingo bada bertsotan,
urrena berriz bearrezkoa
kantatutzea askotan.
Ontarako ere aukera asko
etzan gure erri ontan,
laguna ere ona bear da
zeozer ikastekotan.

5
Zenbaiten bertsolaritza oi da
eten gabeko txintzarri,
iru orduan igual jardun
elduaz zenbait itz txarri.
Urtean beingoz naiz-eta entzun
Uztapide ta Basarri,
aien moduko maixu batzuek
nik bear nituan sarri.

6
Bikote ona ziraden auek
naiz orain sasoiua juanak,
amaika aldiz poztu zituzten
Segurako San Juanak.
Oien bertsoak ziran lenbizi
onak entzun nituanak,
nere buruak urte askoan
gorde izan zituanak.

7
Bertso entzuteko orduan etzan
gaur aiña radio, kaset,
neretzat obe zala egotea
amaika aldiz pentsa det.
Alderdi auxe gaurko gazteai
nik ona ikusten diet;
baiña alare kaset auekin
naiko kezka badabillet.

8
Kaset geiegi ona danikan
iñoiz etzait iruditu,
naiz bertsolari asi berriai
almenak asko zutitu.
Baiña entzule bati leioke
bertso-gosea urrutitu,
eta bertsoa ugalduta eta
entzule onak urritu.

9
Entzule onak galdu ezkeru
bertsolariak dauka jai,
koxkorak berriz neure gertuan
nik ez ditut ikusi nai.
Noiznai agintzen digute lana
ta segi esan arte bai,
gero astean lau entzuteko
pakean ez dirade gai.

10
Sinistu gero nik jende orren
berri ondo dakidala,
ta nere antzeko eskaxarekin
aguro asten dirala.
Baiña onak ere orrelakoa
sarri bialdu ezin ala,
pentsatu bada jende-klase au
danon aspergarri dala.

11
“Xenpelar atzo ikusi nuan”
ere bati entzun nion,
ortik pentsatu bertsolaritzai
ark zenbat jarraitzen dion.
Eta beraren antzeko bati
sinistu araziko zion,
alakoentzat alperrik dira
ainbeste bertsolari on.

12
Nere buruarekin asita
beste batzutara pasa,
izan ere ain aspergarri da
albon entzule eskaxa.
Amaika aldiz juzgatua det
oien lana nere kasa,
iñoren berri ez dakite ta
danari asmatu akatsa.

13

Ala ere askoz naiago det nik
bat-bateko bertso-lana,
al dan azkarren kantatutzea
adierazi bear dana.
Etorri aldetik geientxonetan
zerbait sortzen da nigana,
eztarri ona da bizi guztian
faltatu izan zaidana.

14

Neretzat beti lan txarrena zan
doiñuak erabiltzea,
nere zintzurak erakutsirik
eziñean ibiltzea.
Ta era artan gauza zailla zan
bertso polita biltzea,
itxura txarrak ekartzen baidu
etekin dana iltzea.

15

Beti zintzurra urraturikan
ibilli eziñik doiñua,
ta iñorentzat ez da atsegin
olako baten soiñua.
Neuk bezin ondo iñork ez dakit
pasa nuan inperua,
ala ere ez da errez esaten:
“Geio kantura ez nua”.

16

Kanpon ixildu arren zirika
beti barrenean arra,
ta kanta gabe ezin alkartu
goizakin illunabarra.
Amaika aldiz etorri oi zait
begietara negarra,
baiña eziñak adierazten dit
ixilik egon bearra.

17

Ala ere ezin seguro esan:
“Ez det egingo geiago”,
ixilik egon baiño kantatu
baidet askozaz naiago.
Nere gaitz bera makiña batek
izango zuan lenago,
eta al dana saiatuko naiz
aukera baldin badago.

18

Orra esan zer izana naizen
bertso-lanean neroni,
gauza txiki bat adirazteko
egin det naiko armoni.
Baiña gezurrik ez det ipiñi,
ortan seguro nago ni,
naiz-ta bildurra beti izan nik
bertsoak moldatze oni.



1966 urtean, Santa Ana egunez Ordizian kantatutako batzuk, txapelketa nagusirako aukeratzeko. Eskubetik: Jose M. Aranburu; nere anai Iñaxio; Ibon Goikoetxea; ni, Jose Insausti; Antonio Barandiaran; Patxi Iraola; eta Murua, zaldibitarra, Aranburu eta Iraola bezelaxe.

(1980)

San Juan arbola

Oraingo bertso auk 1980-an jarri nituan, eta berentzat gaia San Juan arbola edo arbolak izan ziran.

Izan ere, garai batean Seguran bi jartzen ziran, bertsoetan esaten dedan bezela. Baiña gazte batzuekin itz egin nuan gai oni buruz, eta etzekiten bigarren arbolaren konturik, eta auxe da gure erri ontakoa.

Garai batean, gaur galduta badago ere –gaur esan det, baiña ogei ta amar urte eta geiagoan ere bai, nere ustez–, illunabarrean jartzen zan, eta jartzen da oraindik ere. Baiña, gaur egiten ez dana, orduan beste makal bat ekartzen zan, eta au ere esan bear det: arbola au beti makala izaten da. Nik ez det, beintzat, beste klaserik iñun ikusi.

Beraz, au esan da gero, esan dezadan bigarren arbolaren kontua. Arbola au gau beranduan ekartzen zan nundinaitik artuta, eta geienean muturra ondo busti ta gero. Naiko ardo edo kopa artuta, alegia. Onekin ez det esan nai mozkortuta, baiña bai umore ederrean jarri ta gero.

Au aspaldikoa da, baiña nik ezagutu nuan bat San Juan arbola botatzera berrogei ta amar golpetan lurrean sartutako aizkora-ekin joandakoa. Arririk ez al zan egongo.

Baiña lurra bera ere ez da aizkora zorrotaille bikaiña. Amustu bai galanki. Baiña, ala ere, sasoi ederra omen zeukan, da aizkora arekintxe bota omen zuan. Ura ere etzan egongo goizkeo kafesnearekin.

Eta ekartzailleak ere irixtada eta zalaparta pranko bai. Izan ere, gaua, eta ezagutzen etzuten parajea geienentzat; eta ordu oietan iñoren esana egitea ere ez da oso erreza, berriz. Urrengo egunean, begia gorrituta edo anka aundituta eta beatzen bat azkazalik gabe ere igual. Baiña arbola ekarri eta zuloa egin da sartu ezkerro, konforme zutik ikustean.

Baiña emen etziran bukatzen komeri danak. Arbola au norbaiti lapurtua izaten zan, eta or sortzen zan zer esana. Arbola ere bada, eta bere balioa ere bai.

Baiña zenbaitek burlatzat ere artzen zuan, nik entzun izan dedanez, eta ez naiz arritzen. Alaxe egiteko ere, danetakoak gera mundu ontan; eta ala ez izanda ere, berriz, bakoitzak bereak eza-gutu egiten ditu geienetan. Baiña olakorik asko pentsatu gabe amaika ibilliko zan alai asko.

Garai batean, berriz, beste erri batetik ekartzeko oitura ere izan omen zan. Eta, jakiña, gero angoak ere bestera joaten omen ziran, eta onelaxe kontuak. Onek esan nai du beste erri batzuetan ere bazala oitura au, naiz-eta arbola bakarra jarri, Seguran bezela bi jarri gabe.

Baiña bera lapurtua. Oietako bat, Segurak alboan duan Zerain erri jator politean beintzat, eta geiagotan ere izango zan. Orain norbaitek galdetu lezake:

–Arbola-lapurrak ez al zuten zigorrik izaten, orrela iñoren arbola bota eta ekartzera ausartuta?

Jakin naiko azkar jakingo zuten zein izan ziran, ainbesteko taldea izanik. Ontzak berak ere oiuka asten baiziran alako gauza berria ikusirik. Nik entzun izan dedanez, ez. Egun ontan etzegoan zigorrik jartzerik.

Gertatu ere egin omen zan erriren batean, arbola zutik plazan jarri ta gero, arbola-jabeak ebaki eta bota egin omen zuan. Baiña bera izan omen zan zerbait zigortua.

Lege au omen zan erri artan azaldu zana, aspaldian jarrita zegoana, eta auxe da: arbola naiz erdia ebakita egon, nagusi edo jabea azaldu ezkerro, lurra jo gabe badago, arbola lengo nagusiarena omen da.

Baiña bein bota eta lurra jo ezkerro, andik ekarri eta plazan zutik jarri artean, ekarri duten mutillena; eta, bein zutik jartzean, erriak edo erriko agintariak omen dute arbolaren aginpidea. Beraz, iru orduan irugarren nagusia edo nagusiak izaten zituan San Juan arbolak.

Baiña orain galdu zan edo galduta egongo da leku geienetan, eta nere ustez obe eta pakean bizi. Eta gaiñerakoa or du bertsoetan irakurleak.

1

Milla beatzireun da
larogeiko parten,
bertso batzuek jartzen
saiatzen naiz tarten.
Gaurko auentzat gaia
ez daukat aparten,
eta ez nago lasai
kantatu bitarten,
dakidana esan gabe
gauza naizen arten.

2

Ain zaitut gogokoa,
San Juan arbola,
jakiñik neroni're
jarrita nagola.
Bero neukan bitarte
sasoiko odola,
antxe izango nintzan
al bazan iñola,
oroitu gabe dana
ondo etzegola.

3

Arbola au jartzen da
San Juan bezperan,
baiña ez bi, Seguran
jartzen ziran eran.
Bat oraintxe bezela
eguzki-sarreran,
bestea lapurtua
goian edo beran,
naiz lendabizi naiko
ardo zarra eran.

4

Gasolina dexente
barrenen sartuta,
gazten ezaguerea
jartzen da zartuta.
Gero makalan billa
aizkora artuta,
lan ura izan balitz
aitak beartuta,
danok jarriko giñan
odolak txartuta.

5

Entzuten dan garaian
ontzen kantu-otsa,
baso-lanetarako
ez da aproposa.
Baiña arantza danak
ikusiz larrosa,
ezaguerea jetxi
ta indarrez osa,
gero gaueko lanak
egunezko lotsa.

6

Bati zarbastak jota
begia gorritu,
ta besteari anka
erdi biurritu.
Betz-puntetan ere
zenbait odol bitu;
naiz artutako uanean
gutxi iruditu,
urrengo egunak bapo
bistaratzen ditu.

7

Ala ere arbola
 nolabait ekarri,
 jeupaka animoa
 emanda alkarri.
 Gero zuloa egin
 eta zutik jarri,
 egunsentiz etxera
 presaka ta larri,
 kukurrukua entzunaz
 amaika oillarri.

8

Pixka bat berdintzean
 egiten zan lana,
 bi arbola jartzeko
 izanik afana.
 Baiña grazikoa zan
 arrapatzen zana,
 ondoren izaten zan
 naiko zer esana,
 au da neronek bizi
 izandu dedana.

9

Kaltea baiño geio
 artzen zan burlatzat,
 esanaz: “Zer gorroto
 daukate guretzat?”.
 Izan ere kalteko
 dana norberetzat
 gaizki dago egitea
 beste norbaitentzat,
 baiña au gozamina
 degu zenbaitentzat.

10

Ezjakiñean ere
 iñoiz egiten zan,
 makalaren jabea
 jakin gabe zein zan.
 Baiña ori zenbaiti
 naiz-ta garbi esan,
 dana sinistutzea
 seguroa etzan,
 zeñek ententitzen du
 besten gazi-gezan?

11

Adar-joleak ere
 beti an da emen,
 gauzari emateko
 millaka aitamen.
 Au ikusia nago
 askotan nabarmen,
 naiz aiek izurratu
 esanikan amen,
 danorekin ez dago
 orrenbeste kemen.

12

Orain bat ipintzen da
 eta askoz obe,
 asarre jarri gabe
 ainbat gizon noble.
 Pakean ibiltzeak
 balio du doble,
 aberatsena baida
 naiz-ta bizi pobre,
 ta eskaxian baiño
 obea da sobre.

Gure txakur *Txiki*

Bertso auek edo antzekoak gaztetan ere jarri nituan, gure etxean onelako txakurrak sarri izan diralako, beste askotan bezelaxe. Baiña aiek galduak nituan; eta *sida* kontua edo gaitza asi berri edo zabaldu zanean, auek ipiñi nituan. Urteak dexente, beraz.

1
Txakur bat badaukagu,
izena du *Txiki*,
iñoiz laguna pranko
ondon badabilki;
tenplean dagonean
askotan poliki,
zenbatek ote dio
atea iriki?

2
Etxe zaitzez gaiñera
ainbeste lan *extra*,
utzitzen ditu loa
ta berdin siesta;
Pintto, *Txuri* eta *Beltz*,
au da txakur-pesta!
Kobratzen asi bear det
lau bat milla pezta.

3
“Nola arrapatu oiek?”
batek esango du,
baiña orretarako
badet naiko modu;
gaur bertan ere *Pinttok*
azioa jo du:
katiatuta pasak
baditu bi ordu.

4
Biak atzez jarrita
tiraka alkarri,
ez edukiagatik
amalau lokarri;
Pintto ikusia det
naiko errukarri,
azkenean *Txikik* du
tarraka ekarri.

5
Ezin zan askatu ta
zertako izutu,
naiz paraje batean
bakarrik ikutu?
Gutxiñez pasa ditu
eun bat miñutu,
kobratuta izan balitz
bear nun dirutu.

6
Pakean utzi diot,
–zertako ixkamilla?–,
nola dan erreminta
txarran katramilla;
iturria agortu ta
loditu kanilla,
bestela etzan egongo
ori ain umilla.

7

Pinttok aldegitan
Txuri etorri da,
onek ere *Txiki* du
gustoko *querida*;
beste talde bat ere
gero ibilli da,
bildur aundirik gabe
erasteko *sida*.

8

Alperrik ez badira
lanean aritu,
ondorengoak laixter
litezke argitu;
baiña ogeitik bera
izango balitu,
danantzat apelliduk
nere ustez baditu.

9

Beraz txakurkumeak
dauzkagu aldera,
jaioko dira Martxon
amabost aldera;
iñork egiten badu
beraien galdera,
pozik emango diot,
eraman aldera.

10

Arraza ezin leike
berriz zuzen aita,
or nola ibilli dan
ainbesteren gaita;
askotxok dutelako
gure *Txiki* maita,
umek ere lan txarra
ezagutzen aita.

11

Ama gorrixta dute
ta bizkar guria,
ez ditu gustokoak
otza ta euria;
eguzkiakin ere
bastante zuria,
eskolik ez du baiña
bai jakinduria.

12

Orra egin amabi
bertsoko bilduma,
aitatuz zenbait txakur
eta txakurkuma;
ta egi utsarekin
ibilli det luma,
naiz aitortzeko egon
gertu garizuma.

(1981)
Donostiko Aste Nagusian

Oraingo bertso aukeratuak bati edo egokiera bati buruz egin nituan. Seguran, urte batzuetan, pestetarako dirua izateko eta abar, zozketa batzuk egin ziran. Gaur ere erri askotan egiten dira, beajeren bat dala edo txekorra eta nik ez dakit zer zozketa-tuaz. Seguran, urte ontan, bi lagunentzako *hotela* dana ordainduta Donostian Aste Nagusian jarri zan.

Nik len aitatu dedan ziñegotz-lan ortan nengoan, eta saltzeko kargua nuan bi talonario edo ez dakit zer. Munduan ez da izango suerte txarragokorik errifa eta loteri eta oiekin.

Gaiñontzean, dedanarekin konforme bizi naiz. Osasuna izan dezadala, edo miñik ez beintzat, geldituko zaizkidan urte apurretan, gelditzen badira beintzat. Miñari diot nik bildur ikaragarria, ala ere erremedio gabeko gaitza bada, nere denboran nere eza-guna prankok izan duten bezela.

Esan det bi talonario saltzeko kargua nola nuan. Baiña ez nion iñori eskeiñi ere. Danak neronek ordaindu eta artu nituan, eta beti ere berreun artuta batekin baiño errezago tokatzen. Baiña pattala naiz. Zenbat diru kendu ote dit neri loteriak, eta kentzen dit gaur ere? Baiña tokatu zan, bada, bein gure Aste Nagusiko gastuak debalde izatea, emaztearenak eta nereak.

Iru seme-alaba genduzkan, Jaunari eskerrak, eta ala oriek ere eramane giñuzen aurretik, auen gastuak aparte ziran eta geren poltxikotik pagatuz. Itz egin gendun, eta bear ziran gelak artzeko.

Ala, bikain pasa zuten. Amalau, amabi eta zortzi urte zeuzkaten orduan, eta amaika igari egin zuten.

Gu ere bikain ibilli giñan. Diru pixka bat gastatu genduan. Baiña, jakiña, gauza bat debalde danean, besterako geiago edo errezago sortzen da; eta orrelaxe, bada, gure Aste Nagusiko kontuak.

1
Milla beatzireun da
larogeta ta bata,
abuztuko il ontan
nik nola ez kanta?
Guretzat ere suerte
pixkat izan da ta,
bertsotarako etzait
umorerik falta.

2
Zergaitik esango det
zai egon zaitez ta,
Donostian pasarik
Aste Aundiko pesta?
Utsan truke bi lagun
gauza gutxi ezta,
bestela bear giñuzen
ainbat milla pezta.

3
Zozketa bat egiten
degu gure errin,
pestetako dirua
ugaritu dedin.
Nik ere parte artu
ala gerta zedin,
eta aurtengo onek
ume onak egin.

4
Bi lagunak utsean
hotelen jan da lo,
beti gauza fiñetik,
ez urdai ta talo.
Ai urrengo urtean
ere irtengo balo!
Asko ordainduta baiño
obe da erregalo.

5
Jokatzen dunak beti
dauka arriskoa,
naiz ni ez izan sarri
suertek begiz joa.
Ta amaika badago
emen premizkoa,
alako bati opa
diot berrizkoa.

6
Bi lagunentzako zan
ango erregalia,
baiña eraman gendun
gure familia.
Naiz geuretik ordaindu
gastuaren balia,
gure irukoa ez da
gaizki ibilia.

7
Bi seme ta alaba
eta emaztea
gera egon geranak
pasatzen astea.
Umek ondartzan zuten
sarritan festea,
asko etzaie kostatzen
bidea ikastea.

8
Amaika ibilli egiñak
dirade igarin,
lendik bazekiten da
egonikan arin.
Seme txikik guri're
nai zigun eragin,
baiña ez degu islatik
jira-birik egin.

9

Jaio ta azi giñan
ur-leku txarrean,
ta lana izan gendun
jolas bearrean.
Ala ere ibilli gera
naiko irriparrean,
nola *Hotel Lasa*-n ala
Parte Zaarrean.

10

Donosti ez dago iñoiz
modu itxusian,
baiña ederrena da
Aste Nagusian.
Ala ikusi det nik
bein bizi guzian,
suertez egokituta,
ain diru gutxian.



Udaletxetik elizara, 1981-II-15-an, Gillermo Intxausti Ormazabalen omenaldian. Eun urte Otsaillaren 9-an bete eta urrengo igandean zan au. Besotik, bere emaztea, Dominga Muguruza. Onek ere 94 urte-edo bazituan. Gillermoren atzean, izen bereko beste bat, Gillermo Areizaga, garai artan Segurako alkatea. Liburu ontan beraren aitamenak sarri azaltzen dira. Eta ezkerrekoa, ni, Insausti, igarriko diozuten moduan.

(1981)

Eun urteko aiton bati omenaldia

Bertso auek omenaldi bat dute lekuko. Baiña ez da askotan gertatuko egintza au barruan duan omenaldia Seguran. Ogei milla laguneko errian bakarren bat eun urtera irixtea gertatu izan da. Baiña erri txikian zailla izango da.

Norbaitek esango du bat naikoa dala eun urte betetzeko. Bai; ala da. Baiña askoren artean ere gutxik jotzen dute listoi au, eta aurrera ere argi. Jakiña, lenago ez iltzea naikoa da. Baiña ezin eutsi.

Seguran, beintzat, etziran gogoratzen larogei urtekoak ere iñor iritxi danik. Larogei ta emezortzi eta larogei ta emeretzi ere bai emakume bat. Baiña ortik pentsa nun dagoan, ogei ta amasei milla bosteun eta ogei ta bost gau-egun dira ta.

Iritxi zan au Segurako Aizkoeta baserrian jaio eta azi eta bizitakoa zan, ni bezelaxe: Gillermo Intxausti Ormazabal. Len ere badet esana lau bizitzako baserria nola zan eta dan etxe au, orain beste batena eta gurea utsik daude baiña.

Senideetan gazteena omen zan, eta beti ere etxetik librexeago, berezkoa ere bear da baiña; eta, esan zidanez –len ere bane-kian nere aitak esanda–, amaikari lagun egin omen zion, batik-bat belar ebakitzen.

Izan ere, Segurako onentxoena omen zan segan; eta orduan ere, bat alargundu egin zala, besteak min artu zuala, naiko lan eta baserriak ematen zuanetik nola-ala iraun bear, jaio ezker. Iraun esan det, eta naikoa ez al zan izango? Eta uda-partean beste laguntza auek ere geienak egin bearko zituan; baiña garia segaz ebakitzera Rioja aldera joaten omen zan. Bi eguneko bidean oiñez mutil-kuadrilla; eta, an ogei bat egun pasa ta gero, Araba ere bai. Emendik jende asko zan orrela ibillia. Nere aita, eta aitona ere bai, Araban beintzat.

Emen Seguratik gertu dauden Zerain eta Mutilo errietan, mina-lekuak dira. Orain ere or ari dira mina oietan burni-gaia edo karolina eta abar eta abar ateratzen. Gaur adelantu ikaragarriak daude. Baiña orduan ere zulo ikaragarriak zeuden or egin-da, eta zenbat tokitan autsa ere asko eta oso txarra osasunerako, eta amaika il omen ziran sasoirik onenean.

Gillermo au ere, ogei ta bost urte zituala, gaixotu omen zan biriketatik. Oso gaixotu ere; eta, esan zidanez, edozein kriminali bezela eriotzako sententzia eman zioten, aurrena sendagilleak jakiña, sei bat illabeteko bizia zeukala esanaz, eta negarraldi galanta egin omen zuan. Gero, berriz, apaizak: mundu ontarako egindakoak ez giñala eta abar. Ala esan zidan:

—Nik, berriz, ez nian il nai ain gazterik.

Ala, kurandero batek esan omen zion alkoolik ez probatze-ko, eta egunean iru litro esne edateko; illezko elastiko edo kamiseta eta jantzi asko janzteko, eta al zuan guztia ibilli; baiña, izarditzean, azkar etxera etorri eta aldatu jantzi bustiak; eta ibilli berriz ere, baiña beti legor eta bero.

Bai alaxe egin ere zintzo; bost illabete edo olaxe zeramala, asi omen zan bere buruari antza ematen ondo zijoala. Baita arria bezelako osasuna arkitu berriz ere. Baiña berorik aundienarekin ere, geldi jarri ezkerro, bizi guztian beti bizkarretik jantziren bat artu. Amaikak adarra jotzen omen zioten, esanaz:

—Praille joango baintz, obeago ukek, beti tapatuta edo estalita ibiltzeko.

Baiña arek kanposantuko sententzia gogoan.

Gero, *rayos X*-eta sortu ziranean, ikusten zuten guztian esaten omen zioten mantxa bat nola zeukan. Baiña ondo sendatu zan nunbait, eun urte jotzeko. Eun esan det, baiña eun da birekin il zan. Pakean atsedeen dezala.

Elgoibarren egin zuan bizi geiena, ogei ta zazpi urte inguruan ezkondu eta eskopeta-fabrikari lana egiñaz, eta familia galanta aziaz. Emaztea ere larogei ta emezortzi urterekin edo orrela il zan. Senarra baiño zazpi bat urte-edo gazteagoa zan au, eta onek ere pakean atsedeen dezala.

Guk omenaldi bikain bat eskeiñi giondun erri guztiak, dantzari txiki eta guzti, aurrena bere jaiotetxean arri bat azalduaz, eta bertan amaiketako eta txistulariak eta bikain. Gero, meza

Segurako elizan. Guk ere kantatu genduan: Lasarte, Lazkao-Txiki, Agirre “Oranda” eta nik, bai elizan eta bai bazkalondoan.

Bazkaria, Lierniko *Mujika* jatetxean. Berreun da ogei lagun izan giñan da ondo bete zan. Famili artekoak ere asko, eta ia Seguraren erdia ere bai. Gauza zana geiena, beintzat. Erregaloa ere asko egin zitzaion, koadro eta abar. Baiña sasoikoak bezin oso eta trankil pasa zuan eguna. Nik lenago ere banuan konfiantza. Gure aita bizi zanean, etortzen zan gure etxera ere; eta larogei ta amar urterekin bi *montekristo* erre zituan segidan batean. Zigarrorik etzuan erretzen; baiña puruak ere zartu ta gero asi omen zan erretzen. Ala esan nion batean:

–Zu eun urtera iritxiko zera; eta, ni bizi banaiz, pesta aundiak egingo ditugu.

Ala egin giوندun; eta bertso auek kantatu nizkion Liernin bazkalondoan, gutxi gora-bera.

1
Omenaldi bat artutzen zabiltz
gaurkon, Gillermo Intxausti,
zure emazte ta ondorengo,
lagun, erritar ta guzti.
Segura zarrak gogoan zaitu
naiz orain bizi urruti,
maitetasun bat daukagulako
biotzan barru-barruti,
orregatikan nai ziñuzten gaur
goralmen danakin busti.

2
Milla zortzireun larogei ta bat
eta otsaillak beatzi,
Seguran Aizkoeta baserrin
zan zure bizitza asi.
Gero guraso, aiton, amona,
senide ta lagun azi,
eta euskera xamur goxoan
orazioak ikasi,
bizi guztian aztu gaberik
eusteko modun itsatsi.

3
Bizi guztia errez esan det,
pasa dira eun urte,
geroztik zenbat aize, eguzki,
erauntsi eta elurte!
Alare zure osasun orrek
oraindik milla birtute,
buru ta mingain, esku ta anakak
ederki aitortzen dute,
ta adin ori dadukazula
gutxik sinisten dizute.

4
Oso gutxitan izan ziñaden
zerbait ikasten eskolan,
baiña dotriña geio dakiña
ez dakit nor izango dan.
Bizi guztia igaro dezu
lagun urkoen ajolan,
premin zegonai zerbait laguntzen,
egin ere bai naiko lan,
omenaldi onen anka bat dago
ordun egindako obran.

5

Ogei ta zazpi urte inguruan
joan ziñan Elgoibarra,
baiña bitarten makiña batek
izan zun zure bearra.
Etxe batean aurtxo ta alargun
da bestean jende zarra,
nola laian ala atxurrean
edo ebakitzen belarra,
esan baiño len entzuten zendun
prezizkoen deadarra.

6

Beraz olaxe askoi laguntzen
egiña ainbat lan-saio,
zu Elgoibarra joan ziñaden
mutil bikain eta iaio.
Ogibidea sortzeak badu
amaika neke arraio,
emen jardunda bezela zaigu
zu omendu naia jaio,
ondo portatzen dan gizonari
noizbaiten eskertzen zaio.

7

Lenago omendu bear ziñugun
zintzoak izan bagiña,
itxogin gabe iritxi arte
eun urteko adiña.
Baiña etzerala omen zalea
ondo gendukan jakiña,
biotza izanik asko eman da
gutxi artutzen dakiña,
ondo pentsatu ezkerori da
munduko gauzik aundiña.

8

Era ortantxe zuk urte-pilla,
bai osatu ere eun,
zeorrek diozun sail ori dana
ea kontatutzen degun:
ogei ta amasei milla bosteun
da ogei ta bost gau-egun,
alare oraindik orren gordiña,
gutziz indartsu ta legun,
udazkenean zaude sasoiko,
etzerade sartu negun.

9

Erri ontan gutxik izango zuten
eun urteko osasuna,
aspaldi onetan bakarra zera
doai ori daukazuna.
Beraz gozatzen jarraitu zazu
omen onen ondasuna,
Segura dana izan dalako
bera eskeiñi dizuna,
bizi zeraden arte guztian
zuk aztuko ez dezuna.

10

Al dan artean bizi gaitezen
esku emanaz alkarri,
zuk ere gaurko une gozoak
sarri gogora ekarri.
Emen guztiok izan degunez
zure zorion-egarri,
emaztea're pozikan dago,
zeiñek ez dio igarri?
Beraz agurrik biozkorrena
ta eskumuiñak Elgoibarri!

(1981)

Errealaren 1981-eko azken partiduari jarriak

Bertso auek 1980 eta 1981-ko Liga edo Espaiñi maillako txapela Errealak irabazi zuanean jarri nituan.

Izan ere, onelako aziorik sekula egin gabe zegoan. Aurreko urtean sekulako itxaropenak eta oso ondo joan da gero, bigarren gelditu zan. Ez da gutxi. Baiña ortik aurrena izatera koska txikia egon arren, ikaragarritzat jotzen da. Ori batek izaten du; urtean batek alegia.

Nik ez det afiziorik futbolerako. Partidu bat ikusi det nere denboran aurrez aurre, ura soldaduskan, eta orduan Burgos ez dakit lenengo edo bigarrena egongo zan. Baiña bastante ondo ibiltzen da au ere. Ez dakit zein kontrario zuan. Baiña etzitzaidan gustatu, eta geroztik ere telebisioan berdin gertatzen zait.

Nere anai Iñaxio eta nere bi semeak, berriz, itxuak dira. Bi semeak jokatu ere egin zuten, ez Butragueño-ren jornalarekin baiña. Ostikada bikaiñak artuta etorri izan ziran etxera.

Beraz, bertso auetan Errealak egin zuan azken partidua aita-tzen det, eta au Gijón-en zan. Naiko lanak baziran. Aurretik ere ondo eginda egongo zan Erreal, baiña azkeneko au ere gutxienez berdindu egin bear, eta aiek komeriak!

Egia esatezkero, ni ere erabat urduri egon nintzan, neroni zerbaitetan galtzen joanda bezela. Izan ere, utsaren begira txapela, eta ezin jaso. Baiña azkeneko minutuan sartu zuan Zamorarak gola, eta ura poza!

Real Madrid eta oiek badakite iru partidu aurretik ere txapela irabazita edukitzen. Baiña munduko gizonik abillanak erosi eta irabazi beariko. Meritua, emengoak orduan egin zuten bezela egiteak dauka, eta segi dezatela.

Segurako bikario zarra ere nere moduko futbol-zalea izango zan. Gogoan det oraindik, orain berrogei ta bost urte esandakoa.

Beasaiñen, futbol-zelaiari asiera emateko-edo, partiduren bat famatua zan; eta Erramu-arratsaldeko eleizkizunerako jendea urritu Seguran, Beasain bertan dago eta, zazpi kilometro, eta ala zion:

–Nola diteke, anima apartatuta, zaldia atzera bezela, aurre-ra ostikada ematen dutenak ikustera ainbeste jende joatea?

Baiña alaxe gertatu zan, eta orrelaxe jarraitzen dute gauzak orain ere batzuentzat.

Bertso auei ondo datorkie Basarriren “Nork egin du gure galde?” bertso ezagunen doiñua.

1
Gai arturikan futbola,
nator bertso dariola.
naiz urri izan eskola.
Ikusirikan gure taldea
txapelarekin dagola,
laister esango det nola,
dionarentzat ajola,
al baldin badet iñola.

2
Errealan lan aparta
nola ez bertsoan kanta,
izanik gogo galanta?
Oroitzearren milla beatzireun
eta larogei ta bata,
gizon moduan jokata,
nekea pranko kostata,
txapeldun atera da ta.

3
Ogei ta sei apirillak,
ta gipuzkoar umillak
egin azio abillak.
Emendik joanda ere txalotu
zuten makiña bat millak;
irratitan jende-pillak,
zuek lanean ixillak,
gora olako mutillak!

4
Joku-erria zan Gijón,
eta zelaia *Molinón*,
oso euritsu zan giron.
Atzeneko minutuan ere
arten eziñean zijon;
baiña indarra bai pillon
donostiarrak ekipon,
ezagutzen zan ostikon.

5
Aurrera zijon denbora,
ia gelditun kanpora
joan bearrekoa gora.
Ainbat ikusle eta entzule
ez geunden oso gustora;
baiña indartsu Zamora,
ta jo baloia albora,
Castro-ren ate-zokora.

6
Biña jarri ziran ala,
txapela gurekin zala,
etzan pozaldi makala,
ikusitzean lenengo aldiz
goian gure Erreala;
askok iritzi iguala:
ondo merezi duala,
Jainkoak gorde dezala.

7

Neke askoren morroia
jantzi dezuten koroia,
ez da suertez eroia;
baizik saiatuaren indarrez
atera dan arrazoia.
Orrela jotzea goia,
danen bistan dago ia
badezutela sasoia.

8

Dezutela ainbat kemen
garbi ikusi da emen,
nai dunarentzat nabarmen.
Ta igaz ere joku bakarra
galdua ia azkenen,
ta gelditu bigarrenen;
oi da saiatzea lanen,
nekeai esanda amen.

9

Zuek zerate motikoak
oso indar aundikoak,
etxeko arrobikoak;
ez, beste batzuk dauden bezela
orrenbeste milloikoak.
Txuri-urdiru ekipoak
bestela ditu goikoak,
benetako sasoikoak.

10

Txuri-urdiñak onenak,
eta pozak askorenak,
penak zenbait gaiztorenak.
Baiña geienak dituzte aurten,
bai, zuentzako omenak,
lan askoren ondorenak;
nik ere bai neronenak
zorionik beroenak.



1981-11-15-ean, Segurako elizan, Lasarte eta Joxe Agirrerekin bertsotan, Guillermo Intxustiren omenaldian, meza-denboran.



Goien, ezkerretik: Txapel bertsolaria, Itxasondoko adiskide bat, Inozentzio Olea eta Jesus Lete "Ibaiertz". Becan, Jesus Leteren anaia, Teodoro; Jose Insausti, Aita Juan Goikoetxea, jesuita, Zeraingo semea. 1964-an.

(1982)

Bigarren txapela

Oraingo bertso-aldia ere futbola gai artuta jarri nuan. Izan ere, 1981-1982-an ere gure Erreala txapeldun irten zan. Aurreko urtean oitu zan, eta bai irabazi ere.

Oraingoan, azken partidua gertukoakin zeukan: Atletik Bilbaorekin. Baiña askotan okerrago izaten da, eta bildur giñan. Au irabazi egin bear, berriz, txapela irabazteko. Gauzak juxtu oraingoan ere.

Aurreneko denbora golik gabe pasatu zan, ta komeriak. Emen, berriz, oiek balio izaten dute. Naiz ondo jokatu, golik ez bada, kito!

Baiña bigarreanean, igaz bezelaxe, or sartu du Zamorak; berealaxe baita Lopez Ufartek ere, eta or jarri dira bi ta utsa. Etzan pozaldi makala. Baiña Bilbaok ere azken aldera sartu zuan gol bat.

Olaxe bukatu zan partidua, eta jaso zuten bigarren txapela txuri-urdiñak. Nik uste det egin zutela aziorik asko. Emezortzi ekipo ziran, eta or aurreneko saria irabaztea bada zerbait.

Ondoren artan apari bat eman zitzaien futbolari auei emen, Seguran, eta ni ere parteko nintzan. Danak etziran etorri. Baiña Zamora eta Lopez Ufarte eta geiago ere bai, orain nik ez dauzkat danak gogoan baiña.

Ni ikaratu nintzan aien zuzentasunarekin jan-edanean. Jan ere neurri-neurrian, edo gutxi. Edateko, ura. Ez kafe eta ez kopa eta ez puru.

Azkeneko au jartzea ere aundia egin det. Ez gure edo nere modukoak bezela, txanpain botilla bat ustu, eta bestea ere presko dagoala eta andik ere sartu, Wiski ere, biotzari laguntzeko ona dala eta andik ere jira. Amaika orrelako. Eta, azken batean, oriek ere norbaitek edateko egingo dituzte eta emen danetakoak barko dituzte.

Baiña nik esaten dedana au da: oriek ere sasoirik onenean eta diru asko irabaziaz, baiña beren buruari gogor egiten diotela. Ortik irten ezkerok jai zegoala esan zidan neri Zamorak berak. Orrelaxe, bada, futbol edo gizon auen egintzak.

Ondoren, nik bertso auk moldatu nituan, “Aizak, i, mutil mañontzi” doiñuan kantatzeko.

1
Bertso batzuk Erreali
nai nizkioke bidali,
noiznai etzaie kantatzen ainbat
aundi ta apali.
Bartzelona ta Madrili
Ligaren pozak itzali;
bigarren aldiz Euskadi dute
txapelaz estali.

2
Amazazpi ekipo kontra,
guztiak azpira bota,
milla beatzireun laroi ta bian
zuek iritxi onta.
Apirillan oi ta bosta
aztea bear zaigu kosta,
ain berri onak gure artera
gutxitan datoz ta.

3
Gaur Donostiko Atotxa
naiko melarra ta motxa,
nai zuten danak barrun sartzeko
tokiz ez da osa.
Baiña zegon eran otsa
oso zegoan aproposa.
ortatik bizi dan jende orrek
betetzeko poltsa.

4
Azken partidua Ligan
bildurra're ematen zidan,
milloika jende telebistan da
millaka asko jiran.
Txapela nai erretiran
da naiko lanak baziran;
gaur pozik nago gauzak ain ondo
nola irten diran.

5
Bilbao zuan aurkari,
zintzo segiz burrukari;
gaurko onetan etorri zaigu
oso ostikari.
Sarri eragiñaz ankari,
gogor segi korrikari;
bukaera ona eman diote
aurtengo Ligari.

6
Gureak e guztiz abil,
baiña gauza juxtun dabil,
eta lenengo denbora joan da
berdiñean ixil.
Bartzelona eta Madrili
gelditu nai ez-ta umil,
eta guretzat ez daude gauzak
nai bezin borobil.

7
Jakiñean Bartzelona
irabazitzen zijona,
ta era ortan Liga txapela
aientzat zegona,
eta ori ez da broma
lasaituzeko gizona;
azkenen asko galdu ziteken
naiz izan ain ona.

8
Jokua zegon irutan,
bi aberatsak dirutan,
ta dirua're ona izan leike
olako itxillutan.
Egiña ainbat partidutan
gera ziteken pikutan;
jokua zegon oraingo txandak
zeuzkan minututan.

9
Baiña bigarren denborak
ekarri zituan golak;
igaz bezela bere golpea
gaur ere Zamorak.
Era onetako obrak
poztu euskaldun jatorrak;
urte askotan emaizkiguzu
orrelako lorak.


10
Jendek ikustean gola,
txalo ta jeupa ujola,
eskerrik asko Atotxa ermo
eginda dagola.
Ikurrin da paper-bola
danetatik dariola,
leku bat ez det nere denboran
nik ikusi ola.

11
Bigarrena etzan aparte,
amairu minutu tarte,
bere egillea txiki bizkorra
dan Lopez Ufarte.
Badu zazpi milla arte
artzen duenean parte;
ain onik ez det nik ezagutu
au asi bitarte.

12
Jartzean bi eta utsa
lasaitasun batek bultza,
baiña Atletik ere artean
etzegon amutsa.
Au're ez baida erreusa,
eta gol bat zuan luza;
ontan, bi ta bat, pake ederrean
bukatu zan gauza.

13
Berriro txuri-urdiñak
igazko azio berdiñak,
irabazita Liga ortan zeuden
saririk aundiñak.
Jarraitu izaten piñak,
bultzatu arte eziñak,
Euskadin berri jakin dezaten
erdi ta eskiñak.

14
Orra bigarren txapela,
ez da azio txepela,
aurtengoan ere irabazia
zuek igaz bezela.
Bai bikaiñak zeratela,
ezin liteke bestela,
osasun ona luzaro Jaunak
eman deizutela.



Segurako pelotaleku berria,
estraiñatu zan egunean,
1982-VI-20-an.

(1982)
Pelota-leku berria

Pelota-leku berria gai artuta jarri nituan bertso auek. Izan ere, garai artan gertuan nenbillen, nere ziñegotzi-lana zala bitarteko, Segurako erri ontan, eta aspaldiko ametsa egi biurtu zan.

Segura pelotari-erri aundia izan da beti; eta izenak ematen asiko banintz, sekulako zerrenda egingo nuke. Ez dakit Seguraren jende neurriko erri batean nun izango zan pelotari geiago. Ala ere, bat aitatu gabe ezin utziko det: Martin Alustiza, azken urte auetan aurreneko punta-puntan dabillen aurrelaria. Eta, ondo bada, urte batzuetan amaika txalo entzungo du. Alaxe izan dedilla, eta berriak ere sortu ditezela.

Beraz, pelota-leku estali au 1981-n asi eta 1982-ko ekainaren 20-an bukatu edo asita jarri zan, pelota eta beste gauza askotarako moduan. Gauza askotarako, bai. Erri txiki batean, beste edozein jaialdi ere egin bear bada, euria edo elurra edo aizea edo eguzkia dala eta komeriak izaten dira. Baiña orrelako estali bat egon ezkeru, babes aundia da. Au, nik esan gabe ere, danak badakite, batzuek aitortu nai ez badute ere.

Baiña Seguran, nik uste danok pozik gelditu giñala egin zanean, eta gaur ere ortxe dago nai duanarentzat, eta jarraitu dezala zutik.

Gaiñerako kontuak, batzuek beintzat, or daude bertsoetan.

¹
Milla bederatzireun eta
larogei ta bigarrena,
bertso batzuek moldatutzeko
esanaz daukat barrena,
adirazteko pelota-leku
berri baten aztarrena;
nolatan utzi ori egin gabe
nik al dedan azkarrena?

²
Segura ontan pelota-leku
estalia egin degu,
nai duan dana ibilli dedin
gau, egun, uda ta negu.
Beste edozein jaialdi ere
antolatu dezakegu,
denbora txarran bildurrik gabe
iragarrita sosegu.

3

Erri onetan premizkoa zan
 olakoxe barrutia,
 urte auetan laino gaiñean
 sarri baida eguzkia.
 Ta jaialdi bat antolatzean
 bada denbora bustia,
 une batetik bestera aixa
 ondatutzen du guztia.

4

Elur da euritikan gorde ta
 aizetik ondo babestu,
 gauean ere argiarekin
 edozertarako prestu.
 Pelotarako da bereziña
 saski, pala edo esku,
 afizioa daukan gazteak
 komenentzi txarra eztu.

5

Ekainaren ogeigarrena
 genduan gaurko eguna,
 leku eder au iriki edo
 asita jarri deguna.
 Berri-berria dago guztia,
 apaiña eta leguna,
 Segura oni aspaldin falta
 egiten zion laguna.

6

Baratze izena jarri diogu
 lur-saillak zun bezelaxe,
 eta Euskadiko lendakaria
 ere izan degu ementxe.
 Garaikoetxea jauna da bera,
 esan diguna bertantxe:
 erri on baten aunditasuna
 irixten dala olaxe.

7

Jende asko da Segura ontan
 pelotakin ibilli oi,
 orregatikan au egiteko
 bagendun milla arrazoi.
 Baiña benetan galestia da:
 berrogei ta amar milloi;
 nai ordurako etzaio eltzen
 ainbesteko diru-pilloi.

8

Ogei bat *kilo* gutxinez digu
 zorretan utzi erazi,
 naiz ordaintzeko Gillermok eta
 danok izan milla antsi.
 Ala ere aginduk eman zaizkio
 obra egin dun Imazi,
 Aurrezki Kutxai jiratzekotan
 errik biar edo etzi.

9

Olaxe poxik gelditu gera
 gu eta gure erria,
 nai danerako pronto jarririk
 pelota-leku berria.
 Edari-leku eta terraza
 danera presto jarria,
 ogei ta amazapi metro du
 berriz luzeko neurria.

10

Beraz, Segura ta segurarrak
 pozikan egon gaitezen,
 orain da gero pelotariak
 Euskadin izan ditezen;
 eta jarraitu bear zaintzeko
 baldintzak ondo betetzen,
 gure *Baratze*-n osotasuna
 joan ez dedin etetzen.

(1982)

Lazkao-Txikiri

Oraingo bertso auek ere aspalditxo egin nituan, Lazkao-Txikiri edo berari buruz.

Joxe Migel lagun aundia izan det ume-umetatik. Segurara ere asko etortzen zan len, ostiral santuetan ere bai urtero, azken urteetan ez da etortzen ainbeste baiña. Gau guztian berari bertso eta txiste entzuten egon izan gera. Amaika parre gozo egin ere bai.

Bertsotan, berriz, aparteko malezikoa. Etorria ere oso ona. Bertsolaria bat baldin bada, txiki au da. Orain, jakiña, urteak, len esana det eta, pilla aundi xamarra egin ezkeru, bertan gelditzen asten dira, eta jaso egin bear.

Gaur ere iñor markatzea gaizki dago, baiña argi, bali aundi-ko bertsoak erruz kantatzen ditu ta! Gutxiena uste dezun lekutik ziria sartu ere bai.

Ala ere, Goierrri au bertsolari-leku koxkorra zalako orduan-edo, urteak joan ziran aurreneko arrasto ortan Joxe Migel sartzetako. Baiña ez bertsotan egiten etzualako, orduan ere ondo moldatzen zan eta. 1962 urtean Beasaingo txapelketan asi ta gaur arte, zenbat plaza pasa eta bertso kantatu ote du?

Neri ere gaztetan kontsejuak ematen zizkidan, asko kantatzeko eta abar, naiko belarri txarrekoa nola nintzan. Baiña askotan dana geok dakigulakoan egoten gera, ta olaxe denbora joan akordatzerako. Izan ere, oso onak gutxi izaten dira, eta jardun gabe eta saiatu ezean iñor ez.

Baiña Joxe Migelek, nere iritzirako, berezko ikaragarria zuan, eta bearko gaiñera. Zenbat erdi ipurdiko bertsolari ezagutu ote du? Ala ere, berak onenen parekoa irten zuan, eta naiko gazterik, jende asko ezagutzera iritxi ez bazan ere urte aietan.

Orrelaxe da, bada, nere iritzia Joxe Migeli buruz, eta oraindik ere segi dezala urte on askoan.

1
Bertso kantari etxe aldean
lenengo aoa iriki,
lagunarekin gero asi nintzan
nunai poliki-poliki.
Onetan berriz bat izan nuan
aitatzeko bereziki:
oraindik ere sasoi onean
dabilen Lazkao-Txiki.

2
Neurri gabeko etorria zun
eta ermo malezian,
nun zer bear zan kantatuzeko
oso era berezian.
Laguntzailletan sartu liteke
jatorrenaren esian,
jarraituzeko poza emanaz
erori gabe etsian.

3
Bertso-lanean Lazkao-Txikiri
Insaustik zorra badio,
naiago nuan bere esanari
len kaso egin banio:
“Aspertu gabe kanta bear dek
nai badek goi-mailla io”.
Baiña orduan ez nun egin da
gaur penak ez du balio.

4
Lazkao-Txikin graduak ziran
arten bigarrenekoak,
naiz-ta bertsoak nunai kantatu
onenaren parekoak.
Izar argi bat zeukan gaiñean
Joxe Migelen lepoak,
ta bereala zituan deiak
Euskal Erri danekoak.

5
Gogoan daukat txapelketa bat
Beasainen nola zan egin,
udazkenean, milla beatzireun
eta irurogei ta bin.
Aixa irabazi zendun txapela
geldituaz erdi-erdin,
neri bigarren eman zidaten,
ez nun asarre aldegin.

6
Beste txapelketa bat egin zan
urte ortan bertan Eibarren,
an ere aixa gaintitu ziñan
berebiziko indarren.
Txapelketatan amaika gauza
xelebre gertatu arren,
geroztik ere onenan pare
etzera gelditu erren.

7
Saio artatik ondorenean
pasa dira ainbat urte,
eta danean zure bertsoak
grazi aparta badute.
Orregatikan gau eta egun
ugari deitzen dizute,
ala ere ez dakit eskeiñi zaizun
merezi aiña birtute.

8
Bertsoz aparte ugari dezu
ateraldi ta txistea,
zu zeran lekun aixa sortzen da
poztasunaren txispea.
Amaika aldiz iritxi zera
illun daudenak piztea;
al balitz, iñoiz ez nuke naiko
zure au ori ixtea.

9

Milla beatzireun laroe ta bian
ari naiz bertsoak jartzen,
berroe ta amaseigarren urtean
zu aurten zerade sartzen.
Baiña jarraitu gaiztoi barkatzen
eta onai ondo artzen,
bildurrik gabe, gizon jatorrik
sekula ez baida zartzen.

10

Parranda batzuk egiñak gaituk
i ta ni biok batean,
eta olaxe segi nai nitek
bizi geran bitartean.
Ezbairik ez dek sekula izan
oraindik gure artean,
aurrera ere bizi bear diau
maitasunaren tartean.



Beasaiñen, 1962-IX-30-an, bertso-txapelketa bukatutakoan, Lazkao-Txiki izan zan garaile. Ortxe ageri da kopa eskuetan duala. Ondokoa ni naiz, Insausti. Neri bigarrena eman zidaten. Izketan ari dana Antonio Arrue jauna da. Eskubi aldekoa, garai artan Beasaiñen alkate zegoan Telleria jauna. Eta bostgarrena Alfontso Irigoien. Bera ibilli oi zan txapelketetan gaiak jartzen.

(1983)

Mendizabal eta Mindegiaren aizkora-apustuari jarriak

Oraingoa sail luzea da. Alakoxe apustua ere zan 1983-ko ilbeltzaren 23-koa, Tolosan. Aurrena esan dezadan nere kirol gogokoen berri: aizkora, arri jasotzea, sega eta sokatira.

–Orrelakoxeak –norbaitek esango du– asto-lanak dituk.

Bai; lanetik etorri edo sortuak beintzat, eta lan auek ez dira gaur ere errezegiak. Baiña ni ere danean nago jardunda, eta gaur ere oraindik egiten det zerbait. Baiña amaika apustu ikusia naiz, auetakoak batik-bat: aizkora eta arri jasotzea. Amaika kontu entzun ere bai: tongo eta abar. Eta nun ez dira bein edo bein orrelakoak gertatu? Bat drogatu egin dala; bestea ez dakit zer...

Baiña arrigarrizko lanak ere egin dira, aizkora eta arri. Nik badakit marka oiek egiteko prestatu eta abildadea dutenak zenbat izaten diran, naiko ondo ezagutzen ditut eta. Adibidez, emen esaten dedan lan au egiteko. Neri, egia esan, bildur-ikara sartu zitzaidan Tolosako plazan, egur aiek, sei enbor eun da amar ontzakoak eta berrogei ta amabi kana erdikoak, ikusi nituanean, aiek aizkoraz ebaki bear zituztela pentsatzearekin, ondo baiño obeto badakidalako zer erreminta-klase dan aizkora, eta nola joaten dan egurraren barruan aurrera. Nik ez det, baiña onek artea edo aparteko gauza asko eskatzen ditu. Jakiña, aizkolariak ez dira arkitektoak; ez dezaidatela gaizki artu, mesedez. Baiña aizkolari on batek prestatze ikaragarria bear du. Orrezaz gaiñera, plaza-gizona. Eta buru eta begi, beso eta anka, danera abilla.

Alaxe ziran, beste apustu askotan bezela, bai Mendizabal eta bai Mindegia. Onek amar bat txapel baditu irabaziak, eta ikaragarria da au aizkolaria. Neretzat, nik ezagutu dedan onena. Mendizabal ere, egur aundi eta lan luzean, oso aparta; eta apustu ontan ere olaxe menderatu zuan Mindegia. Baiña lan bikaiña egin zuan, eta eramandako egur danak erdibitu zituan onek ere.

1
Milla beatzireun da
laroi ta iruko urten,
ilbeltzan ogei ta iru
igandez zan aurten.
Aizkol-joku aundi bat
izan naiz ikusten,
bere berri asi nai
nuke erakusten,
adieraziaz lanak
nola egin dituzten.

2
Sei illabete pasa
badirade ia
jakin zala joku au
egin zan berria.
Geroztikan artuta
zintzo lantegia,
garbi erakusteko
sasoian egia,
nola Mendizabal da
ala Mindegia.

3
Mendizabal Adunan
zan jaio ta azi,
naiz Naparroan orain
Leitza errian bizi.
Arri jasotzen ona
izan zan lenbizi,
arriak zion arte
kolpe bat erantsi,
ordun arrik utzita
aizkoran zan asi.

4
Mindegian berri're
garbi nai det esan:
Naparroko Ezkurran
jaio ta azi zan.
Naiz orain bizileku
Zubieta izan,
gazterik asia da
aizkora-bizitzan,
marka latzak egiñaz,
dakizuten gisan.

5
Ogeitamabost urten
Mendizabal dago,
ta Mindegiak berriz
dauzka bi gutxiago.
Kana enborretan
zarrena geiago,
kana erditan bestea
degu bizkorrago,
gaur bietatik ere
naikoa badago.

6
Urteberritako zan
joku au lenbizi,
naiz gero izendatu
ilbeltzan beatzi.
Baiña Mindegiak zun
bi aste atzerazi,
gaitz batek ziolako-
zerbait galerazi,
eta nola txantxetan
lan onetan asi?

7

Lana oraindik plazan
egin dan aundiña,
erdia're batera
ez da iñoiz egiña.
Eun da amar ontzakoak
bazituzten seiña,
kana erdikoak berriz
berroi ta amabiña,
pentsatze utsak ikara
zidan eragiña.

8

Egur aundiak ziran
Mendizabalenak,
lau ondraduak baiña
bi naiko zekenak.
Kana erdikoak berriz
Mindegiarenak,
egur itxurazkoak
ziraden geienak,
ala ere odoldu dira
aizkora-kirtenak.

9

Aukeratua zuten
Tolosako plaza,
eta deitu "mendeko
aizkol-joku latza".
Egiten ikustera
ain joku garratza,
bagiñan iru milla
lagunetik pasa,
bitan onena zein dan
eman nairik antza.

10

Mindegiak *león-castillo*
gaur du irabazi,
eta zein alde ebaki
laixter adirazi.
Eguardiko amaikak
diranen iritxi,
aizkolariak dira
plazaratzen asi,
erakuslearekin,
aizkora ta guzi.

11

Laguntzaille zituzten
biña gizon leial:
Arria ta Etxebestez
pronto Mendizabal.
Mindegiak anaia,
bestea Kristobal,
laurak ere ez dira
portatuak makal,
nola aize ematen ala
kentzen ainbat ezpal.

12

Ontan jokua asi zai
jarri gera estu,
aurrean ditugula
bi aizkolari prestu.
Alkarri eman diote
bear dan eran esku,
naiz bein baiño geiotan
kopeta ondo beztu;
ori egiten dunak
iñon lotsik eztu.

13

Mendizabal asi da
enbor aundietan,
da Mindegia berriz
kana erdikoetan.
Eta antxe jardun da
lenengo amarretan,
gero aundira igoaz
guztizko arretan;
erreumarik etzegen
aien gerrietan.

14

Baiña Mendizabalek
bigarren enborra
ordurako egiña
ebagi gogorra.
Enbor aundietan au
ain degu bizkorra,
baiña bestetan ere
etzegen koxkorra,
prestatutzen artuta
alako zigorra.

15

Mindegia're zailduta
zegoan serio,
lan auek egiteko
zer erremedio!
Baiña Mendizabalek
aurrea artu dio,
eta bere aldeko
dirua da io,
lan erditan kentzean
bi enbor ta geio.

16

Iritxi dan orduan
lanaren erdira,
txalo garrantzitsuak
millaka entzun dira.
Ta Mendizabal joan da
beste alderdira,
baita ere laixter io
an enbor aundira,
denbora galdu gabe
albora begira.

17

Mindegiari bukatzen
bere erdi lana,
bost minutu geiagon
denborea joana.
Besteak ordurako
golpe-pilla emana,
baiña oraindik bazegon
aizkoraz zer jana,
bi ordu pasakoa
bukatutzen dana.

18

Mindegia ere asi da
aunditan jo ta ke,
ta oraindik lan txarra
gaur eman lezake.
Baiña Mendizabalek
sasoi ona merke,
naiz-ta egiña egon
makiña bat neke,
bat ebaki orduko
bestearen eske.

19

Mindegiak aizkoran
badu zenbait bali,
oraindik bere joa
ez da asko itzali.
Kaso egiñaz anaiai
eta Kristobali,
daukan diferentzia
nai luke estali,
baiña ori egiten zail da
gaur Mendizabali.

20

Mendizabalek ditu
bukatuak aundik,
bentaja du beatzi
minuturen gaindik.
Ala ere lan asko
daukate oraindik,
era naturalean
oi ta sei kana erdik,
ez dago esaterik:
“Irabaziko dik”.

21

Mindegiak enbor aundik
buka ditu, baiña
txikitan ez du jotzen
beste askotan aiña.
Izan ere astuna da
gaurko lan tamaiña,
gogorrenari artzeko
modukoa gaiña,
berekin euki arren
sasoia bikaiña.

22

Biei nekeak die
bai zama erantsi,
pixka bat atsedenez
orain dira asi.
Jotzeko euki arren
makiña bat antsi,
nekek ez du barkatzen
ta ori zaie iritxi,
ala ere ez dute
oraindikan etsi.

23

Lau ordu ta geiagon
gaur alkarren aurka,
gogorrena ere jarri
da buru makurka.
Baiña Mendizabalek
alde aundia dauka,
lau kana erdi ta geio
bentajan badauzka,
ta ontantxe bukatu du
“mendeko burruka”.

24

Denbora lau ordu ta
amabi minutu,
beatzi segundo. geio
izateko juxtu.
Berroi ta emezortziak
ontan ditu moztu,
ta borondatez degu
geienok txalotu,
eta plazan bueltea
eman du kontentu

25

Izan ere ainbeste lan
ez da egin egundo,
ikusi da zeudela
prestatuta ondo.
Bestela nola egin
biak ain agudo?
Orrenbesteko lanak
alde au bear do:
amazazpi minutu,
oi ta sei segundo.

26

Apustu luzea zan
baiña ez motela,
jendea aspertuko zan
begira bestela.
Iñork ez du aldegin
uste zan bezela,
nik jarriko nieke
bieri txapela,
eta urte askoan
jantzi dezatela.

(1983)

Tejero eta lagunak

Oraingo bertso auek 1983-an jarri nituan. Bai; bi urte inguru Tejero eta lagunak, Espaiñiko goberno osoa bilduta zegoala, oietara beren pistola eta metralleta sartu ziranetik.

Ezer gutxi dakit nik gauza orren berri; eta gutxiago nekiala uste baiño ere pentsatu nuan, edo gaur pentsatzen det.

Aukeratutako agintari batzuk orrela kentzea, armak artu eta sartuta, len ainbeste odol ixuritako gerra oraindik bistan degula, orrelakoxe batzuk ziralako, eta ori beste kastigu gabe uztea arri-garri da.

Baiña, dana dala, bearbada orixe izango zan biderik egokiena, eta paso. Baiña esku gogorra bear danean biguna erabiltzen bada, eta biguna bear danean gogorra, badakigu zeiniek irabazten duan: gaiztoak; eta ortik jai dago. Gizona arrazoietara errenditzen ez dan bitartean, gaizki joango gera, nere ustez, erriak norbait zerbaitetarako aukeratzan duanean, da gero naiz milla aldetako kontuak esan. Tejero eta talde onek ere oker ikaragarria egin zuten. Inor etzuten il, eta ezer etzan pasa, eta askok diotena:

–Teatro preparatu bat izan dek ori.

Baiña argi! Jende orrek ere, ikusten danez, konfiantza gutxi du alkarrekin, eta gauza garbiegirik etzuten jakingo batzuek. Baiña amar bat probintzi aundi xamarrek altxa balira, lengoa berriz igual.

Aspaldiko esaera da, gizona munduan dan bitartean ez dala gerrarik faltako. Gerra sortzen duanari eta ortan saiatzen danari gizona deitzea ere aundia da. Baiña orrelaxe gera.

Beraz, nik ere bertso auek jartzeko gaia ortik artu nuan, bada; eta nai dituanak irakurri emen daude. amarreko txikian eginda.

1
Bi urte bete dira
nola edo ala,
Tejero Kongresoan
armaz sartu zala.
Guardia zibil ori
ez degu makala,
naiz-ta kartzelan egon
badauka itzala,
langosta janez dago
nai duan bezala.

2
Milla beatzireun da
larogei ta baten,
otsaillaren oi ta iru,
arratsalde parten,
Tejero ta lagunak
Kongresoan frenten,
eskun pistolarekin
autsi edo eten,
“*¡Aquí no pasa nada!*”
deika ao beten.

3
Teniente jeneral bat
ere egun ontan
Kongresoan bazegon
tankera ermotan:
presidenten urrengo
zana garai ortan,
Gutiérrez Mellado
garbi esatekotan,
gogorren jarri zana
Tejeroren kontran.

4
Argatik nai izan zun
lurrera eratxi,
baiña indarrez etzan
Tejero iritxi.
Nunbait jeneral zarra
zegon sasoiz bizi,
edo itxura utsez
zirkoa nai itxi,
geroztikan entzun da
ainbat kontu bitxi.

5
Batzuk teatro utsa
juzgatutzen dute,
ta gauza garbi gabe
joan dira bi urte.
Guri nai duten ura
esango digute,
baiña gizon oiek ni
ikaratzena naute,
arma luze ta motxak
eskun badituzte.

6
Baiña nunbait batzuntzat
zan pekatu gutxi,
eta kartzelan ere
bera da nagusi.
Orregatikan dago
morroi eta guzi,
zeiñek agintzen duan
dute erakutsi,
ta zuzentasun danak
bartzarrera utzi.

7

Emen agindutzen du
dana militarrek,
gaiñerako guztiak
gerade maiztarrak.
Orrelaxe ai dira
nazkatzen baztarrak,
nola baserrikoak
ala kaletarrak,
argatik ez dute nai
au gibraltardarrak.

8

Auei galdetu ezker
nai duten Espaiñi,
ezetza entzuten zaio
amaika mingaiñi.
Nunbait askoz naiago
dute Gran Bretaiñi,
berdin gertatzen zaigu
beste edozeiñi,
zoriona agindu ta
egurra eskeiñi.

9

Gu gera orren berri
ondo dakigunak,
geurea gendun ura
kendu zitzaigunak.
Geroztik urte-pillak
beraren zai junak,
iñoiz aitatzea're
ukatu zaigunak,
ta orain eskatu ta
biurtzen etzaigunak.

10

Orrelakoxe lanak
emen dabilzkigu,
ez dago esan bearrik,
obra da testigu.
Euskera're zapaltzen
saiatzen zaizkigu,
baiña gordetzen bada
orain zenbait kimu,
Europak zerbait geio
lagunduko al digu!



Segurako Lardizabal jauregia,
1983-an Udaletxe zerbitzurako eratuta.

(1983)

Segurako udaletxe berriari

Oraingo bertso auek Segurako udaletxe berriari egin nizkion, neroni ere, aurreko sail batean esaten dedan bezela, gertuan nenbillen garai ortan eta.

Segura, lenagoko arri silleriz egindako etxe edo obra bikaiñak dexente dituan erria da. Ez dakit onerako edo kalterako izango zituan. Or bizitako aberatsak erabat azpian maiztar jendea edukitakoak ere bazirala entzun izan det, eta baita sinistu ere nik ezagutu nituan aitona aiek esana. Baiña gaur luze joango litzake ixtori edo gertatu aiek esatea, eta esan dezadan asi naizenaren berri.

Segurak aiuntamentu oso zarra zeukan. Gaur bota ta osasun-etxea eginda dago bertan. Bada-ezbada, norberak kaso egitea onena osasunari. Baiña usterik gutxiena danean izaten da emen aberia; eta konpontzeko modua bada, pozik.

Beraz, aiuntamentu zarra berri bati oska zegoan, eta orretarako nai baiño obeto etorri zan Lardizabal familiak –oso aberatsak auek– Segurako erriari utzi zioten jauregia. Etxe oni begiratu, bere jardín eta guzi, zer izango ziran. Baiña irureun urte eta geiagoan jarraitu arren auen arrazakoak, azkeneko Erramun eta auek etzuten ondorengorik; eta asmorik txalogarriena izan zuten Segurako erriari uztea onelako jauregia. Nola Erramun, ala bere emazte markesa, Maria Barkaiztegi, nik biak ezagutu nituan, gaur Erramun illa da baiña. Pakean atsedeen dezala.

Gaurko aiuntamentu au, beraz, onelaxe eskuratu zan, eta Lardizabal izeneko kalean dago, nai duanak ikusi. Jakiña, dexente berritu bear izan zan barrutik, eta arku-ate bikain bat ere jardín aldera atera zitzaion, garai ontan lan oien ardura zuten gizonen iritziz bearrezkoa zan eta.

Ala, nik ere bertso auek Iparragirrereren doiñuan jarri nituan.

1
Milla beatzireun larogei ta iru
eta apirillak amar,
gure udaletxe berri onentzat
bertsoz egin nai det marmar.
Gaur da bedeinkatua
olako ostatua,
ta dago dotore xamar;
onek ez dauka lengoak aiña
koska, pipi eta txamar.

2
Gure udaletxe zarra izan ere
zegon berri bati oska,
ainbeste urte bazituan da
gaitz askok egiña ozka.
Ta erosten berria,
edertzeko erria,
etzaigu batere kostatuta,
naiz ondo jartzen gastatu bear
gutzizko milloi-mordoska.

3
Irureun urte ontan egiña
omen dago jauregi au,
ta orren oso gaur egoteak
pixka bat arritutzen nau.
Nola dagon ain bapoa,
dana barru ta kanpo,
ez da bateretxo ondau,
bere bizkarren eduki arren
orrenbeste egun da gau.

4
Garai aietan ere obra onak
diruak eragin nunbait,
eta arrezkero guztia zaintzen
beti izango zan norbait.
Berrogei urte ontan
jardun zaiguna ortan
eten gabe iruditzen zait,
Euxebio Imaz izan da bera
beti txukundutzen zerbait.

5
Lardizabaltar Erramun jauna
zun azken agintaria,
Zabalosos-ko markesa zuna
bere emazte Maria.
Oraindikan bizi da,
baiña senarra il da,
borondatez ugaria;
argatik degu guk udaletxe
Lardizabal jauregia.

6
Senar-emazte bien gogoaz
gu zorionak igurtzi,
jauregi eder au nola dioten
Segurari betiko utzi.
Mardula ta apaiña,
danetara bikaiña,
bere jardin eta guzi;
egiz segurar geradenontzat
ez da iritxi poz gutxi.

7
Ate eder bat bere izeneko
kalera zeukan lenago,
jardin aldera orain berria
badu beste bat geiago.
Estalpe ta arkukin,
gero jardiña txukin,
da *pérgola* alderago;
Paradisoa ote dan ere
pentsatzen egonda nago.

8
Udaletxea eder, bikaiña,
lekuakin danerako,
idazkaritza edo billera
ta erakuste lanerako.
Jaun oieri eskerrak
orra gauza ederrak
bear ditugunerako;
gure Jainkoak gorde dezala
Seguraren onerako.

(1984)

Gure erritar Martin Alustizak bigarren maillako txapela pelotan irabazi zuanean jarriak

1

Bertso berri batzuek
jarri al banitza,
adiraziaz nor dan
Martin Alustiza.
Segurarra osorik
da bere bizitza,
pelotan dadukana
milla nagusitza.

2

Ondo nabarmendu zan
ume-umetatik,
alde izugarria
zula bestetatik.
Nola lau irabazten
zitun bostetatik,
lengon berriro atera
gaitu kezketatik.

3

Donostiko *Anoeta*
pelota-lekuan,
bigarrenko maillako
txapela jokuan;
ta laister erori da
Martíñen eskuan,
batere ibilli gabe
tankera estuan

4

Milla beatzireun da
larogei ta lauan,
maiatzan laugarrenak
illundu zun gauan,
ikusi egin bear zan
gure Martin au an;
adierazteko itzik
ez da nere auan.

5

Kontrario gogorra
naiz-eta garaitu,
asko nekatu gabe
zenduan amaitu.
Aurrera ere zintzo
olaxe jarraitu,
eta jendeak pozik
txalotuko zaitu.



Omenaldi bat egin zigun Segurako Txirrindulari-Elkartek 1998-an Pedro Etxezarreta eta neri, bertso-jaialdi batekin batera. Orregatik dago emen bertsolari-taldea gurekin. Erloju bikain bana eman zigun gure alkatesa dan Karmen Etxeberriak erri danaren izenean. *Elorri* kultur-elkartekoak ere oso sari berezia. Milla esker danai biotz-biotzez.

(1984)

Nere loditasunari

Oraingo bertso auk nere buruari edo nere loditasunari buruz moldatu nituan. Izan ere, ez dakit, bada, aizkora-apusturen bat edo zerbait bazan, eta bi edo iru lagun aspaldian ikusi gabeak, eta danak:

–Zenbat gizendu bear dek?

Badakizute itz auk, konfiantza dagoan lekuan, urrena zer izketa duten:

–Beste lan orri utzita egongo aiz!

Besteak:

–Golperik ez dek joko!

–Egun guztia jaten pasatuko dek!

Eta olaxe. Nik ere erantzun egin bear, tenplean nagoanean, bi aldiz esaterako gaiñera. Aurrenekoari:

–Aizak: ez badakik ere, zezen onak itxurakoak eta gizenak egoten dituk nere denboran.

Urrengoari:

–Baiña danentzako lanik ba al dago, bada, orain jendearen erdia paroan dago ta?

Eta irugarrenari:

–Gizonak, sano badago eta kontzientzia garbi badauka, normal janda ere gizendu bear dik.

Eta orrelaxe. Baiña beste oso melar dagoan batek ere esan zidan, eta serio gaiñera, berak telefonoko arian dijöan itzak baiño buelo gutxiago dauka baiña, eta eltzen zailla. Bestela, aizeak eramango luke sorgin-txulora.

Baiña olaxe dira gauzak, eta nik badakit ogei bat kilo gutxiago bear nituzkela. Ala ere, zerbait kaso egin arren, beti lodi. Soldaduskan iritxi nintzan larogei ta amairu kilora. Gero, larogei ta zortzira jetxi nintzan. Baiña azkeneko ogei urte auetan eundik

gora, eta dexente gaiñera. Gaztetan buelo gutxiagoan egoten da pixua. Baiña zartzera neurriak ere, gauza batzuenak beintzat, azi egiten dira.

Gizentzeari buruz amaika gauza esaten da; eta bat, jan gabe ez dala gizentzen; janda flako egon bai. Baiña au ere asko berezkoan dago. Lasai fama eta milla kontu izaten dira. Nik nerea dakit. Naiago nuke lasaiagoa banintz, amaika flakoagoak lasaiak badira eta.

Emen bertsoetan aitatzten dedan gizona, izenik ez det esango; baiña larogei ta amar urtera iritxi zan, eta eun kiloren gaindik ibiltzen zan. Pakean atsedeen dezala. Ala ere, danok dakigu geienak neurri bateko loditasunarekin obeto bizitzen dirala. Neretzat ere, larogei ta bost kilo izango lirake politak, sano egonda, ez gaixoz bajatuta. Orrelaxe kontuak. Gaiñerakoak bertsoetan daude.

1
Milla beatzireun larogei ta lau,
azaroaren zortzia,
kantatutzeko esanaz daukat
barrendik bertso-ontzia.
Gizen nagola entzuten daukat
belarri-miña josia,
argatik ez det jateko ere
lenago aiña poz ia,
utsa litzake jango bagendu
bestenakin eresia.

2
Orain artean besteren kontu
neronek ez det asko jan,
eta aurrera ere ez dakit
sari asko izango dan.
Ematearen partez kentzea
dago sekulako modan,
era onetan ondo bizitzen
gizonak badu naiko lan,
izardi atera faltan ez nago
naiz pasa beatzi arroban.

3
Gizon lodiak beti du berriz
alper xamarraren fama,
beste bat baldin balitz bezela
ura mantentzen dun ama.
Gaiñera jaso bear derrior
ainbeste kiloren zama,
alare ezin iñola ere
zerbait arindutzen asma,
baiña argalak guk aiña mokau
sarri aora darama.

4
Esaera zar bat ere badago
lagunduz argal diranai:
jan gabe ez dala iñor gizentzen
da janda plako egon bai.
Danetakoak gera munduan
naiz eta izan bi anai,
orregatikan obe izango da
segi jan eta edanai,
parre egiñaz besten etxean
geiegi sartutzen danai.

5
Eriotza ere gertugo dula
bizi danak lodituta,
aspaldi ontan ni zenbat aldiz
ote nago adituta?
Ta ori dana gezurra danik
ez nago irudituta,
baiña ezta're danontzat berdin
dalakoan geldituta,
gure erriko gizon zarrenak
eun bat kilo baditu ta.

6
Gizon au dago laroe ta zazpi
urteak aurten egiña,
lana egin da ogia jaten
aspaldi xamar ekiña.
Bide berea zuan amaika
bada aurrez aldegiña,
sari uste gabe bukatzen baida
bizitzaren etekiña,
emen irauten plako ta lodi
naiz saiatu alegiña.

7
Gerra ondoa ezagutu nun,
bazun naiko gose zigor,
zuri edo beltz naiz gorputzari
jana eman bear derrigor.
Baiña orduan ere baziran
bakar batzuek lodi or,
naiz izardia gogor atera
eta iñori gutxi zor;
beraz ez dago lodi egon arren
alper juzgatzerik iñor.

8
Danetakoak gera munduan,
ondo badakigu ori,
zenbaiti dana eransten zaio
eta oietan nago ni.
Beste batzuek argalak berriz
naiz jan guk bezelako bi,
ardoa ere dexente edan
irintsiz nai aiña ogi,
gu berriz beti kaso egiten
eta beti naiko lodi.

9
Lasaitasuna juzgatzen dute
batzuek onen abea,
balitz bezela udaberrian
loran dagoan babea.
Baiña gizena ez pentsa danik
urduritasun gabea,
norberak emen ezagutzen du
ondo bere labea,
bai sufritu're amaika aldiz
naiz euki lasai-famea.

10
Zenbait argali guri ainbeste
patxara ikusten zaio,
naiz lan igesi askotan egin
amaika korrika-saio,
eta gauz ona dagon garaian
edozeiñen parera io.
Orrelakoa ondo izateko
nik beti juzka det iaio,
ez daukanari kenduko dionik
oraindik ez baida jaio.

11

Asko oi dira zor galantakin
patxara ederrean bizi,
jan eta edan ondo eginda
lanari ateak itxi.

Gaiñera pronto parre egiteko
arrazoizko zenbait itzi,
alare ez diet askori beintzat
mardul daudenik iritzi,
zimentu gabe ezin baileike
torre aundira iritxi.

12

Alper xamarrik ariko naiz ni
ta bearco det amaitu,
asko gera ta ainbeste iritzi
ezin baileizke anaitu,
Ta lengo eran bearco degu
gizen da plako jarraitu,
al dan gutxiña tristetu eta
al dan guztian alaitu,
ta azkenean geure istoriak
zuzen juzgatuko gaitu.

(1985)

Oiz mendian eroritako abioiari

Bertso auek 1985-eko otsaillaren 19-an, Bizkaiko Oiz mendian, erori zan aideplano bati buruz jarri nituan. Madrildik Bilbaoko Sondikako aireportura zetorren, len esan dedan goiz ortan, abioi au. Amaika etorriko ziran lenago ere, eta geroztik ere berdin, joan-etorri aundia dago gaur aidean eta.

Joan dan udaberrian Palma de Mallorca-n izan giñan egun batzuk pasatzen andrea eta biok, eta ango abioien jetxi eta altxatu bearrarekin ikaratu nintzan ni, eta geiago ere bai. Auxe pentsatu nuan: “Bakar batzuk erori egiten dirala? Ez dek arritzekoa. Baiña orko okerra bertan dijoazen gutxik kontatuko dute”.

An esaten dituzte aberi eta olakoetan zer egin . Baiña nik auxe pentsatu izan det: abioia lurrera jetxi eta gero ere, lareun bat lagun; eta oiek lurrera jeixterako minutu-mordoa joaten dala; eta an aidean, nere modukoak traste oiek jantzi eta salto egiterako, oiek dijoazen abiadarekin, jai egongo dala. Eta azpian itxaso badago? Ala ere, askotan bere parean joan bear izaten da.

Baiña alaxe ibiltzen gera; eta orrelaxe zetozen, *Alhambra de Granada* izeneko abioian, eun da berrogei ta zortzi pertsona auek, *Boeing 727* batean. Eta, au dalako edo ori zalako, danak txikituta gelditu ziran. Geroztik amaika kontu esan da, atentatu edo naita egindako lana ote zan ere. Baiña gauza garbirik ez da jakin. Ots auek batik-bat aterako ziran, eta bearbada alaxe izango zan. Emen zetorren Francoren garaian ministro famatua izandako López Bravo, eta lau gorputz arrasto gabe desegindu ziranetako bat auxe zan edo onena zan.

Orrelaxe, ortikan ere orrelakoxe abisoak etorriko dira; eta ibilli bearra daukanak, edo nora-ara joan nai duanak, arriskatu egin bear. Baiña, an goian dijoanean, gogoratzen da ori amaika bider. Beraz, emen ditu irakurleak Oiz mendian eroritako abioiari buruz egindako bertsoak.

1
Milla beatzireun da
larogei ta bosta,
otsaillan emeretziz
bada zer konta,
naiz bertso-adorea
izan ozta-ozta,
Bizkai aldetik berri
illunak datoz ta:
Oizko antena jota
abioia lur kontra,
puskak aiden bota,
ainbat bizi kostea,
eun da berroea ta zortzin
otsa dago ta.

2
Otsa dagola diot
eta ez arritu,
bat osorikan nola
etzan arkitu.
Izan ere ainbeste
ziraden txikitu,
eta berreun metroan
pusketak partitu.
Bat leike kupitu,
baita errukitu:
naiz ilda gelditu
danak ezin bitu;
amaika negar-malko
atera ditu.

3
Abioi onek irtera
Madrildik Bilbora,
beatzik laurden gutxian
zeukan denbora.
Naiz abiatu sei bat
minutu geigora,
sano iritxia zan
Oiz mendi albora,
ez bear bezin gora,
baizik beragora,
joateko ondora,
eriotz-girora;
goiz ontaz zer esana
bada gerora.

4
Oiz mendian zegoan
antena aundiña,
Euskal Telebistantzat
jator egiña,
argitasun guzikin,
mapa eta seiña.
Pilotoa ere zan
au ondo zekiña.
Baiña etekiña
ez da atsegiña,
baizikan samiña,
ainbesteko miña;
ta nor da zer gerta dan
garbi dakiña?

5

Kontu garbirik ezin
iñola atera,
danak il da txikitu
ziran batera.
Etziraden iritxi
itzik esatera,
ez Sondikara eta
ez kaja beltzera.
Ta danen galera,
uste duten era,
zeturrela bera,
lau milla oiñera;
gero joan antena
aundin gaiñera.

6

Au jo eta erori
zan Ulemendira,
sartuaz an indartsu
zan piñudira.
Artean berreun metro
beraren segira,
ogei ta amarrean
ebakiaz jira;
naiko urrutira,
gero danak tira,
ordun erretira
erreka txikira,
Iru-erreka deitzen
zaion tokira.

7

Gero gorputzak biltzen
laister zioten ekin,
ikara ematen zuten
puska aiekin,
poltsan sartu ta utziaz
alboko belardin,
an zegon Muñoguren
deitzen dan baserrin.
Zazpireun gizon fin,
piñu gain da azpin,
au zutenak egin,
arten leku premin,
jende ezagutzea
ondo egin zedin.

8

Jende ezagutzea
egin zan aparten,
Garellano deitzen dan
estalpe baten.
Elikopteron ziran
aruntz eramaten;
egunak pasa ziran
ikasien arten.
Tankera ematen
lana bazeukaten,
zein nor zan esaten,
ainbat puskan tarten;
argatik izan zuan
ainbat luzapen.

9

Naiz puskak alkartutzen
galanki saiatu,
lauren gorputzik ezin
iñun billatu.

Mendian ere zuten
ondo begiratu,
ikusten zanik etzan
an ezer geratu.
Nunbait da gertatu
erabat xeatu,
edo suak artu
eta izkutatu;
orra bizi ta gorputz
azkar gastatu.

10

Alhambra de Granada
abioian izena,
Iberia alkartean
morroi zuzena.
Sei urten ordu-pilla
egan berarena,
amairu millatikan
gaiñera irtena.
Izan du kemena
egazti batena;
azkenean pena
jorikan antena;
betiko gelditu da
oso etena.

11

Klasea ere etzan
asia igazti,
ogei urtetik gora
lanan damazki:
Boeing zazpireun da
ogei eta zazpi,
olakok omen daude
bi milla egazti.
Famaz gain da azpi,
bazan naiko azti,
naiz bukatu gaizki
ta malkok dakarzki,
bustitzeko adiña
iru-lau zapi.

12

Ezbearrik aundiña
abionez Euskadin
gerraz kanpo jotzen da
oraingo aldin.
Naiz aurrerapen latzak
eduki guardin,
mundun zear ugari
galtzen da aspaldin.
Beti arrisku aundin
bat aidezko gurdin,
ez da beko berdin,
naiz-ta joan erdin;
da gauz triste auekin
ixildu nadin.

(1985)

Pernando Amezketarra saria

Oraingo bertso auek 1985-eko ekainaren 23-an gauean mol-
datu nituan, izan ere alakoxe tenplea neukan eta. Oso gutxitan
zinta martxan jarri ta grabatuz jarri izan ditut nik bertsoak. Baiña
auek aundi-aurkia orrelaxe zuten, gero alegiña txukundu bani-
tuan ere. Ala ta guztiz ere, naiko lan izaten da batzuetan, ondo
ari dalakoan, batetik ikutu eta bestetik kendu.

Emen, Goierrian, len deabrua, etsaia, inpernua eta orrelako
bildurgarriak umeari askotan esaten zitzaizkion, orain ez diot
iñori entzuten baiña. Eta bazan istori txiki bat.

Deabruak oso ume itxusia omen zeukan, eta or asi da bate-
an sudurretik pixka bat kendu, bestean okotzetik eta orrela,
kendu eta kendu; eta azkenean batere gabe gelditu omen zan.

Bertsoak ere badu ori: rimaz konpondu eta ateraldi edo arra-
zoiz mozteko arrixkua. Orregatik, zuzen-zuzenean askotan
naiko bertso mamitsuak irtetzen dute, nere ustez. Beraz, asi
nadin bertso auen zergaitia edo arrazoia esaten.

Lenago ere badet esana, bai izketalditxoan eta bai bertsoe-
tan, ni ogei ta amaika urte inguruan nola ixildu nintzan bertsoe-
tatik, eta urte-sail gogorra pasa nuan ixilik, edo tabernan baka-
rrik eta oso gutxitan jardunaz.

Baiña 1979-tik aurrera Pedro Etxezarretarekin, eta Jesus
Mari Imazekin ere bai, berriro asi nintzan saioak egiten. Plazan
ere Pedro ta biok emen, erri inguruan, jarduten giñan.

Ontan, 1985-ean, or jartzen du Euskal Irratiak edo ango
arduradunak, *Pernando Amezketarra* izenarekin, bertso-txapel-
keta edo norgeiagoka. Eta norentzat? Gure parekoentzat zan bal-
dintza bat. Alegia, len zerbait ibilli eta orain ixilik edo alatsu
zeudenak bear zuten, eta gazteak ere bai.

Naiko bertsolari onak izenpetu ziran. Baiña iruko taldea
bear zuan erritik edo gertutik, eta ori zan traba gogorra, bat ona

izan arren, beste biak ere berena egin ezean, edo eginda ere. Pentsatu: ogei ta bat erritak ziran ordezkoak, eta erreza da irutatik batek baju-aldia edo berezko gutxixego izatea. Arrixku au, jakiña, danok izaten degu. Baiña, aurrenean edo atzenean, onak ziranak edo diranak berena azaldu zuten.

Orain esan dezadan gu zein joan giñan, eta nola osatu genduan gure taldea. Aurrena, Etxezarretari esan nion. Onek ogei ta amabost urte zeuzkan; sasoi bikaiña. Gaur ere alaxe dauka eta urte on askotan izan dezala. Etxezarreta eta biok konforme jarri giñan izenpetzeko. Baiña komeriak: irugarrena bear eta zein artu gure irugarren ori?

Ala, Idiazabalgo Florentino Goibururekin oroitu giñan. Au nerekin amaika saio egiña zegoan lenago ere. Ni soldadu joaterako ere ez gutxi. Banekian naiko bertsolari ona dala, abotsa ere goxoa eta rima ere zuzena, bere ateraldi ederrak txukun moldatuaz. Joan nintzan bere etxera, eta esan nion bertso batzuk kantatzeko aukera polita bazegoala Euskal Irratiko txapelketan; eta, irabazi ezker, lareun milla pezetako saria –ontara irixten zan irukotearentzat–, eta probatu gabe etzala jakiten.

Goiburuk segituan eman zidan baiezkkoa, eta emateko moduan zegoan. Zaldibi aldera sarri edo dexente joan eta bertso-tan asko jardunda zegoan, nere ustez. Gure moduko bertsolaria-ri tankera azkar ematen zaio ta, eta onenari ere bai, bertso-tan gutxi jarduten bada, moteldu egiten da eta.

Zaldibin bertsolari-sailla biltzen ziran orduan: Patxi Iraola eta abar; eta geroago ere jarraitzen dute *Goierriko bertsolarien taldea* izenarekin. Ez noa besteren izenik ematera, bakarren bat esan gabe igual utziko nuke ta. Baiña talde dexentea dira, eta omenaldietan eta abar or azaltzen dira taldean, danak ez badira ere, geienak; eta bapo kantatzen dute. Segi dezatela urte askoan.

Beraz, Goiburuk baiezkkoa eman eta ala asi giñan *Txoritegi* alkartean entrenatzen, eta nik Goiburu lenago baiño askoz bertsolari ohea billatu nuan. Onekin ez det esan nai len txarra zanik. Baiña orain errezago kantatzen zuala bai. Eta gero, gurekin-edo entrenatuta, igo egin zan, nere ustez; eta norgeiagoka aundia egin zuan; oso aundia.

Ala ere, Etxezarreta izango zan gorakorik aundiena egin zuana, benetan artu ere egin zuan eta. Ain gutxi kantatuta zego-

an bat izateko, edozeiñen mailla ematen zuala jarri zan. Bost lekutan kantatu genduan, eta bostetan garaile atera giñan, eta or ez dago egokiera bein izan duala eta olako konturik. Amaika aldiz pentsatuko zuan, eta entzun ere iñoiz egin omen zuan, galzen bagenduan berarengatik galduko genduala; eta orduan ala esan zuan berekiko: “Galdu ezkerro, nere failloa; eta, irabazi ezkerro, besteen balioa”. Baiña ez; edozeiñen pare egin zuan bertotan, eta saiotik saiora gora egiñaz.

Nik, berriz, berdin xamar egingo nuan saio guzietan, gorako aundirik ere ez eta. Nere iritziz, lenagoko parera ezin iritxita gelditu nintzan. Baiña puntuetako saioan, lan au beti det gogokoa eta naiko ondo jardun nintzan, nik esatea ez dago ondo baiña.

Sariketa ontan lanik zailena ortxe zegoan, nere ustez. Zer-gaitik? Taldeko irurok alkarren aurka egin bearra zegoalako, bakoitzak bere gaia defendituaz eta al zuan ziririk aundienak sartuaz. Baiña, aldi berean, taldeko lagunari ere al zan biderik errezena utziaz; ez puntu zaila jarri eta azkenerako egoki dato-rren puntua arrapatuaz eta abar.

Au pixka bat bertotan jardun danak badaki, eta gure jokuan oso garrantzitsua zan, sariketa ontan alegia. Gaiñontzean, etxe-ko teillatura arrika ari ziñan. Laguna autsi edo menderatu ezke-ro, nola taldearen puntuazioak balio zuan, jai zegoan. Ala ere, naiko lanak izan genituan ainbestean jarraitzen.

Beste bat ere, norbait gaixotzen bagiñan, bagendukan orde-zkoa izendatuta: Joxe Mari Etxaluze. Au zeraindarra da, orain Idiazabalen bizi bada ere. Erri auek oso txikiak dira eta oso gertu daude. Au esaten det, sariketa ontako baldintza bat ola zalako; iru bertsolariak erri batekoak edo oso gertukoak bear zuten izan.

Beraz, Etxaluze ere entrenatu oi zan gurekin, eta naiko ondo moldatzen zala jarri zan au ere. Lenago ere bertotan pixka bat ibillia da, eta jartzen orain ere gogor jarduten da. San Inaziotan Urbian ere urtero alkarrekin kantatzen degu. Gizon zuzena da Joxe Mari, nere ustez. Zurrutari ere nik baiño obeto neurria artzen diona, eta orrelaxe kontuak. Baiña ez genduan orde-zko bearrik izan bost illabeteko norgeiagoka ontan. Asitako irurok bukatu genduan.

Entrenatzaille, berriz, asko genituan: Xeperiño Agirre, nere anai Iñaxio, Agerre, Patxi Zabale eta Erramon Kortaberrikoa,

auk Seguratik; eta Idiazabaldik Azurmendi ere etortzen zan iñoiz. Au oso ezaguna da emen, Goierrin, eta bertotan ere len poliki egin oi zuan. Badakizki bertsoaren trikitrakuak, ez dira errezak baiña; eta onelaxe egin genduan gure txapelketa.

Lenengo ekiña guri Asteasun tokatu zitzaigun, angoen aurka, otsaillaren 23-an. Oso eguraldi otza egokitu zan, berriz ere Santiagotan baiño otzago izaten jarraituko du eta. Ala ere, saio polita irten zan. Aiek ere ondo moldatu ziran. Baiña onena, puntuetakoa, guk kantatu genduan.

Egun ontan ziran lau urte Tejerok eta lagunak golpea Madrilgo Kongresoan jo zutela, Tejero pistola eskuan zuala, eta besteak ere ondo armatuta. Ontaz len ere baditut bertsoak jarrita liburu ontan.

Asteasuk adar-jotzaille fama badu lenago ere; eta gure gai-jartzailleak, bai Joxerrak eta bai Pellok ere, naiz angoak ez izan, kutsatu ziran nunbait, eta or jarri gaituzte ni Tejero, Etxezarreta Carrillo eta Goiburu Fraga. Ni asten, Tejero, eta nola kantatu genduan bestela ez nuan jakingo, baiña askotan eman du puntuetako saio au Euskal Irratiak eta ia dana ikasia det aurrenekoa. Besteak ere jarriko ditut, eskuratzen baditut. Baiña onela asi nintzan:

Tejero emen dator
pistola ta guzi.

Etxezarretak:

Eta gu zure ondoan
gaude gaur itxusi.

Goiburuk:

Gizon au orain arte
nik ez det ikusi.

Eta nik:

Iltzen e badakit eta
berriketa gutxi.

Bigarren saioa Bizkaiko Igorretan genduan. Au Durangoren alboan dago. Geroztik ere izan gera an bertotan. Igorreta ontan, emakume batek eta bi gizonexkok kantatu zuten gure aurka.

Orrelakoxe irukoa zeuden, eta ori baiño aundiagoa. Kristina Mardaraz zan emakume au; eta gizonezko oietako bat, bere gizona, Justo. Etziran askotan ezkonduko senar-emazte bertsolariak, baiña auek alaxe dira; eta, ni oso oker ez banago, pertsona jatorrak dira auek. Baita auekin zan irugarrena ere: Areitio. Eta emengoak, Segurakoak alegia, gu irurok. Neri Kristiñaren abotsak sekulako grazia egin zidan. Ain garbi eta goxo kantatzen zuan, izan ere. Baiña guri eman ziguten emen ere aurrerako baimena.

Ala, urrengo saioa geure errian egin genduan, Errezilgo irukoaren aurka. Sekula baiño gai obeak tokatu zitzaizkidan neri, baiña ez nuan oso egun bikaiña. Oraindik ere gogoratzen naiz. Baiña besteak ondo moldatu ziran, eta guri eman ziguten.

Ontan, Zarautzen genduan urrengo saioa. Emengo irukoa naiko ondo zetorren guregana, eta otsak ere alaxe ziran: azken saioa bezela izango zala, alegia. Bertsolariak ere onak ziran, eta dira. Pentsatu bestela: Egaña, urte artan bertan, txapelketa nagusian azken saiora iritxi zan, eta bertsolari aundi-aundia da. Beste, Otamendi. Au ere mailla aundiko bertsolaria da, eta oso goian gelditu zan urte ontako txapelketa nagusirako saioetan. Eta irugarrena Jauregi zuten. Au urduri xamar jardun zan, beti ez dira egun berdiñak eta. Emen, berriz, len ere esan det eta iruren puntuak balio zuten.

Gu, berriz, Orion apalduta joan giñan. Illuntzean zan Zarauzko saio au, eta oso temple onean, muturra dexente bustita, ni beintzat; eta txapelketa guziko saiorik onena egingo nuan, Asteasun ere oso pozik jardun nintzan baiña. Gaiak naiko xelebreak banituan ere, bakarkako gaia, iru bertsoetarako, arratoia. Onelaxe esan zidaten:

–Insaustirentzat, iru bertso kantatzeko gaia: gure ibaietako aingira, eskalu, amorrai eta abarrak, danak edo geienak ezkutu dira. Baiña bada oraindik zerbait bizirik dabillena gure ibaie-tan, eta bera arratoia da. Ea zer diozun iru bertsoetan.

Onela kantatu nuan:

Gure ibaiaren etorkizuna
dago geiena eroia,
ainbeste izanik lehia edo
industri askon pozoia.

Baiña oraindik or ikusten det
argi asko arratoia,
naiago nuke baldin baneuka
neronek oien sasoia.

Amaika bider egon izan naiz
arratoiari begira,
gau eta egun zuzen dijoaz
jana dagoan tokira.
Parienteak izanagatik
aixa familia tira,
elbarririkan ez det ikusten,
guztiak sanoak dira.

Gau eta egun kalte egiteko
ortxe dabiltz borondatez,
nere iritziz oriek daude
mundun gizadian kaltez.
O, Jaungoikoa, pertsonarekin
pixka bat oroitu zaitetz,
ta oien osasuna emaiguzu
minbizi txar orren partez.

Puntuetan, berriz, lorittoa jarri zidaten, eta danean al dana egin bear. Besteak ere ondo, eta ala ere gauza naiko juxtu izan bear zuan.

Len ez det esan, baiña gure juezak sei bertsolari ziran, geienak naiko goi-maillakoak ordurako. Sebastian Lizaso andik laixter iritxi zan txapeldun izatera. Imanol Lazkano ere oso ona da. Besteak ere, berriz, azkeneko txapelketan, eta aurrekoan ere, azken saiora iritxiak. Telleria egongo da iritxi gabe, baiña utsarengatik. Izan ere, zortzi bakarrik kabitzen dira or, eta gainerakoak beeraxeago gelditu bear. Ala, gure juezak auetxek ziran: Lazkano, Sebastian Lizaso, Murua, Peñagarikano, Mendizabal, eta Telleria. Zarauzko saio ontan bertso bakoitzaren puntuazioa entzuleen aurrean azalduaz egin zuten, guk ez genduan ikusten baiña.

Orrelaxe egin genduan gure saioa, eta guretzat izan zan, gutxiarengatik baiña, azkena jokatzeko txartela, Tolosan, ekainaren 23-an, San Juan bezperan, urte ortan igandez egokitu zan da.

Emengo aurkariak Zestoako taldea genduan, ango irabazleak, eta *Beotibar* frontoian egin genduan goiz partetik. Bazan makiña bat entzule eta txalo eta ixkamilla.

Alegiñak egin genituan danok ere, eta guri eman ziguten lareun milla pezetako sari nagusia, eta pozik giñan. Beste erre-galo batzuk ere bai Zestoa, Tolosa eta Seguratik, lauki edo oroi-garriak. Ala ere, zerbaiten faltan gelditu giñan, txapelik etzigu-ten eman da, erosteko ere azkena eginda aiñean gelditu giñan baiña.

Guk saio guztietara koñak botilla eramaten genduan, zilla-rrerzko paperez bilduta, saiokoan edateko. Oso famoso egin zan ura. Drogaren bat ote zan pentsatzen zuten entzuleen artean. Kantatzen zutenetan ez, ordea, nai zuten danai ematen genien eta. Beraz, bertsolariak, naiz alkarren kontra jardun, edaten zuten, eta bazekiten koñaka zala.

Drogaz gain, azken egunean, ain gizon eskuzabal eta ona dan Juanjo Garmendiak ardo bereziak eman zizkigun, zuri eta beltz, tajuz kantatzeko. Baita jarri ere umoretsu eta zintzo, naiz eguerdia izan. Eskerrik asko, beraz, eta jarraitu olaxe luzaro.

Orrelaxe, irureun bat lagunek beeko peri-plazan bazkaldu genduan, eta bertso batzuk kantatu eta Segurara. Emen jakin genduan nola altxafuego eta kanpai bueltako zelebratu zuten eguerdian, guk irabazi genduan. Guri ere sekulako arrera egin ziguten arratsaldean, etorri giñanean.

Dantza-txapelketa ikusten izugarrizko jendetza zegoan. *Ba-ratze* frontoia urtero dana betetzen da, eta urte ontan ere gaiñez-ka zegoan, eta guretzat iritxi zan merezi aiña txalo, eta oroiga-riak ere, bai irixtean eta bai oltzairu gaiñera igota. Leturia alka-tearen eskutik ere bai gero. Ala, bertso pare batekin agurtu gi-ñan.

Gero, bakoitza nai zuan aldera joan, eta ni etxera etorri nin-tzan. San Juan sua egin eta bertso auetxek edo aundi-aurkiak moldatzera. Izan ere, garai ontan egun luzea izaten da, eta dane-rako denbora.

Beraz, ementxe ditu irakurleak gure *Pernando Amezketarra* sariketari buruz jarritako bertsoak.

1
Milla beatzireun larogei ta bost,
ogei ta iru ekaiñak,
bertso batzuek ipintzen egin
nai nituzke alegiñak,
orrenbeste poz nola eman didan
oraingo bertso-ekiñak,
naiz aspaldian aztuta euki
bertsoaren etekiñak.

2
Gazte denboran ibilli nintzan
zerbait kantuz erriz erri,
onen pareko ni ez nintzala
nion bitarte igerri.
Orain berroi ta amar urtekin
egiñikan zarra berri,
ez dakit nola eskerrak eman
ainbeste txalo ederri.

3
Euskal Irratik txapelketa bat
zuan bertsoan ipini,
esanaz zarroi aukeratxo bat
nai zigutela eskeini.
Ori entzutean beste birekin
ala izenpetu nintzan ni,
naiz azkenean parte artzen utzi
on-ona etzan edozeini.

4
Pernando Amezketarra Saria
izena jarri zioten,
nola bertsoak ta bertsolarik
ari asko zor dioten.
Aukera ori ikusita etzan
errez ixilik egoten,
ala proba nun ezer zegoan
nere memori arloten.

5
Txapelketa onek beste baldintza-
-klase bat ere bazuan:
irukotea osatu bear zan
errian edo auzuan;
ta guk Goiburu artu genduan
bertso-sasoi indartsuan,
alboko errian bizi da eta
aita segurarra zuan.

6
Alaxe iru kanturako prest
gorputz, anima ta guzti:
Goiburu, Etxezarreta eta
ni, berriz, Jose Insausti;
eta osasuna bein edo bein
gugan ez bazegon zuti,
Etxaluzeren laguntza ere
zai genduala gertuti.

7
Orrelakoxe saillak jarriak
ogei ta bat erritatik:
Araba, Bizkai ta Gipuzkoa,
baitare naparretatik,
alegin danak azaldu asmoz
jarritako gaietatik;
ta epai-maia osatu zuten
bertsolari onetatik.

8
Nola Lazkano, ala Murua
eta Lizaso gaztea,
gero Peña ta Telleriak, in,
Mendizabal zan bestea.
Joxerra eta Pelloren esku
gai jartze ta aurkeztea,
bost illabeten eman dutenak
egizko bertso-pestea.

9

Lareun milla pezta saria
irtetzen zanak garaille,
baiña nola uste menderatzea
ainbesteko erri-saille?
Ta ikustean beste batzuek
artu genduan lan zaille,
utsaren truke izan ditugu
nai ainbat entrenatzaille.

10

Nola Xepeiño, ala Iñaxio,
Agerre, Patxi ta Erramon,
Txoritegi-ko alkarte ontan
zerbait erakutsi asmon;
Azurmendi're Idiazabaldik
berak dakien animon.
Artu itzatzute biotzez danok
milla esker da zorion.

11

Asteasun zan angoen aurka
lendabiziko ekiña,
otsaillaren ogei ta iruan
otz galantakin egiña.
Seirop bakoitzak bere aldetik
egin gendun alegiña,
Segurarentzat naiz portunatu
saioaren etekiña.

12

Bigarrenkoa Bizkaian gendun
Igorretako partean,
San Jose egunez, egualdi oso
euritsua zan batean.
Emakume bat zegon Bizkaiko
iruko oien artean,
bere bertsoak kanta zituna
doñu goxo apartean.

13

Ala ere guri eman ziguten
saioaren garaipena,
ta Errezillekin egin genduan
Seguran irugarrena,
Maiatz illaren amazpian,
beterik *Baratze* dena,
ta emen ere guk izan gendun
nagusitzeko baimena.

14

Maiatz illaren azken egunez
Zarautzen zan laugarrena,
Orion apaldu ta joan giñan
beroturikan barrena.
Gure berdintsuk nola ziraden
bagenduan aztarrena,
eta antxe izan giñan gertuna
aurrena ta bigarrena.

15

Zarautz ontako alkate ordeak
bertso-saioan azkenen,
sari eder bana eman zizkigun
erabakia baiño len:
oroigarri bat edukitzeko
umorarik ederrenen,
esanaz: "Ea gurek gelditzen
diran gaurkoan goienen".

16

Saio onetan lege berri bat
juezak ipiñi zuten:
bertso bakoitzan balia azaldu
aurren zeudenai entzuten,
ala ikasteko berak bertsoa
nola puntuatzen duten;
eta onenak gu giñadela
emen ere esan ziguten.

17

Au irabaziz azken saiora
ala iritxi giñean,
da au Tolosan gaur egin degu
ogei ta iruz Ekaiñean,
Beotibar-ko pelota-lekun
oltzadu baten gaiñean;
jendea ere bazan entzuten
merezi gendun aiñean.

18

Bere taldeko irabazlea
aurkari gendun Zestoa,
amaika ta erdik alden asi da
gure gaurko apustoa.
Millaka entzule bertan da irratiz,
ura zan errespetoa,
ta emen ere eman digute
aurreneko puestoa.

19

Izandu degu millaka txalo
ta gizon esku-zabalik,
Zestoa, Tolosa ta Segurak
lauki batzuk erregalik.
Irratikoak berriz txekean
lareun milla peztan balik;
baiña pena det: ni premiz eta
ez digute eman txapelik.

20

Ondorenean makiña batek
zoriondu gaitu sutsu,
gizonezkoak besarkada ta
emakumezkoak musu.
Ez nuan uste bizitzerikan
iñoiz orren zorionsu,
o, mundu beltza, oraindik ere
pozaldiak badituzu.

21

Beeko plazan bazkaldutzeko
Beotibar degu utzi,
irureun lagun izango giñan,
ez da joan ain itxusi.
Seguran berriz altxafuegoak,
kanpai jirako ta guzi,
naiko onore eman digute
naiz gu izan gauza gutxi.

22

Umore ederren pasa ta gero
Tolosan bazkalonduan,
Segura ontara etorri gera
dantzariaren orduan.
Ementxe ere jo dizkigute
txaloak naiko morduan,
poz ura zer zan esango duan
mingaiñik ez da munduan.

23

Pare bat bertso kanta ditugu
dantza-saion azkenean,
eta gaiñera azpil ederrak
gure lanan omenean.
Leturia alkatek eman dizkigu
erri danan izenean,
ezaugarritzat edukitzeko
lekurik ederrenean.

24

Bukaera're eman deiodan
igaro baida eguna,
arantzarikan bate gabea,
goxoa eta leguna.
Nundinaitikan besarkada ta
alde guztitan laguna,
gaur ola zan da ez jakin biar
edo etzi daukaguna.

Guk *Pernando Amezketarra* saria irabazi genduanean, *El Diario Vasco* egunkarian, Legazpin bizi dan zeraindar Inozentzio Oleak bertso batzuk jarri zizkigun zorionduaz; eta orra oien erantzuna, eskerrik beroenak eskeñiaz, biotz-biotzez:

1
Pozaren pozez zure bertsoak
gaur utzi naute, Olea,
ta erantzuteko ez dakit nigan
badedan naiko orea.
Baiña ezin det iñola utzi
zure eskerrezko lorea,
naiz ortarako bear askotxo
Insausti baiño obea.

2
Eunkak dirade zorion berok
neri eman dizkidatenak,
askotan zaizkit malkoak ere
pozaren pozaz irtenak.
Danak eskertuz, ala ere batzuk
izaten dira maitenak:
erri-ikutua dutenak eta
opizioko batenak.

3
Ondo dakizu, aundia ezta
nere bertsolari-tailla,
ta txapelketan ipintzen dute
bide estua ta zailla.
Ala ere ortxe gaingitu degu
oinbesteko erri-sailla,
nere moduko batentzat bada
au bear aiñeko mailla.

4
Arrazoi dezu: bertsolariez
jazten ari da Goierri,
naiz talentua gutxitxo izan
ibiltzeko erriz erri.
Baiña azaldu degu orain ere
dezakegunaren berri,
ta onen kontura eldu diogu
amaika txalo ederri.

5
Eskerrik asko orain, Olea,
bertso auen bukaeran,
eta aurrera ere jarraitu
zuk ondo dakizun eran.
Agirrek sarri kontatutzen dit
nola ondo bizi zeran,
ola jarraitu eta ea noiz
irurok alkartzen geran.



Fernando Amezketarra saria irabazi eta Tolosatik etortzean Segurako Baratze pelotalekuan egin ziguten arrera. Ramon Leturia alkate jaunaren eskutik oroigarri bana artuaz, ondo baiño obeto txalotuak izan giñan. Ezkerretik: Goiburu, Etxezarreta, ni Insausti eta, laugarrena, alkatea.

(1985)

Ikasteko garairik onena

Bertso auek orain urte batzuk jarri nituan, eta au zala bidea: emezortzi edo ogei urteko gazte batzuek, ikasteko eta gauzak buruan irauteko noiz ote dan edade edo adiñik onena galde egin zidaten. Naiko fin ote zebiltzan iruditu zitzaidan, eta au esan nien, bertotan diodan bezela: nik urte gutxi egin nituala eskolan; baiña umetan ikasitako kontu oiek atzo entzundakoak baiño askoz obeto oroitzen naizela dauzkat. Orduan ala zioten:

–Zer ikasi zenduten, bada, zuek?

–Guk dotriña beintzat ondo, asi Adan eta Eba eta aiek jandako sagarra, Jainkoak galerazia, sugeak engaiñatuta, paradisoan zorion utsean bizi zirala; orduan nola konturatu ziran billutsik zeudela, eta osto aundiak zeuzkan arbola baten ondora joan eta osto aiekin jantziak egiten asi zirala, beren burua izkutatu asmoz; Jaungoikoa azaldu eta, aren esana bete etzutelako, sententzi bildurgarria nola eman zieten, eta alaxe da.

Oraingo sail au bai dala egia geiengoarentzat, danarentzat ez baiña, eta auxe da: gure izardiarekin jan bearko genduala ogia, eta amak miñarekin izango zituztela aurrak.

Azkeneko au aldakuntza asko ari da egiten; eta denborarekin, azia eduki ezkeru, badirudi batere ama gabe aurrak ekartzera ez ote dan iritxiko, edo iritxita ez ote dan egongo.

Onelakoxe kontuak ziran guk ikasiak eta gogoan iraun dutenak. Ala ere, nik uste det emezortzi edo ogei urte ohea izango dala ikasketa aundiak egiteko, ikasten ari dan ura bere gogokoa bada, eta bere bizitzan serbituko diola pentsatzen badu.

Bertso auek alaxe jarri nituan, ume-denbora ere ona dala gauza batzuk ikasteko beintzat esanaz. Oietako bat izkuntzak esango nuke nik, gure erriko ume askok euskera nola ikasi duten ikusita. Guraso erdaldunen ondorengoak esan nai nuke. Baiña gaizkixeago ikasita ere poza ematen dute, txikitan ikasita nekez azten dalako.

1
“Ikasketako garai onena
zein edadetan da, Joxe?”.
Gazte batzuek au jakiteko
bazeukaten naiko gose.
Eskolatuak jakingo dute
ontaz geiago askoz e,
alare ezin utzi iñola
azaldu gabe zeoze.

2
Amaika urtekin eskola-lanik
aundiñak egin nituan,
da bitartea txarra etzala
esan nien segituan,
nere buruak orduko gauzak
nola gogoan dituan;
esan zidaten lengo eskolak
ea zer mailla zituan.

3
Dotriñak zuan ume-eskolan
adarrikan zabalena,
mundu onentzat eskeiñirikan
neurririkan apalena.
Zeru ta inpernu ixildu gabe
Jenobeba ta Elena,
aiek etzuten gaurkoak aiña
permanente ta melena.

4
Beste mundua ibiltzen zuten
beti itzaldian jiran,
esanez gure guraso aiek
nola deskuidatu ziran.
“Eta geiago mundu au ez da
izango lengo dizdiran,
orregatikan bizi bear degu
beti zeruaren miran.

5
Mundun lenengo guraso aiek
egin zuten pekatua,
paradisoan sagarra janda,
Jainkoak debekatua.
Berak sortu zun eriotza ta
orren mundu nekatua,
eta errudun egin oi zuten
suga madarikatua.

6
Sugak esanda pekatu egin
ziguten Adan da Ebak,
ta orain gaizki sui ta erraiñak,
baita anai ta arrebak;
berdin guraso, aiton, amona,
osaba eta izebak”.
Itz auekintxe kontatzen zigun
guri maixtra Jenobebak.

7
Eskola-ordutan olako kontuk
suga eta paradiso,
eta entzuten egoten giñan
exerita txintxo-txintxo.
Au kontatzean etzun izaten
esan bearrikan ixo,
gaurko umeak ala egoteko
daukate malezi geitxo.

8
Garai artan nik izango nitun
bost edo seiren bat urte,
geroztik joan da amaika euri,
eguzki eta elurte.
Alaxen ere orduko itzak
buruan irauten dute,
baiña nere ustez gauz ori obe
kontatu ez baligute.

9

Beraz, nik uste ume-denbora
ona dala ikasteko,
eta buruan sartzen dan ura
naiko ondo itsasteko.
Berrogei urten dauzkat nik ere
itxura gabe azteko,
naiz gauza auek gutxi balio
jakinduria azteko.

10


Gure errian umetxo askori
egon izan naiz begira,
batik-bat kanpoko gurasoen
umeak baldin badira.
Euskeraren jabe, nai badute,
aguro egiten dira,
ondo ta zuzen da goxo asko
sartzen dana belarrira.

11

Aundia eginda ikasten dunak
sarri izaten du akatsa,
esan diteke gaztain arbolan
txertatu dala saratsa.
Ekisa ezin adirazita
berdin esan *txa* eta *tza*,
alare ainbeste ikasten duna
juzgatzen det aberatsa.

12

Beraz, gazteak, ume-denbora
da garairik dotorena,
ikasketatik nai baldin bada
itxurazko ondorena.
Besteren berri ez dakit eta
nik esan det neronena,
naiz ezer gutxi eginda pasa
nere garairik onena.



1996-ko elurtekoa izan bear du argazki onek, edo 1993-koa. Biak Otsaillaren azken egunakin asi ziran. Elur aundiak, gutxi iraun bazuten ere. Atzean, gure baserria. Aurrean, ni eta gure txakur *Lagun*

(1986)

Bertso Berriak **1985-eko eguraldiari jarriak**

Oraingo bertsoak 1985-eko eguraldiari buruz moldatu nituan. Danean ere bai. Euskal-Erri danean esan nai nuke; baiña emen, Goierrin, aurrena elurte izugarria egin zuan. Nik ogei ta zazpi urte baneramazkian fabrikan ordurako. Baiña oiek danak batera jarrita baiño geiagotan joan nintzan oiñez lanera negu ontan; eta eskerrak *land-roberrak* bean, kamiño aundian, ibiltzen zirala, bein egun batzuk pasa ezkeru. Baiña gure ontara kotxeak ia amabost egunean ekartzerik etzan izan, eta ez dago oso altu gure etxea. Baiña alakoxe elurte gogorra egin zuan.

Gero, martxo aldera, berriz, euria atertu gabe. Etzegoan Aitzgorriko gurutzea ekarri bearrik Zegamara, edo Seguran garai batean egiten ziran iru eguneko errogatibak egin bearrik. Ondo busti ziran baztarrak. Baiña bein atertu bazuan, atertu zuan. Geiago sekula ez ote giñan bustiko ere pentsatu nuan. Ontan, belardiak-eta gauean argi egiten zutela zuritu ziran. Etzan giro.

Leen esan det: emen bada artzai eta ardi asko egoten dan mendi bat, eta Urbia da. Erdian bere errekatxoarekin, oso leku polita da. Aurten ere, San Inaziotan an giñan bertsoan, eta naiko ondo zegoan oraindik ardientzako jana, oso legor baiña. 1985 urtean, berriz, urri-illean ere egin nuan buelta bat, eta negargurea eman zidaten ardi aiek, muturrak arkaitz-zuloan sartu ta bizkar-ezurrak zorrotz. Illak ere izan bear zuten, eta etzan gutxiagotarako. Ala ere, ura bazuten, eta ari eskerrak. Baiña etzan giro. Lur mee antxa dagoan lekuetan, arkaitz kontran eta danean, arri asko da Urbian; baiña pago eta aritzak ere igartu ziran.

Ala ere, nolabait pasa zan uda au ere. Baiña neguan ere legor zan. Azaroan elur kaxkarra-eta asi zuan oso legor zegoan garaian, baiña asko busti gabe; eta Gabonetan ere, alpargatakin ibiltzeko moduan. Alaxe agurtu zan urte ori ere, eta neri bertso auek ipintzeko bidea eman zidan. Nai dituanak irakurri, emen dauzka.

1

Milla beatzireun ta
laroegi ta bosta,
baserrian bizitzen
zaiguna kosta.
Ilbeltzan bosterako
bazan naiko otz da,
Errege egunean
ura elur-koska!
Naiz askok gorrota,
berriz ere bota,
lengoaren kontra
neurriak igota:
gure aldean berrogei
zentimetrotza.

2

Egunez elurra ta
gauean izotza,
amabi zeroz bera
batzutan otza.
Automobillak ere
tongoko morrontza,
ez joan da ez etorri,
laguntasun motza.
Ikuilluko poza
noiznai orroi-otsa,
pentsuz ezin osa,
tristetuz biotza;
amabost eguneko
giro laiotza.

3

Esnek ezin eraman,
pentsuak adio,
egun auetan bazan
naiko erio.
Naiz pentsa: "Udaberrik
ondo ekingo dio",
bai, martxoa ez balitz
joan dilubio.
Gau ta egun jario
bear baiño geio,
soroak errio,
laiñoak ezin io,
eta eguzki gabe
ez du balio.

4

Martxoa pasatzean
laister zun atertu,
baita euri mardulak
oso baztertu.
Urte zelebrea zan
nai dunak aztertu,
gero eguzkiz giñan
erabat aspertu.
Laiñoak alpertu,
euririk ez gertu,
legorrez okertu
eta beroz lertu:
oe ta emezortzi gradu
noiznai agertu.

5

Zerbait ona zuala
esate ezkeru,
belar ontzen giroa
bai egunero.
Izan ere egin zitun
berreun bat bero,
gero bibelarretan
segea lijero.
Gosea bezero
zegoan etxero,
ainbeste jenero
onatu ta gero;
eta egoi aizea
pronto goizero.

6

Uzta ezkerozkoa
joan zan zelebren,
babarrunak e loran
zituan erre.
Arbik ere etziran
luzaroan erne,
piñuk besterik ia
etzegoan berde.
Beiak *ma* eta *me*,
iñoiz ez konforme
eta okelaz me,
naiz saiatu firme,
eman gabe pentsuntzat
ainbeste esne.

7

Urbin ere ardiak
etzeukaten giro,
zegen ondartzan baiño
askoz gorriago.
Elbi ta eltxoak bai
nunaitik latigo,
naiz gosea're izan
naiko enemigo.
Beroak enbido
geroz gogotigo,
gutxitan gaizkigo
zuten uda egingo;
balurrik iltzeko're
naiko peligro.

8

Pena eman zidaten
ardi gaixo aiek,
muturrak urratuta
zerbait jan naiek.
Zaiñetaraiño zeuden
zuztarrak ebaiek,
Sahara ematen zun
Urbia zelaiek.
Ain lur ardagaiek,
urritu jan-gaiek,
nola egon alaiek
ardi ta artzaiek?
Eskerrak ura oraindik
bazun ibaiek.

9

Tristeak dira gero
legorran emaitzak,
frutu berdin xamarrak
lur ta arkaitzak.
Zutik igarturikan
ugari zugaitzak,
ainbat urtean zeuden
pago ta aritzak.
Olako desditzak,
ur gabe bizitzak,
danetik ekaitzak
inguratuz gaitzak;
danak adirazteko
nork ditu itzak?

10

Azaroan asi zun
pixka bat euria,
baiña au ere etzan
busti-guria;
baizik elurrarekin
nasi ixuria,
eta lur gorri dana
jarri zun zuria.
Negu irudia,
zan naiko zauria,
txarrera zubia
berriro itzulia;
ta aldatzeko nork du
jakinduria?

11

Zerbait egiñagatik
euri ta elurra,
azaro ta abenduan
legor zan lurra.
Naiz garai ontan izan
euria xamurra,
aurtengo negu au zan
bustian laburra.
Emale zimurra,
danera maltzurra,
erabat lukurra,
ongille makurra;
olaxe egin zuan
bere agurra.

12

Orra bertso berriak
urte zarrai egin,
esan bearra zegon
orrenbeste min:
obeto portatzeko
orain urte berrin,
Merkatu Komun oni
kentzeko etekin.
Morroi geure errin,
berriz ere premin,
IVA-ren lantegin, (1)
gezur askon erdin;
baserrin ondo ez ta
kalean berdin.

(1) Urte ontan asi zan, nere ustez, IVA-ren inpuettoa edo zerga, 1986-an alegia; eta Merkatu Komun orren aitamenak ere agaltzen zijozen.

(1987)

Bertso Berriak **Alemaniko bidaiari jarriak**

Lengo bertso batzuetan abioi eta aideko ibilliak eta erortzeak aitatu ditudan arren, berriro ere olako zerbait gertatu zitzaidan, ba. Erortzerik ez, bestela ez nuan kontatuko eta.

Nere edo nik lana egiten dedan fabrikan, makina bat andik erosi zuten, Alemanitik, eta bost lagunek joan bearra izan genduan: injeniero bat –au len ere askotan izanda zegoan– eta beste lau lagun, iru berrogei ta amar urtetik gorakoak, naiko zarrak gauza berriak ikasteko, eta bat sasoi onekoa oraindik.

Baiña bera gaur illa da minbizi edo gaitz bildurgarri orrekin, bereak eta bi miñez ikusita. Oraindik gurasoak ere biak naiko ondo, eta semeak orrelakoxe suertea zeukan. Pakean atsedeen dezala gure Ubaldok.

Ala, joan giñan, bada, Alemani ortara, eta azkar joan ere. Emendik Biarritza kotxean, andik Parisa ordu bete baiño len, eta an artu beste abioi bat. Au aundia zan. An erori bagiña... Ez dakit zenbat giñan. Baiña, ustu zanean, erri koxkor bat festetan zegoala esan zitekean, eta lareundik gora igual izango giñan. Jendea junto jartzen dala daude oien aulkiak jarrita, naiz traste aundiak izan. Baiña ondo joan giñan, eta azkar. Beste ordu bete inguru edo orrela. Andik kotxean otelera; an apaldu eta lotara.

An, illuntzean, bestelakoak ere egongo dira, baiña jendea garaiz lotara joaten da, eta goizean goiz jeiki. Jan ere goizean, eta illuntze aldera bazkaria, uskeriren bat.

Fabrika, berriz, neri etzitzaidan ura beintzat batere gustatu. Dana itxia eta bero aundia egiten zuan barruan. Len ere badakit fundizioko berri, baiña ura oraindik okerrago zegoan. Kanpotik bai txukun. Arek pasteleria edo beste edozein taillerren itxura dauka, baiña barruan gaizki, eta gu an kanpoan izotza zegoan garaian giñan, eta otz zegoan.

Ango egun apurrak luze joan zitzaizkidan neri. Ala ere, broma bat polita pasa genduan. Agurtzeko-edo, apari bikain bat eman ziguten; eta, gu bezela, beste zerbaite ikasten zeuden irlandes batzuk eta danok.

Ango injeniero batek soiñua jo, eta alemanak aurrena eta gero irlandesak ere kantatu. Aiek ixildu ziranean, asi nintzan ni ere Santa Ageda eskeko doiñuan. Uraxe pixka bat erakutsi nion asterako, eta bereala tankera artu zion. Baiña etxera gustora etorri nintzan.

1
Milla beatzireun laroe ta zazpi,
martxon ogei ta amarren,
illuntzerako Seguratikan
nengon urruti xamarren.
Bidai uraxe gaitzat artuta
nator bertsozko marmarren,
nere buruak dana oraindik
nola gogoan damarren.

2
Eguerdian kotxe batean
joan giñan Biarritza,
ta egazkiñez ordu betean
eroso asko Parisa.
Gero andikan Alemanira
ere usok bezin aixa,
illuntzerako otelen geunden
millonarioen gisa.

3
Gure ostatua *Europa* izena
zeramakin otela zan,
da bere gelak jarriak zeuden
aberatsentzako trazan:
radio, telebista ta baiñu,
telefonoa're martxan;
baiña ez nintzan etxean bezin
kontentu sekula etzan.

4
Amaika era txar eta onez
izana da Alemani,
gaur egun ere aurrerapenez
badute ainbeste mami.
Bizkortasuna aixa billatzen
dakite edozein lani,
orixe ikasten izandu gera
beste lau lagun eta ni

5
Tresna berri bat gure fabrikan
andikan erosi zuten,
aurrerapenik gabe gaiztoa
gaur nola dagon irauten.
Eta aren berri ondo ikasteko
kargua eman ziguten,
oroitu gabe pasa giñala
berrogei ta amar urten.

6
Bostetatikan iru geunden gu
urte gaztek aldegiñak,
ta onerako gutxitan dira
zartzaroan etekiñak.
Baiña ez digu kezkarik utzi
ibilli ori egiñak,
baizikan pozik etorri gera
ikasirik alegiñak.

7

Amaika gauza egun gutxitan
an baditugu ikusik,
emen bezela batzuek onak
eta besteak itxusik.

Fundizioai etzaio falta
ots aundi, bero ta autsik,
esaera zarrak dion bezela:
“Danen zakurrak ankutsik”.

8

Danak itxita dauzka izan ere
goialdeak ta bazterrak,
autsik eta otsik ez du irtetzen
egintza orri eskerrak.

Itxas-adar ta barkuak gertu,
baita belardi ederrak,
ta antxe lasai iztingor, aate,
erbiak eta eperrak.

9

Orrelakoxe edertasunak
ikusten dira kanpoan,
baiña Badixko fundizioan
ez dabiltz era bapoan.
Beartsuak maiz sartu bearra
dauka olako zepoan,
gero izardia galanki noiznai
bizkarrean da lepoan.

10

Beroz gaiñera ango otsakin
nintzan erabat sustatu,
ematen zuan bi belarriak
bear zitula puskatu.

Naiz ots-kontuan gurea ere
goi xamarrean juzgatu,
egia esan, ura etzitzaidan
neri batere gustatu.


11

Kanpoan ere emendik ara
bada milla aldakuntza,
oilloak bezin txintxo dakite
errespetatzen illuntza.

Goizean berriz seiatarako
aruntza eta onuntza,
nere gisako parranderoak
obe ez joan aruntza.

12

Ala ere bein iritxi giñan
apalondon berotzea,
aleman eta irlandesak
bertso ta kantak sortzea;
ta ango injeniero jaun batek
egin zun soiñu jotzea.
Alemaniko gure bidaiak
izan zan olakoxea.



Artaldea, Aizkoeta-berri baserriaren inguruan.

(1989)

Etxe azpiko makatzari jarriak

Oraingo bertso-aldia etxe azpiko makatzari buruz moldatu nuan. Makatz-arbola au oso zarra da. Nere aitonak ere or ezagutu omen zuan. Aizkoeta baserri zarretik ogei bat metrora azpiko aldetik dago.

Arbola aundia: bi metro pasako jira badauka ia gizonaren alturaino, eta andik gora ere amar bat metro luze bazan. Buru adar aundia gaiñera, eta lodia ere dexente zan erdian. Oraindik ere antxe dago, nai duanak ikusi; eta beko adar oiekin irauten badu, ez du botatzerik merezi.

Baiña aizeak, amaika artuko zuan-da, 1989-ko udazkenean erdiz gorakoa autsi eta bota zion. Sasoia joanda arek ere orain, eta ajeatzen asia zegoan goitik bera. Baiña amaika ale ematen zuan, txikiak baiña millakak, eta amaika txori-kabi ere bai. Untza ere sasi dezentean zuan barren aldetik. Aleak, berriz, eldu alan berak erortzen ziran.

Baiña ikaragarri esanda ez dago sinisterik, eta oraindik ere zerbait emango du, orain alako gauza kaxkarrak tira gutxi dauka baiña.

Beste gauza bat ere ni oso gaztetatik arritu ninduan. Bazuan makatza edo makatxa izena. Baiña au aurrekoakin asiko zan lendabizi, makatzarekin alegia; eta emen, gure aldean, santa sekulan ez diot entzun inñori *makatz* izenik, amaika txertatu eta txertatzen ikusia naiz baiña.

Emen beti *txertaka*, *sagar-txertaka* edo *udare-txertaka*, bera etorrita bezela dagoan bitarte. Baiña pentsatu izan det noizbait, beste leku askotan bezela, emen ere len makatza esanda ulertuko zutela. Baiña gaur ez, eta nere aita eta aitonaren denboran ere ez, berak esaten zuten ez.

Beraz, bertso batzuk olaxe moldatu nituan, Iparragirreraren doiñuan, nai dituanak irakurri.

1
Dozen erdi bat bertso zuretzat,
etxe azpiko makatza,
umore gabe moldatutzeko
badet eginkizun latza.
Aizeak autsi zaitu
ta ni ezin alaitu,
au atsekabe garratza,
joan zaizulako garai bateko
osasuna eta gatza!

2
Berreun bat urte izango dira
ziñala jaio ta azi,
urruti zegon milla beatzireun
ta larogei ta beatzi.
Baiña guztiak pasa,
gaur osasun eskasa,
eta aizeak eratxi;
gerriz goikoa kendu dizu ta
ezin geiago erantsi.

3
Baiña gerritik beerakoa
dezu oraindik leguna,
eta ez pentsa iritxi danik
dana uzteko eguna.
Zuk badaukazu ori,
naiz erdia erori,
askotxok ez daukaguna;
luzaro oraindik izango zera
txorien bizi-laguna.

4
Amar bat metro luze ta zabal,
beti aizeakin burruka,
amaika igurtzi emanda pasa
oi zan albotik txistuka.
Gaur sendoa ta motza,
baiña mantendu poza,
ez jarri buru-makurka;
udaberrian etorri arte
txoriak kantuz agurka.

5
Amaika txorik zure gaiñean
egiten zuan seaska,
txepetxak eta txantxangorriak
untzarteetan baezpa.
Jilgerok adarretan,
ain leku ederretan,
lorak janez *kaxka-kaxka*;
lapur-txoriak sarri miatuz
oilloak zuten jan aska.

6
Guk ere berriz alea pranko
zuregandik jaten gendun,
txiki xamarrak baiña ugari
urtero izaten zendun.
Uso-pasa garaian
danak erori naian,
gaiñean ezin mantendun,
uda azkenak nola ainbeste
mirari on egiten dun.

7
Makatz izenez bataiatuak
zu eta zure aleak,
pamili aundiak ziran ordun da
ugari giñan jaleak.
Gaur umeak urritu
eta ezin arritu:
joan ziran gose-peleak;
etxen aundiak sobre eukita
nola izan txiki-zaleak?


8
Beste gauza bat *makatz* izena
egiten zait arrigarri:
gure alde ontan nola zizuten
era onetara jarri.
Emen nere denboran,
alean eta loran,
zugaitz auen ezaugarri,
txertaka deituz izan diegu
nolakoa dan igarri.

9

Makatzak eta *txertakak* noski
esan naiko dute berdin,
bigarrengo au alare esan
oi zaie gure alderdin.
Emen *makatz* izena,
naiz-ta izan gizona,
ez det ezagutu erdin;
guk beste erara deitzen diogu
osorik dagonai mendin.

10

Olaxe gauza askok izena
daduzkate bat edo bi,
ta orain arte dakizutenez
ola gertatu da ori.
Baiña, *makatz* maitea,
zutik egon zaitea
iraunez sendo ta lodi;
beste berreun urten gutxiñez
beintzat etzaitez erori.



Segurako erria, Zerain aldetik, Txindoki mendia bistan dala. Eskubiko eliza, moja-komentuarena. Ezkerrekoa, parrokia. Onen torrearen parean, Txindoki aldetik, gure baserria, Aizkoeta-berri.

(1989)

Mikel Mindegia aizkolaria

Oraingo bertso aukeratuak bati buruz jarri nituan. Baiña len ere moldatu nituan, eta ez det inon arrastorik arkitu, pena det baiña. Orain amar bat urte egin nituan aiek, aizkora-apustu bat zala medio; baiña galdu. Onelaxe, baditut beste batzuk ere, 1983-garrenean jarriak, Mendizabal eta Mindegiaren apustuari buruz. Beraz, gaur emen aitatzen dedan aizkolaria Mikel Mindegia da.

Nik aizkorarako apizioa aundia izan det beti, eta amaika apustu eta txapelketa ikusia naiz. Jakiña, aizkolaria bikaiñak pranko ezagutu ditut: Latasa ta Arria ta abar. Baiña bat aukeratzekeroz, eta besteak barka dezaidatela, onak, naiz oso ona izan, urregoa ere gertuan izaten du eta...

Aizkolaria-sailla da berrogei urte ontan nik ezagutu dedana, eta gaur ere badaude, eta badatoz gazteak ere, nere ustez onak izango diranak. Ala ere, nik ezagutu ditudanetan, Mindegia izan dala onena uste det; eta gero ere berrogei urterekin bera egon zala txapeldun, arrigarri bada ere.

1989-an, amargarren txapela jantzi zuan Salvatierra-n edo Agurain-en, naiko errez gaiñera, eta bada zerbait. Prestatu ere ondo nunbait, edo beti naiko ondo prestatuta egon, eta plazara joandakoan beti buruz jokatu.

Batzuk izaten dira aseran asko jotzekoak eta abar, danetakok gera mundu ontan eta. Baiña Mindegiak orrelako gutxi egin du; eta, azkeneko enborrean juxtu-juxtu baldin bada, jendea asko akordatzerako ebaki.

Plaza-gizona ere paregabea da; eta, nola egur gogorretan ala bigunetan, neurri-neurrian zaindu bere martxa. Izan ere, golpe galdu bat eman gabe erabiltzen du aizkora, eta epaia ere ondo zaindu. Ez aurrena erdi txikia ebaki, eta gero partitu ezinda ler egin. Enbor aundiak bezela, txikiak neurrian artzen ditu onek.

Garai batean, bi metroko gizona bear zala uste zan aizkoran ona izateko; baiña olako gabe amaika aundi autsi ditu Mindegia bere denboran. Onekin ez det esan nai bera txikia danik. Ala ere, ez da jentil oietakoa ere, baiña bai aizkolari aundia, emezortzi bat urterekin asi ta orain arte.

Eta gaiñerakoa or du irakurleak, Iparragirrerren doiñuan jarritako bertso auetan.

1
Milla bederatzireun eta
larogei ta beatzia,
bertso batzuek jartzeko badet
naiko gaia ta azia,
aizkolari bat artuz,
bere doaiak sartuz,
uzteko adierazia,
biar edo etzi jakin dezaten
bere aparteko grazia.

2
Aizkolari au izen-deituraz
degu Mikel Mindegia,
Naparroako Ezkurra errian
ikusi zuan argia.
gazterikan asia,
egoki ikasia
aizkorako lantegia;
danera ondo iritxitzen da,
esatezkero egia.

3
Joan dan igandez ere berea
egin zuan Aguraiñen:
berrogei urte bizkarrean da
gelditu danaren gaiñen.
Amargarren txapela,
berak nai zun bezela
ibilli gabe eziñen;
bein da berriro arriturikan
ikuslek gelditu giñen.

4
Bein aurretikan jarri ziñan da
aldea kentzen jarraitu,
eta aseran bezin sasoiko
zendun guztia amaitu.
Enbor aundi ta txiki
danak aixa iriki,
epai danak ondo zaitu;
aurtengo negun ere zu, Mikel,
edozeñek austen zaitu!

5
Lau enbor irurogei ontzako,
beste lau kana erdiko,
ta zortzi auek ainbeste golpe
bear zituzten lau oin biko.
Baiña zuk amabiak
aurrena ebagiak
geldituz lasai ta pijo,
naiz-eta kendu urrengoari
minutu bat eta piko.

6
Zure aizkora beti zuzena
ta ez bildirki-baldarka,
orregatikan zera aparta
bai zutik da bai zearka.
Nere ustez bakarra,
danetara azkarra
buru, beso eta anka;
etzenduan, ez, bestela egingo
egin dezun ainbat marka.

7

Zure epaia gutxitan oi da
okertu edo estutu.
orregatikan marka aundi bati
zuk aspalditxo ikutu.
Ogei kana erdiko,
egonagatik tinko,
etziñan asko estutu;
ebagi're bai irixterako
ogei ta amaika minutu.

8

Ondo prestatzen dakizuna ta
egizko plaza-gizona,
beti aizkora erabilliaz
izan liteken gozona,
golpe utsikan gabe,
martxa onaren jabe,
jardun leiken erosona;
zure indarrari kendu ere bai
etekiñikan osona.

9

Bizi guztian tiratu izan nau
aizkora-lantegi onek,
nere aurrean lana egin du
gogor amaika gizonek.
Ia berrogei urten
ari bainaiz ikusten
asko, zein baiño zein obek;
baiña Mindegian parekorik
ez det ikusi neronek.

10

Oraingoakin buka dezadan
bertso auen lantegia,
zure almen danak aitortutzeko
ni bainaiz motelegia.
Baiña esan det zerbait,
zai balegoke norbait,
eta guztia egia;
au eta askoz geiago zera,
Ezkurrako Mindegia.



Emazte eta seme-alabakin, 1996-an. Bertsoetan esaten dedanez, semeak, ni bezela, aurki dira buruan illerik gabe. Zaarrena, naiz-eta oraindik 28 urte eduki, orrazitan dirurik gastatu bearrik gabe segituan dago.

(1990)

Iñor osorik ez

Bein batez, aspalditxoan ikusi gabeko lagun batekin topo egin nuan Donostian, eta alkarri galderak egin genizkion: alako eta olako zer moduz ziran. Eta loteria irtendakorik iñor ez, baiña bai aldrebeskeria pranko izandakorik: bati etxea erre zitzaiola, bestea gaixo zebilela eta ots txarrak zeudela; tartean baita alakori emaztea il zitzaiola eta ondatu zala gizarajoa.

Baita nik sinistu ere. Emazte on batek etxean utziko duan zuloa kopradi ortan sartu ez danak ez daki. Zenbat eta zarrago, orduan eta lagun-premi geiago izaten da mundu ontan; eta lagun ura egitan maite duana bada, galdu ezkeru, norbera iltzea baiño okerrago izango dala amaika aldiz pentsatu det. Baiña len ere esan det ortarako kopradi ontan sartuta egon bear dala, eta egiz maite alkar.

Bestela, ez dago konprenditzerik. Orduan, ori zapalduko duanik ez dago munduan. Orregatik izango da ainbesteko miña, tartean eriotza sartzen bada.

Baiña badira bestelakoak ere, zoritxarrez, ezkonduen artean ere. Batek ardoa dexente edaten zuana omen zeukan andrea, eta ezin iñola utzi erazi.

Alakoaren ondoan bizitzea baiño iltzea ohea izango da, eta orra bi alde, batean galdua eta bestean eukita bizitza erabat arantzaz josten dutenak.

Len aitatu dedan orren emaztea, atakeren bat egin da gizona lanean fabrikan zala il omen zan. Abixoa artu zuanak beste bati esan omen zion esateko, pixka bat konponduta, sustotik ilko zan bildurrarekin gizon ori.

Gizon au oraingo modako *tarea* ori ezin eginda ari omen zan; baiña esan egin bear eta esan dio nola abixatu duten etxetik sendagillea eraman diotela emazteari, atake koxkorren bat eginda, eta lenbailen joateko etxera.

Baiña arek segi bere *tarean*. Ala, gero enkargatuak, gogorxeago egiñaz, uzteko lanari eta joateko. Baiña besteak, gutxi falta zuala tarea bukatzeko, eta segi. Ortan, nagusiak ere jakindu, eta su eta gar jarrita or esan dio:

–Orain bertan segi zak, emaztea il dala abixatu die eta!

Ala ere, trankil erantzun besteak:

–Zer egingo det, bada, aundiagoa ere gertatu zitekean eta?

Orduan nagusiak:

–Aundiagoa zer?

–Neroni il banintz.

Ura presko zegoan. Izan ere, neurri guztiak betetzen dira mundu ontan; eta badira, beste neurri guztiak edo beste egintza-klase batzuetan bat edo bestea zabarrak ziralako, orrelakoxe bitziza zeleberrera aldatuak, eta geiago irten ez.

Izan ere, bein alkarren lotsa galdu eta ajolagabetu ezkerro, jai dago emen, alderdi batzuetatik beintzat; eta gauza txarra indartsuagoa dala beti edo askotan pentsatu izan det nik. Baiña gertatzen dana izango da ona. Ez degula ikusten edo alaxe bear duala pentsatu beti. Eta, txarra gutxixeago bada ere, onen zergaitiak ezin justifikatu izaten ditugu.

Izan ere, badira larogei ta amar urtera irixten diranak, amar egun gaixo pasatu gabe. Ondorengoak ere zintzoak, eta dana ondo, eta zerbait bada au, beste batzuen ondoan jarrita: beren bizitzaren erdia gaixo-etxean miñez, eta iñun diran naigabe-klase danak jaso bear.

Onen aurrean, munduko gizonik azkarrenak ere nik ainbeste daki, eta emengo martxa onela izango da.

Nere bertso auen zergaitia ere orrelaxe sortu zan, bada. Len esan dedan lagun orrek esan zidan:

–I bizi aiz orain ondo, len illeak aldegiten asi ziranean sufritutakoa aztu zaik eta!

Orrelaxe izaten dira konfiantzazko izketaldiak. Baiña eman nion nere erantzuna, eta auxe da, alegia:

–Orain nere garaiko jendea geiago ere zuritu da buruz, eta pixka bat gutxiago nabarmenduko naiz. Beste aldera, berriz, gora-beera asko ikusten dira mundu triste ontan, eta audiena au izan dedilla pentsatzen det, eta orrenbestean segi.

Au, nere buruari buruz. Baiña gaur ere kezkatzen ikusten ditut, ez bearbada nik pasatu nuan aiñako kalbarioa edo pena aldegin gabe dutela baiña; eta auek nere semeak dira. Nerearen jokaera berdintsua egingo du seguro asko orien illeak ere. Baiña ori izan dedilla okerrik aundiena, eta izan dezatela gaiñontzean osasun ona eta gizatasuna, bear bezela izateko mundu ontako egun apurretan.

Eta ementxe datoz amalau bertso ondoren, zortziko txikian egiñak.

1
Milla beatzireun da
larogei ta amar,
gogoá badet bertsoz
egiteko marmar.
Bizitzak emana dit
makiña bat txamar,
naiz neri're gustatu
beti ondo xamar.

2
Nere buruari nai
diot orain kanta,
ikusirik gaiñean
berak daukan planta.
Orraziak zertako
onentzako pranta?
Illea aldegin da
brillua galanta.

3
Gutxitan begiratu
oi det ispillua,
bestela ere badet
nik naiko brillua.
Otz eta beroakin
au da ixtillua,
badirudi gain azpi
dagon katillua.

4
Illearekin ez det
askorik luzitu,
nola oso gazterik
zitzaidan gutxitu.
Teillatu eder ura
dana itxusitu,
baiña penarik gabe
ez nuan nozitu.

5
Gaztetan negar ere
egin nuan iñoiz,
illeak ikustean
burutikan eroiz,
pentsaturikan "zerbait
ez dabil arrazoiz,
Joxe buru-soilduta
uzteko orren goiz".

6
Aita ta aitona're
alaxe nituan,
zekitenak gaiz onek
zer lanak zituan.
Eta nigana ere
eldu segituan,
begira gauza txarrak
zer indar dituan.

7

Gizaldi bat bezela
ondatzen ditu lau,
kalte egiten beti
gogor egun da gau.
Naiz-ta zeozer egin
bukatutzeko au,
alperrikan ote dan
irudituta nau.

8

Arraza ibilli arren
aldatzeko usten,
gauza txarrak badaki
bere setai eusten,
semeak antzekoak
baiditut ikusten,
nola burun illaje
berdintsuk dituzten.

9

Naiz-ta gazte denboran
ugari eduki,
gari igarran gisa
nai dunean jaulki.
Txapelaren premia
oiek ere aurki,
ez gaitz orrek baleuka
nik aiña erruki.

10

Au batzuek ez dute
juzgatutzen zigor,
batek zion neukala
pena geiegi or.
Kezkatzeko bear zala
zeozer derrior,
akats gabekorikan
etzegola iñor.

11

Akatsak badira, bai,
makiña bat klase,
edozein oi dutenak
zoritxarrez ase.
Naiz izkutuan egon
beti miña antxe,
neri ere ari zait
ugaltzen oraintxe.

12

Urteak izanik lau
dozena ta erdi,
ajeatzen asi zait
amaika alderdi,
edozein aldapatxo
biurturik mendi,
eta gutxi atsedeen
egon arren geldi.

13

Sasoia aldentzen da
zartzeakin baten,
pozik lenago ez bada
jartzen errematen.
Orregatik ari naiz
onenak ematen,
naiz-ta gutxi nekatu
illea eramaten.

14

Amalau bertsotara
naizenez iritxi,
gai oni bear diot
nik ateak itxi.
Naiz buruan ibilli
amaika iritzi,
ezeren kezka gabe
ez da iñor bizi.

(1990)

Eztai-apariaren errematea

Oraingo bertso-sailla ere jarri berria det, bertan esaten dedan bezelaxe. Eta gertaera auxe da: ezkontza batera edo eztai-apari-ra joateko deia gendukan Etxezarretak eta biok, bertso edo txiste apalondoa alaitzera.

Len ere, ezkondu zan neska orren familikoren bat ezkontzen bada, beti joan izan gera, oso bertso-zaleak dira eta. Gaiñera, ezkondu zan neskaren aita ere poliki jarduten da bertsotan. Orrelaxe, bada, alegiña umorean ibillita ere, naiko lan badago.

Oraingo eztai-apari au Mutiloako Lierniko Amaren elizatzoren alboan dagoan *Mujika* jatetxean genduan. Lierni ontan izan zuten beren ezkontza, Aita Garateren eskutik; eta orrelaxe danok pozik. Apari bikaiña egin genduan, eta gero nunai bertsoa edo txistea eta soiñua ere. *Lagunak* taldea asko ixildu gabe jardun zan. Baziran amaika dantza egindakoak.

Orrelakoxe eztai-apari eta apalondo ederra zan, beraz; eta goizeko irurak inguruan bukatu zan angoa, eta beste nunbait edo beste zerbaitetan jarduteko ere sasoi ederrean partitu zan jendea. Baita bear ere. Garaian garaikoa: astean astekoa eta jaian jaiekoa, lenagoko morroiarena.

Pedro Etxezarreta, beste bertsolaria alegia, eta ni azken xamar edo azkena giñan andik aldegiten. Baiña Liernitik bertan dago Segura, eta laixter giñan etxean, deabruak geldi egon izan balira. Baiña kotxeari, belardi aldetik zeuzkan bi kurpillak kendu zizkioten, eta ezin etorri. Pena aundia artu genduan. Aiek kentzen beste bi maillatu ere bai propiña. Gaur diru asko kostatzen dira aberi auek, baiña ez dago ezer egiterik. Ala ere, jatetxe ortako nagusiak kotxea jarri zigun, bere txofer eta guzti, eta onek ekarri giñun Segurara. Eskerrik asko, beraz, bioi.

Gaiñerakoa bertsoetan ortxe dezute, beste ezer egiterik ez dago eta.

1
Milla beatzireun da
larogei ta amarren,
uztaillak ogei ta bat
ta illunabarren,
Mutilotikan geunden
gu gertu xamarren,
Mujika deitzen zaion
ostatu ederren,
eztai-aparin bertsok
kantatutzearren.

2
Segurako neska ta
Bizkaiko mutilla
Liernira joan ziran
uztarrian billa.
Bi maitasun zitezen
baten korapilla,
Aita Garatek jarri
zien maratilla;
urte on askotako
dana izan dedilla.

3
Ondoren aparria,
bazan naiko jan-gai;
ardo onak, txanpaña,
whisky ere nunai;
montecristo galantak
ezpaiñetan e bai,
bizirik zegoana
jarri bear alai,
biotzez esker milla
portatu ziranai.

4
Ontan apalondoa
alaia zan presta,
dantzarik gozatzeko
Lagunak orkesta.
Gu ere mardul xamar
bertsozko itzez ta,
goizeko irurak alden
bukatu zan pesta:
eztai-aparirako
berandua ezta.

5
Jendea nora-ara
abitu zan bela,
Pedrok eta nik gendun
eskoba-papela.
Bertsolarik alperrak
diote bestela,
baiña uste det laixter
Seguran giñela,
kotxea egon balitz
utzita bezela.

6
Renault veintiunoa
an zegoan umil,
belardian aldetik
kenduta bi kurpil.
Ura utzi zutenak
orrela inutil,
iñoiz ez dira izango
gizon edo mutil,
kasi obe tximistak
bertan balitu il.

7

Kurpil kentzen egiñak
beste bi aberi:
kozka eta maillatu
an zitun ageri,
zuek egiñak paken
zegoan bateri.
Baldin ez bazaudete
burutikan eri,
txotxoloen aulkian
zerate exeri.

8

Neronen izardiaz
nituan erosik,
orain lodituzeko
litxarreran ontzik.
Ez dezute arrazoirik,
ez dezute lotsik,
zuen kolkoan ez da
gizonan biotzik,
etzenduteke bear
bizitzeko pozik.

9

Norberak nai ez duna
besteri egitea,
juzgatutzen det pizti
txarren langitea.
Esku zatarrak sartuz
leku politea,
ta atrebitu dana
ontan ekitea,
joan dedilla aita
zein dun jakitea.

10

Kiebra jo ezker
kezkan da ajolan,
bat azkar sartutzen da
motxaille eskolan.
Miru gaiztoak dabiltz
gaur zuen arbolan,
eta ingurukoak
badegu naiko lan,
obe bazeundeteke
betiko kaiolan.

11

Aurrerapen aundiak
diradenez piztu,
Jaunaren aginduak
zertako sinistu?
Ala ere bete ezin
nai aiña zirristu,
orrenbesterañoxe
kontzientziz xixtu, (1)
jotzen dizuten arte
zapo zarrak txistu.

12

Ixildutzera noa
au esandakoan,
len ere ez naiz jardun
umore bapoan,
kulpa gabe neronen
onetik kanpoan,
zuek zaudetelako
etsaien kakoan;
barkatuko dizuet
ordaindutakoan.

(9) Segura aldean, *xixte*, *xixtu*: ustela, ximaurre... Onela esaten da: "Belarra xixtuta ekarri ditek".



Jose Insausti eta Ion Mugartegi bertsolariak.

(1990)

Iñaki Perurenari

Oraingo bertso-sail ontan ere, lengoan diodan bezela, nere gogoko dan kirol bat artzen det, eta aldi berean gaur egun dagoan gizonik indartsuena.

Zein urtetan jarri nuan ez daukat gogoan. Baiña asko ezin izan, Perurenak ere, ni deskuidatzen ez banaiz, aurtan, 1990-an, ditu ogei ta amalau urte eta. Baiña gaur 314 kilokoa jasota dago; eta, nik bertso auetan diodanez, artean 300 kilokoa jasotzeko zegoan, edo orduan zijoan plazan aproba egitera. Baiña arrigarrri da onek egiten duana edo egin duana. Gizona ere bikaiña; ondo egindakoa, euskaldunok esaten degun bezela.

Orain dala iru-lau bat urte, bere etxean aparti bikaiña ere jarri zigun seguratar batzuei. Etxezarreta, Laureano eta olakoxe batzuk joan giñan, eta koziñan ere badauka nik ainbesteko tajua. Ondo serbituta irten giñan. Errege-bezpera zan, baiña ez genduan otzik ekarri.

Bertsotan ere poliki moldatzen da, eta edozertan ere ez da makala izango. Burua ere argia du. Gizon bizkorra, itz batean esanda.

Jimnasi eta entrenamentuak egiteko ere leku berezia dauka bere txalet edo etxe berri ederrean. Bai arria ugari ere, makiña bat pisu-klasetakoak. Aiek danak ere aren bizkarrera jasota egongo dira amaika aldiz, orain aundiak bakarrik erabilliko ditu baiña. Izan ere, ez dago, eun kilokoaren bizkortasunean jasotzen jardunda, 314-koari bizkarra azpian jartzetik; eta berak badaki ondo asko ori. Pisua ere, arri oiekin ibiltzeko, gizonak nik uste det dexente bearko duala, eta au ere eun da ogei ta amar kilo inguruan ibilliko da, gutxi gora-bera.

Urte on askotan jarraitu dezala bere emazte, guraso eta ondorengoakin pake santuan. Auxe opa diot biotz-biotzez, eta beste bat arte, Iñaki.

1
Arri-jasotzaille bat
aitatu naiean
ni gaurko jaiean,
esne-saltzaillearen
doiñu alaiean.
Pozikan jarduten naiz
olako gaiean,
bertsotako gogoan
dedan garaiean,
ez det denbora asko
galtzen ezbaiean.

2
Leitzakoa da bera,
izenez Iñaki,
au zeñek ez daki?
Erronka gutxi eta
indarra galanki.
Marka danak aspaldi
zituan ebaki,
alako arriak ditu
bizkarrera jaiki:
noraiño iritxiko dan
zeñek erabaki?

3
Urteak pasa ala
gora eta gora
ta markak mejora;
orrelaxe dijoa
Iñakin denbora.
Len bi eskuz egiñak
zedukaten lora,
onek bakarrez ditu
utziak kanpora,
ogei arropa jasoz
ezkerrez lepora.

4
Bi eskurekin ere
zein da Perurena
bildurtzen duena,
jakiñik gruak aiña
indar baduena?
Oraindikan jo gabe
gaiñera goena,
eldutako guztiak
artzen dituen;
or dago ejenploa
bere frutuena.

5
Oraindik gazte dago,
bikain da mardula,
zimurrik ez dula,
lengo marka guztiak
autsitzen ditula.
Baita sinistu danok
pentsatzen degula
irureunekoa ere
jasoko digula,
eta ao zabalka
utziko gaitula.

6
Makiñatxo bat aldiz
utzi du nabarmen,
bai an da bai emen,
berak duala iñork
ez dun aiña kemen.
Oraindik igotzeko
sasoiz naiko baimen,
da irureunekoari
ere esan amen,
“sei orduak” Donostin
bukatu baiño len.

7

Kirol au asto-lana
jotzen dute batzuk,
esango det zeintzuk:
beren ustez diranak
erabat jakintsuk.
Nik berriz jartzen diot
begi maitasuntsuk,
neurtzen ditualako
maiñak eta pultsuk;
bai nabarmendu ere
pertsone indartsuk.

8

Gaiñera kirol auxer
lanetikan dator,
saiatuta jator;
au esan dutenakin
ni ere bat nator.
Ortarako ibilliak
ainbat arkaitz tontor,
etzegoan garaian
gaur ainbeste motor;
egi osoa da ta
zalantzik ez det or.

9

Nola arrobi-zale
ta berdin argiñak,
langille gordiñak,
arri tzarrak artu ta
lan zaillak egiñak.
Euskal Errian ortan
izan gera fiñak,
gero norgeiagokan
plazatan ekiñak,
zeiñek altxatzen zitun
arririk aundiñak.

10

Batzuk aundiak eta
bestek txikik sarri,
makiña bat arri,
talentua daukanak
bizkarrean jarri.
Amaika ikusia naiz
ta onai igarri,
urrengorako ere
len aiña egarri;
kirol au neretzako
ain da txalogarri.

11

Lau arri-klase plazan
neurtzeko indarrak
dira naiko zarrak:
bai zilindroak eta
bai retangularrak;
kubiko ta biribil
beste bi zakarrak,
probatzen dituztenak
baten atzaparrak;
baiña Perurenantzat
ez dira ain txarrak.

12

Nai arren zu zerana
azaldu det gutxi,
naiz sarri ikusi,
ta gauz askotxo ditut
esan gabe utzi.
Baiña nik nai ziñuzket
eskerrez igurtzi,
bizi zaitez pakean
famili ta guzi,
eta al dezun arte
gaillurrari eutsi.



Gillermo Areizaga alkatea,
Segurako alkate amalau bat urtean izandakoa.
Azkeneko aldia 1991-ko udaberrian bukatu zuan,
eta Abenduaren 5-ean il zan, 49 urterekin. (G. B.)

(1991)

Gillermo Areizaga zanari

Ainbat urtean gure erri Segurako alkate izandako Guillermo Areizagari jarritako bertsoak, il zan egunean, 1991-ko Abenduaren 5-ean alegia, eta ondorenean. Sail ontako zortzigarren bertsoa egun artako *El Diario Vasco* egunkarirako jarri nuan, eta alaxe azaldu zan eskelan. Amabigarrena, berriz, illeta-garaian aldaratik kantatu nuan.

1
Milla beatzireun laroetamaika,
abendu illaren bosta,
goizen goizetik aizea gendun
azkeneko ostoen kontra,
igarrak zeuden da eraixtea
etzaio askorik kostat;
berai begira pentsakor nago,
itza're det oxta-oxta,
gureztat ere, eze edo igar,
garai auek badatoz-ta.

2
Mundu ontako danon bizitza
dago neurtutzen xamurra:
gaur txiki, biar gazte sasoiko
ta etzi buru makurra.
Gaiñera beti eriotza zai
nola izkutuan lapurra,
urrena ostoa auek bezela
jateko prest dago lurra,
au pentsatzean dardaraz daukat
nere izate apurra.

3
Nere barrena esanaz daukat:
“Onela ez luke bear”.
Ori pentsatuz etxeruntz nator
gaztaiñaditikan zear.
Une ontantxe etxe ondolik
andrek egin zidan dear:
“Telefonotik bat oska dezu
erdi zotin, erdi negar”.
Au entzuteak lenaz gaiñera
utzi nau motx eta melar.

4
Alkatesa zan deitzen zidana
eta berria illuna,
bera izan zan nere begiak
aguro busti zituna:
“Gillermo il da, urte askoan
pozik eduki gaituna,
ainbeste gauza berri egin da
zarrak konpondu dituna,
eder da oso mantentzearren
gure Segura kuttuna”.

5
Berroe ta beatzi urte beteak
Santu Guztien bezperan,
itxura baten sasoiko zegon,
askotxok dakigun eran.
Baiña gaitz txar bat bere barruan
urte bete ontan gerran,
bai eriotzak bentzitu ere
nola ezertxo ez geran,
ez egon balitz bere bizitza
Segurarron gora-beran.

6
Ia amalau urte alkate
emen eskeiñi diguzu,
Gipuzkoako Batzar Goienen
ere lau egin dituzu,
gaiñera amaika premi-alditan
zintzo babestu gaituzu;
nun zer falta zan ari laguntzen
jardun ziñalako sutsu,
berreun urtean Segura onek
gogon izango zaitu zu.

7
Berrogei urten bizi ta gero
diktadura baten pixun,
diru-laguntzak ugaldu ziran
Euskal Errian zerbitzun.
Baiña nora jo jakin bear zan
da zuk ortan bazekizun,
eta erri au altxatutzeko
Jaunak lagun egin zizun,
ondorengo au eriotz orduan
argatik kantatu nizun.

8
Negarrez gaude ainbat biztanle,
negarrez dago Segura,
galdua baidu bere Gillermo,
izar paregabe ura.
Alkate zala au altxatua
lurretikan teillatura,
ta bear ainbat eskertu gabe
eriotzak zaitu eskura,
Zeruko Jaunak artu zaitzala
santuen bizi-lekura.

9
Ileta orduan ere zein ziñan
jendek zuan erakutsi,
sekula ez det nere denboran
ainbeste lagun ikusi.
Gure eleiz au ia izan arren
probintzin lekuz nagusi,
barrua bete ta kanpon ere
etzan egon kristau gutxi,
pozteko da au, baiña ez nion
negarrari errez eutsi.

10
Udaletxetik gorputza arturik
ainbat kororien artean,
txistu, tanbolin, agintari ta
erriaren alkartean,
aldara dana praille ta apaiz
meza ta sermoi partean,
abeslari onak, dantza ta bertso
ere zirala tartean,
ordubete ura etzait aztuko
bizi naizen bitartean.

11

Bertsoen lana Etxezarretak
eta biok egin gendun,
bizi zala're nola askotan
kantatu izan giondun;
bera're jardun izan zan sarri
gure markak ia ondun;
da bukatzeko nere elizako
bertsoa utziko det mundun,
sei puntukoa, une triste artan
neronek kanta nun modun.

12

Tristerik gaude zu ikusita,
Gillermo, zerraldon emen,
Segurarentzat nola ainbesteko
abe bikaiña ziñaden.
Penagarria, sasoian artu
zaitu eriotzak menden;
barka zaiguzu beti ez bagera
portatu zintzo ta lerden.
Erregutuko degu biotzez
Arantzako Aman feden,
azkenik ez dun udaberrian
paken dezazun atsedeen.



1965-garren urtean,
Loiola Irratiko bertso-sariketa batean,
Azpillagarekin bertsoetan

Bertso Berriak alperrari jarriak

Bertso auek jarri nituan nik ere azkeneko ogei ta sei urteak maixutzan igaro nituan *Jose Maria Aristrain*-go fundizioan, eta beste bederatzi bestela ere bai, danera ogei ta amabost urte egin ditudalarik. Baiña beste maixu batek esan zidan:

–Nik esango diat gaia bertsoak jartzeko: alperrak. Ala ere, ez dituk auek izurratuko.

Alaxe jarri nituan, eta ez pentsa gezurrik dagoanik.

Doiñua, zazpi puntuko bertsoak diranez, ondo datorkie Ramon Artolak ardo edo edariari jarritakoakin erabiltzen dana.

1
“Alper jendeari buruz
bertsok jarriko baziñuz
eskertuko nuke erruz”.
Erantzun nion: “Antton, ez daukak
asko egin bearrik bultz;
ezagutzen ditut tajuz
bizi diranak atajuz,
bestek egiña txupatuz”.

2
Alperraren malezia
da egoteko ezia,
bizi daikezu etsia,
pentsatuz lana dala bestek
daukaguna merezia,
abildade berezia
ikusten langabezia,
nunai jarriaz esia.

3
Lana urrutitik ikusi
eta arrimatu gutxi,
sarri eskuak igurtzi;
gero nekea ta izerdia
beti besterentzat utzi;
sasoiari geldi eutsi,
ortan oiek zeñek autsi,
emanagatikan auzi?

4
Agintzen dagonak ere
naiz-eta jarri aserre,
ez du egingo ezer e.
Nagia lanen asi baiño len
berak egingo du erre,
eta besten partez erre;
aurkituko da zelebren,
baiña alperra alegre.

5
Nausiak milla jenio,
baiña bater'ez balio,
bestek egite'ez badio;
ta aren lanak ondoko fiñai
laister eraingo dizkio;
ta alperrak oraindio
langilleari serio
tontoa esango dio.

6
Martxak ola oi du segi,
au badakit erdiz erdi,
alperra egonez geldi.
Olakoentzat sarritan oi da
nunai suerte geiegi:
gezurra biurtu egi,
eta fiña umillegi,
sarituta gutxiegi.

7
Ola ondatzen da fiña,
lanean gogor dakiña,
ori da gauza jakiña.
Beraz mundu au alperrarentzat
dago obeto egiña;
zintzoaren alegiña
nagiaren etekiña,
naiz sortu buruko miña.

8
Beste alper-klase bat bada:
tonto xamarra izanda
bizi dana ezin janda.
Aurrekoaren alden ona da
egia garbi esanda;
beraren munduko txanda,
bai zutik ta bai etzanda,
ez da iñor erasanda.

9
Morroi edo bere kasa,
ez bada oso enasa, (1)
badaki zein dun akatsa.
Ta txupatzaille oien ondoan
dauka biotz aberatsa;
badu're jangai eskasa,
taloa edo otaza, (2)
al dan eran oi da pasa.

10
Biziko da orrelaxe,
ez andra eta ez etxe,
Jaunak dakin bezelaxe.
Baiña ez diote ezer kenduko,
seguro nago ortantxe;
makiña bat zerga-klase
arentzat alperrik antxe,
naiz modan egon oraintxe.

11
Eltzean puntu batera,
iritzi au det atera
eta noa esatera:
iñor ez dala iritxi oraindik
ez daukanari jatera;
baiña fiñaren kartera
aguro errematera,
beste alper batzun artera.

12
Iritxi naiz amabira
ta Anttonen jakin-mira
atera det agirira.
Onetarako besterik gabe
zidan mingaiñetik tira.
Alperrak olaxe dira,
naiz munduai eman jira:
bestek egiñai begira.

(1) enasa: zikiña, ajolagabea. (2) otasa: ogi zaitsua, beltz xamarra.

Garai bateko morroiak

(Doñua: Esne-saltzaillearena)

Bertso auek aspaldi jarri nituan. Izan ere, morroia pranko ezagutu nuan. Ala ere, ogei bat urte lenago ez dakit morroi ibilli gabeko asko izango zan gure artean. Neroni ez naiz bertsoetan diodan morroi-klasetan iñoiz ibilli; baiña gure etxean ere morroia ezagutu nuan, umea nintzala. Gai au, ondorengo eiztariarena bezelaxe, *Elorri* kultur-elkartekoai jarri nien; baiña gazteentzat nainko arrotza irten zan.

1

Garai batean nola
giñaden bizi oi
esateko danoi
galdetu bear aundirik
ez dadukat iñoi.
Gaur askotxo eskolan
begira gerokoi,
len beste bide batek
izan zuan sasoi:
etxen morroia edo
etxekoa morroi.

2

Bizimodu geiena
bi ogibiden zai,
gutxigitan lasai,
batzuk baserritar da
beste batzuk artzai;
eta lana gallendu
famili eskaxai,
gero morroia bear
jarraitzeko martxai,
ta au ezin agindu
jende aberatsai.

3

Lantegi txarra zala
aberatsarentzat
iruditutzen zat,
alamoduzko etxe
batzuetan beintzat:
Lau nagusi igual
mirabe batentzat,
da egindako lana
gaizki zenbaitentzat,
lan txarra sasoz juxtu
zebillenarentzat.

4

Bat ezagutu nuan
oso sasoiakoa,
ementxe goikoa;
baiña lenengo egunen
egin zun naikoa.
Egun au izanikan
uda-garaikoa,
lan-ordu asko eta
motxa lapikoa;
nausiantzat bakarrik
urdaiazpikoa.

5

Lenengo amasei ordu
mendin segan bete,
juxtu-juxtun tente;
gero ukulluko lanak
pronto derrepente.
Sukaldera juatean
amona ere fuerte,
errosaioa esanaz
loak artu arte,
agur Mari asko ta
aparia aparte.

6

Indarrak egon arren
erabat jota lur,
errezoz ez labur:
amar misterio ta
geiago're xamur.
Morroiak egin zuan
mekabenka agur,
amonari esanez
naiko ezpain ximur:
“Eguna argitu arte
segi jo ta egur!”.

7

Pello berriz naiz bizi
morroi-elkartean
giro apartean,
batipat neguan da
udazken partean,
etxeko andreari
ikutuz tartean,
nagusia tabernan
zegen bitartean,
gaur aiña *sida* bildur
etzegon artean.

8

Makiña bat lan-klase
sozio egiñak
Pello ta Martiñak;
eskerrak etzun itzik
sukaldeko tiñak.
Bestela nagusiak
a zer zipriztiñak,
baldin jakin balitu
arek zekizkiñak!
Morroian antza baizun
semerik txikiñak.

9

Beste batek zituan
ain bide alperrak,
baiña ez okerrak,
lana pentsatzeko artuz
egoaldi ederrak;
da txarrarekin zaitzen
atari bazterrak,
beti emateko modun
egunai eskerrak;
alakon nagusiak
zeduzkan senperrak.

10

Morroi au mozkortuta
zegola etzana,
batek au esana:
“Nausia ikusten al dek
lanan ari dana?”.
Baiña erantzun zorrotza
laixter zun emana:
“Ik espabilatutzen
badadukak lana:
nausiak egiten dik
berak nai duana”

11

Batzuek izan arren
olakoxe griña,
bazan jende fiña,
gose-truke lanean
galanki zekiña.
Gabonetan bakarrik
oporrak egiña,
bakallago koxkor bat
artuta propiña:
ala ere aman ondora
ura atsegiña!

12

Olaxe eldu ta gero
ainbeste lan pixui,
izan gabe igui,
suertea ere eldu
oi zitzaien batzui:
begiak betetzean
etxeko Maritxui,
ta egurra emanez
maitasunaren sui,
bertan gelditzen ziran
nagusi edo sui.



Ezkerretik: Pedro Etxezarreta. Bittor Agirre, Jose Insausti.



Ezkerretik: Santiago Ariztimuño, Inazio eta Jose Insausti anaiak,
eta Joxe Mari Alustiza.,

Artazuriketa

1
Garai baten nola zan
arto zuritzea
esanaz, bertso batzuk
noa zutitzea;
bestela ez da erreza
gogon eukitzea,
lan au iritxi danez
oso gutxitzea.

2
Artaburuk xorrokan
beti bear jaio,
gero antxe azten da
gutxi edo geio;
ta andik ateratzen
len zenbat lan-saio!
Artoak zuritzea
orri deitzen zaio.

3
Garaia izaten da
uda azkenean,
artok izar-kolorez
jartzen diranean;
xorrokatik irtenaz
buruak gaiñean,
berak esaten dute:
“Jaso nai danean”.

4
Arto-lasto ta guzi
jasotzen zan ordun,
eta iritaiakin
ebakitzen gendun;
lasto au ganaduai
ematen giondun,
danez bearra zegon
baserriko mundun.

5
Iritaiz ebakita
utzitzen zan zaman,
gero gurdin artu ta
etxera eraman;
gauean zuritzeko
pronto zegoan an,
eskuetan artu ta
zintzo banan-banan.

6
Gero apalondoan
zer itz-jarioa!
Aurrena esaten zan
errosarioa.
Gaur berriz telebista
eta radioa,
mende erdi batean
au da kanbioa!

7

Baiña ordukoa ere
ez gendun tristea:
bateko bertsoa ta
besteko txistea,
azkar asko jarriaz
umore-txispea;
ikusi ez duanak
zail du sinistea.

8

Batzutan exerita
ta bestetan zutik,
artaburuak kentzen
xorroka barrutik;
gaiñera etzan faltatzen
sagardo-txurrutik,
orduan ekin zion
bertsotan Insaustik.

(1993)

Bertso Berriak **Aurtengo elurteari jarriak** (Doiñua: “Ikusten dezu goizean”)

1
Egiak esan asmotan
astera noa bertsotan
pentsaturikan askotan;
milla bederatziregun eta
larogei ta amairu ontan,
elurte bat det gogotan,
nik bear baiño geiotan,
esna nagola ta lotan.

2
Ez aldagoi ta ez elur,
da izotzak ere labur,
negua zijoan xamur,
Otsaillaren azken eguna
portatu ez balitz zakur;
zuriz egin digu agur,
zugaitz asko buru makur,
biurturikan su-egur.

3
Jai-goizeko elur tzarrak,
ez izanagatik txarrak,
ziraden mardul xamarrak;
sagar, aran da gaiñerakoak
falta eusteko indarrak,
aiek zotzaren dardarrak,
zirti-zarta deadarrak,
gero lurrera adarrak.

4
Ez pena ta ez erruki,
mataza aundiak jaulki,
azpiko zugaitzak aulki;
puskatu ditu ainbat igali,
aritz, piñu eta urki;
zeiñi itzegin baneki,
esango nioke aurki:
“Kontu pixka bat eduki!”

5
Mataza lodiak oso,
da bota ere ondroso,
egin du kalte askotxo;
gauza batzuntzat on izan arren
beste askorentzat otso;
natura ez dago zozo,
azaldu du kurioso:
danen ezin leike goxo.

6
Izan dezu ausardia,
o elur txuri garbia,
egiteko pikardia;
zugaitzak bota, ariak eten,
akabo indar-argia;
naiz-ta egon illargia,
gaurko etxen alderdia
elektrika da erdia.

7

Otzgailu ta berogailu
ere or daude ixpillu,
zorian askon katillu;
berdin erropa garbitze edo
beste edozein zirkillu;
bera ez badegu seillu,
ez zarata ta ez brillu,
sortzen da ainbat ixtillu.

8

Argi-indarrak baztertuz,
ezin bizi era prestuz,
seguru tankera estuz;
bei jaizten ere erdi aztuak
ortxe jardun gera eskuz,
birau koxkorak abestuz,
ain antziñako inbentuz,
sarri kopetea beztuz.

9

Askotxok elur inbidi,
eta esan: “Asi bedi”.
Bai al du naiko alderdi?
Zugaitz-adarrak ari gaiñera
botaz ainbat elur-mendi,
gero lantegiak geldi;
pasatu egun da erdi,
jornal gabe ainbat sendi.

10

Elurte luzea etzan,
gurean astebete zan
bere gazian da gezan;
kalteak egin dituanean
ez da egona perezan:
aldegin du naiko presan,
da nik bere berri esan
erriak gogora dezan.

Paotxa

1
Ala bear da egun batean
baserrian nintzan jaio,
eta bertantxe egin izan det
makiñatxo bat lan-saio.
Gure denboran ala ere ez da
etekiñez asko io,
azken urtetan naiz inguratu
ainbat aurrerapen iaio,
garai bateko amaika gauza
inguruan falta zaio.

2
Oietako bat belar ederra,
deitzen giondun paotxa,
ganaduentzat bera genduen
ain janari aproposa,
Pizten zituan bei ta abere,
ardia eta bildotxa,
zeiñek ez gendun eduki izan
udaberrin bere poza?
Ez dakit nola eman dizugun
orrelako bizi motxa.

3
Arto jorratzez ereiten ziñan
edo arbiakin baten,
dotore asko erne oi ziñan
bi lagun orien arten.
Gero arto ta arbik kentzean
utziazi bitarten,
udaberria eltzen zanean
zer poza zendun ematen,
naiz lana eman iritaiakin
ebaki ta eramaten

4
Iritaiakin ebakitzea
eskatzen zuan soroak,
segatutzeko txarrak baidira
sokorrak eta zuloak;
da zuztarretik etxeratuaz
paotxan erregaloak,
gerriko miñak kentzen zizkigun
sarri aurreneko loak,
naiz garai artan gutxik eduki
oraingo gerriondoak.

5
Azitarako mutur bat beti
soro-baztarrean utzi,
da maiatzean lora gorria
zintzo oi zun erakutsi.
Gero lorea azi biurtzen zan
eta soiñak ezin eutsi,
au beranduko gerizarekin
batera oi zan ikusi,
ontaz aurrera paotx-aziak
ez dauka ixtori gutxi.

6
Neskame-morroian ixtoria
norbaitek esana badit,
paotx-buruko azien gisan
nola egin zuten irrist.
Lantegi ontan kontatutzen zan
makiña bat ipui polit,
oraindik ere orduko batzuk
nere buruan dabilzkit,
pozik esango nituzke baiña
egiak diran ez dakit.



Gure seme Jose Inazio, 1988 inguruan,
eizetik uso batzuk botata etorri zanean.

Bertso Berriak **eiztari eta eizari jarriak** **(Doiñua: Aizak, i, mutil maiñontzi”)**

1
Eiztariak eta eizak
adierazteko itzak
esango ditut, ematen badit
astia bizitzak;
era ontako ekintzak
dirade nere eskeintzak,
goza dezaten bertsozaleak
da bertsolaritzak.

2
Entzun lenengo itzetik:
paradisoa galtzetik
pertsonak mundun iraun zuala
luzaro eizetik;
gau ta egun oien atzetik,
gaiñetik edo ertzetik,
egur da arri noiznai irtenaz
kueba beltzetik.

3
Ainbeste pizti eriotz,
premi gorrian erioz,
jan da jazteko saiatu bear
buru eta biotz,
noiznai arbolara ioz,
bildurrez beren azioz;
gaur tramankulu ederrarekin,
gaiñera bizioz.

4
Emakumeak erritan
asarratzeko neurritan,
opor-garaia pasatu naian
bezten eguzkitan;
gizonak eiza begitan,
zein ote dabil egitan?
Auxe pentsatzen egon izan naiz
amaika alditan.

5
“Zuk egin zazu zeurea,
nik egingo det nerea”,
dibortzioak izan lezake
ortxe aserea;
norbaitentzat galerea
etetzen bada edea;
alare danok egin nai degu
bakoitzak berea.

6
Eguzki artze ta eiz,
biak etekin txikigiz,
gutxi eginda asko kontatu
makiña bat aldiz;
ortik dagon praka berriz
ezin aberastu egiz;
baiña bieri segita obe
gustora bazabiltz.

7

Egoaizea pil-pil-pil
gauean baldin badabil,
eiztaria usorik gabe
ezin egon trankil;
mendi zorrotz da biribil
zapalduko ditu abil,
esanaz: “Igaz gaurko egunez
ogei nituan il”.

8

Naiz igaz beatzi bota,
aurten asko xamar konta,
eta norbera konforme bada
zeiñi zer inporta?
Orrenbeste eiz-mota,
danak ez eratxi jota,
geroko ere azia utzi
bearra dago-ta.

9

Kale egindako guztitan,
kartutxoai aitzakitan
orain artean ikusi ditut
irutatik bitan;
gero oillagor da erbitan,
sarri txakurrai erritan,
emea alta, arra segika
aldi geiegitan.

10

Aurten baiño ugariago
botatzerik ez badago,
aitzekin batzuk asmatzeakin
ni konforme nago;
dijoz geroz da gorago
edo irten urrutiago,
ekolojistak izan dezaten
atseden geiago.

11

Ala ere munduan zear
gure ekolojistak dear:
ezer il gabe bizi gaitezen
igali ta belar;
baiña ainbeste arrai edar,
txekor, egazti ta abar,
lurrak baiño len ez al ditugu
guk probatu bear?

12

Ekolojistaren txanda
batzuntzat txarra izan da,
alper-alperrik daudela ere
askotxo esan da;
baiño zeozer bear da
eiza babestuko bada;
bestela nunai amua pronto,
noiznai *dinbi-danba*.

Etxe ondoko gaztaiñondoa

1
Gaztain zaar bat degu
etxetikan gertu,
bere berri zeozer
nai nuke agertu.
Zaartutzeak ez du
askorik edertu:
barrua usteldu ta
ertzetara lertu;
baiña frutu ematen
ezin da aspertu.

2
Zenbat urte dituan
Jaungoikoak jakin,
beste iñork apenas
mundu ontan dakin.
Bosteun ematen du
dadukan plantakin,
ea alaitzen dedan
oraingo kantakin,
asmo orixe dabil
Insausti zarrakin.

3
Gure aitonan aitonak
or zun ezagutu,
ordurako emanda
zazpi milla frutu.
Beraz jakingo ditu
makiña bat kontu,
esango lituzkenak
ez balego mutu,
gazterikan iltzeko
etzalako sortu.

4
Len makiña bat lagun
izango zituan,
eta orain bakarrik
ia geldituan.
Orra asko zartzeak
zer lanak dituan,
eta oraindik ez da
ilko segituan,
ez det ikusten beintzat
ezin kunplituan.

5
Bost metro pasakoa
du kanpoko jira,
eta oraindik geio
aunditzen ari da,
zabaltzen dijoalako
erdiko erida;
barrun lau bat bikote
kabituko dira,
batzuetan bezela
alkartzen badira.

6
Nik ezagutu nuan
untzez estalita,
eta neretzat zegon
alaxe polita.
Baiña aitag esan zidan
begira ibilita:
“Jarri zak segituan
danak ebakita,
nai ez badek ikusi
betiko itzalita”.

7

Aitak gai ontan zeuzkan
arrazoi osoak,
untz-baso aundik dira
zugaitzan otsoak:
lotuta eguzki gabe
bizi bear gaixoak,
eta ingurutik jan
ongarri goxoak;
baiña aldegin zuten
txepetx da zozoak.

8

Txepetxak udaberrin
gaztaiñaren gerrin
goroldioz kabia
egiten zuan fin.
Ate bat izkutuan,
bestea agerin,
eta au tapatzean
bazekin zer egin:
konfiantzak aztuta
aguro aldegin.

9

Zozontzat ere bazun
ainbeste izkutu,
antxe sortzen zituzten
beren zenbait frutu,
naiz guk mutiko gaiztok
askotan zapuztu,
edo kaiolarako
kabi dana ustu,
eta pentsatzen gendun
genbiltzela juxtu.

10

Olakoxea ziñan
untzakin gaztaiña,
baiña untzik gabe're
badezu etekiña:
ale ederrak eta
esola egur fiña,
itzal da babesakin
orbel-iñaurkiña,
naigo nuke luzaro
biziko baziña.

(1994)

Bertso berriak, altzairutegi edo fundizioan berrogei urtean lana egin da gero suari jarriak

Bertso aukeratuak buruz jarri nituan 1994-an. Izan ere, suaren berri jakiteko badet naiko bide: Olaberriko *Jose Maria Aris-train* enpresan ia berrogei urtean lana egin det, eta emen altzairutegi edo fundizioan urte oriek danak.

Lantoki onek berekin ditu sua, kea, autsa eta otsa; edo, obeto esanda, berekin zituan. Orain askoz obeto dago, batik-bat ke eta autsari buruz. Beroa ere, pertsona urrutiago ibili edo lana egiteko moduan jarrita dagoalako, askoz gutxiago egongo da, nere ustez.

Baiña gure garaietan meatz edo mineral guztiak palaz botatzen zitzaizkion, eta aukeratu eta txatar edo ainbeste burni zar urtzen ari dan lapikoa pentsatu nola egongo dan.

Azkenetarako, maitatu ez, baiña gauza arrigarriak egiten zituena suak ikusita, bera oso-oso bearrezkoa dala pentsatu izan det; eta gaiñerakoa or du irakurleak bertsoan.

1
Bertso batzuek jarri
nai nizuke, sua,
ez baldin banaiz ere
oso jakintsua;
badakit zeradela
naiko kementsua,
inguruan pasarik
bizi geientsua,
baiña beti etzera
umil ta dontsua.

2
Naiz gaztetan baserrin
bakarrik lan egin,
eta gero ere ez
utzi ta aldegin,
ogibidea artu
nun altzairutegin;
nere ustetan antxe
egin det alegin,
ikasiaz suaren
ainbat poz eta min

3
Gogorak ziran ango
gau eta egunak,
zer izerdiak bertan
lan egin degunak;
sua, kea ta autsa
giñuzen lagunak,
otsak ere etziran
goxo ta legunak,
ia berrogei urten
entzun ditugunak.

4
Suaren berri nago
ustez ikasita,
ainbat urte egiñik
erdi itsatsita;
azkenerako negon
maitatzen asita.
ainbat meatz da txatar
urtzen ikusita,
galda baten utzirik
danak erantsita.

5
Galda au ezin sortu
ez balitza surik,
eta bere kolore:
gorri, urdin, txurik.
Ondo moldaturikan
zer etekin gurik!
Egin leizke gurutzak
da santun irudik,
kotxeak eta trenak,
barkuk eta zubik.

6
Suak dauzka kontatu
ezin ala bali,
naiz askotan portatu
oso animalia.
Batzutan pizten zail da,
besten nork itzali?
Pertsonak eta etxek
maiz ditu kixkali,
eta baso mendiak
auts beltzez estali.

7
Zeiñek asmatu zuan
ez dakit oraindik,
baiña munduan sua
bazegoan lendik;
da egiten zituan
erreketa aundik,
egur igarrak piztuz
tximistarengandik,
eta itzaldu gabe
an-emen su mendik.

8
Lenengo sua nuan
sukalden ikusi,
gero labe-sukoa,
da etzan su gutxi.
Baiño txerri erretzea
oietan nagusi,
baita argi egiteko
ainbat lasto-zuzi,
San Joan bezperan berriz
sorgin eta guzi.

9

Su auek ikusiaz
gu koxkortu giñan,
eta ekin giondun
serio dotriñan;
ta apaizak zizkigun
sermoiak egiñ an:
inpernua nola zan
erretzeko griñan,
beste suak utzitzen
zituna iskiñan.

10

Inpernua aitatzean
dotriñako maixuk,
pintura gorri jotzen
zitun munduko suk,
esanaz ziradela
gaua bezin itsuk:
“Kezkatzen ez bazaitu
pekatuan pixuk,
eternidaderako
ura daukazu zuk.

11

Maitemintzen bagiñan
bizitza ederrez,
oroituko giñala
ondo Luziferrez:
nola egiten zuan
sua oso errez,
eta an zebilela
pekatarik errez,
beti kixkaltzen eta
sekula erre ez.

12

Alare sua asko
maite du Insaustik,
ez baizitun sinistu
entzundako guztik;
eta arnas-biderik
ez danean zutik,
usteltzen egon gabe
zotalan arunttik,
obe erre ta autsak
jotzea eguzkik.



Maiatzaren 15 inguruan, paotxa burutu ta au azitarako saila da. Bestela, illabete leenago ebaki eta ganaduai eman bear zaie. Basarri-giroa oso aldatu da, eta gauza asko izkutatu ere bai. Oietako bat, paotxa. Leen etziran baserri asko izango paotxik etzutenak. Baiña gaur ia izenik ere askok ez daki. Guk azitarako aiña-edo ereiten degu; baiña kosta zitzaidan azia billatzen, urte askoan erein gabe egon da gero. Azkenean, adiskide batek ekarri zidan. Eskerrik asko, Maiora.

Garai bateko bizimodua

Orain dala denbora pixka bat, gazte batzuek tentatu ninduten gure gazte denboran bapo eta orrelakoak esanez. Au beti gertatzen da; baiña gaztea, edozein garaitan ere, zarra baiño obeto ibiltzen da, osasuna ta gaiñerako doaiak ondo antzean badauzka beintzat.

Baiña garai batean tokatu edo bestean tokatu ere, alde ederra dago. Emezortzi urterekin gerrara joan da zazpi urteko soldaduska egin zutenak ere gazteak ziran, eta il eta elbarrituak zenbat, bost xentimoren kulpá gabe? Gauza auek orrelaxe dira, baiña ederra da gaztetasuna umore aldetik; eta osasuna ere geiengoak ondo, bein zartu ezkeró geiengoak gaizki bezela.

Baiña gaur ere ikasi bearrak-eta estutasun latzak ematen dizkiete, danak ez degu ortarako berdín balío eta. Baiña gure edo nere gerra ondoko gazte denbora artatik gauzak xamurxeago daude gaur. Orduan, gure modukoak jana ere naiko juxtu eta alzan modukoa.

Lana, berriz, len ere badet naikoa esana. Eta beti pronto eta beste atsegiñak pekatu edo oker aundiak. Emen, batetik zigorra danean, bestetik ere or nunbait izaten da. Elurrak ere aizeak okertutako arbola erabat eraxten du lurrera, orduantxe errezena egoten da eta. Gu ere alamoduz. Baiña gaurko aldean umoretsua zan jendea. Zenbaitek esango du:

–Ain gaizki bizi eta umorea? Zearo inutillak ziñaten orduan.

Baliteke ori ere. Baiña nik uste det gaizki bizi dana ezer gutxik pozten duala; eta ondo dabillanak ohea billatzen lan zaila daukala. Paotxa nai ez-ta dagoan astoari, beste danak almitzak iruditzen zaizkio. Gaur ere pixka bat badago edo egongo da ortik. Baiña gure garaiko ura ez dedilla etorri.

Beraz, orduko bizimodua eta abar, bertso auek egin nituan, esne saltzaillearen doiñuan.

1
Aspaldiko kontuak
nai nituzke esan,
jendek jakin dezan,
gazte bati aginduak
ezagutu zezan.
Ordun ere gaztea
obeto ibiltzen zan,
asko oroitu gabe
gazian da gezan,
naiz goizean goiz jeiki
ta berandu etzan.

2
Gauza bat izan gendun
orain ez dagona:
umorea ona,
naiz patrikan eduki
gutxitan txanpona.
Edozein gauzarekin
jartzen gendun broma,
lan zakarra izan arren
ia geienona,
konforme pentsatuta
fiñik etzegona.

3
Ezjakiñak giñala
esan bear oso
bizitzeko eroso;
ala ere igaro
ainbat une goxo.
Ezertxo etzegoan
gaur bezin oposo,
goseak ibilliak
badira askotxo;
naiko ogia ere
sortu zan gerotxo.

4
Gerraondoa nola
izan zan luzea,
ura gurutzear!
Txitxi asko etzuan
sartu gorputzea.
Lana izan ezean
urri zan gauzea,
bi eguneko lan truke
dozena arraultzea;
olaxe etorri zan
gerri estutzea.

5
Señorito tankerak
askotxok zituzten
ondo erakusten;
gerrikoak lan gutxi
zilborrhari eusten.
Naita ere zail zegoen
bijilia austen,
aragia gutxitan
genduan ikusten;
besterentzat txekorrak
azitzen giñuzten.

6
Ala ere famili
galantak baziran
mai zarraren jiran,
aundi ta txiki antxe
alkarren segiran.
Zazpi edukita ere
geiagoren miran,
asitzen zan bitarte
sasoia erretiran;
asmo aiek ez dakit
gaur nora joan diran.

7

Paro gabe enpleoa,
 neskame eta morroi,
 sortzen giñadenoi
 gaur ainbat kontu gabe
 ziguten eman oi.
 Naiz-ta ez eskolarik
 erakutsi iñoi,
 ederki osatuta
 dotriña ta sermoi;
 ta bildurra inpernuai
 ta purgatorioi.

8

Ondo ikasi arte
 galanki dotriñan,
 benetako griñan,
 fallorik ezin zeiken
 iñola egiñ an.
 Bestela ain nabarmen
 geldituko ziñan,
kalabazero izenez
 taldeko ixkiñan;
 bapo ikaratuta
 ibilli oi giñan.

9

Ez dakit egin gendun
 ondo edo gaizki,
 eta zeñek daki,
 zenbaitek eman arren
 ainbat erabaki?
 Naiz-ta aurrerapenez
 bide asko ebaki,
 oraindik badauzkagu
 milla adabaki;
 zorionetik ez dago
 bear aiña jaki.

10


Kotxeak estali du
 lengo bizikleta,
 ez da berriketa
 berrogei urte ontan
 egindako buelta.
 Illen irabazten zan
 eskax bosteun pezta,
 ta bizikleta bati
 milla bear presta;
 oiñez ibiltzen giñan
 erosterik ez ta.

11

Neskai ikutzea ere
 pekatu zan ordun,
 maitatzeko modun;
 ala ere gertatu
 izan ziran aurdun.
 Baiña azaltzen zana
 alako errudun,
 bizitzako markakin
 gelditzen zan mundun;
 eriotzari ainbat
 bildur bagiondun.

12

Orrelaxe giñuzen
 orduko komerik,
 etzunak loterik;
 geroztikan izan da
 aukera oberik.
 Naiz neri ez tokatu
 goian egoterik,
 amaikak artu ditu
 naiko arrokerik,
 baiña motxak dirade
 emengo erromerik.



Jose Insausti, gaztetan.

Ikasi ta ikasi

Bertso auek moldatu nituala ez dira oraindik urte asko, eta asera izan zan ura ekartzeko zanga edo erretenak ebakitzen ari ziran leku batean.

Baiña nundik? Malkar ikaragarri batetik. Ez makinak eta ez gizonak ibiltzeko lekutik. Eta beste berrogei ta amar metro aldatu ezker, leku ona zegoan. Tubo geiago bear zuan, baiña ura etzan ezer, an egin bear ziran lanak eta laister izango ziran abe-rientzat.

Eta alaxe gertatu zan. Lurrak, izan ere, aldapa aundian ebaki ezker, badu luizia eta bera joan bearra. Baiña karrerako agintari arek, esanak esan, berea egin zuan, eta or konpon!

An geundenen artean ala esan zuan batek: karrerako gizonetan bazirala erabat azkarrak; ikasketak egiteko arrigarriak, eta ori doai ikaragarria zala; baiña ortik aurrera oso motxak.

Izan ere, ikasketak buru berri bat egiten zutela alakoaren barruan, eta beste ezer pentsatzeko lekurik gabe utzi; eta beste batzuk, eskolan moztxeagoak igual, baiña begi edo buru argia-gokoak zirala.

Nik uste det danean eskarmentu edo gorabera asko pasa bearra dagoala liburuetatik kanpo, eta an ere orrelaxe esan nuan. Baiña batek esan zuanarekin pentsatu izan det askotan. Onela zion:

–Ikastea asko kostatzen zaiok edozeiñi. Erakusten duanak ere gaizki dagoala errez esan edozein uskeriagatik; eta, ontara, bat jartzen dek ez konpianza, ez maitasun eta ez negar-malko, lenagoko amerikano zar aiek bezela. Eta orduan sekula ez diote iñori arrazoirik ematen; berena egin eta kito. Naiz andik bi illa-betera batek esandako era berdintsur a egin, asmatu duanarentzat, naparrak esaten dutena, “ezta deusik ere”. Ez pentsatu ortik aldatuko diranik. Bestela, gradu ori beera joaten dek, edo arrix-

kua beintzat; eta guraso edo zarrakin etxe edo bizitza berean bizitzea ere aspaldi baztatu zan. Orain edozein jarri dek orrela. Baiña oiek dituk aurrena asiak ortan ere; eta onek berak esaten dik erruki eta umore aldetik-eta naturaltasuna galdu egiten duala ikasteak, eta orrelaxe kontuak. Gureak ere ikasten dabiltz, eta alaxe nai nuke. Baiña ez dakigu zer ikusteko gauden.

Nik, berriz, izketaldi eta ango gora-beraz bertso auk jarri nituan.

1
Ikasi ta ikasi
ari da jendea,
jaio orduko danak
eskola aldea,
egoki pasa naita
munduko txandea;
lan zakarretik beintzat
beti igandea.

2
Mediku, arkitekto
eta injeniero,
notario, ekonomista
ta zenbat jenero?
Gero korbatarekin
dabiltz egunero,
bateko arrasto ta
besteko numero.

3
Ikasi arte ibilli
oi dirade estu,
berak ez beste danak
egon bear prestu.
Konpiantza galdu ta
umorea igestu,
negar-malkorik ere
olakoak eztu.

4
Liburu zar aundiak
or ikasi bear,
beste lan gabe antxe
ez parre, ez negar.
Baiña asitakoan
ogibiden zear,
eskola utsa ere
gelditzen da melar.

5
Urria da eskola
utsezko galoia,
ezagutu ezin da
zelaia ta zoia.
Ala ere sartua
aundizki sasoia,
ez dizute emango
errez arrazoia.

6
Gaztetan naiz-ta izan
gu bezin Pepito,
asko dira eskolak
jarriak ijito.
Naiz-ta lagun urkoa
gezurretan ito,
azkar esaten dute
“Nerea ta kito”.

7

Zintzo ari dan batek
lanean jo ta ke,
oiek aiña inbentu
atera lezake.
Baiña obe ematea
buruari pake,
bestela besteren bat
azkartu dezake.

8

Zerbait asmatu arren
jardunda jo ta su,
ez dio iñoiz esango:
“Azkarra zera zu”.
Naiz gero berak egin
zeozer igualtsu,
langilleen jakintza
utziko du antzu.

9

Aundi xamarrak ditut
orain arte bota,
baiña Joxe ez dago
eskolaren kontra.
Batzuek oi dirade
gizalegez porta,
mundu ontan bearra
ere badago ta.

10

Badira eskolatuk
gizon jator fiñak,
lagun urkoagatik
lan asko egiñak,
esaten duan eran
Jesusen dotriñak;
sendatu dituztenak
amaikaren miñak.

11

Mundu ontan gerade
orrenbeste klase:
batzuk beti kontentu,
bestek ezin ase.
Eta zintzoarentzat
esango det auxe:
ori da bidea ta
jarraitu olaxe.



Gure ezkontza, 1965-V-16-an, Beasaingo San Martiñen basilizan, nere andrea dan Ana Maria Usabiaga erri jator ontakoxe alaba dalako.

Maitasunari buruz

Oraingo bertso auek, Iparragirrereren doiñuan, oraindik jarri berriak ditut. Bertan, gure ezkontza eta au egiten dutenen alderdi onak aitutzen ditut, nere iritzian; eta gaur ere orduan bezelaxe pentsatuaz nago, ogei ta bost urte egin ditugu nere emazte Ana Marik eta nik ezkontuta baiña.

Ezkontzaren kontra milla ateraldi ditu zenbaitek; eta oieta-ko bat auxe:

–Ala pentsatu ezkeru, lan errezagorik ba ote dago ezkontzea baiño?

Au egia da; danentzako daude, emakumea geiago dagoala esaten da baiña.

Urrengoak:

–Emakume bat onik etzegok. Gure ama bezelakoa artzeagatik ezkonduko nintzakek.

Erantzuna:

–Bai; badaude gure amak bezelako emakumak. Eta zergaitik ez dute egon bear? Orain, kontuz: dana dakigulakoan eta nai degun utsa egin ezkeru, besterik aintzakotzat artu gabe, eltzeak gaiñezka egiten du. Ala ere, maitasuna egiazkoa bada, lengo arrastora sartutakoak badira.

Eta oso txarra irtetzen badu, ontan bi aldeak daukate arrixku berdiña, eta ezagutzeko denboraldia ere ortxe egiten da, ala nai izan ezkeru beintzat. Baiña ezer jokutzen ez duanak ez du ez irabazi eta ez galdu egiten ezer.

Ontan, bi aldeetatik milla kontu irtetzen dute. Baiña nik, nere ezjakintasunean, nere iritzia emango det. Alkar zenbat maite degu? Edo zeñek maite gaitu geiena?

Auxe da nere erantzuna, geiengoari begiratuta: amak eta aitak maitatuko dute beren umea geiena, eta auentzako ume

txarrik ez da. Beraz, maitasunaren maillarik audiena or egongo da.

Baiña oso gertuan, alkar ondo eramaten duten senar-emazteetan dago bigarrena edo aurrenekoaren parekoa. Gaiñera, gurasoak bizitzaren arian bukatu egiten dira, eta danok martxa berdiña daukagu emen: gazteak batzuek eta zarrak danak iltzea, eta orduan bakardadea dator. Ezkonduta ere gertatzen da au. Geiena maitatuta ere, biak batean nekez agurtzen dute mundu au.

Gero, irugarren maitasun-neurria, umeak gurasoa maitatzea. Baiña au euneko lauera jetxita egongo da, eta senideena ere ortxe paretsuan. Gurasoak dirua errez xamar botatzen dutenak badira, eta abar. Zenbaitek ederki itz egingo die; baiña argi zenbait umerekin eta zenbait seniderek.

Ala ere, danak ez al gera edo ez al dira izango orrelakoak, eta aurrera. Baiña egitan maite zaituana ondoan edukitzea gauza atsegiña da.

1
Al zan ondona pentsaturikan
neretzat zer komeni zan,
ogei ta bederatzi urtekin
ni ere ezkondu nintzan.
Gaur berari begira
nere itzak or dira,
ez naiz jardungo losintxan;
santa sekulan ez det oraindik
beraren damurik izan.

2
Milla beatzireun iruroe ta bost,
amaseiean maitetza,
Beasaingo San Martiñen oiñetan
eman genduan baietza.
Baita berari eutsi,
eta nolatan autsi?
Ez naiz orren ezereza;
pena bakarra daukagu biok:
lenago ezkondu eza.

3
Ondo badakit ezkonduk ere
bere lanak dituana,
arantza gabe etzait neri're
urte-pilla au juana.
Egizko esaera
da gutxi gora-bera
nik baten entzun nuana:
beti etzala gaizki ibilliko
norbaitek maite zuana.

4
Ondo lotuta bizi dan ura
maitasunaren zaiñean,
nere ustetan bizi izaten da
naiko modu apaiñean.
Gurasoak iltzean,
bakarrik gelditzean
lur triste onen gaiñean,
nor biziko da andra on batek
maite duana aiñean?

5
“Andra onikan munduan ez da”
norbaitek esan lezake,
nere ustetan ori bai dala
pentsatzea naiko merke.
Asi ezkerro eske
oraindik billa leizke,
ibilli gabe jo ta ke,
badaukatenak gizon batentzat
naiko maitasun da pake.

6
Ondo badakit on usteko askok
eman duala naiko lan,
gero etxean famili danak
begitan malkoak loran.
Baiña beti gizonak
ez gerade ain onak
izaten gure denboran;
axaletikan ez da ikusten
maitagarriena nor dan.

7
Iru maitasun-klase dirala
neri iruditutzen zat,
lenbizikoa zalantza gabe
gurasoena umentzat.
Gero senar-emaztek,
zarrak bezela gaztek,
ondo badabiltza beintzat;
eta umeak gurasona ta
senideak alkarrentzat.

8
Gurasok maite izate kontun
sartuta dago pipia,
naiz aitak ainbat izerdi atera
ta amak eman titia.
Senide askona berriz
makiñatxo bat aldiz
inbiriak irikia;
kontua pranko axaletik ta
barrun maitasun txikia.

9
Danak ez dira orrela izango
baiña geienak or nunbait,
bestek lagundu zai dagoanak
bizi bearko nolabait.
Maitasuna argaldu,
arrokeria ugaldtu
eta beti palta zerbait;
orregatikan premizko degu
egitan nai digun norbait.

10
Ta norbait ori nik juzgatzen det
garai onen ezkontzea,
eta urrena al dan ondona
maitasuntsu konpontzea.
Naiz izan segurua
zenbait txoron burua
ezkontzak ez gizontzea,
askotxo irixten dira alare
bakarran markak ontzea.

11
Sasoi onean errez ta pozik
oi degu denbora pasa,
adiskidea ugari eta
nunai gustoko jolasa.
Gero erdi zartzean
eta gaixo jartzean
bat ez bada aberatsa,
gurasorik ez, andrea falta,
naiko bizitza eskasa.

12
Ezkonduta're bakar bizitzak
ezbearrez daki ekiten,
baiña seguro dauka aurretik
ezer ez dunak egiten.
Baezpada probatu
ote leiken logratu,
bestela zail da jakiten,
denbora joan da ibilli gabe
odol danak irakiten.

13

Beste kalte bat: gizon bakarra
ez al da joaten zabartzen,
iñork ez badu bere bizitza
zintzo aintzakotzat artzen?
Naiz gogor egin lana,
dakilakoan dana,
buru gogor daki jartzen,
berekoikeri gaitza baitzaio
neurritz kanpora indartzen.

14

Nik onelaxe ikusten ditut
bakardadeko komerik,
eta mesedez barka zazute
badirade erokerik.
Ez naiz azkarregia,
esango det egia,
ta ez daukat arrokerik,
baiña nik ez det mutil batentzat
ikusten bide oberik.

Neska baten gertaera

Oraingo bertso-sail au, esaten dedan bezela, gertatua da, eta amaika onen antzeko ere bai. Izan ere, badegu ezin kabitua edo ezin neurtua geure aunditasuna.

Baiña “danean txakurrak anka utsik”; eta beste esaera zarra: “nagusi ohea da ondo ezagutzen dan arlotea, eta ez ots aundiko urrutiko dotea”.

Izan ere, onak eta aundiak ez du propaganda bearrik, eta urrutira joan gabe izango du jabea. Nola-alakoa da emen, edozein motatan ere, naiko lanakin ibiltzen dana. Eta zenbaitek aparteko aurpegia izaten du; eta gero, edozer gauza eginda ere, ajola gutxi.

Baiña geienak azkenean neurriko zapatak arkitzen dituzte, eta azken batean danak gaizki.

Baiña geiena supritzen dutenak umeak edo aurrak izaten dira; eta iñoiz esan eta ikusi ere izan ditugu munduko fiñenak olakoaren ondorengoak. Baiña bestelakoak zenbat bizitza guztiko seillu nabarmenarekin?

Ala ere, beti izango dira bertso auetan esaten dedan onen antzekoak, eta au, neskarekin eta mutillarekin, danakin gertatzen da.

Izan ere, txarra beti zintzilika egoten da alde batetik, eta arrokeriak ez du gauz onik bestetik.

Inbidia eta aundinaia, berriz, mundua baiño aundiagoak dira. Oraindik ez ditu iñork neurtu; ezta neurtuko ere. Baiña bakoitzak bere burua beti justu ikusten du, eta onek onela jarraituko du mundua mundu dan arte.

Gaiñerakoa emen du irakurleak amabost bertsoan, zortziko txikian ipiñita.

1
Neska gazte bat bazan
da ederra oso,
ezaguera gutxi ta
aizea ondroso;
arroxkoakin alai,
umillakin otso,
biziko zalakoan
oiekin eroso.

2
Jende-klase orrentzat
bazuan afana,
bestearrentzat pronto
kalabaza bana.
Ikustean korbata,
gaiñera gabana,
laister joaten zitzaion
dantzako galbana.

3
Bakarkakoan baiño
elduan naiago,
begiratu ere ez
iñori geiago.
Naiz kiñuz esan batzuk
“ni ere gai nago”,
obe zan pentsatzea
“orrekin jai dago”.

4
Baiña aberatsaren
tankerako batzuk
diruz izaten dira
nere igualtsuk.
Jantziz egiñagatik
ain itxura altsuk,
lanean alperrak ta
etorkizun antzuk.

5
Gezurrarekin askok
artutzen du fama,
ta zenbaitek sinistu
dalakoan ama.
Ala engaiñatu da
makiña bat dama,
urre-pilla uste ta
gero lasto-zama.

6
Urrutikoak dira
geienean auek,
bartzarrak engaiñatzen
egunak ta gauek.
Ortan abildadea
badu zenbait auek,
utsa izan da esan:
“Ni betea nauek”.

7
Eta gaixoak zion
guztia sinistu,
ta jauregi ederra
biurtu zirristu.
Malezi geio balitz
bere burun piztu,
gaur beste txori batek
joko zion txistu.

8
Mutil onek bera ta
berearen aupa:
jornal ona, txaleta,
kotxe ta txalupa.
Ta sinistu zionak
orrenbeste jeupa,
nere ustetan badu
berak aiña kulpa.

9

Baiña konfiantza dunak
urrutiko intxaurrez,
ezer txarrikan ez du
pentsatutzen aurrez.
Artzen zualakoan
estalia urrez,
gaur erruki naiz beraz
eta bere aurrez.

10

Aurrak eman zidaten
egizko lastima,
aiek ez ditu inork
askorikan mima.
Berak ere zirudin
sorgiñen anima,
lengo ille ederra
biurturik txima.

11

Uste det onezkero
konturako zala,
gaixoak egin zuan
pekatu mortala.
Ogiarentzat ere
gaur falta jornala,
etzualako artu
ona ta formala.

12

Lanai gorroto gutxi
eta festa maite,
azturikan dagola
lau umeren aite.
Lenagoko erronkak
badira nunbaite,
sinistu baziñuzen
eskarmenta zaite.

13

Bukatu ziran lengo
bromak eta jaiak,
ta senargai alperra
ona zan garaiak.
Orain ogia falta
sukaldeko maiak,
olakoxe suertea
izan zun Amaiak.

14

Onenak e sarri du
sufritu bearra,
baiña onek beronek
erein zun negarra;
ta orain eten gabe
bizitza melarra,
ugaria dalako
barrabas-belarra.

15

Gertatua azaltzen
aritu naiz kantuz,
norbait argitu naita
dedan eskarmentuz,
poliki fiatzeko
jaten duten santuz;
naiko lan badalako
naiz ibilli kontuz.



Emen Tenerifen gaude, 1999-an. Suari jarritako bertsoetan esaten dedana ortxe dago: "Eta itzaldu gabe an-emen su mendik". Atzeko mendia Teide da, amaika su, ke eta eskori botatakoa.

Eguzkiari

Eguzkiari buruz egin nituan aurreko batean sei bertso auk, eta ementxe ditu irakurleak.

1
Dozen erdi bat bertso jartzeko zuretzako, eguzkia, asmoa badet nere burua ez badago zapuztia. Garbi itzeginda, ez egon arren jakindurian bustia, azaldu nai det amaika bider pentsatzen dedan guztia.

2
Azkarrenak e bai ote daki eguzkiz kontu garbia? Ta nere antzeko ezjakin batek geienez oien erdia. Baiña aundia da mundu ontan eguzkian alderdia, bearrezkoak izanik orren beroa eta argia.

3
Negu ta uda bero berdiñak orrek edukiko ditu, naiz zenbat giro petral danean ez alaxe iruditu. Nunbait gu udaran gertutzen gera ta neguan urrutitu, mundu danantzat bakarra baizun gure Jainkoak zutitu.

4
Bero edo argi danera oi da bere bakarren iritxi, naiz laiño beltzak aldi batzutan azpitik atea itxi. Batek ta bestek emanagatik makiñatxo bat iritzi, eguzki gabe ezin gindezke gu mundu onetan bizi.

5
Beraz, eguzki, merezi dezu mundutar danon omena, guk sarri jartzen badizugu're bekoki egoskorrena. Ta zenbat aldiz izan ote da pentsakera neronena: itzala dala zuk nere ustez daukazun gauzik onena?

6
Aspertzen gera beroan eta aspertzen gerade otzen, eta edozein arrazoi kaxkar zaigu buruan jaiotzen. Baiña, eguzki maitagarria, eskari au det biotzen: urte askoan jarraitu zazu Insausti zar au berotzen.



Gure Aizkoeta-berri baserriaren aurrean, 1994-an, Santa Ageda eskean, *Elorri* elkartekoekin. Soñu-jolea eta panderista ataundarrak dira, anai-arrebak, ama Segurakoa dutenak; Lardizabal Arrondo bere deiturak. Koplariak, Pedro Etxezarreta eta ni. Soñu-jole eta panderista Intxausti anai-arrebak ere urte dexentean erabilli giñuzen. Seguran bertan ere badaude, izan ere, trikitilari onak, bi edo iru bikote.

Santa Agedako koplak

Oraingo bertso edo kopla auek egin berriak ditut. Auetan, gutxi gora-bera, Santa Ageda bezperako eskean ateondo edo sendi batean koplariak kantatzen duana azaltzen det. Santa-eskea edo Santa Ageda bezperako eske au Euskal Erri geieneran da. Baiña emen, Goierrin, ez du ainbesteko indarririk izan; eta nik, beste iñora joan gabe, Segurako berri emango det.

Seguran len ibiltzen zala entzun izan det. Baiña, nere ustez, oso aspaldi bearko zuan izan. Nik ez det ezagutu beintzat koplari ibillitakorik. Kanpokorik ibilli danik entzun ere ez.

Gertatzen dana da Santa Ageda eta Karnabalak oso gertuan izaten dirala askotan. Au esaten det, neri iñoz esan baididate batzuek, aien ustez ikasitako kopla eta abar ibiltzen ziralara Seguran ere. Baiña, nere ustez, emen eskean gerra aurretik Karnabaletan ibiltzen ziran. Au bai; seguro dakit, eta bertso zarren batzuk eta umore ederra ere erabilliko zuten. Baiña ez dira bat Santa-eskea eta bestea.

Beste eske-eguna Gabonetan da. Onek bai; eunka urtetan kera gabe jarraituko zuan, eta orain ere indarrean dago. Segurako berri ari naiz ematen. Beste erri batzuetan lau aldiz ere ibilli izan dira, alakoxe oitura noizbait sortuta: Karnabaletan, Santa Ageda, San Juanetan eta Gabonetan. Baiña gurean ez.

Baiña gaur ez dago ori esaterik. Orain urte batzuk, *Elorri* kultur-alkarteak Santa-eskea martxan jarri zuan, eta oso ondo jarraitzen du. Berak, sail batek, bapo kantatzen dute. Gero, trikiti eta panderolariak; eta Etxezarreta eta ni izaten giñan koplari. Oso ondo erantzuten du jendeak. Segi dezala urte askoan.

Nik sasoian izan nituan Santa-eske ontarako deiak erri bateatik baiño geiagotatik. Baiña ez nintzan atrebitzen nere zintzur edo eztarri bigun onekin, Santa-eskeak lan gogor fama aundia du eta. Izan ere, ala da, ondo pentsatu ezkerok; eta gaurkoa ezer

ez, lengoarekin konparatuta: ainbesteko ordu-pillan baserriz baserri, zenbat lokatza eta koska! Kanean errezago ibilliko ziran orduan ere. Baiña gaur kamiñoak daude danera; eta, kotxe edo kamion, aixago ibiltzen da. Gu ere alaxe ibiltzen gera. Baiña ala ere baditu bere lanak.

Bertsolari edo koplartzari buruz, berriz, auxe esango nuke: bi puntuko bertsoa errez egiten dala; bi puntuko bertsoa rimarik zaillenarekin ere aixa etortzen dala burura. Baiña ala ere lan gogorra da au. Pentsatu: etxe bakoitzeko amar edo ogei kantatuaz, ordu-pilla aundian millakak dago kantatu bearra. Azkene-rako, burua ez dakit ustua, bete, nastu edo zer gertatzen dan. Baiña bapo nekatu beintzat bai.

Guk kanean eskatzeko aiña edo ola kantatzen degu etxe batzuetan. Baiña ala ere gustora exeri izan gera apaltzeko aulkian, maiaren arrimoan. Ordurako muturra pixka bat bustita ere bai nere modukoa. Baiña ala ere pozik.

Zaillena eginda dago Seguran gai oni buruz. Nik uste det jarraituko duala, eta orixe deseo diet oraingo antolatzaillaei, eta biarkoei ere berdin.

1
Otsaillaren laugarrena gaur,
Santa Ageda bezpera,
goizen goizetik asita gabiltz
pozik batetik bestera.

2
Etixerik etxe ementxe danok
gu jende-talde galanta,
oitura zarrak gorde nairikan
soiñu, pandero ta kanta.

3
Italiako santa aundi au
gaude zein zan ikasita,
ta bere berri eman nai degu
bezperatikan asita.

4
Kataniako errin sortu zan
etxe aberats batean,
Jauna serbituz bizi izateko
egizko borondatean.

5
Beraren aita etzan ordea
Jesusen jarraitzailea,
alabarentzat ere nai zuan
aberatsaren maillea.

6
Eta beraren gisa nai zuan
munduko gauzaz itxutu,
baiña naiz oso gogor eraso
etzan Ageda izutu.

7

Orduan eta aundiagoak
aita gaiztoan sugarrak,
preso sartzeko agindu zuan
eta mozteko bularrak.

8

Alare Agedak bide zuzenen
ermo zekian egoten,
eta kartzelan aingeru batzuk
miña sendatu zioten.

9

Aitak orduan jarri nairikan
beraren errespetoa,
agindu zuan erruki gabe
bertan mozteko lepoa.

10

Santa Agedan bizitza dana
da esplikatutzen zailla,
eta aurrean jarri dezagun
gure bigarren lan-sailla.

11

Onekin esan nai dizuegu
nola gabiltzan eskean,
txanpon batzuek errex antzean
ea eskura leizkean.

12

Ateondora lenbailen jetxi,
etxekoandre Prantxika;
kolka gabeko txita-talde bat
emen dago garraxika.

13

Zuk badaukazu erri guztian
andre jatorraren fama;
gurekin ere portatu zaite,
esango dizugu: ama.

14

Artzen ditugu urdaiazpiko,
lukainka eta arraultzak;
dirua're bai, erosi asmon
apaltzeko beste gauzak.

15

Pentsatzen degu etxe onetan
bizi zeratela jator,
Pernando zure senarra ere
zatoarekin badator.

16

Eskerrik asko, nagusi jauna,
au ardo on da preskoa!
Aixa jartzen du gure zintzurra
kantaria ta ezkoa.

17

Baita koplatu bearren gaude
zuen alaba Katalin;
politagorik gure aurrean
bat ez da jarri aspaldin.

18

Astakerin bat esanagatik
etzaitetz jarri asarre;
zatoa estutuz gabiltz sarri ta
trankil egin zazu parre.

19

Alare ikusten ditugu ondo
zure begi urdin orik;
zeruan ere bai ote dago
aingeru politagorik?

20

Izarrak bezin argia zera
eta ariña pausoa,
badirudizu galbururikan
galburu doan usoa.

21
Ille mardula eta luzea,
ta gerria dezu mea;
zeiñentzat ote dago suertean
olako emakumea?

22
Begi urdiñak ta aurpegia
larrosa kolorekoa,
ta egunsenti goxo bateko
txorien umorekoa.

23
Gauz on geiago ere dituzu
baiña bukatu bearko,
zure anaia Bernardo ere
ementxe daukagulako.

24
Ogei ta bost bat urte dituna,
etxeko maiorazkoa;
erri guztiak maite zaitu zu,
zerade jator askoa.

25
Iztun ederra eta argia
ta borondatez lodia;
bestela etzendun ola ekarriko
gaztaia eta ogia.

26
Lan gogorrakin baserriari
diozu etekiña kentzen,
eta lan txarra artu dezu gaur
oinbeste alper mantentzen.

27
Alare poza berekin dauka
ola bizi dan gizonak;
zure ondoren dabiltz erriko
neskarik jatorrentxonak.

28
Era ontako komenentziak
nola gutxintzat diraden,
ea aurtengo urte onetan
senar egiten zeraden.

29
Ez da, ez, oso gaizki izango
etxe ontako erraiña:
jende jatorra ondoan eta
maitetasuna nai aiña.

30
Orain agur ta lana badegu
sari danak eramaten;
baiña aundigoa bear bezela
esker beroak ematen.

31
Ama Prantxikak or sartu ditu
iru lukainka saskian,
ta Kataliñek diru aundi bat
berriz poltsaren azpian.

32
Beraz, millaka esker danori,
bukaera da iritxi;
eguna ondo igaro eta
olaxe pakean bizi.

Kontzientzia

1
Kontzientzia jarri zidaten
egunen batez izena,
eta ez dakit zein izango dan
deitura edo abizena.
Baiña sinistu pertsona danen
barruan bizi naizena,
naiz batzunean argala egon
eta bestetan gizena.

2
Danen barruan bizi naizela
ondo badakit orixe,
naiz-ta batzuek azaletikan
parrezka jardun onixe,
eta iñori kalte egiteko
griñea sartu ortixe;
baiña zenbaitek uste baiño len
nik eltzen diot orrixen.

3
Andik aurrera sarri oi ditut
zenbaiten pozak iñausi,
eta egunez bezela gauez
baita gorrik erakutsi.
Gaizto askoak sufritu dute
naiz zein naizen ez ikusi,
jentillak ere jarrita nago
errezatutzen Jesusi.

4
Sinismendunak salatzen ditut,
baita sinismen gabeak,
baldin badira utsegite edo
egintza txarren jabeak.
Pipiak jaten dituan eran
sapai zarreko abeak,
estutzen ditut lasai-tankera
duten askoren llabeak.

5
Estutzen ditut aberats asko,
baita're presidenteak,
naiz-ta eusteko izan zenbaitek
barrun kemen dexenteak.
Baiña guziak zulatzen ditut,
makurrak eta tenteak,
garbi ikusten da bildurra ta ni
gerala diferenteak.

6
Orregatikan iñoiz ez artu
gaiztokeritik atsegin,
bestela sarri bearko diozu
kokoteari atzezin.
Eta betiko baztatu zazu
iñori ematea min,
zure bizitza penitentzizko
arantza izan ez dedin.



Jose Insausti eta Pedro Etxezarreta, Santa eskean kantari.

“Badakigu euskeraz”

Bertso aukeratu orain urte batzuk jarri nituan euskerari buruz. Len ere amaika kantatua naiz gai oni. Baiña ez ni bakarrik; bertsolari danak.

Nik gaia artu nuan, ofizina batera sartu nintzanean, geroztik alako asko ikusi ditut baiña. “Badakigu euskeraz” txartela mai gaiñean, alegia; eta arritu egin nintzan txartel arekin. Baiña aiek etzekiten, batetik; bestetik, bere lurrean arrotz jotzea da ori euskera; eta, bere ikusteko eraz, burla egin.

Alaxe moldatu nituan bertso aukeratu, eta emen jartzen ditut, nai dituanak irakurri edo ikasi.

1
Zuretzat bertso batzuk,
euskera maitea,
len askotan bezela
noa egitea.
Illuna izan arren
daukagun gaitea,
al dezun arte beintzat
kontsola zaitea.

2
“Al dezun arte” diot
ta naiko arrazoiz,
ilko zerala ere
pentsatzen det iñoiz,
eta bizitzearren
egiten det otoitz,
bazkalondon ez bada
illuntze eta goiz.

3
Alare naiko pauso
motela daukazu,
zure aldeko batzuk
naiz jardun jo ta su.
Azkar usteko asko
irainka daukazu,
baiña Euskal Errian
anima zera zu.

4
Maita bearrekoa
anima ta gorputz,
zure sendiko askok
egin dizu zaputz,
esanez zaudela zu
beterikan papuz;
alare ez erori
naiz egin estrapuz.

5
Zeure sendian bizi
zera guztiz arrotz,
beti inguratuta
naiko jende arroz,
iñork mintzatu gabe
orduak igaroz,
txakur zarra bezela
estalita garoz.

6
Bestela nola ibilli
zabiltzan tankeraz,
mai gaiñean jarrita
“badakigu euskeraz”?
Tratatzen zaituenak
orrelako eraz,
garbi dago egingo
duela erderaz.

7
Alde askotara bear
degunez iritxi,
euskerakin bakarrik
danok ezin bizi.
Ta gauza orri batek
txarra nola iritzi?
Baiña Euskal Errian
euskera lenbizi.

8
Ez dakiena ezin
mintzatu da, baiña
lezakenak uztea
ez al da azaiña?
Oietakoak daude
ezin konta aiña,
ortik dagolakoan
jakintzaren gaiña.

9
Ez egiteari buruz
badira dexente,
au esaten dutenak
jarririkan tente:
“Euskera ibilliko
nuke derrepente,
egingo ez balitza
danen diferente”.

10
Eta au esanikan
gelditu sosegu,
udaberri, udara,
udazken da negu,
ez bagiña bezela
iñoiz ainbeste gu.
Berdinduko degu, bai,
egiten badegu.

11
Konparaziotxo bat
nai nuke nik presta,
batzuntzat ez badu're
balio bi pezta;
naiz guraso alper bat
bizi pestaik pesta
ume on batentzako
ama txarrik ezta.

12
Amabigarrenakin
bukatu bear ko,
itxaropen oberik
ez baida biar ko.
Ontzat artzen ditunai
nere zenbait asmo,
biotz-biotzetikan
eskerrikan asko.

Aita Karlos Urbietari

Bertso auek Aita Karlos Urbietari Segurako Sorkundeko mojak omenaldia egiteko jarri nituan, eta oraindik ez ditut jarri zaarrak. Aita Karlos frantsziskotar au garai artan Seguran zegoan, eta orain ere sarri etortzen da, eta alkarrekin egoten gera. Izan ere, ain da jatorra eta jakintsua. Ez dakit zenbat izkuntza dakian; musikan ere aparta; bertsoan ere ederki. Orregatik, pentsatu det bertso auek ere liburuan azaltzea, badakit ez duala nainko baiña. Karlos, barkatu nere ausardia.

1
Bertso batzuk zuretzat
dauzkagu, Don Karlos,
eta jarri zaitea
entzuteko ados.
Zu omentzeko egin
ditugu apropos,
Goierriko euskeran
neurri eta abots,
izan ditezen gure
maitasunaren ots.

2
Umetatik Jainkoak
egiña zera dei:
“Bide zuena au da
eta jarraitu nei”,
da izar bat erantsi
zion kristau etxei;
ekin ziondunetik
aurreneko mezei
urteak badirade
ogei ta amasei.

3
Ogei ta amasei urten
ain bide sakona
ondo eraman dezu,
dudik ez dagona.
Sorkundeko arrebak
dakigu ondona,
guri eskeintzen zeru-
biderik osona,
nork ez du maitatuko
olako gizona?

4
Oe ta bost urten zaude
Sorkundekon tarten:
amabi Alfaron da
beatzi Arrasaten,
eta lau damazkizu
Segurako parten,
gu danok salbatzeko
egizko aldarten;
etzaitugu aztuko
bizi geran arten.

5

Ain pozik bizi gera
danok zure albon:
beti degu egun on,
beti degu gabon.
Baiña zorion osorik
nola iñun ez dagon,
gauza bat galdetzea
dago gure gogon:
zergaitik egon ziñan
ondona Alfaron.

6

Leku ederra da nunbait
Errioxa alde ura,
aize sanoak eta
eguzkitsu uda.
Baiña onera're eldu
leku sosegura,
gaiñera beti esanez
daukagu Segura:
"Oberikan ez dago
joan gabe zerura".

7

Segurak olakoxe
esaerak ditu,
naiz-ta zuri Alfaro
obea iruditu.
Izan ere ainbat urten
ziñan an aritu,
orain orde a bada
emen errenditu,
ainbeste geradenez
zurekin balitu.

8

Sei zazpi izkuntzetan
itzegin da kanta,
ta danari laguntzen
biotz on galanta;
garbi esaten dizugu,
ain zera aparta;
erbestera're sarri
zaude aterata,
zu an zerala ez baidu
iñork ezer falta.

9

Izan ere zerade
ain biotz zabala,
eta jakinduria
ezin esan ala:
musikalari ona
ta gizon apala,
bertsotan ere dezu
zuk goiko tranpala,
jakinda ainbat izkuntzan
jabe bazerala.

10

Ia Europa geiena
zaude zearturik,
gidari ona zerala
danak oarturik;
joan arren autobus
aundian sarturik,
meza ez dezu uzten
iñun baztarturik,
emengo kaliza ta
patena arturik.

11

Baiña ainbat maiterik
Sorkundeko errik,
ekarri dizkizugu
biak berri-berrik,
merezik dituzula
baigaude igerrik,
eta eman bearrik
ez dezu eskerrik,
borondate au ez dedin
gertatu alperrik.



Joxe Antonio Aranzadi, *Ezkió-Txiki* bertsolaria.

(1998)

Joxe Antonio Aranzadi ***Ezkio-Txiki* bertsolaria**

Ezkio-Txikiren entzutea amabosten bat urte nituenerako bannen nik, aren adin bereko seguratar batek kontatua. Ni bertso-tan edo lardaskan ari nintzan, eta onela esan zidan:

–Ezkio-Txiki izango bau entrenatzeko, ark jarriko induke martxan i ere.

Eta orduan kontatu zidan oso poliki egiten zuala bertso-tan, eta indarra ere aundia zuala, aren gorpuzkerari begiratuta ez eman arren. Arriren bat-edo jasotzen ikusita zegoan ura nonbait, baiña bertso-tan oso ondo moldatzen zala. Eta nik auxe esan nion:

–Lazkao-Txikirekin bixki izateko modukoa dek orduan.

Eta ark:

–Bai; Basarriekin eta Mitxelenarekin baiño berdiñago uzta-rrirako; baiña txiki aundia dek Ezkio-Txiki.

Baiña garai artan geure erritik gutxi irtetzen giñan, eta nik ura ez nuan ezagutu ogei ta bat urte izan arte. Berak ogei ta berderatzi zituan. Zortzi urteren aldea, beraz.

Beasaiñen, Loinaz jaietan, nonbait berotu samar ibiliko eta bertso-saio luze bat egin genduan, orduan gure modukoak aritzen ziran modura. Berriz ere laster egitekotan partitu giñan, baiña etzan ala izan. Orduan ere urteak azkar joan ziran nonbait.

Eta 1962-an txapelketa nagusirako aurre-kanporaketarako saioak antolatu zituzten Euskal Erri osoan. Gipuzkoan sei bat lekutan jarri zituzten, eta orietako bat Beasaiñen; amasei erritakoak bilduko giñan bertara, eta an zan gure Ezkio-Txiki ere. A zer abotsa zeukan! Ogei ta amabost urte izango zituan. Iraillean izan zan eta talde dezentea giñan. Goizeko saioan lau aukeratu zituzten arratsalderako: Lazkao-Txiki, Ezkio-Txiki, Jesus Eskisabel (Legorretako Jainkoa) eta ni neu. Arratsaldean ere saio luzea egin genduan, eta saiorik onena, nere ustez, bi txikiak alkarrekin jarri zituzten batean egin zuten.

Lazkao-Txiki makiña bat bertso kantatuta izango zan ordu-rako; bertsolari ikaragarria zan ura eta saio artan ere bertso bat bota zuan aparta; baiña Ezkio-Txiki ere etzan parregarri geratu. Jakiña, bat oso ondo ari danean, besteak lanak izaten ditu asko nabarmentzen. Azkenean, uste zan bezela, Lazkaomendira joan zan txapela. Beste irurok ez genduan alde aundirik izango. Neri bigarrena eta Ezkio-Txikiri irugarrena eman zioten. Txapelketa ura bukatzean, sarri alkarrekin entrenatzekotan geratu giñan; baiña oso gutxitan alkartu giñan.

Berrero ere 1964-an beste txapelketa bat etorri zan, leen aipatutakoaren antzekoa. Orduan ere sail dezentea bildu giñan. Berriz ere arratsalderako aukeratuak izan giñan; eta, amaika bertso kantatu ondoren, Ezkio-Txikik eta biok jokatu genduan ango txapela eta kopa, kartzelako gaia emanda. Aurrena neri tokatu zitzaidan kantatzea, eta sekula baiño urduriago ikusi nuan Ezkio-Txiki. Alde aundirik ez genduan izango, baiña leenengo saria neuri eman zidaten.

Andik pixka batera, Abenduaren 6-an, Eibarren kantatu genduan. Ezkio-Txikik nere ustetan etzuan bererik eman, eta etzuan Tolosara joateko bear adiña puntu lortu.

Andik bi urtera, mota onetako txapelketa geiago izan zan, baiña Ezkio-Txiki etzan azaldu, gaixorik zebillelako-edo; baiña zorionak eman zizkidan. Txapel premirik aundiena neronek neukala esan nion, ille gutxi bainuan, eta orregaitik eman zidatela.

Onela erantzun zidan berak:

–Kanpoa zuritua eta ajeatua, baiña barrua sana daukazu zuk, eta segi aurrera!

Baiña nik ere laster utzi nion kantatzeari zintzurreko arazoengatik, naiz eta gerora ere aritu naizen.

1
Joxantonio Aranzadi,
zu Ezkio-Txiki,
luzaro izan zera
bertsoaren bixki;
gaur zuregatik nai det
aoa iriki,
asmatzen baldin badet,
poliki-poliki.

2
Mundu ontako lanak
zeranez egiña,
bertsoz agurtzea det
gauzik egokiña;
zerbait ezagututa
zure etekiña,
etzaitut goralduko
merezi adiña.

3
Beasaingo errian
ezagutu giñan,
afari bat egiten
maiaren ixkiñan;
postren bertso-saioa
genduan egiñ an,
arrazoitsua eta
garbosoa ziñan.

4
Berriro Beasaiñen,
txapelketa baten,
zintzo jardun giñaden
genduna ematen;
etzegoan erraza
txapela eramaten,
Lazkao-Txiki ere
an zalako tarten.

5
Baten tokatu ziñan
Lazkao-Txikikin,
eta etziñan jardun
baldar eta zikin;
abotsetikan zoli,
etorritikan fin,
naiz zu txepetx geratu
ta bestea pinpin.


6
Esertzean olaxe
esan zidazun zuk:
“Orren paren zer dira
nere bertso aluk?”.
Baiña erraz azteko
joandako damuk,
bigarren ta irugarren
egin genduan guk.

7
Andikan bi urtera,
Beasaiñen bertan,
berriz tokatu giñan
biok txapelketan;
punturik ezin kendun
alkarri ezertan,
gero ibili bear
kartzelatik bueltan.

8
Kartzelako gaietan
baziran komerik,
iñoiz lanen fiñago
jardun al dute bik?
Baiño txapel premia
nedukalako nik,
Alfontso esan zuan:
“Joxentzat bear dik”.

9
Ola ibili giñan
gu alkarren kontra,
garai artan askorik
etzigun inporta;
parranda latzak ere
oi giñuzen bota,
lan utsetik umore
onik ez dago-ta.

10
Zu ikusteko pozez
maiz egoten nintzan,
iñoiz ez-bai txikiñik
ez genduan izan;
bigarren Ama ortxe
zendunez Kizkitzan,
berak lagun deizula
betiko bizitzan.



Nora eta Ioritz billobatxoakin, 2002-I-24-an.

Bost illabete eskax dauzka Norak, eta 48 egun Ioritzek,
Baiña ia esan diteke badakitela zertarako dauden nere besoetan.
Auei jarritako bertsoak 343 orrialdean arkituko ditu irakurleak.

(1998)

Iru laguni omenaldia

1998-ko Azaroaren 18-an omenaldi xume bat egin zitzaien Joxe Goia, Milagros Elortza eta Leandro Telleriari. Aurrenekoa, Goia, organista-lanean urte askoan Seguran aritu dana; Milagros, berriz, beti elizako lanetan gelditu gabe jarduna; eta Leandro, bateko sakristau, besteko linternerero edo ez dakit zenbat lanetan aritua. Debalde antzera irurak ere.

Omenaldi ontan aldaratik bertso auetxek gutxi gora-beera kantatu nizkien, eta eskerrik beroenak irurei biotz-biotzetik.

1
Milla beatzireun larogei eta
emezortziko Azaron,
Santa Zezili igande ontan
entzun Seguran zer dagon:
emakume bat eta bi gizon
gaude omentzeko asmon,
naiz bear aiña eskertutzeko
saririk iñun ez egon,
nola zeraten gure errian
egindakoak ainbat on.

2
Irukotikan dizdiratsu bat
zu zerade, Joxe Goia,
Zunzunegi ta Don Bizentekin
artutakoa sasoia,
Ondorenean aurkitutzean
guztia erdi eroia,
zu izen zera gure koruko
nagusia ta morroia,
besteak beste bat ori da gaur
omen onen arrazoia

3
Beste bat ere langille fiña
da Elortzatar Milagros,
elizakok ta eliza jazten
beti egon dana ados.
Aldare gañen ere jarri zun
ainbat krabelin da larros,
utsaren truke lan egiteko
Jaunak sortua apropos,
gure ustetan merezi dezu
oberenak ainbeste ots.

4
Danetan arrigarriña berriz
Leandrok egin dun ura:
berak izan du monagillo ta
sakristautzaren ardura.
Bateko kanpai edo aberi,
noiznai joanaz tellatura,
jornal-diruak aldatzen lanik
ez dezu *euroen* lekura,
debalde eliza ondo zainduaz
serbitu dezu Segura.

Zuek goratzen jardun gindezke
bizi geraden bitarte,
alaxen ere bear ainbeste
eskerrekin ezin bete.
Zuengatikan gure eliza
dagolako orren tente,
gutxigorekin monumentua
amaikatxok badaukate,
baiña egizko monumentuak
zuek irurok zerate.

(1999)

Maria Antolina Ugalde Gabilondori eun urte bete zituan egunean

(Doiñua: Markesaren alabarena.)

Leen eun urte egindako gizon bati bertsoak eskeiñi dizkio-
gun bezela, orain adin bereko emakume batentzat ditugu.
Zeraindarra zan jaiotzez, eta eun urtera iritxi zan 1999-ko Irail-
llaren 2-an.

Neri bertsoak eskatu zizkidaten, omenaldi kokkor bat egin
nai ziotenez, eta auek jarri edo moldatu nituan.

1
Milla zortziregun da
laroe ta emeretzin,
Zeraingo errian,
Irailaren bin,
Aizpeko Goikoetxe
deitzen dan baserrin,
neska txiki politak
zuan agur egin.

2
Maria Antolina
izena ipiñi,
etzegon ukatzerik
au San Antoliñi;
eun urteko laguntza
berak dizu eskeiñi,
ori etzaio gertatzen
mundun edozeiñi.

3
Sukalde goxo baten
ziñaden zu azi,
da euskera xamurra
bertantxe ikasi;
aurreneko otoitzak
bizitzai erantsi,
zure bizi zuzena
ola zendun asi.

4
Gaztetatik probatu
zendun neskametza,
ordun etzan gaur aiña
lujo ta laiñeza;
agindutako lanai
emanaz baietza,
onartzen ikasten zan
zuria ta beltza.

5
Askotxo neskametza
egiñak orduan,
baiño ainbat urtean
ez, zure moduan;
Jesusen ministro bat
nagusi zenduan,
kemen ori ez dute
guztiak munduan.

6
Apaiz jaun sonatua
zan Dan Xerapio,
zuk serbitu zenduan
umil da serio;
ekintza onak dute
azkenen balio,
baiña zuk mundu ontan
segi oraindio.

7
Orain lan ariñagok
egingo dituzu,
baiño eun urterako
zaude osasuntsu;
eta jende guztiak
gogoko zaitu zu,
nik ere eman nai dizut
biotzez bi muxu.

8
Mende bat mundu ontan
gaur dezu egiña,
eta pasatu zazu
leiken egokiña;
da etsi gabe gorde
bizitzeko griña,
guk ola opa dizugu,
Maria Antoliña.

(1999)

Aita Antonio Zavalari,
doctor honoris causa
izendatu zuten egunean

Bertso auek nere lagun Antonio Zavalari egiñak dira, bada-
kit ez dala gorantzak eta tituluak artu-zalea baiña. Bestela, lena-
go ere jarriko nizkion, berak egin eta egiten ari dan lana ikusita.
Bidea auxe izan zan: 1999-ko Azaroaren 17-an, *doctor honoris*
causa izendatzeko ekitaldi ospetsua. Garaian artu nuan nik ere
Deustura ospakizun ortara joateko deia; baiña iñola ere joaterik
ez nuan izan, eta orduan bertso xume auetxek moldatu nituan;
eta emen dijoaz, nai dituanak irakurri.

¹
Zorionak, Zavala,
biotzez Insaustik,
pozakin ditudala
bi begiak bustik;
txiki gelditzen dira
izendapen guztik,
orrenbeste bertso zar
jotzean eguzkik;
aundiña zu zerade
zeruaz onunztik.

²
Milla beatzireun da
laroe ta emeretzin,
Azaron amazapiz
mutu egon ezin;
gizon bat ikusita
ain leku berezin,
naiz zuri ez gustatu
iñoiz dotorezin,
noizbait sartu zaituzte
jakintsuen esin.

³
Neretzat ere deia
garaiz iritxi zan,
naiz gauza gutxi izan
ni bertsolaritzan;
penaz ez nuan bera
betetzerik izan,
baiña egun guztian
adi egon nintzan,
zuri eskeiñitako
egunan bizitzan.

⁴
Telebistan ikusi
zaitut ain dotore,
nola egin zaituzten
honoris doctore;
zurekin dezulako
ainbeste adore
sasi artea pranko
biurtzeko lore.
irabazita zeunden
millaka oore.

5

Zenbat sasi artetan
lanean debalde,
atsedenikan gabe
goiz ta arratsalde,
gaua ere berdintsu
kulturaren alde,
bilduaz galdutako
ainbat bertso-talde,
poztuko dituztenak
amaika sukalde.

6

Ainbat bertso zar eta
ainbat pasadizo,
erdi galdun zeudenak
an emenka gaixo;
da aiton-amonakin
zenbat itzalditxo,
gero artxiboetan
begiratu txintxo,
gizon bakarrarentzat
naiz izan lan geitxo.

7

Nork zekin bertso jartzen,
nork zekin abesten,
billatzen jardun zera
batean da besten.
Zeiñek daki orretan
Zavalak ainbesten?
Gertura ekarriaz
zegona erbesten,
zuk jakin dezu ondo
kultura babesten.

8

Gradu aundietara
zerade iritxi,
zabaldu dezulako
orrenbeste pitxi,
argia emanikan
ainbat milloi itzi;
baiño lanan atea
oraindik ez itxi,
Jaunak nai duan arte
orrelaxe bizi.

Jesus Mari Imaz zanari

Jesus Mari Imaz, ni bezelaxe, 1935-ean jaio zan; eta emen, Segurako kalean, igaro zuan bere bizitza.

Aita ere zerbait bertso jartzen aritzen zana zuan: Joakin. Jesus Mari au, berriz, poliki moldatzen zan nunai kantatzeko ere; eta emezortzi bat urterekin asita sekulako saioak egiten genituan biok emengo tabernetan, orduko modura.

Au esaten det, orduan alkarri aundi samarrak esatea zegoa-lako modan gure alde ontan. Ordurako, Basarrik eta oiek diplo-mazi aundiarekin kantatzen zuten; baiña guk, rimatzen eta go-zatzen burua nekatu bearrean, alkarri disparteak esaten neka-zen genduan.

Orduan aretxek egin ere egiten zuan grazirik aundiena, eta iru edo lau orduan igual jarduten giñan.

Baiña ez giñan sekula denbora luzerako asarretzen; eta, urrena biltzen giñanean, len bezin lagun eta onelaxe kontuak.

Aurreneko aldiz plazan ere biok batera kantatu genduan, eta au Ordiziko bertso-sariketa batean zan, len ere badet esana, eta 1960-garren urtean. Baita txapelketa nagusirako aukeraketan ere, 1962-an, Beasaiñen. Ondo bustita joan giñan etxera.

Beste sariketa batean ere, Zumarragako Antiguan, alkarrekin izan giñan, eta ez dakit besterik izango zan. Baiña gero, orain-dik gazterik, plazan ibiltzeari utzi egin zion. Baiña tabernan azkar asten zan, eta sarritan jardun izan giñan, 1997-ko Abuztua-ren 13-an il zan arte, irurogei ta bi urterekin.

Illetako meza-garaian, emen Goierriko bertsolariak bertso bana kantatu gi ondun.

Beraz, pakean atseden dezala, ildakoari besterik ez dago egi-terik eta.

1

Bertso batzuek nola ez kanta
Jesus Maria Imazi?
Len ere alkarri esanak gera
makiña bat geza-gazi.
Burura etortzen zitzaigun dana
oi genduan adierazi,
orduan alakoxe bertsoak
egin izan zuten grazi,
eta pozikan jarduten giñan
naiz-ta gutxi irabazi.

2

Urte berean genduan biok
lurreko argia ikusi,
eta irurogei ta bi urtekin
zuk mundu au zendun utzi.
Baiña egitan Insausti ez da
oraindik oroitzen gutxi,
orduko bertso eta txisteak
sarrri oi naute igurtzi,
begik ixtean ikusten zaitut
zure umore ta guzi.

3

Nik ametsetan amaika bider
izaten zaitut onduan,
lengo kontuak gogoan Joxek
erdi zartu dan orduan.
Amaika baso ardoi bizitza
kendu izan gionduan,
lana bakarrik egindakoak
beraz ez gera munduan,
baiña oraingo aukerarekin
geiago egingo genduan.

4

Neskak askotan sartzen giñuzen
gure bertsoetako gaian,
gaiñerantziko atsegiñ oiek
pekatu ziran garaian.
Lana egiteko pitxar bat ardo
guk naikoa gendun maian,
eta bizitza igaroko det
berriro alkartu naian,
aukerarikan baldin badegu
Josefateko zelaian.

Bertso Berriak gure billobatxoai jarriak

1
Bertso berriak dauzkat
burura etorriz,
nola igoa naizen
orain kategoriz.
Biderik asko badet
gaur egiteko itz,
ondoan ditudala
Nora ta Ioritz.

2
Abuztuan oetamarren
bi milla ta baten,
Norak utzi giñuzen
zorionez beten;
ta Abenduan zazpian
Ioritz gure arten,
poz-malkoak ez dauzkat
oraintxe aparten.

3
Bat erraiñak izan du,
alabak bestea,
ta gurean jarri da
zorion-festea.
Auek utzita nola
joan erbestea?
Askotan gauerako
uzten det siestea.

4
Eun egunen barruan
bi aldiz aitona,
guretzat iritxi da
izenik goxona.
Naiz lotarako jarri
ondoan amona,
ez dago neurtzerikan
gure zoriona.

5
Leku txarren ez dira
azaldu txikiok,
oso ume-zaleak
baigera guztiok.
Auen parre goxoak
dauzkaten baliok,
txoratutzen gaituzte
andrea ta biok.

6
Naiz len ere egon gu
umeak azita,
nola zan nengoan ni
aztutzen asita.
Ederki etorri da
txikion bixita,
gaztetzen ari gera
berakin bizita.

7

Zenbat muxu artutzen
dituzten auskalo,
naiz eta amak esan
paken uzteko lo.
Alare batek txistu
ta besteak txalo,
ondo merezi dute
ainbat erregalo.

8

Naiz gurasoak izan
umek azteko gai,
aiton-amonak ere
olaxe ibilli nai,
billobak azi nairik
goxo eta alai;
gaizki noiz ibillia
izango dute, bai.

9

Bearbada txarra da
mimatzea geitxo,
baiña nola ez azi
umetxoak goxo?
Maitasuna ikustea
txikitatik gaixo
ez da bide ederra
bizitzeko txintxo.

10

Bi aiton zebiltzala
bein billoben kargu,
batek dio: “Azken lana
oraintxe daukagu”.
Laixter erantzun zion
besteak ondradu:
“Okerrago izango da
berak zaitzea gu”.

11

Batzuk ume zaitzea
naiz jo arlotea,
neri iruditzen zat
egizko dotea.
Naiz litekena dan ni
oker egotea,
ez det errez utziko
gure bikotea.

12

Bukaera emango
diot onetxekin,
kantun jardun da gero
ainbeste pozekin,
gure billoba Nora
ta Ioritzekin,
gero oroitu ditezen
aitona Joxekin.

Gaia emanda

Amaren estalkitxoa

Euskadi Irratiak jarri zuan *Pernando Amezketarra* leiaketa-rako entrenatzen genbiltzala, batek amaren buruko estalkiari iru bertso kantatzeko agindu zidan, eta olamoduz kantatu nituan gutxi gora-beera, ama ilda genduan ordurako eta.

Zuretzat iri bertso badauzkat,
amaren estalkitxoa,
nola izan ziñan bizi izan arte
beraren lagun txintxoa;
ta oraindik ere zu ortxe zaude
kofre batera jaso,
baiña zu ibiltzen ziñan burua
lurpean dago gaixoa.

Txuri-beltz edo pinttoa zera,
neurria laukiarena,
amaika aldiz aren buruan
txukun ibilli ziñena;
ta oraindik ere oroitutzen naiz
izan leiken zuzenena,
baiña aren burun ez egoteak
orrek ematen dit pena.

Ezpaiñak dar-dar, biotza ere bai
ta aoa ezin erabili,
oroituzean ainbat urtean
zu ziñutzena ibili.
Baiña alare, estalki, eskerrak
naiz dizkizut gaur bidali,
nere amaren buru on ura
zendualako estali.

Pello Errotaren makilla

1967 urtean edo orrela zala uste det, baiña ez nago seguro. Zaldibiko Jose Mari Aranburu bertsolariaren ezta-egunean, andrea Alkizakoa du eta bazkaria Asteasun zan. Ango lanak bukatu ondoren, gero tabernan batek gai auxe jarri zidan, urritz-makilla bat erakutsiz:

–Kontu egin zazu au Pello Errotak azken urteetan bertsotara joateko ibiltzen zuan makilla dala, eta bota iru bertso.

An ez nituan berdin-berdiñak kantatuko; baiña etxera bidean zuzendu eta ondoren papeleratu nituan.

Bertsolari aundia
zan Pello Errota,
Jainkoak bidalia
Asteasu onta;
ta sasoia joatean
zartzaroak jota,
artean zenbat bertso
ote zuan bota
gorputza arrimatuaz
makillaren kontra?

Ernio mendikoa
dan urritz-makilla,
azal txuriarekin
keraz biribilla
amaika aldiz egiña
laguntza isilla.
Nora joan bat lagun
obearen billa?
Beraz, makillatxo,
zuri esker milla.

Erniopeko urritz-
-makilla zimela,
pentsa Pelloren lagun
zu izan ziñela;
Pellok ibiltzerikan
etzeukan bestela,

uste det mirari bat
egin zenduela,
San Joseren makilla
igarrak bezela.

Loa

Beste erri askotan *luistarrak* bezela, Seguran gazteak *antonio-tarrak* izaten giñan, eta San Antonio gertuko jaiean ospatzen genduan gure festa. Urte artan, berriz, Lazkao-Txiki eta biok kantatu genduan; 1964-a zala uste det. Ni gauean fabrikan lana eginda nengoan, eta bazkalondoan ezin loari eutsi, eta batek esan zidan:

–Botaiok loari iru bertso.

Eta Txikiak:

–Ori baiño obe likek loa botatzeko erremedioa.

Baiña ala kantatu nituan; baiña auk dexente konpondu be- arko nituan gero. Logurea ez da lagun ederra burua argi eduki- tzeko; eta bestela ere, berriz, ni ez naiz Lazkao-Txiki.

Auxe da gai polita
zaidana iritxi:
loaz eman bearra
iru lau iritzi.
Lo-paltak sarri baidit
nei begiak itxi,
ainbat parranda nola
dedan nik iritsi,
eta ez leike iñor
lorik gabe bizi.

Lo bear du pertsonak
irutatikan bat,
naiz sarritan ibilli
egin gabe ainbat.
Ni ere gutxiago
eginda nago bart,
eta begiondoak
gorrituak dauzkat,
ta burun ere karga
latza badaramat.

Bai; ezin leike bizi
lo gabe pertsona,
ta gauez egiten da
lorikan goxona;
eta zortzi bat ordu
da tamaiña ona,
ala osatuzen da
andre edo gizona,
baita iritxi ere
atseden osona.

Arantzako Ama

Gaztetan, leen ere esan dedan bezela, askotan joaten giñan Arantzazura oiñez, Aitzgorri eta Urbiatik. Zapatuan joan eta igandean etorri. Amaika bertso badet bide ortan kantatua; eta, an, apaldondoan, bein, “Arantzazuko Ama” gai emanda, olamoduz kantatu nituan; eta, beti bezela, gero zuzendu eta papelean jarri.

Zuretzat iru bertso,
Arantzako Ama,
al diran egokiñak
nai nituzke asma.
Biotzak ortarako
Zugana narama,
len e arindu didazu
makiña bat zama,
zure eskutan baida
pakearen arma.

Oso mutil koxkorra
ni naizen ezkerro,
bixitatutzen zaitut
uda azkenero;
ta iru agur-mari
berriz egunero,
eta zure laguntza
izaten da gero,
orregatik dauzkatzu
ainbeste bezero.

Gaur ere, Ama, nai dizut
gauza bat eskatu:
odol ixurtze auek
ditezen gastatu;
geiago gorrotorik
ez dedin esnatu,
ta gose diranari
naiko jan prestatu,
ta Euskadi Madrillen
zopotik askatu.

Txantxangorria eta kukua

Baten, txantxangorriak garo-zuatz edo meta batean apia zeukan, edo kabia, lau arraultzakin. Andik pasatu gabe denbora de-xente nuan nik, illabetea igual; eta an ikusten det kukukuma ederra bera bakarrik txantxangorriaren kabian, eta ederki betetzen zuan. Eta ura adoratu eziñik txantxangorria.

Zuretzat iru bertso,
txantxangorritxoa,
nola zeran kukuan
iñude txintxoa;
baiña zure laguntza
da naiko gaixoa:
galdu dizun bateri
famili osoa,
zuk azitzen diozu
bere umetxoa.

Kukuak zure arraultzak
ondatutzen ditu,
bere aundia dedin
kabian gelditu;
alperra dala beti
oi zat iruditu,
ume bat eta ura
azten ez aritu,
ez maitetasun onak
eduki balitu

Zu, txantxangorritxoa,
onegi zerade,
zure egintzat beintzat
alaxe dirade:
gaizkilleai laguntzen
baizabiltz debalde;
makiñatxo bat aldiz
arritzen gerade,
edo zu ere zabiltz
aundiaren alde.

Ametsa

Ametsa gaia bein Atxukarro zanak jarri zidan. Itza errez zuan arek, eta gaiak zeukan elduleku politen bat ere berak esaten zuan askotan. Baiña, nere ustetan, ori ez da ona. Gaiak motxa edo itz gutxikoa bear du. Ementxe ere auxe esan zidan. “Munduko neska politenarekin lo egitea tokatu zaizula ere amestu liteke”. Bertso auek ere gero zuzendu nituan, besteak bezelaxe.

Iru bertsoren gaia
jarririk ametsa,
sarri gertatzen dana
naiko aldrebesa;
bearrezko izan arren
lo onan babesa,
nik bart gaua izan det
naikoa traketsa:
legoi bati igesi
estu eta presa.

Baiña amets politik
batzutan badira,
aietxek deskuidoan
egiak balira!
Neska gazte bat sartuz
oiaren erdira,
gero maiteminduta
buelta eta jira,
gaztetan olakoxek
gertatutzen dira.

Naiz-ta olako batzuk
noizean bein presta,
etorkizun aundirik
ametsetik ezta.
Sarri bai galdu gaua
ta berdin siesta,
eta egitekotan
ametsen inkesta,
orren probetxua da
galerako pesta.

Karnabalak

Beste iru bertso auk, amarreko txikian auk ere, ain fama-
tuak eta ezagunak diran Tolosan Karnabaletan izanda, etxera
etorri eta papeleratu nituan, festa oien arrazoia nere ustez adie-
razi naian.

Iru bertso Karnabal
jaiari begira
naiago nuke ondo
irtengo balira.
Negu azkenean gera,
laiste udaberrira,
eta baso-mutil da
artzaiak mendira,
nere ustez oriek
agurtzeko dira.

Baita ere izan leizke
jai auen sustraiak
udaberriak ditun
egun-sail alaiak,
pasatu diralako
gau luzen garaiak,
eguzkiak arturik
gora egin naiak,
ta ari eskeiñitzeko
jarritako jaiak.

Kristautasuna baiño
len zituzten jarri,
naiz garizuma gero
Elizak ezarri.
Baiña edozein modutan
dira txalogarri,
nola mozorro ala
soiñu ta txintzarri,
ikusten da amaika
gauza parregarri.

Plako bati

Lodiak ajolagabe xamarrak giñala eta geure burua besterik ez genduala maite izaten esan zidan batek, neroni ere aspalditik kopradi ortakoa naizenez. Lau bertso kantatu nizkion orduan, onako auek, alde gutxirekin. Bera, berriz, ezagutzen zutenak neri esan zidatenez, gutxi jan eta dirua aurreratzearen mixerian bi zi omen zan.

Plakoa, daukat garbi
itz egin bearra,
ez dadukazulako
plantaje edarra.
Gorputza estua ta
kokote melarra,
ia ematen dezu
murkoko belarra.

Nik ez det sinistutzen
zure fintasuna,
ezta ere gugatik
pentsatzen dezuna.
Inbidia da ermo
zuk dadukazuna,
eta goseak zabiltz
galtzen osasuna.

Plakau omen zerade-
bestei lagunduta,
nik ere ez det jaten
iñori kenduta.
Beraz, jarri zaitea
pixka bat leunduta,
bizitza pasa gabe
gaizki mantenduta.

Kontatzen besteari
egindako onak
jarduten dira zure
antzeko gizonak.
Nola aseko ditu
auzoko pertsonak,
bere buruai gutxi
oputzen dionak?

Bat-batekoak

Liburu ontako bertsoak, dozena erdi bat ez beste gaiñera-koak, jarriak edo denborarekin egiñak dira geienak, naiz-eta batzuk bat-batean berdin xamar kantatuak izan. Iru oraingo auek bat-batekoak dira eta txapelketako estuasunean botatakoak.

1964 urteko Abenduaren 13-an, Santa Luzia egunean, Tolosan, *Leidor* antzokian, Alfontso Irigoienek puntua:

Errenta pagatzeko
badator eguna...

Nere erantzuna:

Nik orri jartzen diot
kopeta illuna.
Ia egonagatik
urte dana juna,
ezer gutxi da aurtan
sobratu zaiguna.

Beste au ez dakit Beasaiñen edo Ernanin edo beste nunbait kantatu nuan, seguro esateko; baiña onela zala bai, eta kaseteren batean or egondo da.

Puntua:

Merkatzen ari dira
apaizen sotanak...

Nere erantzuna:

Nola trajez jantzita
asi diran danak,
beteaz Kontzilio
jaun ortan esanak;
aurki ezagutzen ere
baditugu lanak.

Beasaiñen, bein batean, azken puntua onela jarri zidaten:

Gosaldutzeko ez det izaten
txanpon biren balioa.

Nere erantzuna:

Gaztetatikan izanagatik
lanerako jenioa,
sinistu gero damarkidala
bizimodu serioa.
Ez naizelako mundu ontara
suertosoia jaioa,
gosaldutzeko ez det izaten
txanpon biren balioa.

Aurkibidea

Itzaurrea

Nere orain arteko bertso-mundua

Gure baserri berria

Bertso Berriak Segurako erriari jarriak

Ogei urte

Otsailleko eguraldi bildurgarriari

Soldaduskatik egindako karta

Gure baserri zarrari

Segurari 1959-ko udaberrian jarriak

Nere munduratzea

Maixu-eskolako berri

Gaiñontzeko ikasketak

Gaztetako lanak

Aitona baten esanak

Bertso berriak 1963-ko eguraldiari jarriak

Otsail on eta txarrak

Arabe ta judutarren gerra

Endañeta arri-jasotzailleari buruz

Segurako ostegun eta ostiral santu egunetako ibildeun edo prozesioak

Sokatira

Oarra

Nere aitona Joxe Inazio Insausti zanari buruz gaztetan jarriak

Nere amona Justa Gerriko zanari, 1953-garren urtean
Gure aurreneko semetxo zanari
Gure aita zanari
Gure ama zanari
Bertso berriak nere buru soillari jarriak
Bertso berriak txapelari jarriak
Segurako irratiazen itxi eta zabaltzea
San Joanetarako
Gabon-kantak
Laukote zelebrea
Bertso Berriak besteei on egiteari buruz jarriak
Bertso Berriak Aitzgorri mendiari jarriak
Arantzazura erromes
Bertso Berriak aizkora-txapelketa bati jarriak. Arria II
txapeldun
Bertso Berriak gure beor Petrari jarriak
Bertso Berriak nere bertsolaritzari buruz 1980-ean jarriak
San Juan arbola
Gure txakur *Txiki*
Donostiako Aste Nagusian
Eun urteko aiton bati omenaldia
Errealaren 1981-eko azken partiduari jarriak
Bigarren txapela
Pelota-leku berria
Lazkao-txikiri
Mendizabal eta Mindegiaren aizkora-apustuari jarriak
Tejero eta lagunak
Segurako udaletxe berriari
Gure erritar Martin Alustizak bigarren maillako txapela
pelotan irabazi zuanean jarriak

Nere Ioditasunari
Oiz mendian eroritako abioiari
Pernardo Amezketarra saria
Ikasteko garairik onena
Bertso Berriak 1985-eko eguraldiari jarriak
Bertso Berriak Alemaniako bidaiari jarriak
Etxe azpiko makatzari jarriak
Mikel Mindegia aizkolaria
Iñor osorik ez
Eztai-apariaren errematea
Iñaki Perurenari
Gillermo Areizaga zanari
Bertso Berriak alperrari jarriak
Garai bateko morroiak
Artazuriketa
Bertso Berriak aurtengo elurteari jarriak
Paotxa
Bertso Berriak eiztari eta eizari jarriak
Etxe ondoko gaztaiñondoa
Bertso Berriak, altzairutegi edo fundizioan berrogei urte-
an lana egin da gero suari jarriak
Garai bateko bizimodua
Ikasi ta ikasi
Maitasunari buruz
Neska baten gertaera
Eguzkiari
Santa Agedako koplak
Kontzientzia
“Badakigu euskeraz”
Aita Karlos Urbietari

Jose Antonio Aranzadi *Ezkiio-Txiki* bertsolaria
Iru laguni omenaldia
Maria Antolina Ugalde Gabilondori eun urte bete zituan
egunean
Aita Antonio Zavalari, *doctor honoris causa* izendatu
zuten egunean
Jesus Mari Imaz zanari
Bertso Berriak gure billobatxoai jarriak
Irunaka

Auspoa-ren azken liburuak:

265 Bizente Barandiaran:
Tratabideak

266 Sor Justina Aldalur: *Ama Birjiñaren bizitza*

267 Ataño: *Ondareztat gorrotoa*

268 Mariano Ostolaiz: *Senda-Belarrak*

269 Tomas Gerrikagoitia:
Arantza eta Larrosa

270 Andoni Basterretxea: *Ene Ondarru*

271 Salvador zapirain "Ataño":
Jesusen Bizitza

272 Mikel Aizpurua: *Hasi, Azpillaga*

273 Emile Larre: *Ene artzain etxolak*

274 Joxe Mari Aranalde:
Xalbadorren barrua

275 Joxe Lizaso: *Nere aldiko kronika*

276 Jose Insausti: *Beti bertsoa buruan*



Jose Insausti Urbizu bertsolaria 1935 - XI - 8-an jaio zan, Goierriko biotzean, Segurako errian, Aizkoeta baserrian; bertan egin ditu aurtzaroa, gazte-denbora, gizon ezkonduaren eta gurasoaren bizitza, eta aiton-garaia orain eldu zaio.

Bertsolari estimatua da Gipuzkoa osoan, eta Goierri aldean batez ere. XX mendearen bigarren erdian, bertsolari-mordo bikaiña sortu zan lurralde ortan, oietako bat bera izanik.

Eztarriak laguntzen ez eta ez da plazaz plaza gelditu gabe ibili diran oietakoa. Baiña txapelketetan, lagunarteetan eta irratian ere sarritan kantatu duanez, bat-bateko bertsolaritzat artzen da.

Liburu ontan, berriz, bertso-jartzaille bezela agertzen zaigu, milla bertso baiño geiagoko uztarekin. Ogei bat urterekin asi zan, eta azken sailla jaio berriak dituan billobei jarri die. Prosaz ere orrialde asko ditu, bertsolari ez-zezik, prosalari ere badala, eta ez nolanaikoa, erakusten digutenak. Eta ori dana, bertsoa eta prosa, Goierriko euskera jatorrez mamitua.



SEGVRAKO VDALA

